zen, orain eskola bidezko transmisioa eraginkorrago da. Agian eskolako dinamikaren bidez familiako transmisioa berpiztuko da datorren belaunaldian.

Gurasoen jokamoldea

Gurasoak 3 kategoriatan sailkatzen ditugu:

- gurasoak orokorki, eta hauen artean
- guraso gazteagoak (seme-alabek 2-15 urte), eta hauen artean
- guraso gazteenak (seme-alabek 2-9 urte)

Haurren lehen hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera

Lehen hizkuntza:	Guraso euskaldunak			
	Orotara	Biak	Bat	Batere ez
Haur oro euskara; euskara frantsesarekin; frantsesa bakarrik.	(238.000) %20 %5 %75	(67.660) %68 %12 %20	(33.564) %1 %14 %85	(137.136) %100
Haurrek 2-15 urte euskara; euskara frantsesarekin; frantsesa bakarrik.	(848) %5 %11 %84	(118) %54 %33 %13	(146) %56 %44	(614) %1 %99
Haurrek 2-9 urte euskara; euskara frantsesarekin; frantsesa bakarrik.	(486) %6 %14 %80	(65) %59 %35 %6	(90) %65 %35	-331 %1 %99

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

1. Lehenagoko bikoteetan biak euskaldun zirelarik %80 haurren lehen hizkuntza euskara zen (%68rentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %20rentzat.

Guraso bat euskaldun zelarik %15 haurren lehen hizkuntza euskara zen frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %85rentzat.

Bi gurasoak erdaldun zirelarik, haur guzien lehen hizkuntza frantsesa zen bakarrik.

2. Bikote gazteagoetan biak euskaldun direlarik %87 haurren lehen hizkuntza euskara da (%54rentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %33rentzat.

Guraso bat euskaldun delarik %56 haurren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %44rentzat.

Bi gurasoak erdaldun direlarik, lehen hizkuntza frantsesa da bakarrik %99 haurrentzat eta euskara frantsesarekin ehuneko batentzat.

3. Bikote gazteenetan biak euskaldun direlarik %94 haurren lehen hizkuntza euskara da (%59rentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %6rentzat.

Guraso bat euskaldun delarik %65 haurren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %35rentzat.

Bi gurasoak erdaldun direlarik, lehen hizkuntza frantsesa da bakarrik %99 haurrentzat eta euskara frantsesarekin ehuneko batentzat.

Laginaren aldetik 3. multzo honetako emaitzak dudazkoak badira ere, itxuraz, familia bidezko transmisioa hobetuz doa, bikote euskaldunekin, bai eta euskaldun-erdaldun bikoteekin ere:

- bikote euskaldunekin, haurrak euskaldunak dira %80, 87, 94;
- euskaldun-erdaldun bikoteekin ere haurrak elebidunak dira %15, 56, 65.

Familia bidezko transmisioa Hizkuntza Politika Proiektuaren lehen eronka da: «familia, euskara transmititzeko tresna estrategiko gisa mobilizatzea». Horretarako norabide estrategikoak ziren familiak laguntzea euskara jarraikiarazten: gurasoen hizkuntza gaitasuna hobetuz, lagungarri diren tresnak eta baliabideak sortuz, esperientzia eraginkorrak trukatzuz.

Euskararen Erakunde Publikoaren eragina zeharkakoa izan da: alde bate-tik proiektu deialdien bidez, guraso elkarteek parte hartzen dute eskola in-guruan antolatzen diren euskararen erabiltzeko ekintzetan. Ondorioz esko-

la eta familien arteko sinergia motibazio nagusi bat bilakatu da euskara jarraikiarazteko. Bestalde, hizkuntza teknikariek, Herri Elkargoen onarpenarekin, sentiberatze ekintzak eraman dituzte aita-ama berriein eta guraso-gekin: informazioak, opari pedagogikoak eta beste.

Hautzaindegia eta etxe hartzainak

Lehen hartzaroa hizkuntza politikaren bigarren erronka nagusia da: lehen hartzaroko egiturei eta profesionalei euskararen transmisioa sustengatuko duen zerbitzua eskaintzea. Norabide estrategikoa da lurralde osoan familiei beren haur ttipientzat euskarazko zerbitzuak eskaintzea hartzaindegia sarean, bai eta ama-laguntzaileen edo etxe hartzainen bitartez ere. Gainera, beharrezkoak dituzten konpetentziak eta tresna pedagogikoak eskaintzea. Zer da gauzaturik?

Lehen lana izan zen egitura bat eraikitzea, politika publikoa garatzeko gai honi buruz. Ondorioz euskarazko hartzaindegia «labelizatuen» egitura bat sortu da, lehen hartzaroren harrera kolektiboen eremuan, irakaskuntzako ereduaren antzekoa. Partaidetza hitzarmen baten bidez, familien laguntzaz arduratzen diren erakundeek onartu dute eta jadanik lurraldeko harrera-etxe publiko eta pribatu batzuek labelizazioa erdietsi dute.

Geroari buruz etxe hartzainen sare bat antolatzen ari da. Jadanik diagnosia bat egin da: etxe hartzainek haurren %90 zaintzen dituzte eta anitzek euskara badakite. Inkesta baten bidez jakinen da zein diren euskaraz lan egiteko gogoia dutenak.

Transmisioa eraginkortzen segitu behar da familia bidezko transmisioa beste transmisio bideekin uztartuz, kate oso bat indarrean ezarri, etxean, hartzaindegian, eskolan.

Euskararen erabilera

Inkestan euskaldunen mintza-jokabidea aztertu da bost mintzamolde bereiziz, bi hizkuntzen kantidaden erlatiboaren arabera. Hemen hiru mintzamolde laburbildu ditugu:

- euskal mintzamoldea beti euskaraz ari denarena, euskaraz frantsesez baino gehiago edo berdin bi hizkuntzetan;
- noizean behingo euskal mintzamoldean aldiz euskara frantsesa baino gutiago erabilia delarik edo oso gutiago;
- erdal mintzamoldea beti frantsesez ari denarena edo ia beti.

Euskararen erabilera harreman eremuetan

Hemen kontuan hartzen ditugu Ipar Euskal Herriko 51.100 euskaldunak. Hiru harreman eremu aztertu dira: familia, gizarte hurbila eta zerbitzu publikoak.

Euskaldunen mintzamolde harreman eremuetan (%)

Harreman eremuak	Euskaraz gehiago edo berdin	Euskaraz gutiago edo oso gutiago	Beti edo ia beti frantsesez	Euskararen heina
Etxean	49	22	30	43
Bikotean	45	17	37	40
Seme alabekin	48	16	37	42
Gurasoekin	63	12	25	53
Anai-arrebekin	59	12	28	51
Aiton-amonekin	59	13	28	51
Lagunartean	64	21	15	54
Auzokoekin	47	15	38	39
Lankideekin	59	15	26	49
Ikaskideekin	31	9	61	26
Saltegietan	28	19	53	25
Udaletxean	37	16	47	32
Administrazioan	2	5	92	2

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Azken zutabeen hitzun guzien hizkuntza erabilera kuantifikatu da. Mintzamolde ezberdin bakoitzean euskararen heina neurtu dugu:

- beti euskaraz = %100 euskaraz,
- euskaraz frantsesez baino gehiago = %75 euskaraz,
- euskaraz frantsesez bezainbat = %50 euskaraz,
- euskaraz frantsesez baino gutiago = %25 euskaraz,
- beti frantsesez = %0 euskaraz.

Adibidez «etxean euskararen heina %43» delarik, erran nahi da familiako hiztunen solasaldietan %43 euskaraz egiten direla oro har eta ondorioz %57 frantsesez. Molde honetan ohartzen gara zenbat euskara entzuten den, hemen euskaldunen artean, beste taula batean herritarren artean.

Familian - Euskaldunek familian dute euskara gehienik erabiltzen eta euskal mintzamoldea da nagusi bereziki seme-alaben aldetik, aita-amekin (%63), aitatxi-amatxiekin (%59) eta beren artean (%59). Askoz euskara gutiago gurasoek beren artean (%45) edo haurrekin (%45) eta familia osoa bildua delarik (%43). Dena dela, erdarazko solasaldien proportzioa laurdena eta herenaren artekoa da. Oro har euskarazko solasaldien heina %40 ingurukoa da jende helduen artean, %50 baino gehixeago gazteagoekin, denak euskaldunak direlarik.

Gizarte hurbilean - Lagunartean da euskaraz gehienik mintzatzen (%64). Gutixeago auzokoen artean (%47). Langileek beren artean euskaraz gehiago hitz egiten dute (%59) ezen ez eta ikasleek beren artean (%31). Oro har gizarte hurbileko euskararen heina familiakoarekin konparagarria da, salbu ikasleengan. Beharrezkoa da ikaskuntza erabilerarekin uztartzea.

Hizkuntza formala - Zerbitzu publikoen eremua basamortua da euskararentzat, salbu herriko etxeak (%37) eta auzoetako saltegiak (%28). Euskaldunek frantses hutsa erabiltzen dute maizenik, banketxeetan ala osasun zerbitzuetan (%74 eta %69). Administrazio publikoetan ez da euskararik entzuten. Konparazio honek erakusten du onarpen ofizialaren beharra euskararen garapenerako.

Herriko etheen jarrera baikorrak azterketa berezia merezi du. Udaletxeak dira zerbitzu publikoa ematen dutenak, kanpaina zerrenda luze baten ondorioz. 1950 inguru, Euskaltzaleen Biltzarrak herriko etxeak bultzatu zituen

herrien euskarazko izenak seinaleetan jartzera. 1978an Euskaltzaindiak antolatu zuen «Bai Euskarari» kanpaina, arrakasta handiarekin, Telesforo Monzon, Peio eta Pantxoaren kantu famatua lekuko. 1990ean Euskal Kultur Erakundeak «Euskara Agerian» ekimena abiatu zuen Euskal Kultura sustengatzen duen Herriarteko Sindikatuarekin, udaletxe barneko harrera eta bide bazterretako seinaleak euskaldunduz.

Elkarteen aldetik, 1979az geroztik ikusten ziren Euskal Herrian Euskaraz elkartearen ekintzak, euskararen ofizialtasuna aldarrikatuz. 1999an eta gero eraman ziren Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren «Bai euskarari» kanpaina eta orain «Bai euskaraz». 2001ean Euskal Konfederazioak lagundu zuen «Euskararen presentzia sustatu Herriko Etxeetan» dokumentua zabaltzen, bildumak eta erabaki ofizialak bi hizkuntzetan agertzeko. «Demo»-en ekimen ikusgarriak bestalde.

Urrats handi bat egin zen Euskararen Erakunde Publikoak 2006an teknikarien sarea muntatu zuelarik tokiko elkargoen partaidetzarekin, hizkuntza politika bat eskualdeka antolatzeko. Sare honek bide asko irekitzen ditu: ekimenak ugaritu daitezke; politika publikoa molda daiteke tokiko egoeraren arabera; herriko etxeak inplika daitezke euskararen aldeko urraspide orokorrean, familia bidezko transmisioa, haurtzaindegia, eskola elebidunak. Teknikarien sarea urratsez urrats zabaltzen ari da eskualde guzietan eta atxikimendu handia dauka, dispositiboan engaiatuak diren herri elkargoegandik.

Hizkuntza erabileraren sintesia hiru eremuen bilduma eginez

Euskaldunen mintza-jokabidea. Hiru harreman eremuak banan-banan aztertu ondoren, hiruen arteko sintesia egin da, 1991n asmatu zen «Etxea-Laguna-Formala» tipologiaren bitartez. Eremu formala publiko zabalari buruzko zerbitzuena da. Lehenik azter dezagun euskaldunen mintza-jokabidea eta gero herritar ororena.

Euskaldunen mintzamoldea Etxea-Laguna-Formala tipologia erabiliz (%)

Adin-taldeak Euskaldunak	Iparralde 51.100	65 eta + 19.059	50-64 13.566	35-49 9.268	25-34 4.470	16-24 4.737
Euskaraz gehiago edo berdin	45	54	42	39	43	29
Euskaraz (oso) gutiago (Ia) beti frantsesez	46 9	36 10	46 12	56 5	53 4	67 4
Euskararen heina	36	39	34	33	35	31

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritz eta EEP, 2011.

Adin-talde zaharrenetik gazteeneraino, euskara frantsesa baino gehiago edo berdin erabiltzen duten euskaldunen proportzioa gainbehera doa eten gabe, %54tik %29ra. Haatik hobekuntza bat ageri da oraingo gurasoengandik (%43). Aldiz euskara frantsesa baino gutiago eta oso gutiago erabiltzen dutenen heina petik gora doa orokorki %36tik %67ra. Beti frantsesez ari direnen neurria gorabehera dabil %10etik %4era. Adin tarte orotan euskarazko mintzaldien neurria herenaren ingurukoa da, hiztun hauek euskaldunak direlarik.

Bi adin-talde gazteenen lagina ahula delako, ez da fidagarria. Halere itxuraz noizean behingo euskal mintzamoldea nagusitzen ari da, eta denbora berean erdal mintzamoldea («beti frantsesez») apalenean dago. Itxuraz euskaldun berrien jokamoldea ageri da: hizkuntza gaitasun mugatua dute baina euskarari buruzko atxikimendu kartsua erakusten dute.

Euskararen tokia gizartean. Orain arte ikusi dugu euskaldunek zein neurritan erabiltzen duten euskara, jakinez erdaldunek ezin dutela euskara erabili ez baitute hizkuntza hauturik. Halere balio du biztanleria osoa aztergai-tzat hartzea, ikusteko euskarak zer toki daukan gizartean. Asmagarri da ondorioak ahulak izanen direla erdaldunen kopuruagatik.

Herritarren mintzamoldea Etxea-Laguna-Formala tipologia erabiliz (%)

Adin-taldeak Hiztunak	Orotara 238.360	65 eta + 62.266	50-64 55.710	35-49 61.365	25-34 32.056	16-24 26.964
Euskaraz gehiago edo berdin	10	17	10	6	6	5
Euskaraz (oso) gutiago	13	12	14	12	16	15
Beti frantsesez	77	71	76	82	78	80
Euskararen heina	8	12	9	6	7	6

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritz eta EEP, 2011.

Adin-talde zaharrenetik gazteeneraino ageri da euskal mintzamoldea gutituz doala %17tik %5eraino. Noizean behingo euskal mintzamoldea berdintsu dago adin oroz %13ren inguruan. Erdal mintzamoldea da nagusi adin-talde guztietan, bereziki 50 urtez gazteagoetan. Ikusi dugu biztanleen %69 erdaldun elebakarrak direla.

Hiru inkestaren konparazioa

2001, 2006 eta 2012ko inkestak konpara ditzagun euskaldunen mintza-jokabidearen bilakaera aztertzeko.

Euskaldunen mintzamoldeak azken 3 inkestetan

Inkestak Euskaldunak	2001 55.700	2006 51.800	2011 51.100
Euskaraz gehiago edo berdin	22.300 %40	23.450 %45	22.820 %45
Euskaraz gutiago edo oso gutiago	27.300 %49	21.250 %41	23.810 %46
Beti frantsesez	6.100 %11	7.100 %14	4.470 %9
Euskararen heina	33,6	35,3	36,1

Ohargarri da euskaldunen kopurua gutituz doala baina euskaraz frantsesez bezainbat edo gehiago mintzatzen diren heina goratzen ari dela, inkesta batetik bestera Ipar Euskal Herri osoan (%40, %45, %45) eta bereziki gazteenengan (%15, %24, %29), hurrenez hurren. Beste mintzamoldeak gorabehera dabilta eta beren bilakaeran ez da joera argirik agertzen. Oro har, euskarazko solasaldien proportzioa goratu da inkesta batetik bestera, here-naren heina doi bat gaintutuz.

2011ko inkestan euskal mintzamoldea eta noizean behingoa neurri bertsuan dira (%45 – %46) eta erdal mintzamoldea apalenean dago. Ondorioz euskarazko solasaldien heina gorenean dago (%36,1), euskaldun gazteen eraginez, beste ikerketa batek erakusten duen bezala.

Erabileraren pedagogia

Iñaki Martínez de Luna hizkuntzalariaren arabera, euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak hiru motakoak dira: pertsonalak (gaitasuna, motibazioa), kolektiboak (harreman sareak) eta juridikoak (hizkuntzaren estatusa). Eskema hau egiazta daiteke V. Inkesta soziolinguistikoaren bidez.

1. Norberaren ezaugarri nagusia hizkuntza-gaitasuna da. Ongi eta biziki ongi dakitenek dute euskara erabiltzen. Hots euskal elebidunek, euskaraz frantsesez baino trebeago direnek. Adibidez euskararen erabilera sintetikoa ikertzen delarik euskaldunengan batez beste %45 dira euskaraz frantsesez bezainbat edo gehiago mintzatzen direnak. Zehazkiago nor dira hiztun hauek hizkuntza gaitasun erlatiboa kontuan hartuz? Euskaraz errazkiago hitz egiten dutenak %91 dira, elebidun orkatuak %51 eta erdal elebidunak %6. Pedagogia problema da nola igan euskara jakitetik euskara erabiltzen jakitera. Arrue inkestakari Mikel Zalbidek erabili du txirrindulariaren alegoria: irabazteko ez da aski bizikletaren mekanika ezagut dezan, gainean ibiltzeko estrategia jakin behar du. Ikastetxean euskara ikasi behar da, gramatika eta beste, baina bereziki euskara nola erabil eskolan eta eskolatik kanpo. Dena dela erabiltzeko trebe izan behar da eta trebatzeko erabili behar

da. Gurpil zoro hortarik ateratzeko bidea motibazioa da, atxikimendu pertsonala, motibazio kolektiboa eta borondate politikoa.

2. Harreman sareak bi moldetara uler daitezke: edo molde demolinguitikoan eskualde batean euskaldunek daukaten dentsitatea (euskaldun batek errazkiago aurkituko du mintzakide bat Garazin ezen ez eta Baionaldean); edo molde sozio-psikologikoan euskaldunek elkarrekin nahiz josten dituzten loturak, bikoteak, lagunarteak, kantu, dantza edo antzerki elkarteak, politika edo ekonomia egiturak. Hirigune erdaldunetan euskaldunek «euskal oasiak» antolatu behar dituzte non ere erraz eta atsegin baita euskaraz hitz egitea. Kultur ekintza, jatetxe, saltegi ala jaiegun zernahi on da, ez ghetto moldean baina elkarretaratzeak irekiz.
3. Hizkuntzak gizartean daukan estatusa baldintza nagusi bat da hizkuntza baten erabileran. Oinarrizko legearen onarpena falta bada, Iparraldean gertatzen den bezala euskararentzat, erakundeek eman behar diete herritarrei herri hizkuntza erabiltzeko aukera eta erraztasuna. Orduan euskarak «de facto» hartzen du onarpen eta ospe publikoa, «de jure» onartua izan arte. Gaur egun dena da auzitan, irakaskuntzaren legea, lurraldearen elkargo administratiboa eta Europako herri hizkuntzen itunaren berrespena. Militantziaren aroa ez da iragana eta motibazio politikoa ere beharrezkoa da.

Euskararen aldeko motibazioak

Euskararen aldeko motibazioak neurtzeko iritzi andana bat eskaini zaizkie herritar guztiei, euskaldun ala ez. Gaiak ziren euskararen irakaskuntza, erabilera, ospea, iraupena, nortasun kolektiboa, geroko gizartea besteak beste. Emaitzak agertzen ditugu orokorrean eta ohiko parametroen arabera, eskualdea, hizkuntza gaitasuna, adina eta jatorria.

Euskarari buruzko iritziak eta jarrerak

Hona adibide esanguratsuenak. Bost erantzun posible: (oso) ados, (oso) kontra, ala ezbaian.

- Bi hizkuntza izateak problemak sortzen ditu gizartean: ez ados %84.
- Frantsesa ongi menperatzen ez dutenei euskara irakastea ez da ongi; ez ados %76.
- Euskara bakarrik etxekoekin eta lagunekin erabiltzeko da: ez ados %75.
- Euskara frantsesa bezain aberatsa da: ados %56.
- Egiazki euskaldun izateko euskaraz mintzatu behar da: ados %50.

Lau iritzi bereizi dira zerrendatik, norberaren jarrerak neurtzeko euskararen irakaskuntza eta erabilerari buruz.

- Irrati–telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz: ados %55.
- Nahitaezkoa da haur guziek euskara ikas dezaten: ados %51.
- Administrazioan sartzeko, beharrezkoa litzateke euskara jakitea: ados %53.
- Hobe da jendeak ingelesa ikas dezan euskara baino: ez ados %31.

Lau erantzun hauek bateratuz, bakoitzarentzat definitu da euskararen erabiltzeari buruz duen gogoia, irakaskuntzan ala gizartean. Lau iritziak oinarritzat hartuz 5 jarrera definitu dira: oso edo aski aldekoak, ez alde ez aurka, aski edo oso aurkakoak. Zein dira emaitzak ohiko aldagaien arabera?

Euskara sustatzeko jarrerak hizkuntza gaitasuna, jatorria eta adinaren arabera (%)

Jarrerak	Ipar E-H.	Euskal- dun	Erdal- dun	Berta- ko	Etor- kin	65 urte eta +	16-24 urte
Aldekoak	39	73	25	55	25	41	36
Ez alde ez aurka	40	22	47	32	47	39	41
Aurkakoak	21	5	28	13	28	20	23

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Iparraldean orokorki aldekoak eta axolagabeak berdintsu dira %40 eta aurkakoak askoz gutiago %21. Ikusiz aurkakoak kopuru ahula ageri da iritzi publi-

koaren gehiengo bat prest dela euskararen aldeko hizkuntza politika ausarta onartzeko. Halere axolagabeen kopuru handiak erakusten du herri hizkuntza-ren aldeko pedagogia zabal baten beharra ororen oniritzia sustatzeko.

Hizkuntza gaitasunaren arabera, euskaradunetan, aldeko jarrerak (%73) askoz aurkako jarrerak (%8) baino gorago dira eta axolagabe guti. Elebidun hartzaileetan aldekoak %63 dira eta aurkakoak %10. Erdaldunetan %25 dira euskararen aitzinamenduaren alde, %28 aurka eta axolarik ez dutenak gehiengoan %48. Hizkuntza gaitasuna eta euskararen aldeko gogoa elkarri lotuak dira. Froga hor dago euskarazko irakaskuntzaren motibazioa sustatu behar dela, hizkuntza politikak ondorio eraginkorrak luzaz eman ditzan.

Jatorriari begira, Euskal Herrian sortu direnetan aldeko jarrerak %42 dira eta aurkakoak %20. Euskal Herri kanpotik etorri direnetan aldiz aurkako jarrerak %29, aldekoak %21 eta gehienak axolagabe %47. Beraz ulergarri da etorkin anitz den eskualdeetan dela euskara aitzinarazteko gogo ahulena: Baionaldean %30, Lapurdi barnean %43, Nafarroa Beherean eta Zuberoan %54. Beste lurraldeetan zer? Euskal Autonomioa Erkidegoan, aldekoak %62 dira, Gipuzkoan %75. Nafarroan, aldekoak %28, kontrakoak %35.

Adinaren arabera, adin tarte zaharrenean dira euskararen aldekoak go-renean (%41) eta adin tarte gazteenean apalenean (%36). Ohargarri da axolagabeen neurri indartsua adin-talde guzietan, %39 batez beste, indar-tsuago 35 urtez petikakoetan. 16-24 urtekoetan aldekotasuna apalenean da (%36), axolagabeak gutitu dira (%41) baina aurkakoen neurria gorenean da (%23)! Ikasleen motibazioa kontuan hartu behar da pedagogiaren alo-rraan, euskara ez dadin soilik eskolako hizkuntza izan.

Zer egin gazteen motibatzeke? Euskarak ez du izan behar bakarrik esko-lako hizkuntza. Eskolatik kanpo ere erabiltzekoa da, lagunartean, adiskidee-kin, ikaskideekin adibidez aisialdian, kirolean eta beste.

Hain zuzen, Politika proiektuko 5. erronka aisialdia da euskara eta goza-mena uztartzeko xedearekin. Estrategiak bi norabide hartzen ditu. Alde batetik euskarazko aisialdi erakargarriaren eskaintza eta bestalde profesio-nalen formazioa eta tresnatzea euskaraz lan egin dezaten. Bi helburu hauek elkar osatzen dute, ezin baita kalitatezko aisialdirik eskaini profesionalak

formatu gabe. Orain arteko ekintza, euskarazko aisialdiaren alorrean denbora osoz edo zati batean diharduten eragileen sostengua da.

Geroari begira eta 2011-2016 bide orriaren arabera, aisialdiaren eremuan lehen lan-ildoak izanen da aisialdiko harrera-gune kolektiboetan eta egonaldietan euskarazko eskaintza egituratzea, kontuan hartuz alor honetan ari diren eragileek xede bera dutela. Beste lan-ildoak da euskarari toki bat ematea kultura eta arte formakuntzan, bai eta kirol heziketan ere, arduradun ofizialen partaidetzarekin.

Euskal nortasuna

Euskaltasunaren kontzeptu hau erran-nahi askotakoa dela. Batzuentzat nozio soziopolitikoa da (herritasuna), besteentzat nozio linguistikoa (euskalduntasuna). Hiru galde baziren euskal gogoak eta euskaltasunari buruz:

- *Euskalduntzat daukazu zure burua, anitz, nahikoa, doi bat, guti, deus ez?*
- *Nolako interesa duzu euskararentzat, anitz, nahikoa, doi bat, guti, deus ez?*
- *Nola sentitzen duzu zure burua, euskaldun, frantses, biak berdin, euskaldunago, frantsesago?*

Lehen galderaren eta bigarrenaren emaitzak elkarrekin aztertuko ditugu, bien emaitzak oso antzekoak baitira. Hirugarrena, Morenoren galdera fama-tua, gero aipatuko dugu nortasun bikoitza eta elebitasuna landuko ditugularik, nahi dugun gizartea«-ren lerroaldian.

Euskal nortasuna (euskarari buruzko interesa) hizkuntza gaitasuna, jatorria eta adinaren arabera (%)

Jarrerak	Ipar E-H.	Euskalduna	Erdalduna	Bertakoa	Etor-kina	65 urte eta +	16-24 urte
Anitz, nahikoa	53 (61)	93 (89)	38 (40)	80 (73)	29 (39)	57 (70)	51 (48)
Doi bat	24 (24)	6 (9)	47 (30)	16 (18)	30 (30)	21 (25)	29 (32)
Guti, deus ez	21 (14)	1 (1)	28 (20)	4 (8)	29 (20)	20 (11)	20 (20)

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak eta EEP, 2011.

Zutabe bakoitzean lehen zenbakia «*euskalduntzat daukazu zure burua*» galderaren emaitzak dira, bigarren zenbakia parentesi artekoa, «*nolako interesa duzu euskararentzat*» galderarenak. Batak euskal nortasuna aipatzen du eta identifikazio bat eskatzen. Besteak euskara aipatzen du eta inkestatuaren atxikimendua neurtzen.

Ipar Euskal Herrian orokorki jendeen erdiek (%53) beren burua euskalduntzat daukate eta %61 euskaraz interesatzen dira. Beraz euskara guti edo aski dakitenak baino askoz gehiago: euskaldunak gehi elebidun hartzaileak %30,5 dira. Aldiz euskaltasun epela eta euskarari buruzko interes ahula dutenen heina erdaldunena baino askoz ttipiagoa da: erdaldunak %69,5 dira, beren burua euskalduntzat ez daukatenak %21, euskaraz interesatzen ez direnak are gutiago %14. Dedukzioz erran dezakegu erdaldunen zati bat «euskaldun» sendi dela eta gehiengo bat euskarari interesatzen zaiola. Itxuraz herritartasuna adierazten dute. Herria dute bihotzean eta herriaren ezaugarri nagusi bat. Erdaldunen motibazio hau ez da nahikoa halere euskalduntzeko bidean abiatzeko.

Halere 3. eta 4. zutabeek erakusten dute euskal sentimena eta euskarari buruzko interesa hizkuntza gaitasunari lotuak direla. Ikus euskaldunen eta erdaldunen arteko ezberdintasunak. Euskaldunak bitan gehiago dira euskaldun sentitzeko eta euskarari interesatzeko (zergatik ez denak?). Sorterriaren arabera antzeko ezberdintasunak agertzen dira 5. eta 6. zutabeetan. Bitxikeria bat erdaldunek eta etorkinek interes gehiago ematen diote hizkuntzari ezen ez eta herri nortasunari. Integrazio eskasaren seinale, ote?

Adinaren araberrako emaitzetan, adin tarte zaharrena eta gazteena konparatzen ditugu 7. eta 8. zutabeetan. Gogoan atxik 65 urte eta gehiagokoak nolazbait elebidun direla, ekoizle edo hartzaile %38, erdaldun %60; 16-24 urtekoetan %29 nolazbait elebidun dira, erdaldun %71. Hemen ere eta bi adin tarteetan nabari da elebidunak baino askoz gehiago direla beren burua euskalduntzat daukatenak eta euskaraz interesatzen direnak, aldiz erdaldunak baino askoz gutiago euskaltasuna eta euskarari buruz hotz direnak. Horiek hola motibazioak aldakor dira adin tarte batetik bestera. Ez da ezberdintasun handirik euskal nortasunari begira. Baina zaha-

rrenetan %70 dira interes handia dutenak euskararentzat, gazteenetan %48 soilik, %22ren aldearekin, adin tarte guzietako ahulena. Alderantziz axolagabeak %14 dira adinekoetan eta %20 gazteenetan. 14-25 urtekoen euskal motibazio epela berriz ere ageri da eta funtsezko problema pedagogikoa da.

Ezberdintasun handiak badira kostaldetik barnealdera. Baionaldean %41ek euskalduntasun kartsua adierazten dute eta %51k interes handia euskararentzat; Lapurdi barnean %59k eta %65ek hurrenez hurren; Nafarroa Beherean eta Zuberoan %74k eta %76k. Hiru eskualdeetan euskarari buruzko interesa indartsuago da nortasun kontzientziari konparatuz. Hala ere nabari da hizkuntza gaitasunak eragin handia duela euskaltasunaren kontzientziari begira.

Zer nolako gizartea nahi dugun

Zalantzarik gabe nahi dugun Euskal Herria nortasun bikoitzekoa da eta elebiduna.

Ipar Euskal Herriko galdetegian Morenoren galdera erabili da, iragan inkestetan bezala. Hegoaldean aldi honetan ez: arriskutsuegia zelakoan ote? Luis Moreno soziologoak Edimburgoko unibertsitatean sei puntuko galdegia erabili zuen lehian diren nortasun kolektiboak aztertzeko, Galesen, Katalunian. Hona Ipar Euskal Herriari buruzko galdegia emaitzekin: «Nola sentitzen zara?

Euskaldun bakarrik	%11
Euskaldun frantses baino gehiago	%11
Euskaldun bezain frantses	%29
Frantses euskaldun baino gehiago	%27
Frantses bakarrik	%28
Erantzunik ez	% 4

Euskaldun edota frantses galdegiten delarik, nortasun bikoitza da nagusi euskaldun eta frantsez %67: bi nortasunak berdin %29, bi nortasun baina

euskaldunago %11, bi nortasun baina frantsesago %27. Nortasun bakarrekoak guti dira: %11 euskaldun bakarrik, %18 frantsez bakarrik.

Metologia hau egokiena da zeren eta bi nortasunak auzian baitira, herrian eta norberarengan bezala. Euskaltasunari buruzko inkestan %53k beren burua euskalduntzat daukate. Emaita optimistegia da, nortasun bakar bat baitzen auzian. Zuzenez antzeko ikerketa egin behar zitekeen frantsestasunari buruz, eta ni beldur emaitza berdintsuak agertuko zirela.

Elebitasunaz iritzi ezkorra proposatu zelarik «Bi hizkuntza izateak problemak sortzen ditu gizartean» %84k desadostasuna adierazi zuten. Hizkuntzei buruz galde zehatzagoa egin da: «Zure ustez, geroan, zein hizkuntzetan mintzatu behar litzateke Iparraldean?» Hiru erantzun aukeran: euskaraz, frantsesez edo bietan.

Zein hizkuntzatan mintzatu behar litzateke etorkizunean? %

	Ipar E-H.	Euskal- duna	Erdal- duna	Berta- koa	Kanpo- koa	65 urte eta +	16-24 urte
Euskara hutsean	3	9	v1	4	1	2	6
Euskaraz eta frantsesez	94	88	95	93	95	92	91
Frantses hutsean	2	1	3	2	2	4	3

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Mezua argia da. Ia aho batez herritarrek pentsatzen dute Ipar Euskal Herrian, euskara eta frantsesa direla geroako hizkuntzak. Edozein aldagai hartuz iritzi nagusia da elebitasunarena: oro har %94 eta berdintsu hiru eskualdeetan, adin-talde guzietan, euskaldun ala erdaldun, bertako ala kanpoko.

Ba ote da nor edo nor hizkuntza bakarra nahi duenik Iparraldearentzat? Bakar batzuk. Euskara bakarrik mintzatu beharko litekeela pentsatzen dutenak dira %9 euskaldunetan, %6 gazteenetan, %4 hemen berean sortuak

direnetan. Eta askoz gutiago frantses hizkuntza bakarraren alde direnak: %4 zaharrenean, %3 erdaldunetan, %2 kanpokoetan, bertakoetan eta Iparralde osoa hartuz.

Bestalde ohargarri da Iparraldeko eleaniztasuna: %35ek gaztelania dakitene, %25ek ingelesa eta %10ek beste kanpoko hizkuntza bat.

Laburbilduz erran genezake ororen gogoan elebitasuna dela etorkizuneari Ipar Euskal Herriko hizkuntza egoera. Euskaldun guztiak elebidunak dira. Frantsesdun elebakarrek lukete urrats batzuk egin behar euskarari buruz. Hori gertatuko da euskalduntasuna erakargarria agertuko zaien neurrian.

Zer nolako hezkuntza nahi dugun

Galdera zen: «*Haurrik bezenu eskolan, zein hizkuntzatan nahi zenuke ikas dezaten?*» Erantzunak lau aukera ematen zituen, oraingo egora kontuan hartuz: murgilbidea, elebitasuna, irakasle ibilkariak edo eskola elebakarra. Emaitzak aurkezten ditugu aldagai ezberdinekin.

Ikaskuntza hizkuntza zure haurrentzat

	Ipar E-H.	Euskal- duna	Erdal- duna	Berta- koa	Kanpo- koa	65 urte eta +	16-24 urte
Euskaraz, frantsesa ikasgai	19	47	8	28	10	19	19
Euskaraz eta frantsesez	34	37	31	39	29	36	24
Frantsesez, euskara ikasgai	24	8	29	17	30	17	35
Frantsesez bakarrik	20	4	27	13	26	23	19

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak eta EEP, 2011.

Oro har eskola elebidunak dauka lehentasuna (%34) bereziki erdaldunentzat, bertakoentzat, puntu baten eskasez kanpokoentzat eta adin talde guzietan salbu 16-24 urtekoetan. Baina hautua zabala da. Euskaldunek euskarazko eskola nahiago lukete (%47), bigarren hautua eskola elebiduna delarik (%37).

Aldiz frantses hutsezko eskola azken hautua da euskaldunentzat eta bertakoentzat, hirugarren hautua erdaldunentzat, kanpokoentzat eta orotara. 16-24 urtekoentzat eta orotara frantses hutsezko eta euskarazko eskolak hein berdintsuan daude %20 inguru. Inkesta honek erakusten du, ikaskuntza elebidunaren arrakasta handia eta frantsez hutsezko eskolaren muga, iritzi publikoan bederen.

Etorkizunari begira, beldurrak eta itxaropenak

Bosgarren inkestak erakusten ditu hizkuntza prospektibaren argi-ilunak bereziki hizkuntza politikari buruz, euskararen kontrako arriskuak balortzean eta euskararen 85 urteko historia irakurritz. Geroa asmatzeko atzeranzko ikuspegia beharrezkoa da.

Hizkuntza politika

Inkestatuei, euskaldun ala erdaldun, galdegin zaie nola estimatzen zuten azken urte hauetan euskarari buruz antolatu diren hizkuntza politikak. Galde honek lau balorazio eskatzen ditu:

- Orokorki nola baloratzen duzu abian ezarri diren euskararen aldeko hizkuntza politika publikoak? Egokiak edo desegokiak? Berdin zait.
- Zergatik egokiak? Asko egin delakotz. Aski egin delakotz.
- Zergatik desegokiak? Gutxi egin delakotz. Gehiegi egin delakotz.

Hona emaitza nagusiak.

Hizkuntza politiken balorazioa eta arabera ikusmoldeak

	Ipar E-H. 238.600	BAB 99.000	Lapurdi bestalde 107.000	Nafarroa B. Zuberoa 32.600
Hizkuntza politika egokia zait:	%25	%22	%28	%26
asko egin delakotz,	%15	%13	%18	%17
aski egiten delakotz.	%10	%9	%10	%9
desegokia zait:	%30	%28	%32	%30
gutxi egin delakotz,	%26	%23	%29	%29
gehi egin delakotz.	%4	%5	%3	%1
Axolarik ez:	%45	%50	%40	%44
berdin zait,	%16	%21	%13	%14
erantzunik ez.	%29	%29	%27	%30

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Herritarrek zer diote euskararen aldeko hizkuntza politikaz? Ohargarri da jendeen %45ek ez dutela baloraziorik egiten, edo berdin zaie (%16), edo ez diote galderari erantzuten (%29). Nola ulert dezakegu axola eskas hau? Ala politika ezin aipatzeko tabua da, hizkuntzen alorrean ere?

Euskaraz axola dutenek nola baloratzen dute hizkuntza politika? Orokorki:

- % 25ek egokia dela estimatzen dute;
- % 30ek desegokia dela pentsatzen dute.

Baionaldekoek dute hizkuntza politikaz estimu ahulena adierazten: %22. Lapurdi barnealdean dute hizkuntza politikaren estimu handiena, %28. Iparalde barnealdean, %26.

Halere kritika nagusi da: 60.000 kontent, 70.000 kexu, 100.000 axolagabe. Erran behar da orain arteko hizkuntza politika diru laguntzan mugatzen zela, maizenik laguntza xuhurra. Orain botere publikoak bere gain hartzen du euskararen sustatzeko egitasmoa. Euskararen Erakunde publikoak itxaropen berri bat sortu du, baina ondorio onak berehala goaitatzen ditugu. Dena dela «denborari denbora» eman behar zaio.

Euskararen aldeko hizkuntza politikaz zerbait erran dutenetan, balorazio zabalena ezkorra da: ez dela egokia guti egin delakotz %26. Gehiegi egin dela pentsatzen dutenak bakan dira, %4 orokorki.

Euskararen aldeko hizkuntza politika hobeki estimatzen dutenak Iparralde barnealdekoak dira: egokia dela asko egin delakotz %29. Aski egin dela pentsatzen dutenak oso guti dira: %1.

Hizkuntza politika aipatzen dugularik zertaz mintzo gara Ipar Euskal Herrian? Hiru etapa nagusi bereiz ditzakegu: euskalgintza lagundua, euskalgintza hitzartua, hizkuntza politika.

- 1990a aitzin, euskalgintza guzia elkarleen esku zen. Aspaldiko Euskaltzaleen Biltzarra, gero 1950eko hamarkadan, Deixonne legearen ildotik Ikas, ikastolak, gau eskolak, kultura elkarteak; 1980eko hamarkadan euskal irriatiak, eskola elebidunak, guraso elkarteak. Botere publikoak baimen eta diru laguntza batzuk ematen zituen herritarren aldarrikape-nei erantzunez eta Europako parlamentuaren eraginez (Arfé, Kuijpers eta Pasquale ebazpenak).
- 1990ean hasi zen, euskalgintza hitzartuaren aroa« (Baxok 2001) gizarte politikoa eta gizarte zibilaren artean. Bi erakunde sortu ziren euskarra eta euskal kultura sustengatzeko. Alde batetik Euskal Kultur Erakundea (EKE), Pizkundean federatuak ziren elkarteak eta botere publikoaren ordezkariak elkarretaratu zituenak urteroko programak eta buxeta hitzartzeko. Bestalde Herrien arteko Sindikata, Iparraldeko udalerrri gehienak bildu zituen.

1995ean beste bi erakunde egituratu ziren Euskal Herri 2010 prospektibaren ildotik: Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua. Hizkuntz Antolaketa-aren atala onartu zuten lau ardatz finkatuz: euskarazko eta euskararen irakaskuntza, toponimia elebiduna, euskal komunikabideak eta euskararen erabilera zerbitzu publikoetan. Jarraian 2001ean Estatuak eskaini zigun «Hitzarmen berezia Euskal Herri 2001-2006». Lehen aldikotz aipatzen zen, hizkuntza politika« euskalgintzako eremu asko programatuz: Euskaltzaindia, pedagogia, euskal irriatiak, ikerketa, besteak beste.

- Egiazko hizkuntza politika 2004an abiatu zen Euskararen erakunde publikoa (EEP) sortu zelarik tokiko hautetsien eraginez. Berrikuntza handia izan da botere publikoak bere gain hartzen duela hizkuntza politika, adibidez Hezkuntza ministerioak Kontseilu nagusiarekin sinatu duen hitzarmena euskal ikaskuntza garatzeko. 2006an Hizkuntza politika proiektua onartua izan zen, euskaldun osoak« sortzeko, belaunaldi gazteei emanez lehentasuna. 12 erronka nagusi definitu ziren lau eremutan banatuak: euskararen transmisioa, euskararen erabilera eta euskararen indarra, kalitatea eta motibazioa bizkortuz.

Horiek hola, elkarreak dira euskalgintzaren motorrak baina ez dira erabakitzaile, aholkulari baizik Aholku Batzordean. 2010ean agertu zen hizkuntza politika, bide kurutze batera» (Coyos 2012) heldua zela. Arrakasta ezin ukatua da baina erakunde publikoak elkarteek ekintzak jarraitzen ditu hiru berrikuntza ekarriz: talde profesionala, hizkuntza teknikarien sarea herri elkargoen partaidetzarekin eta haurtzaindegi labelizatuen sarea. Euskarazko hezkuntza asko zabaldu da baina neurketarik ez da egin ikasleen hizkuntza gaitasunari buruz. Ez dakigu zenbat ikasle euskarazko hiztun bilakatzen diren. Hautetsiek ideia ederrak badituzte euskararen normalizazioaz baina aldaketak murriztak dira. Ondorioz ministerio arteko entzunaldi baten ondotik, Erakunde Publikoak autokritika egin du eta bide orri berria definitu da 2011-2010 eperako: ikaskuntzen ebaluazioa Europako estandarra erabiliz, sentikortasun kanpainak, murgilbidearen zabaltzea eskola guzietan, etxe haurtzainen euskalduntzea, erakundeetako elebitasuna...

Bi muga itxuraz ezin gaindituak hor daude: diru laguntzaren ahulezia, krisia denbora honetan eta euskararen onarpen ofiziala. Konstituzioaren, legediaren eta Europako itunaren aldetik ez da aterabiderik ikusten. Itxaropen izpi bat, deszentralizazioaren III. Aktan??. Ipar Euskal Herriko hautetsien gehiengoak lurralde elkargoaren alde agertu da, herri hizkuntza eta kulturaren eskumena barne. Militantziaren aroa ez da bururatu.

Euskarari buruzko itxaropena

Zertan da herritarren baikortasuna euskarari buruz? Euskara galtzeko arriskuan delako iritzia inkestatuei proposatu zaie. Hona ondorioak.

Euskara galtzeko arriskuan ote? (%)

	Orotara	Euskaldun	Erdaldun	65 urte +	16-25
Euskara arriskuan	41	46	38	25	66
Ezbaian	6	5	7	5	7
Arriskuz kanpo	49	46	51	64	25

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Oro har euskararen aldeko itxaropena da nagusi, salbu hiztun gazteenen artean. Euskararen galtzeko beldurra handituz doa adin talde zaharrenetik gazteeneraino: %25, %39, %42, %55, %66. Eta arabera itxaropenaren neurria ttipituz doa: %64, %52, %48, %37, %25. Gazteak zaharrak baino beldurriago eta erdaldunak euskaldunak baino baikorrago euskarari begira, ezin da ulertu.

Euskaldunak zalantzan daude, baikor bezainbat ezkor euskararen ge-roaz. Oro har badakigu euskararen gainbehera ez dela berehala geldituko. Alabaina zaharrenak dira euskaldunenak eta urte bakoitz euskaldun zahar gehiago desagertzen da, gazteak euskalduntzen diren baino lasterrago. Gainera, biztanleria beti emendatuz doa, etorkinei esker neurri batean. Noiz arte iraunen du gainbehera honek? Euskararen prospektiba egin daiteke kontuan hartuz demografiaren hazkundera eta euskal irakaskuntzaren garapena.


Euskararen historia 85 urtez

Bost inkestetako 25 adin-taldeak zerrendatuz erdiguneko sorturteen ordena kronologikoan, euskararen bilakaera goragotik ikusten da. Lehen in-

kestako lekuko zaharrena 1910ean sortua zen eta bosgarren inkestako lekuko gazteena (16 urte) 1995ean. 20 urte hauetako inkestekin euskararen 85 urteko historia irakur dezakegu. Jakinez adin tarteak 10 edo 15 urtekoak direla, adin-talde bakoitzak bere bi auzoak estal ditzake neurri batean, teilkak teilkatuan bezala.

Ikus taula osoa eranskinean. Hemen taula osoaren grafikoa agertzen da.

Hizkuntza gaitasuna sorturtea eta eskualdearen arabera (%)



Adin-taldearen jarraipena

Ikus Iparraldeko kurba orokorra. 25 adin-taldeak kontuan hartuz ageri da ehunekotan euskaldun kopurua jautsi dela 1919 eta 1976 artean %39tik %11 arte, 60 urtez %30 galduz (urtero puntu erdi bat). 1977an kurba ordokitu da eta gorantz abiatu, %11etik %18ra, 14 urtez %7 irabaziz (urtero puntu erdi bat). Hots gaur egun 1991eko adin tarte 1964koaren heinean da eta goranzko bidean.

Zergatik honelako emaitza onak adin-talde gazteenean? Euskal irakaskuntzaren eragina nabari da: Lapurdi barnealdean daude ikastola eta gela elebidun gehienak eta euskarak 9 puntu irabazi ditu 20 urtez. Aldiz, eskualde euskaldunenean euskarazko irakaskuntza berant antolatu zen, haurrek

euskara etxean ikasten zutelakoan: ondorioz euskara 38 puntuz jautsi da 40 urtez. Geroari buruz Hizkuntza politikaren lehentasuna, haur eta gazteak dira. Lehentasun honen koherentzia abiatu dira lehen lan ardatzak: euskaraz eskolatzea, haurtzaindegietan euskarazko harrera egituratzea eta familiak sentsibilizatzea euskara transmititzen. Asmatzekoa da ondorioak laster agertuko direla inkesta datuetan.


Belaunaldien jarraipena

Hizkuntza gaitasunaren teilatuan, adin tarteak 25 urteko belaunaldika banatzen ditugu eta jarraian hiru mailetako ikasleak zenbatzen. *Ikus hurrengo taula eta grafikoa.*

Ipar Euskal Herrian 1924an sortuak direnak euskaldun dira %37. Guraso bilakatu direlarik 1949an, beren, baby boom« famatuari euskara transmititu diete %27k. Belaunaldi honen haurrak euskaldun dira %11, 1976 inguruan, eta hemen dago Iparraldeko euskaldun kopuruaren zilo beltza. Belaunaldi erdaldundu honen haurrak eskolan daude: bigarren mailan %11k euskara ikasten dute murgilbidean edo ikasgela elebidunetan, %36k eskola mailan eta %44k ama-eskoletan. Jadanik 16-24 urtekoak euskaldun dira %18.

Euskaldunak belaunaldika eta euskazko ikasleak (%)

Sorturtea +/-	Adin tarte 1924	Adin tarte 1949	Adin tarte 1976	Adin tarte 1991	2. maila 1998	1. maila 2004	Amaes- kola 2009
Iparralde	37	27	11	18	11	36	44
BAB	11	13	3	8	4	15	20
Lapurdi	45	30	15	24	20	49	59
N B. Zuberoa	80	60	33	32	16	51	61



Baiona-Angelu-Biarritzzen hizkuntza gaitasunaren kurba %11 eta %8ren artean aldatzen da, etorkinen arabera, baina doi bat goratuz doa 1991eko adin-taldearekin. Eskolako transmisioa ahulegi da baina hobetzeko bidean: bigarren mailan %4, eskoletan %15, haur eskoletan %20.

Lapurdi barnealdean, 1924an euskaldunak jendetzaren %45 ziren. Gerla aitzin eta ondotik euskaldunen bi gainbehera gertatu dira, %15 aldi bakoitz, %15era jautsiz. Orain euskaldun gazteak 16-24 urteko adin tartearen %24 dira, beraz %10ren irabazia. Gaur egun bigarren mailan %20ek euskaraz ikasten dute, eskoletan %49k eta haur eskoletan %59k.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, 1924an euskaldunak jendetzaren %80 ziren. Bi gainbehera izigarri gertatu dira hiztunetan: %20 gerla aitzin eta %27 gerlaren ondotik. Geldialdia dago euskaldun gazteen aldetik, halere adin tarte gazteko %32a Iparraldeko gorena da. Eskolako euskal irakaskuntza itxaropen-tsua da %12 ikasle bigarren mailan, %51 eskoletan eta %61 haur eskoletan.

Bilduma

Nabari da Ipar Euskal Herrian euskara ez dela normaltasun osora heldua eta beraz galtzeko arriskua ez dela baztertua. Halere argi berde batzuk pizten ari dira. Bost adibide.

- Euskaldunen kopurua oraindik gainbehera doa baina adintarte gazteen euskalduntasuna goratzen ari da azken 15 urte hauetan.

- Euskara lehen hizkuntza bezala gainbehera doa baina familia bidezko jarraipena hobetuz doa guraso gazteen kartsutasunari esker, biak euskaldunak direlarik, bai eta euskaldun-erdaldun bikoteetan ere, haurtzaindegi elebidunen laguntzarekin.
- Euskararen eskola bidezko transmisioa inkestetan agertzen hasia da 16-24 urtekoetan; eskola, familia, aisialdia eta hizkuntza politika uztartuz euskara aitzina daiteke urrats bizian.
- Euskara erabiltzen da gehienbat familian eta lagunartean. Oso guti zerbitzu publikoetan, gero eta gehiago herriko etxeetan. Euskaldunen mintzamoldea lehenagoko inkestekin konparatuz doi bat hobetuz doa. Baina erdaldunak kontuan hartuz euskaldunen boza ahul entzuten da gizartean, salbu elkarretaratzen direlarik.
- Hizkuntza motibazioetan euskarari buruzko atxikimendua herri nortasunaren kontzientziari lotua da, bai eta hizkuntza afektiboari ere, gaitasun ikasiari baino gehiago. Hizkuntza politika eta euskararen egoerari begira, euskaldun kopurua ezbaian dago, beldurra eta itxaropenaren bidartean, pesimismo aktibo batean.

Noiz arte iraunen du gainbehera honek? Euskararen prospektiba egin daiteke kontuan hartuz demografiaren hazkundera eta euskal irakaskuntzaren garapena. Oraingo euskal ikasle guziak euskaldun bilakatzen badira belaunaldi bat barne Ipar Euskal Herria 1919ko heinera hel liteke/helduko litzateke. Horretarako eskola transmisiotik familia bidezko transmisiora pasatu behar da eta euskarak eskolatik gizarte zabalera jalgi behar du.

Beraz ametsik ez egin, baina depresiorik ere ez. Euskararen pizkundera egingarria da eta egiteko bidean. Orain egiazko hizkuntza politika badago Ipar Euskal Herrian, bereziki haur eta gazteei buruz norabideratua, euskaldun osoak emendatzeko, irakaskuntza, euskararen erabilera eta euskararen aldeko motibazioa pizteko. Ikusiz Euskararen Erakunde Publikoaren bitartez, nola botere publikoa eta euskalgintza uztartzen diren, asmatzekoa da dinamika indartsu eta iraunkorrean sartuak garela.

Bibliografia

AIZPURUA, JON eta ORTIZ DE LANDALUZE, AGURTZANE, 2012, «V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011», *Bat soziolinguistika aldizkaria* 84, 59-89.

ARRUE PROIEKTUA, 2011, *Ebaluazio diagnostikoa: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak*. Eusko Jaurlaritza: ISEI-IVEI, Soziolinguistika Klusterra.

BAXOK, ERRAMUN, 2007, *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian*. Baiona: Euskararen Erakunde Publikoa.

BAXOK, ERRAMUN eta COYOS JEAN-BAPTISTE, 2011, *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian*. Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.

COYOS, BATTITU, 2012, 2012, «Langue basque, une politique à la croisée des chemins», *Enbata*, 2012/06/20.

ETAT – RÉGION AQUITAINE – DÉPARTEMENT DES PYRÉNÉES-ATLANTIQUES – CONSEIL DES ÉLUS DU PAYS BASQUE, 2000, *Convention spécifique Pays Basque 2001-2006* [Euskal Herriko hitzarmen berezia 2001-2006].

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2006, *Hizkuntza politika proiektua, hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun*. Baiona: EEP.

———, 2009, *Euskararen Erakunde Publikoak daraman ekintzaren behin behineko azterketa 2005-2009*. Baiona: EEP.

———, 2009, *Hizkuntza politikaren jokabide esparrua 2011-2016 urteetarako*. Baiona: EEP.

EUSKO JAURLARITZA, 2011, *V. Inkesta soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

LURRALDEA, 2006, *Chantier jeunes / Pays Basque 2020, Photographie de la jeunesse du Pays Basque*, (Euskal Herriko gazteriaren argazkia), Conseil de développement, Conseil des Élus du Pays Basque.

———, 2006, *Pays Basque 2020 Etat des lieux sur la culture* (Euskal Herri 2020, Kulturaren egoera-azterketa), Conseil de développement, Conseil des Élus du Pays Basque..

MARTINEZ DE LUNA, IÑAKI, 2004, «Hizkuntza biziaren euskarriak», *Bat soziolinguistika aldizkaria* 53, 55.

MINISTÈRE DE LA CULTURE ET DE LA COMMUNICATION, DE L'ÉDUCATION NATIONALE, DE L'INTÉRIEUR, 2010, *Rapport d'évaluation de l'Office public de la langue basque*, EEP.

Webguneak: www.eke.org, www.mintzaira.fr (EEP), www.lurraldea.net (antolaketa).

Eranskina

Hizkuntza gaitasunaren teilatua, sorturtearen eta eskualdearen arabera (%)

Bost inkesta soziolinguistikoak

Zenbakiak inkestak adierazten dituzte eta hizkiek adin-taldeak.

- 5 inkestak: (1-) 1991, (2-) 1996, (3-) 2001, (4-) 2006, (5-) 2011.
- 5 adin-taldeak: (-A) >65 urte, (-B) 50-64, (C) 35-49, (-D) 25-34, (-E) 16-24 urte.
- 5 inkestetako 25 adin-taldeak zerrendatuak dira erdiguneko sorturteen ordena kronologikoan.

Hizkuntza gaitasunaren teilatua, sorturtearen eta eskualdearen arabera (%).

Inkesta Sorturtea +/-	(1-A) 1919	(2-A) 1924	(3-A) 1929	(1-B) 1934	(4-A) 1935	(2-B) 1939	(5-A) 1940	(3-B) 1944	(1-C) 1949	(4-B) 1950
Iparralde	39	37	36	39	32	32	31	30	32	27
BAB	—	11	11	—	12	11	12	12	—	13
Lapurdi	—	50	45	—	39	36	36	34	—	30
N-B Zuberoa	—	82	80	—	75	78	70	71	—	60

Inkesta Sorturtea +/-	(2-C) 1954	(5-B) 1955	(3-C) 1959	(1-D) 1962	(4-C) 1964	(2-D) 1967	(5-C) 1969	(1-E) 1971	(3-D) 1972	(2-E) 1976
Iparralde	27	24	23	25	18	14	15	20	12	11
BAB	14	11	11	—	07	03	05	—	02	01
Lapurdi	30	26	24	—	18	14	15	—	14	14
N-B Zuberoa	58	57	55	—	50	49	45	—	41	34

Inkesta Sorturtea +/-	(4-D) 1977	(3-E) 1981	(5-D) 1982	(4-E) 1986	(5-E) 1991
Iparralde	12	12	14	16	18
BAB	03	03	05	07	08
Lapurdi	15	15	18	21	24
N-B Zuberoa	34	33	32	30	32

1991ko inkestan eskualdeak hiru herrialde historikoak ziren. Zatiketa demografikoa bigarren inkestarekin hasi zen.

V. inkesta soziolinguistikoaren azterketa kualitatiboa

CASTET, Sebastian
Euskal Konfederazioa

Xifre guziak zehatz-mehatz aztertu gabe, *Euskal Konfederazioaren* izenean arlo desberdinetako xifre gako batzuk aipatuko ditut, euskararen berreskuratze osoaren ikuspegitik interesgarrienak direnak.

Xifre horien bidez ikusiko dugu Ipar Euskal Herrian berreskuratze oso honetatik urrun garela eta euskararen egoera larria dela, nahiz eta arlo desberdin horietan keinu itxaropentsuak agertzen diren.

Bestalde, V. *Inkesta Soziolinguistikoak* agertu zenbaki gako horiek aztertzeaz gain, interesgarria da ikustea Unescoko adituek desagertzeko arriskuan diren hizkuntzen atlasa egiteko bederatzi irizpide kontuan hartzen dituztela eta horietariko seiri buruzko informazioak ematen dizkigula inkesta soziolinguistikoak. Sei irizpide horiek ondokoak dira:

- Hiztunen kopurua (balio absolutuan)
- Biztanleria osoaren hiztunen ehunekoa
- Hizkuntzaren transmisioa belaunaldi batetik bestera
- Hizkuntz komunitatearen kideek hizkuntzarekiko duten jarrera
- Hizkuntzaren erabilera arlo publiko eta pribatuan

Inkestak ez digu daturik ematen beste lau irizpideei buruz (gobernuek eta instituzioek dituzten jarrerak eta garatzen dituzten hizkuntza politikak, dokumentazio mota eta honen kalitatea, esparru eta hedabide berrien aitzineko erreakzioa, ikas eta irakaskuntzarako materialen eskuragarritasuna).

Bainan oraino interesgarriago da ikustea Unescok dioela bederatzi irizpide horiek elkarrekin uztartu behar direla hizkuntza baten bizitasuna neurtu ahal izateko eta bizitasuna ezin dela irizpide bakar batekin ebaluatu. Horrek sendotzen du *Euskal Konfederazioaren* diskurtsoa erraten duelarik hizkuntza politika batek hizkuntzaren ezagutza eta erabilera (eta bistan dena hizkuntza ezagutzeko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioa) elkarrekin uztartu eta neurri berean jorratu behar dituela.

Hizkuntza bat desagertzeko arriskutik kanpo dela errateko Unescok arloz arlo xifre zehatzik ez badu ematen ere, inkesta soziolinguistikoak arlo anitzetan agertzen dituen zenbaki apalak begiratzuz gero, ez da hizkuntzalaria izan behar Unescok ateratzen duen ondoriora heltzeko, hots, euskara ez dela desagertzeko arriskutik salbu eta egoera Iparraldean dela bereziki kezkarria.

Orain galdera ondokoa da: nola egin xifre horiek hobetzeko? Ez dugu ahortzi behar hizkuntza baten bizitasuna/osasuna ezaugarritzen dituzten ezagutza, transmisioa eta erabilera faktoreen xifre «onak» edo «txarrak» hein handi-handi batean hizkuntza horren alde edo kontra botere publikoetatik eramaten den hizkuntza politikari estuki lotuak direla.

Euskal Konfederazioarentzat argi da gaur egungo hizkuntza politikan jauzi kualitatiboa eman behar dela.

Erran bezala beraz, xifre guzi-guziak sakonki aztertu gabe, begira ditzagun ezagutza, erabilera eta transmisioari lotuak diren nagusienak, adierazgarrienak ere direnak, eta entsea gaitzen, konklusioan, xifre horien hobetzeko pista batzuk ematen.

Unescoren 1. eta 2. irizpideak: Hitzunen kopurua eta ehunekoa biztanleria osoari begira

Arlo honetan elebidun osoen kopurua bakarrik hartuko dugu kontuan, euskararen berreskuratze osoaren ikuspegitik hauek baitira euskara egoki erabiltzeko eta transmititzeko gaitasuna duten pertsona bakarrak.

2011n, Iparraldean, %21,4 bakarrik euskalduna zen, xifre hori %22,5 zelarik 2006an eta %33,1 duela hogeitun urte 1991n.

Eta balio absolutua begiratzen badugu, 700 euskaldun oso galdu dira bost urtez bakarrik, 2006 eta 2011 artean eta 18.000 hogeitun urtez, 1991tik 2011ra.

Beheranzko joera horrek urtez urte segitzen du, eta nahiz eta (eta hori puntu positiboa da) belaunaldi gazteenen artean elebidunen kopurua gorantz doan (ehunekoaan bederen), hiztun kopuru orokorra biziki apal gelditzen da. Gainera, euskaldunena den adineko jendea fiteago desagertzen da gazteak euskalduntzen diren baino.

Horrez gain, bada beste elementu bat kontu hartu behar dena: 16-24 adin taldean elebidunen kopurua emendatzen den arren, euskaraz gaitasun gehiago duen kopurua beheititzen da, horrek erabileran eta transmisioan dituen ondorio guzietan.

Unescoren 3. irizpidea: Hizkuntzaren transmisioa belaunaldi batetik bestera

Hirugarren irizpide horri dagokionez, interesgarria da ikustea bikote gazteenetan (2 eta 9 arte urteko haurrak dituzten bikoteetan) haurren lehen hizkuntza euskara dela %94an bi gurasoak euskaldunak direlarik eta %65ean bi gurasoetarikoa bat bakarrik euskalduna delarik.

Unescoko adituek hizkuntzaren transmisioaren faktore hau garrantzitsutzat jotzen dute eta inkesta soziolinguistikoak bikote gazteenetan agerrarazi xifre horiek itxaropentsuak dira, eta are gehiago aitzineko datua kontuan hartzen badugu, hots, gazteen artean elebidunen kopurua goranzko bidea hartzen ari dela.

Hala ere, ez ditzagun bi datu orokor garrantzitsu begi bistatik gal:

- Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta frantsesa duten guziak ez dira euskaldun osoak bilakatzen (%74,6 «bakarrik»)
- Biztanleria osoa eta adin tarte guziak kontuan harturik, %75ek frantsesa bakarrik ukan du / du lehen hizkuntzatzat

Unescoren 4. irizpidea: Hizkuntz komunitatearen kideek hizkuntzarekiko duten jarrera

Irizpide hau inkesta soziolinguistikoaren «*Euskararen erabilera sustatzeari buruzko iritziak eta jarrerak*» atalari lotu behar da.

Atal honetan galdetu diren 5 iritziak aztertu gabe, har ditzagun xifre interesgarriak agertu dituzten bi iritzi.

Lehena: seme-alaben ikastereduei buruzkoa

Euskara frantsesa ikasgai nahi duen kopurua apal gelditzen bada ere (%19) azpimarratzekoa da kopuru horrek 7 puntu irabazi duela 2006 eta 2011 artean. Beste puntan, seme-alabentzat frantses hutsezko eredia nahi duen kopurua %20ekoa da eta 3 puntu galdu ditu azken bi inkesten artean.

Bestalde, «*euskaraz eta frantsesez*» eta «*frantsesez, euskara ikasgai*» ereduentzat kopuruak 2006tik 2011ra berdintsu direla kontuan hartzen badugu, argi da gero eta jende gehiago murgiltze ereduaren alde egiten duela. Errealitate hori ikastolek ezagutzen duten hazkundean islatzen da.

Bigarrena: administrazioan sartzeko euskara jakin beharrari buruzkoa

Hor ere ehunekoak batez bestea doi-doia gaintzen badu ere (%53), interesgarria da ikustea ehuneko horrek 2 puntu irabazten dituela 2006 eta 2011 artean. Eta are interesgarriagoa da kontuan hartzen badugu Iparraldean euskara ez dela ofiziala, hots, funtzionario batek ez duela euskara jakin beharrik Administrazioan sartzeko.

Atal oso horren irakurketa orokorra egiterakoan, puntu baikorrak eta ezezkoak agertzen dira:

Puntu baikorra: %39k pentsatzen du euskararen erabilera sustatu behar dela, alderantziz pentsatzen duena anitz gutiago delarik (%21).

Puntu ezezkorrak: 2006ko xifreak begiratzen ditugularik ohartzen gara %2ko jautsiera badela aldekoetan eta %3,2ko igoera aurkakoetan. Bestalde, eta hor dugu agian daturik kezkarriena, %40k axolagabekeria erakusten du, ez baita ez alde, ez aurka.

Unescoren 5. irizpidea: Hizkuntzaren erabilera arlo publiko eta pribatuan

Ikastearekin batera, hizkuntza baten erabilera maila ezagutzea biziki inportanta da haren bizitasuna neurtzeko. Euskararen erabilera euskaldunen artean begiratzuz gero, ikus daitekeen daturik baikorrena da gazteen artean euskara frantsesa baino gehiago edo euskara frantsesa beste egiten duen kopurua gorantz doala urtez urte (%15 2001ean, %29 2011n).

Bainan denbora berean kezkarria da ikustea ehuneko hori biziki apal gelditzen dela. Eta adin tarte guziak kontuan hartuz gero, ohartzen gara %55ek frantsesa bakarrik (%9) edo frantsesa euskara baino gehiago (%46) erabiltzen duela.

Erabilera eremuka begiratzuz gero, kezkarria da ikustea euskara familian eta gizarte hurbilean bereziki erabiltzen dela, bainan zerbitzu publikoetan abantzu ez dela erabiltzen. Hori, dudarik gabe, zuzenki lotzeko da euskarak pairatzen duen aitopen publiko ezari, ofizialtasun ezari.

Alta, erabilerari bultzada bat emateko argi da euskarari aitopen publiko hori eman behar zaiola.

Bururatzeko

Ikusi dugun bezala, V. Inkesta Soziolinguistikoak datu itxaropentsu batzuk azalarazi baditu ere, bereziki euskaldun diren gazteen artean (euskalduntzeari dagokionez edo familia transmisioari dagokionez), argi da euskararen berreskuratze osoari begira xifreak apalak direla.

Euskararen berreskuratze prozesuan herri mugimenduak bere zeregina badu eta betetzen badu ere, sar hitzan erran bezala botere publikoetatik eramaten den hizkuntza politikak baikorki eragin dezake xifre horietan.

Bainan horretarako, behar-beharrezkoa da gaur egun Iparraldean borondate onaren gaineko hizkuntza politika gaintitzea eta beste urrats kualitatibo bat ematea.

Eta erran bezala, eta begi bistakoa bada ere, Iparraldea berreuskalduntzeko hiltun kopurua nabarmen emendatu behar da eta euskara erabiltzeko motibazioa sendotu behar da.

Ondorioz, hizkuntza politikak ondoko erronkei erantzun behar die:

- Nola egin hiltun osoen kopurua emendatzeko?
- Nola egin euskaldunek euskara erabiltzeko motibazioa ukan dezaten, eremu pribatuan (arlo sozio-ekonomikoan adibidez) eta pribatuan (administrazioetan eta abarretan)?
- Nola egin euskaldunak ez direnak euskarara erakartzeko, nola egin euskara ikasteko eta erabiltzeko gogoa ukan dezaten? Nola piztu motibazioa?

Hona pista batzuk:

Hiltunak nola sortu? Nola erakarri erdaldunak euskarara?

Haurrak: ikusiz jendeen %80k nahi duela beren haurrek euskara ikas dezaten (%20k bakarrik nahi du frantses hutsezko irakaskuntza), jende horri euskararen eta euskarazko irakaskuntza orokortua proposatu behar zaio. Etxearen eta eskolaren arteko distantzia edo eskolatzearen kostua bezalako parametroak ez dira trabak izan behar irakaskuntza hautu hori egin nahi duenarentzat.

Hala ere, eta kontuan hartuz jendeen %94k pentsatzen duela etorkizunean euskaraz edo euskaraz eta frantsesez mintzatu behar dela, argi utzi behar da ingurumen euskalduna izan ezean murgiltze eredia dela euskal-

duntzen duen bakarra, hots hiztun osoak sortzen dituen bakarra (eta ikusi dugun bezala, euskararen «salbatzea» hiztun osoetatik pasako da).

Helduak: haurrez gain, helduak ere euskaldundu behar dira. Gero eta gehiago dira euskara ikasteko hautua egiten duten helduak. Hauek lagundu behar dira eta oraindik hautu hori egin ez dutenak euskarara erakarri behar dira. Eta euskara euskalduntasunarekin edo euskal nortasunarekin lotzeaz gain, bada beste elementu bat ahalbidetuko lukeena motibazioa azkartzea: euskara ofiziala izatea. Izan ere, arlo publikoan lan egin ahal izateko euskara jakitea beharrezkoa izanez gero, adibidez, jende gehiago erakarriko luke.

Bainan anartean, dirua bezalako faktoreak ez dira frenoak izan behar euskara ikasteko nahia erakusten duenari ateak hesteko.

Euskararen erabilera, nola bultzatu?

Euskara arrunt normalizatzeko, haren erabilera bultzatu behar da eremu pribatuan zein publikoan. Eta erabilera bultzatzeko, euskaldunei eta euskarara ikasten ari direnei guneak eskaini behar zaizkie.

Herri mugimendutik zenbait proiektu xutik jarri dira euskaldunek euskaraz aritzeko parada ukan dezaten eta euskara ikasten ari direnek mintzatzeko eta trebatzeko parada ukan dezaten. Aipa ditzakegu besteak beste aisialdien arloan *Uda Leku* elkarteak haur eta gazteentzat egiten duen eskaintza, AEK-k garatu mintzapraktikarako esperientziak...

Botere publikoei ere doakie arlo hori jorratzea, baita ere arlo horretan ari diren elkarteak laguntzea.

Bestalde, eta eremu publikoari dagokionez, inkestak ongi erakusten du gabezia handi bat badela zerbitzu publikoetan eta administrazioetan. Eta herriko etxeak bezalako egitura publikoetan euskara garatzeko urratsak eman eta ematen badira ere (*Euskal Konfederazioak* lehenik, euskara teknikarien sarearen bitartez gaur egun), hor ere argi da euskara ofiziala izan balitz bultzada handia lukeela erabilerak.

Euskara Iparraldean hizkuntza ofiziala izanen ez deno eta haren erabilera arlo jakin batzuetara mugatuko deno, bigarren mailako hizkuntza geldituko da frantsesaren ondoan eta horrek ez du lagunduko haren erabilera bultzatzen (eta ezta ere erdaldunak euskarara erakartzen).

Anartean, egitura publiko guzietan politika harmonizatua beharko litza-teke. Gaur egun desberdintasun handiegiak ikusten dira eremu geografiko batetik bestera...

Bainan horiek hizkuntza politikaren gaian sartzen diren pista batzuk besterik ez dira. Gaia gehiago sakontzeko parada izanen dugu arratsalde hone-tako mahai inguruarekin, eta ikusten ahalko dugu zer neurri gehiago har-tzen ahal den Inkesta Soziolinguistikoak azalarazi xifreak hobetzeko, eta beraz euskararen berreskuratzen prozesuan urrats kuantitatibo berriak ema-teko.

Euskararen balorazio kulturala

ETCHEGOIN, Pantxo
Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria

Euskal Kultur Erakundea, 1990ean eraiki egitura bat da, hain zuzen eus-
kara oinarritzat daukan kulturgintzaren bultzatzeko.

Lau diruztatzaile nagusi dauzka: Euskal kultura sostengatzen duen *He-
rriarteko Sindikata* (146 herri), Estatua (Kultura Ministerioa), Akitaniako
Kontseilua eta Departamenduko Kontseilua.

2003az geroztik, Eusko Jaurlaritzatik ere diru-laguntza bat eskuratzen du
mugaz bi aldeetako kultura harremanak bultzatzeko.

Euskal Kultur Erakundeak, gaur egun, 152 elkarte kide dauzka eta lagun-
tzen ditu formakuntza, sorkuntza eta hedapena alorretan.

Lehen hamabost urteetan, *Euskararen Erakunde Publikoa* abiatu arte, eus-
kararen sustatzen kulturgintzan bezainbat lan zuen.

Hona hemen, 11 puntutan, ekintza handien laburpena:

1. Inkesta soziolinguistikoak: *Euskararen Jarraipena I eta II*

Inkesta hauek egin ziren 1991n eta 1996an euskararen egoera aztertzeko
Euskal Herri osoan, 16 urtez goitiko herritarren artean.

Iparraldeari zegokionez, *Euskal Kultur Erakundeak* bere gain hartu zuen
inkesta haien kudeaketa, inkesta-egileak AEK-koak zirelarik.

Euskera. 2012, 57, 1-2. 143-148. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hirugarren ikerketa batean ere parte hartu zuen: *Etorkizuna aurreikusten* 99: *Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara* ikerlana 1998-1999 urteetan eramana izan zen, 13-14 urtetako ikasleen artean.

Hiru inkesta haien bultzatzailea Eusko Jaurlaritza izan zen.

2. Hiru liburuxka: *Euskara agerian*

Iparraldeko euskaltzainekin lan egin ondoan, EKEk plazaratu lehen liburuxkan, herrien izenak eta oinarrizko bide seinaletzari buruzko aholkuak ematen zituen; bigarrenean, zerbitzu publiko eta pribatuetakoko seinaletzari landu zuen, eta hirugarrenean, herrietako kanpoko seinaletzari publikoak nolakoa izan behar zuen.

3. Erakusketa: *Euskararen hatsa*

Euskara, Euskaldunen hizkuntza (oinarrizko argitasunak) 8 orrialdeko dokumentu elebiduna.

4. Topaketak: *Langues et cultures régionales*

Frantziako baita bere uharteetako *Hizkuntza eta kultura ezberdinen ihar-dunaldiak* EKEk hiru aldiz antolatu zituen Euskal Kultura sustengatzen duen Herrien arteko Sindikatarekin batera: 1995ean Uztaritzen; 2000an Saran eta Hendaian; 2007an Kanbon (azken topaketa honetan *Euskararen Erakunde Publikoak* ere parte hartu zuen).

5. Haurrentzat aldizkari bat: *Xirrixta*

Euskal Kultur Erakundeak hartu zuen lehenbiziko erabaki handia: haur literaturari lehentasuna emanen ziola. Tolosako *Milan* argitaletxearekin negoziaturik, *Xirrixta* aldizkariari sorrera eman zion 1992an.

Bi urteren buruan, administratzaile batzuek galdeginik, *EKE*ek utzi zuen *Xirrixtaren* jabegoa eta Hendaian sortu zuten *Xirrixtazaleak* elkarte berriak hartu zuen haren kudeaketa; bestalde, gaztetxoentzat *Kometa* plazaratuz. Beste hiru urtez sekulako lanak erabilirik bi agerkari haiek bizirik atxikitzeko, harpidetza eskasez, azkenean elkartea desegin zuten.

Gazteluma – Iparraldeko 30 urtez petiko gazteak euskarazko liburuak idazten bultzatzeko, *EKE*ek, burtsa (beka) baten sortzea proposatu zion Elkar argitaletxeko ordezkariari.

EKE, Elkar megadenda eta Erkalanean Fundazioa 2000. urtean adostu ziren *Gazteluma* lehiaketan onartua izan zen idazle gazteari hiru laguntza mota eskaintzeko: 3.000 euroko diru-laguntza, epaimahaiko hiru idazleren aholkuak eta liburuaren argitalpena. Orain arte, 5 idazle gazte lagunduak izan dira. Bitartean adina luzatua izan da: 40 urte arte.

6. Itzulpenak herriko etxeentzat

Herriko etxeak (udalak) *EKE*ren oinarrizko partaideak dira. Haien diru laguntzarik eta sostengu moralik gabe, ez zen *EKE*rik izanen.

Horregatik, *EKE*ek lan handiak erabili zituen herrietako seinalakuntzaren itzulpenak segurtatzeko. Lanik sakonena, adibidez, Biarritzeko hiriarentzat egin zuen, gero Urruñaren aldi izan zen eta ondotik beste askorentzat.

Bestalde, Euskaltzaindiak galdeginik *Iparraldeko toponimoen bilketa, kudeaketa eta hedapena* ikerketa gotor bat burutu zuen, 2002an.

7. 1996-1997 urteak: bihurgune bat euskalgintzaren kudeaketan

Urte horietan, Garapen kontseiluak eta Hautetsien kontseiluak erabaki zuten Hizkuntza kontseilu baten sortzea.

EKE anitz inplikatu da gogoeta horretan, *Euskal Konfederazioko* ki-deekin.

Eztabaida biziak izan ziren jakiteko hizkuntza kontseilu horrek *EKE*ren adar bat izan behar zuenetz, edo aparteko egitura bat, ongi bereizteko euskara eta euskal kultura.

Azkenean, bigarren hautua egin zuten euskalgintzako aktoreek eta Hizkuntza Kontseilua ideki zen Uztaritzen, 2001eko urte amaieran.

Bizpahiru urte iraun ondoan, Euskararen Erakunde Publikoaren sortzeko xedea aitzinatu zuten hautetsiek, egiazko hizkuntza politika publiko baten bidean ezartzeko.

Hau 2004an eta 2005ean sortu zen eta hortik landa, Euskal Kultur Erakunde osoki euskal kulturaren alorrari lotu zen, euskararena *EEP*ren gain utziz.

8. Euskara toki berrietan sartu

Euskara batere edo biziki guti entzuten zen tokietan, hala nola zentro komertzialetan, Baionako ospitalean, euskal kultura hurbiltzeko saioak antolatu zituen.

Azken hamar urte hauetan, Biarritzen, Hazparnen, Kanbon eta Donapaleun mediatekak eraikiak izan baitira, *EKE* urtero proposamenak egiten dizkie eta euskarazko hitzaldiak, liburu aurkezpenak elkarrekin antolatzen dituzte, halaber, Donibane Lohizuneko Herriko etxearekin.

9. Euskara ikusgarritutzan eta teknologia berrietan

Euskal Kultur Erakundeak betidanik euskararen presentzia azkarki bultzatu du, bai bere ekintza propioetan (ikus adibidez www.eke.org gunea), bai partaide dauzkan elkartekideei galdeginez ikusgarrien aurkezpenetan eta iragarkietan euskara ager dezaten.

10. *Eleketa* programa

Gaur egun, ahozko ondare sailean *Eleketa* programaren bitartez, adinetako jendeek beren biziko lekukotasuna euskaraz kontatzen dute, eta ondo-

rioz, grabatutako film horiek gazteei euskararen transmititzeko euskarri pedagogikoak bihurtuko dira.

Euskal Kultur Erakundeak lekukotasun biltze, artxibatze eta hedatze lan handi bat abiatu zuen 2007an, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak lan honen jabegoa hartu zuelarik 2009an.

Eleketa programari esker, gaur arte, 180 lekukotasun bilduak izan dira Ipar Euskal Herrian, baita ere tratatuak, Baionako Artxibategian entzun-ikusteko gisan.

Lekukotasun hauek eskoletako haurrei eta publiko zabalari ezagutarazteko, hanbat ekintza eramaten ditu Euskal Kultur Erakundeak, hala nola bi erakusketa obratu ditu: *Amikuztarrak mintzo* eta *Itsasturiak*.

Itsasturiak erakusketak 2010ean Donibane-Lohizune/Ziburun bildu itsas munduko lekukotasunak eskaintzen dizkigu, lekukoen hautaketa *Itsas Begia* elkartearen eta *Itsas Misioaren* laguntzari esker egin zelarik.

11. *Hogeita* ekintza labela: gazteak eta euskal kulturaren biziberritzea

16-29 urte arteko gehienek euskararik ez baldin badakite ere (%18k bakarrik euskara ulertzen edo mintzatzen dute), gazte gehienek euskal kulturaren eta lurraldearen ikuspegi baikorra dute. Kantuari, dantzari, musikari edo kontzertuei esker, gazteek euskal kulturaren ezagupen bat eta praktika bat badute. Hortik, nortasun erreferentzia azkarrak ateratzen dituzte eta horrek beren garapena laguntzen du.

Euskal Kultur Erakundeak (EKE) gazteen kultura dinamiken erakusle izango diren sorkuntza eta adierazpide artistiko baita trukaketa esparruak lagundu nahi ditu *Hogeita* programaren bidez. Paraleloki, epe ertain eta luzerako, EKEk gogoeta bat abiatu nahi du bere partaideekin, ondarearen transmisiorako tresna iraunkorren sortzeari buruz.

Egitaraua bi publiko motari zuzentzen da :

- 8-15 urte arteko haurrak eta nerabeak; haurrentzat, hautaturiko ekin-
tzeak euskal kultur nortasuna osatzen duten osagaien transmisioari
lehentasuna ematen diote, sorkuntza saila baztertu gabe;
- 16 urtez goitikako gazteak

Gazteentzat, mota guzietako sorkuntzek lehentasuna ukanen dute, eta euskal kulturaren alor batzuk berrasmatzen ala berritzen dituzten egitasmoen eragile izateko ahalak eskainiko zaizkie.

Partaidetzak indartu: «Denen beharra badugu»

Euskararen kultura balorazioaren geroarentzat, zubiak eraikitzea baitezpadakoa da: alde batetik, erakunde publikoekin eta haien zerbitzuekin, baina ere euskararen eta euskal kulturaren eragile guziekin (elkarte, artista, baliabide iturri direnak, etabar),; halaber, *Euskararen Erakunde Publiko*arekin, eta nolaz ez Euskaltzaindia, *Iker* edo unibertsitateekin, ikerketak kultura elika dezan eta halaber, kulturak ikerketa.

Gaur egun, Euskal Kultur Erakundeak eginkizun berezi bat dauka: euskal kulturaren gehiago sarrarazteko politika publiko ezberdinetan (herriko etxeetan, herri-elkargoetan, erakundeetan,...) euskal kultura «dretxo amankomunean» sar dadin behin betikoz; adibidez, hezkuntza artistiko eta kulturaletako programetan, irakurketa publikoan, etabar.

Hizkuntza batek badu funtzio sinbolikoa, besteak beste adierazpen artistiko ezberdinetan murgiltzen dena. Oro har, euskal kulturaren geroa sorkuntzek baldintzatuko dute: gure gaitasun guziak bil ditzagun gure ondarearen biltzeko, haurrek, gazteek eta helduek hobeki ezagutu eta goza dezaten. Atzokoa biharkoan ikusi behar dugu!

Ipar Euskal Herrian euskara indarberritzeko hizkuntza politika

Mahai-ingurua

BIDART, Jojo
Moderatzailea

Mintzalariak:

MAITIA, Frantxua
EEPko lehendakaria

INDO, Paxkal
Seaskako lehendakaria

BORTHAYROU, Jakes
AEK

JOSIÉ, Joné
Kontseilua

BETBEDER, Titto
Euskal Irratietako zuzendaria

Galdea: Inkesta soziolinguistikak egiten direnetik ohartzen gara, hemen Iparraldean, euskaradunen kopurua eta proportzio beti apaltzen ari dela, 1991n %28 ziren eta 2011n %21,5. Hizkuntza Politikak bere helburuak betetzen ote ditu Iparraldean? Zertan ezarri behar da lehentasuna?

Frantxua Maitiarentzat egoera berrikustea merezi du: adin klase zaharretan direlako euskaradun gehienak atxemaiten eta horiek desagertzen ari dira urtetik urtera, bestalde euskararen transmisioak huts gune bat izan du denboran eta horregatik Euskararen Erakunde Publikoak xutik ezarri duen hizkuntza politikaren helburu nagusitzat hartu du «haurrak eta gazteak hiztun osoak bilaka araztea». EEPko lehendakariarentzat eskoletan

Euskera. 2012, 57, 1-2. 149-153. Bilbo
ISSN 0210-1564

egin lana ari da bere fruitua emaiten eta, gaur egun, ikasle gazteenen gehiengo batek %58 sistema elebiduneko erakaskuntza segitzen du, %42 zirelarik duela 5 urte.

Landua den beste arloa da euskararen erabilpena sustatzea: bai hiri edo herri elkargoetan lanean ari diren euskara teknikarien sarearen bidez, bai eta ere zerbitzu publikoetan edo parapublikoetan gogoetatzen ari denaren bidez.

Azkenik, EEPk laguntza teknikoa eta juridikoa eskaintzeaz gain, diru-laguntzak ere banatzen ditu bere diru-kontua bikoiztu baita azken 5 urteetan (3,35 milioi eurokoa gaur egun) eta hitzarmenak finkatuak ditu, Eusko Jaurlaritzarekin batean, euskararen eragile nagusiekin.

F. Maitiaren ustez, hasiera batean elkarreeri esker lortu da euskararen salbatzeko beharrezkoa zen egituraketa minimoa eta orai politika publikoak du segida hartu behar. Politika horren eraginez pentsatzen baitu inkesta soziolinguistikoetan agertzen ez diren 16 urte petikakoetan eragin handiago ukanen duela! Geroak erranen! Eta biharko desafioa izanen da kanpotik etorritako jendeen euskalduntzea, konduan hartuz Iparraldeko gehiengo handi batek atxikimendu azkarra duela euskararekiko.

Jakes Borthayrou:

AEKko erakasle eta aspaldiko militantearentzat, azken urteetan aintzi-namenduak izan dira bai herri mugimenduari esker bai eta erakunde politiko-koeri esker, baina «arbolak ez du oihana gorde behar», gehiago dena Jakesentzat orohar «brikolatzen» edo txintxuketan baizik ez gira ari. Egoera aldatu nahi bada beste zerbaitekin egin behar da.

Jakesentzat, emanak diren datuen arabera, erritmo horretan segituz harkada asko edo berdin mendeak beharko dira, herri honetan, gehiengoak izan dadin euskaldun.

AEK-k parte hartu baitu, Garapen Kontseiluaren baitan azken urtean egin diren gogoetetan, Kultura eta Hizkuntza lantaldean egin dignosiak bi gauza argi erakusten ditu: alde batetik, hizkuntza alorrean lege babesa ezin-

bestekoa dela, eta bestetik, hizkuntza politika kudeatzeko Ipar Euskal Herriak bere instituzioa, hots, Lurralde Elkargoa, beharrezkoa dela.

Lantaldeak azpimarratu duenez, beste faserat pasatzeko euskararen eskaintza orokortu behar da bai erakaskuntzan, bai eta erabilpenean ere. Horretarako baliabide ekonomikoak ere beharrezkoak dira eta oraiko diru kontua ainitzez inportanteagoa behar da.

Azkenik, helduen erakaskuntzari doakionez, hiztunen sortzeko beranta aipatu du Jakesek, instituzioetatik gogoeta orokorra egin eta mezua argia zabaldu behar duela.

Paxkal Indo Seaskako lehendakariak, Iparraldeko jende gehiengoak gizarte eskualdun batean bizi nahi duela oroitarazi ondoan, herri mugimenduaren lanaren ondorioa azpimarratu du, inkestek erakusten duten euskaradunen adin-kurba berritz goitiarazteko ikastolek eragin zuzena ukan dutela adieraziz.

«UNESCOk dio, hizkuntza baten salbatzeko, jendartearen %30 hizkuntza horren erabiltzaile izan behar dela. Horretarako, gure lurraldean, murgiltze eredua zabaldu behar dela uste du Paxkalek eta ondoko 10 urtetako apostua da elebidun sarean dauden haurrak murgiltze ereduko hautua egin dezaten, hizkuntza politikaren bidez euskararen erakaskuntzaren eskaintza orokortuz eta hobetuz.»

Ttitto Betbeder:

«Euskal Herrian, Iparraldea da hiztun kopurua galtzen segitzen duen eskualde bakarra. Denbora berean, ezagupen instituzionalik ez duen eta euskararentzat lege babesik ez duen lurralde bakarra da».

Errealitate hori erakutsi ondoan, 16/25 urte artekoen berreuskalduntzearen erantzule zuzena herri mugimendua dela argi du Ttittok.

«Geroari begira, euskararen erabilpena sustatzen duten guneen azkar-
tzea izan behar da hizkuntza politikaren lehentasuna. Krisia denboran
hautuak egitekotan eta efikazitatearen izenean, hobe da euskararen indar-

guneen azkartzea osoki erdaraz ari diren guneetan euskara pixka bat ageriaraztea baino».

«Bururatzeko, euskaraz ari diren hedabideen artean egitura bat sortzen ari gira, instituzioek emaiten ez duten baliabide ekonomiko berria elgarrekin aurkitzeko».

Jone Josié:

Euskararen normalizaziorako hizkuntza politika beharrezkoa dela oroitarazi ondoan, gaur egun, hemen Iparraldean gauzatzen ari dena ezinbestekoa bainan mugatua dela erran digu Jonek, eta hizkuntza politika eraginkorrago bat lortzeko eskas diren 11 puntu zehatzu: administrazioa integratuz, helburu eta epeak zehaztuz, instituzio eta herri mugimenduen arteko konplizitatea sustatuz, espazio euskaldunak lagunduz. Hots, hizkuntza eskubideen bermea segurtatu eta hizkuntzaren erabilera normalizatuko lukeena.

Euskararen kaltetan ezagutzen dugun diglosia egoeratik ateratzeko «estatus egokia» emanez euskarari: gure lurraldean, euskararen ofizialtasuna onartuz.

Eginak izan diren aurkezpen eta oharren ondotik bi galde:

- Euskararen erakaskuntzaren eskaintza orokortu behar dea Iparraldeko eskola guzietan?
- Lege bat beharrezkoa dea euskararentzat?

Frantxua Maitia:

«Frantziako presidentak hitz eman du Eurokarta «berretsi» edo aplikatu-ko zuela. Horretarako Konstituzio aldaketa egingen da eta, egiten bada, hizkuntza lege bat izanen da».

«Ez dut uste lege batek hemen egiten duguna baino gehiago ekar lezakeenik, bainan egia da hemengo egin moldeak segurtatuak ditaizkeela».

2014tik goiti, *Pays* egitura ez gehiago izanez, Iparraldearen geroa ez dela argi ikusten erran dauku Frantxua Maitiak, eta denak borrokatu behar garela instituzio berri bat ukaiteko. «Horrek ez digu gure legeen egiteko ahalmena emanen bainan hizkuntza politika gauzatzen lagundu lezake» segitu du erranez.

Maitiarentzat, euskararen aldeko motibazioaren azkartzeari eman behar da lehentasuna. Jendeen borondatearekin lanean segitu beharko baita, Euskararen Erakunde Publikoko lehendakariarentzat.

Paxkal Indo:

«Nahiz eta Eurokartaren aplikatzea Hollande lehendakariaren promesa izan den, ez dut uste lortuko dugunik. Gezurretan ari dira 1981ean bezala».

Jakes Borthayrou:

«Korsikeraren koofizialtasunarekin gertatzen ari dena interes handiz segitzen dugu. Nahiz ez duen lege baten indarra ukanen, aurrerapauso handia ditaik eta horrek erakusten digu, lurralde batean, hizkuntzaren estatutua eta egitura instituzionala lotuak direla».

«Frantses legean agertzen den esperimintatzeko eskubidea erabiliz, Eurokarta esperimintatzen ahal genuke, hemen Iparraldean, bainan horretarako tresna instituzionala beharrezkoa dugu».

Jone Josié:

«Frantses legean eskualdeko hizkuntzak Frantziako ondare bezala aipatuak dira, bainan artikulua sinbolikoa gelditzen da. Orain koherentziaz jokatzea galde egiten dugu podere publikoari, urrats konkrituak beharrezkoak dira».



Irakaskuntza elebidunaren erronka: hiztun osoak egitea

Mahai-ingurua

IDIEDER, Arantxa
Moderatzailea

Mintzalariak:

DUFAU, Aines
IKAS Euskal Pedagogia Zentroko zuzendaria

BOURGOIN, Paskal
Euskal Haziak elkarteko lehendakaria

OURET, Marie Andrée
Biga Bai guraso elkartekoa

GOROSTIAGA, Hur
Seaska elkarteko zuzendaria

Ipar Euskal Herriko egoera soziala kontsideratuz, irakaskuntzaren errola, euskara plazara ekartzeko biziki garrantzitsua da. Hizkuntza baten transmisioa, familia eta eskolari esker egiten da. Kondutan harturik, ingurumen soziala nagusiki frantsesa dela, euskal hiztun oso baten sortzea, euskara bizirik atxikitzeko eta garatzeko, ezinbestekoa da.

Euskaltzaindiak antolatu jardunaldi hauetan, argiki, euskararen aldeko politika eraginkor baten beharra senditu da. Euskararen geroa jokoan delarik, aterabideak atxemaiteko garaia da, eta erakaskuntzaren kasuan, erreallitate desberdinak konfrontatu dira.

Erronka horien ezagutzeko, 4 gomita ziren mahai inguruan. Alde batetik, IKAS, euskal pedagogia zentroko zuzendaria den Aines Dufau, eta bestetik 3 irakaskuntza mota desberdinetako ordezkariak. Eskola elebidunarentzat, eskola giristinoetan, *Euskal Haziak* elkarteko, lehendakaria den Paskal

Bourgoin, eta eskola publikoetan *Biga Bai* buraso elkarteko Marie Andrée Ouret. Eta irakaskuntza osoki euskaraz egiten duen *Seaska* elkarteko zuzendaria den Hur Gorostiaga.

Geroari buruz ordu da prestatuak izan gaitezen, erakunde publikoek haien ardurak hartu ditzaten

IKAS pedagogia zentroa materialgintzan berezitua da. Uztaritzen kokatua den egoitza berrian, dokumentazio zentro bat osatu dute, bereziki erakasleentzat antolatuak. Bestalde ere animazioak antolatzen dituzte (erakasle ala haurrei zuzenduak).

Hastapenetik *IKAS* egitura berezia izan da, 1959. urtean kultur elkarte gisa zen, Frantzian ez da holako beste egiturarik, eta azken 10 urte hauetan onartua izan da elkarte gisa. Traba batekin hasi da lanean *IKAS*, eta duela zonbait urte *Euskararen Erakunde Publiko*arekin eta Hezkunde nazionalarekin, izenpetu dute hitzarmen bat, zerbitzu publiko bezala agertuz (4 urtero ebaluazio batekin).

2005etik hasi den kudeantza aldaketa positiboki ikusten du Aines Dufauk, *EEPk* Bordeleren lekua hartu baitu.

IKASek egiten duen lana euskararen garapenerako garrantzitsua da. Liburuak osoki pedagogikoak dira, kondutan harturik, liburuak frantses Hezkunde nazionalaren ereduaren oinarritzen direla.

Erakasleentzat, euskaraz beharrezkoa duen materiala proposatzen dute, eta burasoentzat, liburuak disko batekin lagundurik eskaintzen. Diskoak, euskararen lotura zuzena ekartzen du haurrari edo burasoari. Euskara baturaz gain, xiberotarrei zuzendutako liburuen egitea beharrezkoa iduritzen zaie. Aines Dufauk azpimarratu duen bezala «ez da xiberotarraren promozionatzeko, baina eskolaren ikuspegitik loturaren atxikitze, inguramen hurbilaren eta eskolaren artean» eta hurbiltzen da «Iparraldeko batura».

Sorkuntzari ere, bere lekua egin nahi dio *IKASek*, nahiz sortzaile gutti diren. Sortzaileak izaiteko, irakurleak beharrezkoak dira «neke da irakurle egitea, eta irakurle izan behar dira idazleak (sortzaileak)».

IKASen kezka nagusia kualitatiboa gelditzen da. Garai batez egitura bereziak tratatzen baldin bazuen, gaur egun kualitatiboki mugatuak dira. Lehen mailako tresnak egiten dituzte, baina bigarren mailako ikastresnen egiteko ez dira gai.

Pedagogia zentroko buruak funtsezko inbertitze lana beharrezkoa dela azpimarratu du; «bada egiteko erakasleen formakuntzan, eta hori errana izan dugu, errepikatuko dugu, alimaleko ziloak badira, ez dugu pretentzio-nerik (...) eta hori ez da gure esku, zoritxarrez, unibertsitate eta Hezkunde nazionalaren artean bada zerbait egiteko, bestenez hankamotz gelditzen da IKAS» «geroari buruz ordu da prestatuak izan gaitezen, erakunde publikoek haien ardurak har ditzaten». IKAS pedagogia zentroa mugatua senditzen da, bere helburuak ezin bururaino eramanez.

Dudarik gabe, ama eskoletan imertsioa hedatu behar da

Ipar Euskal herrian, 200 eskola publiko dira, eta erdiak elebidun sailak eskaintzen ditu. Orotarat, 17.000 haur dira eskola publikoetan, eta 5.000 erakaskuntza elebidunean.

Marie Andrée Ouret-ek (*Biga Bai*) bere egituraren balorazio bat egin du, egungo egoera aztertuz, emaitzak landuz, eta aterabideak proposatuz.

Lehen maila bukaeran (11 urtetan), kausitu behar duten maila, hizkuntzen europar erreferentziaren A2 mailakoa izan behar da, oro har lortzen duten maila. Baina *Biga Bai*en ustez, maila oso arrunta da, ulermenaren aldetik eta mintzairaren aldetik «erraiten ahal da elebidunetik (lehen maila) ez dutela euskara menperatzen, eta euskalduntze hori oso azalekoa gelditzen dela, gure iduriko».

Askotan, elebidunean ikasten duten ikasleak euskaraz ari ez diren familietako haurrak dira. Haurrak ez dira hizkuntzaz aski inguratuak. Lehen ondorio zuzena da haurrak ez duela euskara barneratzen. Baina bigarren ondorio bat bada, erakasleentzat, baldintza horietan euskara erakastea biziki zaila dela. Klase batean ikasleen maila arrunt desberdina da, eta denbora gutti euskara lantzeko.

Biga Bai buraso elkartearen ustez, murgiltze sistemak ama eskolan emaitza onak ekartzen ditu, eta maila falta horri aterabidea ekartzen dio «dudarik gabe hori (imertsioa) behar litaik hedatu».

Biga Baien kezketan, Aines Dufauk altxatu duen problematika berriz aurkitzen dugu. Kualitatiboki mugatuak dira, erakasle formakuntza faltagatik. «Erakasleak orain baino hobeki formatu behar dira, erakaste molde berezi horri (...). Haurren ama hizkuntza frantsesa delarik, euskararen erakastea, molde berezi batean egiten da».

Eskola elebidunean, bigarren mailan sartzerakoan, euskararen leku eskasa argia agertzen da. 18 kolegio publiko dira, eta 12 elebiduna eskaintzen dutenak. Bainan lehen mailatik bigarren mailara pasatzerakoan, %40ak elebidun saila uzten du. Ikasleen 10etatik 6 galtzen dira bigarren mailara sartzerakoan. «Burasoak beldurtzen dira, 3 oren gehiago euskararendako, lan zamagatik». Horrez gain, oren parekotasuna ez da errespetatzen kolegioetan (3 ordu euskaraz / 3 ordu historia geografia euskaraz), aste osoa kondutan harturik, euskaraz egiten diren kurtsoak, laurdena baino guttiagokoak dira, erdia izan beharko lukeelarik.

Haur kopurua elebidunean, bigarren mailan, zinez ttipia da, orotara, 15 kolegiotan, 6garrenean (12 urte) 200 haur dira bakarrik, eta administrati-boki antolatzea zaila da. Bestalde, maila duten erakasleak falta dira, eta bereziki Ipar Euskal Herrian plantatuak izaiteko.

Lizoetan bada eskaintza gutti, 13 lizeotatik 3 dira elebiduna eskaintzen dutenak. 66 ikasle dira, bainan M.A. Ouretek azpimarratu nahi izan du, emaitza onak direla baxoan, nahiz eta euskararen maila ez den baloratua baxoa pasatzeko momentuan.

Eskola elebiduna publikoan ikasleen eta bereziki burasoen fidelizatzea eskas da. Lehen mailan, eredu elebiduna segitzen dutenak ainitz badira, bigarren mailan ainitz galtzen dira, euskara ikasleen bizitik desagerraraziz. Burasoen lekua garrantzitsua da hemen, euskara ez baita aski baloratua, gehienentzat ez baita beharrezkoa. Ikuspegi hori aldatu behar da, burasoen dudak, edota arrangurak elkarrizketa bidez aldatuz. Horrez gain, ingurumen frantses huntan, euskara hiztun osoen sortze helburua ez du lortzen. *Biga*

Baiek azpimarratzen du «ez da aski oren euskaraz, erraiteko zinezko erakaskuntza elebiduna dela».

Biga Baien ustez, elebidun sailak behar du barnetik azkartu eta egituratu, ahal gehiagorekin.

«Herrialde hizkuntzetarako manatzen duen legedia, egokia ote da? Lege aldaketa bat beharrezkoa ote da? Eskaintza elebiduna eskola guzietan hedatu behar ote da?». Galdera horiekin bukatu zuen bere aurkezpena eta gogoeta M.A. Ouretek.

Zergatik balio du euskaraz mintzatzea eskolatik kanpo?

Euskal Haziak elkarteak eta *Biga bai* elkartearen artean, problematika berdina aurkitzen dira. «Eskola elebidunak euskal hiztun osoak sortzen ote ditu?» galderari ez du erantzunik atxeman oraindik eskola girstino elebidunetako burua den Paskal Bourgoinek.

*Euskal Haziak*en ikasleak 32 eskola, 10 kolegio, 3 lizeotan banatuak dira; 2.900 ikasle dira euskaraz eskolaturik direnak, eta eskolen erdia elebiduna da.

Hemen ere mugak argiak dira, klase elebidun baten sortzeko 3 baldintza beharrezkoak dira: zuzendariaren nahikeria, erakasleena eta, erran gabe doa, burasoena. *EEPre*n helburua, hiztun osoak sortzea da. *Euskal Haziak* elkartearen helburua, elebidun osoak sortzea, bi hizkuntzetan ber maila ekarriz. Baina euskarak ez du leku ofizialik, eskola hauetan. Paskal Bourgoin: «ainitzetan bada gela elebidun bat, baina ez du hortakotz erran nahi eskola elebiduna denik».

Hizkuntza politika baten beharra senditzen du elkarteak, hiztun osoak egiteko. Ez du bere burua gai ikusten, eskola elebidunaren emaitzak neurtzeko. Bestalde, A2 erdua (euskara maila neurtzeko) ez da sistema desberdinak konparatzeko, tresna hoberena. «Ez dakigu gure haurrak euskalduntzen dituen ala ez».

2 arazo nagusi azpimarratu nahi izan ditu Paskal Bourgoinek: burasoek hautatzen dute, haurrak elebidunean ala frantsesa hutsean uztea, eta etxetik hurbil izan behar da. Postu bat idekitzerakoan, frantsesa galtzen da, eta

horrek segidan eragile desberdinak blokatzen ditu. Erakasleen eskasa, eta formakuntza falta ere arazoetan sartzen du. «Eskaeratik eskaintzara pasa gaiten, sortu gelak, postuak galdu gabe».

Euskal Haziak elkarteko ordezkariak, galdera ainitzekin bukatu du bere hitz hartzea.

«Zergatik balio du euskaraz mintzatzea eskolatik kanpo?»; «Zergatik indar bat egin etxean, eskolan euskara ikasten baitu gure haurrak!» Eskola elebidunak ekartzen duen «ilusioa» agertzen da hemen. Bainan euskararen presentzia ttipi hori ez da aski hiztun osoak sortzeko. Hortan sartzen da euskararen lekua gure gizartean, eta baloratzearen beharra, izan ikasleen ikuspegitik ala burasoen ikuspegitik.

Josean Artzeren esaldia txarra da, euskaldunak kulpabilizatzen ditu. Euskaldunari medioak eman behar zaizkio euskara baliatzeko, euskararekin den kulpabilitate hori galtzeko

«Hizkuntza bat ez da galtzen / ez dakitenek ikasten ez dutelako, / dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik». Euskaldun ainitzek erreferentzia gisa ikusten dugun esaldi horrek, *Seaskako* zuzendaria den Hur Gorostiagaren ustez, euskaldunon kontrako desbalorizazio sistema hori azkartzen du, gaur egun baliabideak falta baitira euskara biziarazteko. Ipar Euskal Herrian, ingurumena kasik osoki frantsesa da, telebista bezalako medio batek hori haundizki azkartzen du.

Hizkuntza politikaren bigarren fase batera pasa behar dela uste du Hur Gorostiagak, euskaldunen «bizi halabehar» hori hausteko. Ipar Euskal Herriko bi irratien egoera konparatu ditu «ohitu gira (...) Euskal Irratietako kazetari batek badu zinezko gaitasuna, bi hizkuntzetan egiteko, euskalduna da, *France Bleu*koa frantses hutsa izanen da, bainan Euskal Irratietakoa normala da, 3 aldiz guttiago pagatzea, baldintza duin batzu gaur egun errespetatzen ez direnak».

Euskara beti bigarren mailan gelditzen da, euskal hiztun osoak sortzea duelarik helburu *EEPk*, eta euskara plazara ekartzea, baliabideak oso murrizak dira.

Seaskako zuzendariak azpimarratu du, euskalgintza bidegurutze batean dela, ez da inoiz hain indartsua izan, gizarteak erakutsi du euskararekiko duen lotura, baita hautetsiek ere (instituzio baten beharra, legedia bat, euskara ofiziala). Euskalgintza azkarra da bai, baina arnasik gabe.

Euskararen Erakunde Publikoaren errola azkartu behar da «ausardia behar dugu, Pariseren zain egon gabe, EEP bidelagun ukan behar dugu, ausardia hortan, diru banatzaile baino gehiago izan behar du». Euskalduntze «misioa» ez du beregain hartzen ahal *Seaskak*, geroz eta gehiago ikasle dira bai, baina ahal guttiago.

Seaska federazioan 30 ikastola dira, 3.000 ikasle, eta ekitaldi ainitz (*Olenzero Park, Herri Urrats, Integrazio Batzordea*). 400 bat langilez osatu «enpres» horren barne 210 erakasle, urtero %6 ikasle gehiago direlarik.

Gaur egun ikastolak legez kanpokoak dira (*Falloux* legea dela medio), murgiltze eredia legez kanpoko da, ikastolak, eskola pribatuak dira, eta herriko etxearen nahikeriaren esku.

Seaskak ere euskararen balorazio falta senditzun du, ikastolan euskara ikasten da, baina baxoa pasatzerakon, ingelesak balore haundiagoa du.

Hizkuntza politika aro berri baten alde joatera beharrezkoa da konplexurik gabe, euskara biziari nahi dutenen artean.

Euskara jalgi hadi plazara, euskaldunen nahikeria da bai, baina bide hortan segituz gero, Ipar Euskal Herrian, euskarak indarra galduko du, eta euskaldunak hatsanturik geldituko dira.

Hizkuntza bat ez da ezer hiztunik gabe, baina hiztunek, euskal ingurumen bat behar dute, «hizkuntza erkidego» bat. Burasoak frantsesak baldin badira, sail elebidunean den haurarentzat, euskara bere biziaren %25 bakarrik izanen da. Gilbert Dalgalian linguistak argiki erraiten du holakotan ez dela hiztun oso bat sortzen ahal.

Horregatik *Biga Bai* eta *Euskal Haziak* elkarteek ama eskolan imertsioa plantan ematea beharrezkoa ikusten dute. Baina ingurumen frantsesa delarik, «imertsio oso» bat ez da inoiz imertsio osoa. Oreka bat sortzen duen

imertsioa da, irakaskuntza eta eskola ingurumena osoki euskalduna badu ere, %50, karrikako ingurumena, aktibitateena edota familiarena frantses ingurumena da.

Euskararekiko balorazio lan azkar bat egin behar dela agertzen da hitzar-tze hauen ondotik. Euskara beti bigarren mailan gelditzen da, aukera bat edo exotismo bat, frantsesa sakratua delarik. Buraso batzuek haurrak elebi-dunetik, edo imertsiotik kentzen dituzte pentsatuz euskara dela arazoa. M.A. Ouretek buraso batzuen adibidea emaiten du «ene haurrak ez du ulertzen Matematika, eta hori euskaragatik».

Berriz ere euskararen balorazio falta argia da, eta buraso elkarteek, ezin-besteko lana dute egiteko. Euskara baloratu behar da, plazara ekarri behar da bai, baina frantsesaren «nagusitasun» tendentzia hori hautsi behar da. Ahantzi behar ez dena euskara gure hizkuntza dela, euskaldun egiten gaituena.

Ipar Euskal Herriko erakaskuntzaren inguruko elkarte eta zentroak gogotsu dira, baina Hur Gorostiagak dion bezala, gaur egun hizkuntza politikan brikolajea edo merke lana egiten da. Euskara ahulegia da, egitura bakotxa bere aldean gelditzeko, bereziki lege babesa falta delarik.

Ondorioak

ALEMAN, Sagrario

Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko burua

Inkestetako datuetatik, eta eguneroko lanean aritzeak ematen digun ikuspegitik honako ondorio hauek ateratzen ahal ditugu:

2011ko Inkesta Soziolinguistikokoaren datuak Ipar Euskal Herrian ez dira onak, euskararen gainbehera ez baita bururatua. Halere, 1991z geroztik egin direnetan, batetik bestera euskaldunen kopuruak bi puntu galtzen zituen aurreko inkestetan, eta oraingoan, puntu bakar bat. Itxaropenerako datuak ere badira, bada, azkeneko honetan.

Gaurko hizkuntza politikaren helburu nagusia “hiztun osoak” erdiestea izanik ere, inkestako datuetan ageri da hizkuntzaren kalitatea behera doala. Horri aurre egiteko, kalitatea indartzeko, ama-eskola guztietan murgiltze eredu jarri beharko litzateke. Euskalduntzen duen eredu, murgiltze eredu da eta.

Hiztunak gaitasuna behar du mintzatzen den hizkuntzan, eta trebetasuna edo gaitasuna izateko erabili egin behar du hizkuntza hori. Erakundeek eman beharko diete herritarrei euskara erabiltzeko aukera eta erraztasuna.

Erabilera sustatu behar dela dioen ehunekoa sustatzearen kontra dagoe-na baino askoz handiagoa da.

Lehen, familia bidezko transmisioa zen nagusi; orain, aldiz, eskola bidezkoa. Horregatik, familiako transmisioa indartzea beharrezkoa da eta transmisio hau eskolaren bidez egiten denarekin uztartzea.

Euskera. 2012, 57, 1-2. 163-164. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskara eta euskal kulturaren transmisioa elkarrekin landu behar dira. Kulturaren etorkizuna sorkuntzan dago.

Instituzio eta gobernuek duten jarrera eta egiten duten hizkuntza politikari buruzko datuak ere jaso beharko lirateke inkesta hauetan.

Euskara zerbitzu publikoetan ez erabiltzea kezagarria da eta, aurki ere, ez erabiltzea euskararen aitorpen publiko ezari lotzen ahal zaio. Lege babesa beharrezkoa da. Euskarak hizkuntza ofiziala behar du izan, arlo guztietan erabili daitekeena; bestela, bigarren mailako hizkuntza izanen da eta horrek ez du lagunduko erabilera bultzatzen.

Herri mugimenduak bere egitekoarekin segitu behar du, nola ez. Euskalgintzak eta erakunde publikoek harremanak sendotu behar dituzte eta elkarrekin aritu. Hizkuntza politika ez da borondate onaren gainean bakarrik eraiki behar. Hizkuntza politika eraginkorragoa egin behar da: eskaintza orokortu, bai irakaskuntzan, bai eta erabileran ere; euskararen arnasguneak indartu...

Agiriak

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindia. Batzar agiriak

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Larre, Emile,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaburu, Pello,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi, eta
Zabaleta, Patxi.

Erramun Osa, idazkariordea,
Joseba Zabaleta, kudeatzailea.

Ezin etorriak eta ahalak:

Jose Aurelia Arkotxak ahala Miren
Lourdes Oñederrari edo Sagrario Ale-

mani; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala
Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak
ahala Miren Lourdes Oñederrari;
Beñat Oiharzabalek ahala Jean Ha-
ritschelharri; Patxi Salaberrik ahala
Andres Iñigori edo Sagrario Alemani;
Ibon Sarasolak ahala Pello Salabururi;
Xarles Videgainek ahala Jean Ha-
ritschelharri; Mikel Zalbidek ahala
Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:05ean hasi da Eus-
kaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezke-
rreko zutabeen ageri diren euskaltzai-
nak bertan direla.

1. Agurra eta hasierako oharrak:
Euskaltzainburuak, bilduriko euskal-
tzainak agurtu ondoren, jasoriko aha-
lak jakinarazi ditu. Era berean ondokoa
gogorarazi du:

Osoko batzarraren gaiak 12ak arte tra-
tatuko dira. Ordu horretan batzarra
eten egingo da, beheko solairuko areto

nagusian, hilberri txostenak irakurtzeko. Ondoren, berriz ere batzargelara igo eta eguneko gaiekin segituko da.

1.1. Aurreko batzarraren akta (2011/11/25) onartzea. J. Haritschelharrek aurreko bileraren akta ez duela jaso adierazi du. Beste zenbait euskaltzainek ere akta heltzeko epean atzerapenak izan dituztela adierazi dute. Tartean posta-zerbitzuetan izandako greba-kontuengatik izan zitekeela azaldu da.

P. Goenagak aurreko aktan bere izena falta dela azaldu du. Eztabaida gertatu da laugarren puntuari buruz, bereziki 4.1.2.an adierazitakoaz. Azkenean, bilera-agirian jaso beharreko testuari buruz adostasuna egon da. Hona hemen: «Kudeatzaileak adierazi ditu neurriak. Neurri horiek dira zuzendaritzak hilaren 24an onetsitakoak eta Osoko bilkurara ekartzen direnak. Euskaltzainburuak argi utzi du ezinbestekoa dela, honen inguruan, erabaki bat hartzea, kontuan izanik, gainera, Euskaltzaindiaren kudeaketan zor ekonomikoak sortuko balira, horien ondorioak Euskaltzaindiaren kideengana ere irits litezkeela.

Osoko bilkurak, dagozkion argibideak jaso ondoren, proposatutako neurriak berretsi ditu –lan harremanen eta aurrekontuen gainekoak barne– eta orobat, horien gainean zuzendaritzak lana egiten segi dezala, eta neurri horiek exekuta ditzala, aldian aldiko bileretarako utziz gerora gerta daitezkeen gastuen zehaztapenak».

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia K-Z letren arteko hitzak aurkeztea. Aurreko batzarrean aurkezturiko proposamenari eginiko oharrak ekarri ditu A. Sagarnak. Ohar bakarra heldu da, J. L. Lizundiarena, *konfederakunde* hitzari buruzkoa. Hor, *Suitzako konfederakundea*-ren orde, *Suitzar konfederakundea* jartzea proposatzen du, Euskaltzaindian jada onarturiko 38. arauko adibide berbera ipiniz. Arrazoia duela aitortu zaio eta halaxe onartu da.

A. Sagarnak egindako beste ohar bat ere azaldu da, konposatu kimiko batzuen idazkeraren koherentziarik ezagatik. Horretara, *zianhidriko* eta *klorhidriko* forma aspaldian onartuen bidetik, *sulfhidriko* ere (eta ez *sulfidriko*) idaztea proposatu du, hirurak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ortografia koherente berberaz eskaintzeko, nomenklaturaren sistematikotasunari eutsiz. Holaxe onartu da.

12:00etan euskaltzain osoen batzarra eten da, J. A. Arana-Martija euskaltzain osoaren, Xabier Gereño eta Vahan Sarkisian euskaltzain ohorezkoen eta Fernando Mendizabal euskaltzain urgazlearen hilberri-txostenen irakurketan eta omenezko ekitaldi-musikaldi publikoan egoteko. Ondoren, 14:20an, osoko batzarrak jarraitu egin du.

3. 2012. urterako aurreikuspenen garapena. Euskaltzaindiaren ekonomia egoera hobetzeko, lorturiko diru-laguntza berriak aipatu ditu euskaltzainburuak. Bestalde, oro har, laguntzetan izandako murriztea dela eta, Euskaltzaindiaren ekonomia orekatzeko, zuzendaritzako partaideek eta ordezkaritzetako arduradunek beren esleipenei uko egitea erabaki dutela jakinarazi da.

Kudeatzaileak pantailan erakutsi du diru-sarrerren bilakaera eta diferentziak zertan dauden. Sarrerek eta gastuek azken urteotan izandako gorabeherak ere erakutsi dira. Bestalde, ildo berean, langileekin 4 bilera egin direla azaldu da, akordiorik gabeak.

Aurrezteak egiteko pausoak eta neurriak ere azaldu ditu kudeatzaileak. Gauza bera finantza gastuetan ere. PRECOTik erabakia heldu bitartean langileei orain arteko baldintzak aplikatuko zaizkie. Zuzendaritzak proposatu bezala, PRECOra joatea onartu du Osoko Batzarrak.

Aurrekontuei buruzko iritziak azaldu dituzte euskaltzainek, ekarpenak egiteko tarte bat irekitzea komeniko litzatekeela adieraziz. Hortaz, ekarpenak egiteko epea irekitzea onartu da, eta horren arabera, horiek jaso ondoren, zuzendaritzak erabakiko du zer prozeduraz jokatu.

4. Exonomastika

4.1. «Saharaz hegoaldeko Afrikako toponimia» araugaia aurkeztu

J. L. Lizundia euskaltzainak azaldu duenez, zerrenda honetako izen gehienak garai bateko kolonialismoaren eta geroagoko independentzia garaiko toponimoei dagozkie, historian zehar izandako gorabeherekin. Oharrak egiteko epea martxoaren 12ra artekoa da.

4.2. «Ozeaniako toponimia» araugaia aurkeztu.

Kontinente horretako toponimo nagusien zerrenda aurkeztu du J. L. Lizundiak Exonomastika batzordearen buruak. Honetan ere, oharrak martxoaren 12rako bidali beharko direla gogoratu du.

5. Esku artekoak

5.1. Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegia»ren heriotza. Batzarrean Jose Luis Alvarez Enparantza euskaltzain urgazlea hil dela jakinarazi da. Euskaltzaindiaren izenean haren senideei doluminak adieraztea onartu du batzarrak. Hilberri txostenaren kontua hurrengo Osoko batzarrera ekarriko da.

5.2. «Euskaltzaindiaren alde» Fundazioa. «Euskaltzaindiaren Alde» izeneko fundazioa otsailean zehar sortuko da Bilbon. Horren behin-behineko partaideak honako hauek izango dira:

- Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak. Bizkaiko Foru Aldundiak ahaleginak egingo ditu, halaber, Eusko Jaurlaritza ere Fundaziora biltzeko.
- Hasiera batekoak: Caja Vital-Vital Kutxa, BBK eta Euskadiko Kutxa.
- Gipuzkoako Kutzak ere Fundazioan parte hartzea erabaki du, 150.253,03 euroekin.

5.3. Banaturiko liburuak: Batzarraren amaieran ondoko liburuok banatu dira euskaltzainen artean:

- *Erlea 5.*
- *Linguae Vasconum Primitiae*, 1545-2011, Eusko Legebiltzarraren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmenez argitara emana.
- *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. Jagon 14. Pello Esnaiek, – Corpus batzordearekin batera lankidetzan ondua.
- «Diglosiaren inguruan» *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 79-80, Mikel Zalbide euskaltzainak egindako txostena oinarritzat hartzen duena.
- *Gernika-Lumoko toponimia*.

6. Azken ordukoak

6.1. «Euskarari gorazarre» jardunaldiak Madrilén. Martxoaren bigarren astean (13-14-15) RSBA Pek, Etxepare Institutuak eta Euskaltzaindiak elkarrekin Madrilén antolatu dituzten jardunaldiak direla eta, egitaraua aurkeztuko da hedabideen aurrean otsailaren amaieran; blogean ere emango da honen berri.

6.2. Hitzarmen berriak. Otsailean zehar hiru lankidetzaren hitzarmen berri izenpetuko dira:

Batetik, *Langunerekin* (Hizkuntza Industrien Elkartea Euskal Herrian); bestetik *Fundación Popular de Estudios Vascos*ekin eta, azkenik, *Soziolinguistika Klusterrarekin*.

6.3. Hitz-ordenari buruzko jardunaldiak eta Ageriko bilkura. Luis Villasantek Euskararen Ikergunean, Donostian, otsailaren 24an *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* lana oinarritzat harturik, jardunaldiak eta Ageriko bilkura egingo dira. Honen berri eta egitaraua datozen egunetan bidaliko du idazkariordeak.

6.4. Hurrengo Osoko bilkura. Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko bilkura aurtengo martxoaren 30ean, goizeko 10:00etan egingo da Gipuzkoako Foru Aldundian, 2011.eko azaroaren 25ean onartu zen urteko egutegiaren arabera.

Batzarra 16:10ean amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an

Jose Antonio Arana Martija (1931-2011), Vahan Sarkisian (1954-2011), Xabier Gereño (1924-2011) eta Fernando Mendizabal (1934-2011) gogoan

Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, aurreko urtean hil diren Jose Antonio Arana Martija euskaltzain osoaren, Vahan Sarkisian eta Xabier Gereño euskaltzain ohorezkoen eta Fernando Mendizabal euskaltzain urgazlearen hilberri-txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Baptiste Coyos, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Karmele Rotaetxe eta Joseba Intxausti.

Euskaltzain urgazleak: Jazinto Iturbe, Patxi Galé, Sebas Gartzia Trujillo, Jabier Kaltzakorta, Manu Ruiz Urrestarazu, Rikardo Badiola, Pruden Gartzia eta Juan Luis Goikoetxea.

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindikoko langileak: Amaia Okariz eta Josune Olabarria.

Jose Antonio Martija, Xabier Gereño eta Fernando Mendizabalen hainbat senide.

Euskera. 2012, 57, 1-2. 169-257. Bilbo
ISSN 0210-1564

Andres Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren guztiei ongi etorria eman die, bereziki gaurko ekitaldian gogoan hartuko diren euskaltzainen senideei. Ondoren, ekitaldiaren nondik norakoa aurkeztu du. Era berean, aurreko urtean hil diren euskaltzainak gogoan hartu ditu, eta, bakoitzak bere arloan edota euskararen mesedetan egindako ekarpenak zein merezimenduak nabarmendu ditu.

Ondoko hilberri-txostenak irakurri dira:

- Vahan Sarkisian (1954-2011) ohorezko euskaltzaina. Xabier Kintanak irakurri du.
- Fernando Mendizabal (1934-2011) euskaltzain urgazlea. Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak irakurri du.
- Xabier Gereño (1924-2011) ohorezko euskaltzaina. Jose Luis Lizundia eta Xabier Kintana euskaltzain osoek txosten bana irakurri dute.
- Jose Antonio Arana Martija (1931-2011) euskaltzain emeritua. Jose Luis Lizundia eta Joan Mari Torrealdai euskaltzainek eta Begoña Arana Jose Antonio Aranaren arrebak txosten bana irakurri dute.

Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak hitza hartu du eta Vahan Sarkisian euskaltzain ohorezkoari buruz idatzi duen hilberri-txostena irakurri du.

Vahan Sarkisian armeniar idazle, irakasle eta itzultzaileak utzitako lan mardularen baitan, euskarari eta euskal kulturari eskainitakoak oso kontuan hartzekoak direlakoan da Xabier Kintana. Izan ere, «bai armenologian eta bai euskalaritzan ere ibilbide erabat berriak proposatu zituen, jada onespena lortu eta zientzialarien aitortpen handia eskuratu dutenak».

Ondoren, Fernando Mendizabal euskaltzain urgazleari buruzko hilberri-txostena irakurtzeko, Joseba Intxausti euskaltzain ohorezkoak hitza hartu du. Azken honek, Fernando Mendizabalen bizitzaren unerik adierazgarrienak ekarri ditu gogora. Apaiz garaian, Arantzazun eta Foruan irakasle aritutako garaia, batetik, euskararen irakaskuntza egokitzen jardun zueneko; eta Alemaniako Werl-eko santutegiko egonaldia; eta bestetik, antropologiaren ezagutza sakontzeko aukera eman ziona. Handik itzultzean, UZEIren itzalean, euskal lan-aldirik luzeena burutu zuen, Intxaustiren aburuz, terminologia, hizkera juridikoa edota itzulpengintza langai izan zituela. Horrez gainera, lan ugari utzi dizkigu, erlijioaz, hizteigintzaz zein arlo humanistikoaz

Jose Luis Lizundia eta Xabier Kintana aritu dira Xabier Gereño zenaz.

X. Gereñok Euskaltzaindian egindako lana jorratu du J. L. Lizundiak. Hala, Era-kundearen kontabilitatea antolatu zuela gogoan izan du, eta «euskaraz prestatu

zuen, berak sortutako eredia Euskaltzainditik kanpo ere, askorentzat balio handia izan zelarik». Gauza ugari egin zuen Euskaltzaindian: Ekonomia batzordeko kide izan zen, Euskaltzaindiaren argitalpenen inbentario zehatza egin zuen –1984an–, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan Euskaltzaindiak ipintzen zuen erakustokiaren ardura ekonomikoa eraman zuen... gainera, «eginkizun akademiko ugari-tan parte hartu zuen, hala nola, 1972an, Filateli Hiztegia, 1972ko urtarrileko batzarrean, Euskaltzaindiari proposatua; Euskalarien Harremanak batzorde suntsikorrean; 1968an, Arantzazun eta, 1978an, Bergaran egindako bi biltzar famatu-tuetan ere izan zen partaide; 1980an eta hurrengo urtean; Loiolan, 1981ean, egin-dako Euskaltzaindiaren II. Barne Jardunaldietan; Bizkaiko Aurrezki Kutxaren ba-bespeko, Toribio Altzaga epaimahai zereginetan; Euskaltzaindiaren aginduz Xabier Kintanak prestaturiko Merkatalgo Izendegian ere lagundu zuen, 1982-84an; hilbe-rri-txosten hauek ere idatzi zituen: Xabier Peña, euskaltzain urgazlea (1981), Julita Berrojalbiz, ohorezko euskaltzaina (1999)».

Bestalde, batere xamurrak ez ziren garaietan, Xabier Gereñok euskararen alde egindako lana eskertu nahi izan du Xabier Kintanak. Bere esanetan «begi zorrotza zuen gure hizkuntzaren funtsezko premiez konturatzeko». Are gehiago, haren es-kutik, «alfabetatu gabeko euskaldun zaharrek eta esperientzia gabeko berriek lehen pausuak eman zituzten euskara landuz eta aberastuz». Euskara ikasteko metodoak eta gaurkotasuna irizpide zuten 70etik gora nobela utzi dizkigu, «jendeari eskatzen zuena ematearren sortu zituenak».

Jose Antonio Arana Martijaren omenez hiru pertsona mintzatu dira: Jose Luis Lizundia eta Joan Mari Torrealdai euskaltzainak eta Begoña Arana, Jose Antonio-ren arreba.

«Jose Antonio Arana eta Euskaltzaindia» izenburuko txostenean, Jose Luis Li-zundiak iazko apirilean zendu zen euskaltzain osoak akademiarekin izandako lotu-ra estua azpimarratu nahi izan du. Azkue Bibliotekaren eta diruzaintza ataleko ar-duratik, erakundearen modernizazioan eta hedapenean esku-hartze zuzena izan du. Beste arlotan egindako lana ere aitortu dio, «ekintza, ikerketa, eta abar; kulturgin-tza, euskalgintza nahiz herrigintza izan ziren Jose Antonioren goiburu eta helburu, kasu honetan, Euskal Akademian». Euskal kulturaren esparru anitz landu dituzte-nen belaunaldi handi baten partaide.

47 urtez, 1978an hasi zen Arana profesionalki bibliotekan, Azkuen zehazki, eta Joan Mari Torrealdai esan duenez, «Jose Antonio Arana da Azkue Bibliotekaren sortzaile nagusia. Izenetik hasita izanera. Izenaren proposamena berea izan zen.

2.500 erregistroekin aurkitu zuen liburutegi hura 64.000 liburutara eraman zuen». Tarte horretan, plangintza sistematikoa antolatu, funts inportanteak eskuratu, eta ereduazko katalogazioa osatu zuen. Testuinguru horretan, Aranaren lanaren beste esparru bi nabarmendu daitezke. Bata, Euskal Herriko Biblioteka Nazionalaren aldeko bere konpromisoa. Eta bigarrena, bio-bibliografia jeneroaren lanketa.

Begoña Aranak haurtzaroko pasadizo batzuk kontatu ditu, eta batez ere nebaren musikarekiko maitasuna izan du hizpide. Euskal musikari garrantzitsuenen kantutegi handiak landu zituela ekarri du gogora –euskal opera, euskal musika profano zein erlijiosoa, egungo konpositore handiak, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, M^a Luisa Ozaita, Sabin Salaberri, Jesus M^a Sagama, Rafael de Castro, Jose Luis Ansorena, Jabier Bello Portu, Joakin Pildain, Francisco Escudero...-. Francisco Escudoren Gernika operarako Gernikako kanpaien grabazioa eskatu ziola ere jakinarazi du: «Geroago, 1987an Arriagan estreinatu zen operan entzungo ziren kanpai haiek». Lizeoan antzezlanak zirela, zartzuelak zirela, koruen emanaldiak edota marijesiak zirela, «hau zen Jose Antonio. Beti, herrian ospatzen zen guztian parte hartuz».

Ekitaldiaren amaieran, musika izan dute lagun bertaratutakoek. Aita Donostia, Aita Madina, Henry Purcell, Gluck eta Pablo Sorozabalen obra batzuk interpretatu dituzte Itxaso Aranak, Irene Ojanguren, Itxaso Aristizabalek, Esther Barandiaranek eta Ian Swedlundek.

Horrez gainera, Joseba Sarrionandiaren *Brisa banintz* eta *Sehaska gutuna* poemak –Begoña Aranak musikatuak– eta Jose Antonio Arana Martijaren *Gure amari* bertsoa entzuteko aukera ere izan da.

Euskaltzainburuak ekitaldiari amaiera eman dio, iaz joan zirenek utzi zigutena azpimarratuz eta eskertuz.

Eta besterik ez dela, Ageriko bilkura bukatutzat eman da, arratsaldeko 14:20 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2012ko otsailaren 24an

Donostian, 2012ko otsailaren 24an, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Andres Iñigo Jagon sailburua eta Patxi Uribarren.

Euskaltzain ohorezkoak: Frantziska Arregi eta Koldo Artola.

Euskaltzain urgazleak: Pello Esnal, Xabier Artola, Jose Ramon Etxebarria, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Odile Krutzeta, Jesus Mari Makatzaga, Xabier Mendiguren, Alfonsito Mugika, Elixabete Perez Gaztelu eta Paskual Rekalde.

Erramun Osa idazkariordea.

Irene Arrarats batzordekidea.

Euskaltzaindiko langileak: Amaia Okariz.

Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak antolatua, «Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa» jardunaldia egin da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jardunaldiak Ageriko bilkuraren izaera ere eduki du. Bilkurak Akademiak berriki kaleratu duen izen bereko liburua *–Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa–* izan du abiapuntu. Liburua *Jagon* bildumaren 14. zenbakia da eta Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak landu du, Pello Esnal batzordekideak koordinatu duela. Jardunaldian 80 pertsona inguruk hartu dute parte.

2008an, Euskaltzaindiak *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* liburua plazaratu zuen. Euskararen egokitasuna bermatze aldera, lan horretan testu-antolatzaileak

leak zehaztu eta sailkatu ziren, helburu bati begira: testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa. Hain zuzen ere, liburu haren harian eta haren osagarri dator orain *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*.

Liburu honek estrategiak ditu ardatz. Izan ere, hizkuntzaren erabileran dena ez da arau gramatikala betetzea. Behin arau gramatikalak betez gero, eremu handi batean aurkitzen da hizkuntza-erabiltzailea. Hain zuzen, erabakien mundura garamatzate estrategiek. Hala, bada, lan berri honetan euskararen hitz-ordena lantzen da, estrategiaren ikuspegitik, hiru elementu jorratuz bereziki: 1) testu-antolatzaileak, 2) mintzagaia eta galdegaia, eta 3) erlatiboetako esaldiak. Jakina denez, euskararen hitz-ordena izan da, XX. mendean zehar, euskararen aztertzaile eta arautzaileen gai eta kezka nagusietako bat. Bestalde, alde praktikoak garrantzi handia du liburuan.

Andres Iñigo Jagon sailburuak eman dio hasiera jardunaldiari, eta Pello Esnal, Xabier Mendiguren Bereziartu, Andres Urrutia eta Igone Etxebarria hizlari izan dira. Hitzaldien ostean, mahai-ingurua egin da, ondoko hizlariekin: Jesus Mari Agirre, Eusko Legebiltzarreko Itzulpen, Zuzenketa eta Interpretazioko teknikaria; Karlos del Olmo, Donostiako Udaleko itzultzaile-interpretea; eta Xabier Aristegieta Nafarroako Parlamentuko itzultzaile eta interpretea. Paskual Rekalde Corpus batzordeko idazkaria izan da moderatzailea.

Bi zati izan ditu Pello Esnalen mintzaldiak. Lehenengoan, liburu bera aurkeztu du, aurkibidearen harian, atalez atal, esanez zertan den bakoitzaren muina.

Bigarren zatia, berak esan bezala, bere izenburu propioa ere izan lezake: «Euskara idatziaren auzia, sei puntu eta eranskin batean». Hitz gutxitan, Esnalek adierazi bezala, horixe izan nahi luke: euskara idatziaren gaurko egoera, labur eta bizi azaldua, ondorengo elkarriketaren akuilu.

Pello Esnalen ostean hitz egin du Xabier Mendigurenek, eta haren ekarpena aitzakiatzat hartuz, azken mende erdiak euskararen aurrerabidean eman duenaz hitz egin du: «Sakonera akademikoak alde batera utzi eta mende erdi batez neure idazle- eta itzultzaile-ibilbideari gaingiroki bada ere, begiratu bat eman eta horretaz hitz egitea erabaki dut».

Bere esperientziaz eta berak egindako lanaz mintzatu da, beraz. Ondorio gisa, hauxe azpimarratu du: euskarak urte gutxitan egin duen ibilbidea benetan «harriarria» da. *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* eta *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburuei buruz, hau esan du: «Horrelako gomendioak eta ezagutzak

idazle on askok garai guztietan erakutsi badituzte ere, milaka pertsona bere buruan estandarizatzen eta normalizatzen ari den hizkuntza batean eskolatzeak, eta gaurko bizimoduak askori testuak idaztea eta jendaurrean eraginkortasunez hitz egitea eskatzen dion garaiotan, inoiz baino hobeki txertatzen dira gure aurrerabide neketsuan».

Andres Urrutiaren ustez, Pello Esnalen gidaritzapean Euskaltzaindiaren Corpus Batzordeak ondutako liburuak bidea ematen du kezka berezia agerrarazteko performatibo edo gauzatzaileen inguruan. Esan duenez, «izatez, halakoak ugariak dira zuzenbide munduan eta euskarari ofizialtasunak ekarri dizkion hainbat esparrutan ere aintzat hartzekoak».

Hartara, performatiboen garrantzia azpimarratu du esparru juridikoaren barnean, eta bertako nondik norakoak azaldu; gerora ere, horiek harremanetan jarri ditu, traduktologiaren bitartez, egungo euskararen ikuspegiarekin, gogoeta bi alderdi desberdinetatik bultzatzeko asmoz: bateko, hizkuntzaren ikuspegia, eta besteko, hizkuntza horren erabilera pragmatikoaren alderdia, legearen zereginetan.

Andres Urrutiaren ostean hitz egin du Igone Etxebarriak. Azken honek adierazi duenez: «hizkuntza bere bizilekuari lotuta dago, erabiltzen duen giza taldearen komunikaziobidea den neurrian. Gaurko bizimoduak hizkuntzen arteko eraginak, baita kulturen artekoak ere, areagotu egin ditu. Testuinguru horretan, ardura berezia sortu da tokian tokikoari erreparatu eta gordetzeko ere».

Hizkuntzaren transmisioa bizimoduaren transmisioaren bitartez egiten da. Gaur egun, etxean ez ezik, eskolan eta aisialdiaren bitartez ere egiten da transmisio hori. Hori dela eta, horretara egokitutako materialak prestatzen egindako esperientziaren berri eman du Igone Etxebarriak.

Amaieran, mahai-ingurua egin da. Hauek hartu dute parte: Jesus Mari Agirre, Itzulpen, Zuzenketa eta Interpretazioko teknikaria Eusko Legebiltzarrean; Karlos del Olmo, Donostiako Udaleko itzultzaile-interpretea; eta Xabier Aristegieta, itzultzaile eta interpretea Nafarroako Parlamentuan.

Karlos del Olmok hainbat kontzeptu aldarrikatu du. Batetik, «bi kontzeptu: beharkizuna eta aukera». Bestetik, elementu markatua vs. elementu neutroa. Hirugarrenik, «beste kontzeptu garrantzizko bat dugu giza komunikazioaren unibertsalena: SOS eskatzen duten pertsona guztiek antzera antolatzen dituzte berbak munduan barrena. Euskarari ez zaio arrotz gertaera hori. Idatzitakoaren eta ahozkoaren arteko harremanaz mintzatu da jarraian, eta hizkuntzaren bizitasunaz».

Jesus Mari Agirre prosa idatziaren eremuan aritu da. Hizpide izan du, lehenik, *Hitz-ordena*. *Erabilera estrategikoa* liburua, hartatik aipatuz gustatu zaizkion irizpideak eta ñabardurak erantsiz argitalpenean jasoriko gogoeta batzuei. Ondoren, Juan Gartzia proposatutako ordenamenduaren alde egin du (*Joskera lantegi*, 1997, IVAP-HAEE), iruditzen baitzaio «integrala eta funtzionala» dela.

Xabier Aristegietak euskarazko testuetako perpaus konplexuetan agertzen diren ulergarritasun-problema batzuk agerian jarri ditu, betiere hitz-ordenarekin loturik daudenean. Bere ustez helburu garrantzitsua hauxe da: perpaus konplexuak euskara-tzean, horiek zatitu eta deskonposatu beharrik ez izateko baliabideetan erreparatzea.

Jardunaldietan egon diren hainbaten iritzi eta galderekin amaiera eman zaio jardunaldiari eta Ageriko bilkurari, 14:15ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Donostian, 2012ko martxoaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oihartzabal, Beñat,
Peillen, Txomin,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealдай, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,

Erramun Osa, idazkariordea, eta
Alfontso Mujika, euskaltzain urgazlea,
dagokion gaian.

Ezin etorriak eta ahalak: Pierre Charrittonek eta Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Miren Oñederak ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Iñigori; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri.

Batzarra goizeko 10:15ean hasi da Gipuzkoako Foru Aldundiko Jauregian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak etorririko euskaltzain guztiak agurtu ditu, ondoren batzarrari hasiera emateko.

1. Aurreko gaiak

1.1. Osoko bilkurako akta

Azken bilerako akta dela eta, P. Goenagak esan du pasarte batzuk orokorrekiak direla, eta esangura ez dela ongi ulertzen; testuak zehatzagoak eta uler-

garriagoak egitea eskatu du. J. Haritschelharrek hilberri-txosten batzuk gehiegi luzatzen direla adierazi du eta, ahal izanez gero, laburtzeko.

P. Salaburuk bidaliriko ohar luzea irakurri du M. Azkaratek. J. L. Lizundiak, berak aurreko aktari egin zion oharra ez dela ageri esan du, baina hau erantzun zaio: berak erreferentziatzen harturiko testua jada aurreko batzarrek aldatu zuela eta, beraz, berak aipatzen duen testu hori jada ez dela inon. Osoko bilkurak zuzendu duen pasarte horretan izandako partaidetasun guztiak jasotzeko eskatu du, hitz egin dutenen izen-deiturekin.

Euskaltzainburuak P. Salabururen eta J. L. Lizundiaren testuak aktaren eranskin moduan sar daitezkeela esan du, hala nahi badute. Argitaratzeari dagokionez, os-tera, M. Azkaratekin bat etorritz, gauza batzuk, batzarrean tratatuak izan arren, beren izaera bereziagatik, ez liratekeela argitaratu behar uste du, baina, edonola ere, hori egileei berei galdetu beharko litzaieke.

P. Zabaletak esan du P. Salaburuk eskatu zuena ez zela bozkatu batzarrean. I. Sarasolak erantzun dio, halere, esandako edozer aktan jar daitezkeela.

J. L. Lizundiak bere testua eranskin moduan sartzea nahi luke. Azaroko aktan komatxo arteko testua jartzen ez bada ere, bai, gutxienez partaideen izenak eranstea.

P. Salaburuk eta euskaltzainburuak adosturiko testuan P. Goenagak konpletibo batzuei, argitasun handiagorako, *-la*, eranstea proposatu du, eta P. Uribarren ere horretan bat dator.

Testuei dagozkien egokitzapenak egingo dira P. Salabururen (M. Azkaratek ja-rriko du jakinaren gainean) eta J. L. Lizundiaren aldetik, eta gero, erantsiko dira.

1.2. I. Sarasolari zorionak eman. Euskaltzainburuak, Akademiaren Zuzendaritzaren izenean, I. Sarasolari zorionak eman dizkio, Eusko Jaurlaritzak aurtengo Ikerketa Saria eman berri diolako.

2. Exonomastika

2.1. «Saharaz hegoaldeko Afrikako toponimia» araugaia onartzea

Hitza J. L. Lizundiak hartu du, Exonomastika batzordeko buruak. Ez da oharrik jaso eta, beraz, zerrenda hori onarturik gelditu da.

2.2. «Ozeaniako toponimia» araugaia onartzea

Era berean, J. L. Lizundiak Ozeaniako toponimoen proposamenari inork ez dio- la oharrik egin azaldu du. Horrela zerrenda hori ere onartu egin da.

2.3. Amerikako toponimia aurkeztea

Exonomastikako batzordearen buruak Amerika osoko toponimo nagusien zerrendak azaldu ditu. Izen horietako batzuen euskal tradizio zaharra aipatu du, batzuk gaztelaniaren bitartez, beste batzuk frantsesaren eta, berrienak, ingelesaren bitartez helduak. Alfontso Mujikak izen horien xehetasunak eman ditu, tokian tokiko etsenplu batzuekin, aukera egiteko irizpideak eta, oro har, hizkuntza guztietan grafia bera dutenak ez direla sartu azaldu du. X. Kintanak amerindiar herrien hizkuntzen egoeraz hitz egin du. Normalizazio, ofizialtasun eta batasunik eza aipatu du, eta ondorioz maiz hango toponimo jatorrak estatu bakoitzaren irizpide bereziaz transkribatzen direla. Halere, ahal izan den neurrian, batzordeak bertako toponimoen jatorrizko forma gordetzen, edo horien berri ematen ahalegindu da.

I. Sarasolak *Cuscoren* grafiaren arazoa aipatu du. Peruko Konstituzioan izen horrek (*Qosqo*) 1990etik daukan egoera bereziaz mintzatu da, nahiz eta nazioarteko erabilera idatzi nagusiak *Cusco* edo *Cuzco* erak izan. Bestalde, X. Kintanak hango hizkuntza batzuen batasun mintzatu eta idatzirik eza gogorarazi du. M. Azkaratek galdetu du izen batzuen galdera markaz (*Galesko printzearen uhartea?*, adibidez). A. Mujikak hori errata izan dela azaldu dio.

P. Zabaletak Amerikako toponimo berri horiek idazteko irizpideaz argitasunak eskatu ditu. J. L. Lizundiak erantzun dio batzuetan espainol eta frantses tradizioak alde batera utzi direla, ingeles erabileren alde. (New York...). I. Sarasolak euskaraz horiez dugun idatzizko tradizioa ere gogorarazi du. J. B. Coyosek ea zerrenda horiek noizko aztertu eta erabaki behar diren galdetu du. J. L. Lizundiak epeak jakinarazi ditu: Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikako zerrendei oharrak aurtengo apirilaren 20rako, eta Ipar Amerikako zerrendari, aldiz, maiatzerako bidali beharko dira.

3. *Hiztegi Batua*, 2. itzulia. azken atala

A. Sagarnak Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*ren edizioaren prestaketa zertan dagoen azaldu du. Aurretik ezarritako epeak ongi betetzen ari dira eta, hortaz, programaturik dagoen bezala, hiztegia aurtengo udazkenerako argitaratuko dela uste du.

Bestalde, bigarren itzuliko E eta F markarekin azaltzen diren hitzen bigarren zerrenda ere banatu du euskaltzainen artean, eta horri oharrak egiteko epeak apirilaren 20ra arte dela gogoratu du.

Ohar bat jaso du, *sifilis* hitzaren grafiari buruz, euskaldun mediku batek egina. Horrek argitu eta emandako datu egiaztatuen arabera, gaixotasunaren izenean ez dago grezierazko antzeko hitzen *-sis* bukaerarik, *dosi*, *hipnosi*, *krisi* edo *metamorfosi*

hitzetan bezala. Hitz hori latinez asmatu zuen Girolamo Frascatorok, XVI. mendeko italiar poeta eta medikua izandakoak, antza denez, Ovidioren *Metamorfosia* obrako Syphilus artzainaren izenetik abiaturik Syphilidis izena asmatuz. Beraz, euskaraz *sifilis* izena legokiok, -s eta guzti. Azalpenok entzunda, hitz horren grafia zuzendu eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* horrelaxe jartzea erabaki da.

X. Kintanak Euskaltzaindiaren hiztegiko *aita/guraso* hitzez ahoz ohar bat egin du. Hurrengo bilkurarako horretaz informazio idatzia ekarriko duela esan du. Bide berean, I. Sarasolak berak ere datuak biltzeaz arduratuko dela adierazi du.

4. 2012. urterako aurreikuspenen garapena

Joseba Zabaletak, Euskaltzaindiaren kudeatzaileak, euskaltzainen mahai gaineko pantailetan 2011ko urteko emaitza ekonomikoak erakutsi eta xeheki azaldu ditu, eta bereziki ondoko hauek: Balantzea, Galdu-Irabaziak eta 2011ko exekuzioa, urteko aurrekontuarekin eta 2010eko datuen konparazioa eginez. Oro har, 2011ko aurrekontua %99,91an bete dela azpimarratu du, eta hori ez da ohikoa izan Euskaltzaindiaren orain arteko jardunean. Aurreikusiriko plana ere bere osotasunean egin da: zerbitzuak, batzordeak, egitasmoak, argitalpenak, etab. Luis Villasante Euskararen Ikergunearen inaugurazioa ere gogoratu du. Diru sarrerei dagokionez, krisiaren eraginaz, 2006 eta 2007 urteetako mailara itzuli da Euskaltzaindia, baina 2010eko urtearekin konparatuz, 2011n finantzabide iturri berriak ireki dira, Aurrezki Kutxenak, besteak beste, eta horiek, etorkizunari begira, baliagarri izan daitezke. Gastuetan ere ahalegin handia egin da, gastu maila urteko diru sarreretara egokitzeke, eta horren ondorioz, ez da defizitik sortu. 2010ean gastatu zenarekin alderatuz, 2011n %8,94 gutxiago gastatu da, batez ere kontzeptu eta partida guztietan, efizientzia hobetzea lortu delako.

2012ko Aurrekontuari dagokionez, aurtengo diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak azaldu ditu banan-banan, zuzendaritzak onartu duen moduan, eta horretarako erabiliriko irizpideak ere argitu ditu, euskaltzainen artean banatutakoa oinarritzat hartuta.

Bukatzeko, ekonomia egoerak eragindako ezinbesteko neurriok hartu beharra gorabehera, Euskaltzainburiak esan du Zuzendaritzak ez duela asmorik Osoko bilkurari dagozkion zereginak murrizteko.

B. Oihartzabalek galdetu du ea Madriletik ikerketa proiektuetarako laguntza etorriko den. A. Urrutiak erantzun dio, krisi-egoera eta diru-laguntzen murrizketa larria eta euskaltzain oso batzuen aurretiazko ikerketa konpromisoak ikusita, Euskaltzaindiak aurrean, horrako, *Lexikoaren Behatokia* egitasmoa besterik ez duela aurkeztu.

P. Goenagaren galderari erantzunez, hots, Gasteizko toponimia dela eta, J. L. Lizundiak bertako alkateak esandakoaren haritik, zailtasunak izango dira udalak babes osoa emateko. Edozein modutan, udazkenaz gero jakingo da egitasmoak izango duen etorkizuna. A. Arejitak Atlaseko bidaia-gastuetarako arazoak aipatu ditu, eta horiek konpontzeko moduaz mintzatu da.

Nolanahi ere den, eta egitasmoei dagokienez, Joseba Zabaleta kudeatzaileak argi esan du aurtengo urrira arteko finantzazioaren garantia behintzat badela, eta urte osoa bermatzeko, Zuzendaritza ahaleginetan dabilela gogoratu du.

P. Zabaletak galdetu du ea, dirurik ezagatik, Euskaltzaindiak *ERLEA* aldizkaria alde batera utziko al duen. Euskaltzainburuak ezetz erantzun dio, baina aurrerantzean finantzabide propioa beharko duela. Euskaltzainak berak Nafarroako Gobernari Etxepareren erakusketa eskaini al zaion galdetu du. E. Osak eta A. Iñigok erantzun diote: Nafarroako Gobernuak Euskarabidekoek eskatu eta Euskaltzaindiak baiezkota eman ondoren, dirurik ezagatik nonbait, Gobernuak ez egitea erabaki zutela.

P. Goenagak esan du euskaltzain osoek jakitun izan behar dutela Euskaltzaindiak une honetan egitasmoetan dihardutenekin duen konpromisoaz. Konpromiso hori aurtan amaitzen denez, hurrengo zuzendaritza zorrik, edo zulorik, gabe hasiko bide da. Horrela egitasmoen lan- eta finantza-konpromisoak berriro aztertu beharko dira datorren urtean. Horrek ez du eragozten, hala ere, hurrengo Zuzendaritza edozein izanik ere, aurtan bertan egungo egitasmo eta batzorde bakoitzaren egotia aztertzea eta Euskaltzaindiaren lehentasunen arabera egitasmo horien hurrenkera eta egokitasuna markatzea. Euskaltzaindiak aurtan burutu nahi duen gogotaren fruitua izan liteke hau. Lehentasun hauek aurtan finkatuz gero, etorkizunean diru iturriak murriztu nahi handitu, errazago izango zaio Euskaltzaindiari finantza plan egokia egitea 2013rako. Baina egitasmoen hurrenkera, ahal dela, aurtendik bertatik finkatua uztea komeni dela. Erantzunean, euskaltzainburuak gogoratu du lanean diharduen Zuzendaritza honek, bere kudeaketaren hasieran, hitz eman zuenez, harturiko konpromisoak bere agintaldi osoan beteko dituela eta ezin utz dezakeela Euskaltzaindian lanean eta zerbitzu ematen diharduen jendea inolako segurtasunik eman gabe. Bestalde, Euskaltzaindiak argi izan behar du esku artean diru publikoa darabilela, eta horren kontu hertsia ere eman beharra daukala. Dena den Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Akademiaren zerbitzuak, egitasmoak, batzordeak eta lantaldeak bilduko ditu banan-banan eta datozen urteetarako horiek dituzten asmoak aztertuko ditu, ondoren Osoko bilkuran aurkezteko, plan-estrategikoa kontuan hartuz.

Ontzat eman da orain arteko emandako informazioa eta hurrengo osoko bilkuretan halakoa ematen jarraituko da zuzendaritzaren aldetik, bere garaian agindu zen bezalaxe.

5. Euskaltzaindiaren plan estrategikoa: hausnarketa

E. Osa idazkariordeak aurkeztu du ibilian dauden proiektuen azken hilabeteetako egoera. Hor bakoitzean egindako urratsak azaldu ditu banan-banan, eta beren aurrerapen-atzerapenak nabarmendu. Arlo batzuetan aipatu diren atzerapenak direla eta, I. Sarasolak disfuntzio horiek, neurri handiz, baliabide zaharkituekin lan egin beharragatik gertatzen direla azpimarratu du, informatika aldetik heldurik.

A. Arejitak, berriz, bere ustez lan egiteko dagoen burokrazia handiegia salatu du, maiz zereginak justifikatzeko paperteria handiegia bete behar izaten delako. Lan burokratiko horrek langileei denbora handia jaten die, eta hori, ahal delarik, murriztu beharko litzateke, jendea pozago egon dadin. Informatika-oztopoak ere aipatu ditu. Bete beharreko plangintza eta errendapenak direla-eta, E. Osak egitasmoen jarraipena egin beharra dagoela azpimarratu du, izan ere, herri-aginteez geroz eta sarriago, galdetzen baitute egitasmoei buruz, garapenari buruz eta burutzeko Akademiak dituen aurreikuspenei buruz.

M. Azkaratek E. Osaren informazioa paperean edo euskarri digitalean eskaintzea eskatu du. Halaxe helaraziko zaie euskaltzain guztiei.

Informatika aldetik jasoriko oztopoak, A. Sagarnak esan duenez, kanpoko hornitzailearen batekin tratatzen dira eta oztopoak daude adosteko, gehiegizko baldintza ekonomikoak eskatzen dituelako.

6. Eskuartekoak

6.1. Euskaltzaindiaren 2012ko egutegi berritua aurkeztu eta onartzea

Iazko azaroaren 25eko Osoko batzarrean 2012ko egutegia onartu zen, baina harrezkero Osoko batzarren kopurua gehitzea erabaki denez gero, egokitzenak egin eta egutegi berritua aurkeztu du, Zuzendaritzak onartua, berretsia izan dadin. Horrez gainera, Ageriko bilkura batzuk egitea ere pentsatu da, baina aurreikuspenak besterik ez dira, eztabaidagai eta osatzeko modukoak. P. Zabaletak eskatu du, ahal izanez gero, Euskaltzaindiko bilkurak beti ostiraletan egitea, profesiodunen eguneroko lan-programa behar bezala antolatzeko. Ahaleginak egingo direla erantzun zaio.

Osoko bilkuren egutegi berritua berretsi da.

6.2. Manifestaldia Baionan

A. Arkotxa euskaltzainburuordeak azaldu duenez, 2012ko martxoaren 31n Baionan manifestaldia egiteko deia dago, Iparraldean euskararen ofizialtasunaren eta horren aldeko lege baten eskaria bultzatzeko. Hor Euskaltzaindiak bat egin du *Euskal Konfederazioa* eta *Kontseilua* elkarteekin, DEIADAR manifestaldiaren helburuen alde. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak martxoaren 22an onartu zuen horra-ko Agiria eta Iparraldeko euskaltzainekin landu zuen. Agiri hori Akademiaren webgunean irakur daiteke, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

6.3. Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena

Apirilaren 3an Jarraipen Batzordea bilduko da Iruñean, bertako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean 2012. urteko hitzarmena izenpetzeko. Hor ECO, Mendaur bilduman liburu bat argitaratzea, eta Euskaltzaindiaren gastuei erantzuteko laguntza jasoko dira. Era berean, 2011. urteko hitzarmenaren arabera *Nafarkaria* digitalizatu zenez gero, horren aurkezpena laster egingo da. Gainera, EHHA egitasmoaren laugarren liburua Iruñean aurkeztuko da irailean.

6.4. Sarako liburu-azoka

Apirilaren 9an egingo da eta bertan Euskaltzaindiak bere presentzia azpimar-
tuko du, aurkezpenean bere Zuzendaritzako kide nagusien partaidetasunaz. Era
berean, Akademiak aurkeztuko dituen liburuak EEP erakundearekin 2011n izen-
peturiko hitzarmenean jasorikoak izango dira:

- a) *Onomastique du nord de Pays Basque (XIe-XVe siècles)*, egilea Eugene Goyhenetche, Xarles Videgainek prestatua.
- b) *Gratien Adema «Zaldubi»: Bertze prediku batzuk*. Prestatzailea: Henri Duhau.
- c) *Xiberoko antzertia edo Pastoral*. Egilea: Junes Casenave-Harigile.
- d) *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord*. Egileak: Erramun Baxok eta Jean Baptiste Coyos.

6.5. Txillardegiren hilberri-txostenaren egileak

Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi»-ren hilberri-txostena dela eta, Jean-Louis Davant euskaltzain osoak eta Jose Agustin Arrieta euskaltzain urgazleak txosten bana idatziko dute, hor bereziki Txillardegiren eta Euskaltzaindiaren arteko lotura eta egileak literaturari egindako ekarpena gogoratuz. Ontzat ematen da.

6.6. Izendapenak

- a) Ana Toledo euskaltzaina ordezkatzeko, A. Sagarna euskaltzaina izango da aurrerantzean Donostiako Euskararen Aholku Batzordean Euskaltzaindiaren ordezkaria, Zuzendaritzak 2012ko otsailaren 21ean erabakirikoaren arabera.
- b) A. Sagarna ordezkatzuz, Joan Mari Torrealdei euskaltzaina izendatzen da PUNTUEUS elkartearen eta Fundazioan Euskaltzaindiaren ordezkari.

Ontzat ematen dira.

6.7. Sariketa batzuetako epaimahaikideak

- a) Iruñeko Udalak urtero euskaraz haurrentzat antolatzen duen Literatura lehiaketak, bere seigarren arauan, epaimahaiko kide bat Euskaltzaindiak izendatu behar duela dio. Horri erantzuteko, aurrean Zuzendaritzak Juan Jose Zubiri euskaltzain urgazlea proposatu du.
- b) Era berean, Euskadi Literatura Sariak (Euskarazko Literatura Itzulpena) delakorako, honako izen hauek proposatzen ditu: 1) Koro Navarro, 2) Jon Casenave, 3) Joxe Agustin Arrieta edo 4) Xabier Olarra. Hauetako bat izendatu behar da, beraz, hurrenkera hori kontuan hartuko da, haiekin hitz eginez.

Ontzat ematen dira.

6.8. Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Arloan Euskal Herriko Curriculum Vitae onenarentzako Saria (Euskadiko Kutxa eta Eusko Ikaskuntza). Zuzendaritzak 2012ko martxoaren 22ko bileran Joxe Azurmendi euskaltzain ohorezkoa proposatzea erabaki zuen. Ontzat eman da.

6.9. Hitzarmenak:

- a) **Soraluzeko toponimiarako lankidetza-hitzarmena.** Soraluzeko udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatu da 2012ko otsailaren 20an, horren bitartez Soraluzeko toponimia bildu, arautu eta normalizatzeko egin beharreko ikerketaren tutoretza-oinarriak zehazteko.
- b) **Mallabiko udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena.** Horren bidez Mallabiko toponimia bildu, arautu eta normalizatzeko egin beharreko ikerketaren tutoretza-oinarriak zehazteko. Apirilaren 27an izenpetzekoa.
- c) **Hizkuntza Industrien Elkartea Euskal Herrian LANGUNEren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza hitzarmena.** Apirilaren 27an izenpetuko da Bilbon.

6.10. Arau batzuen hurrenkera (Akatsen zuzenketa webgunean)

Euskaltzaindiak argitaraturiko arauen zerrendan, hurrenkera-okor bat nabarmendu da, ohar honen bidez arteztu nahi dena:

160.a Hiztegi batua: **h-Hz** izango da (*Euskera*, 2009)

161.a Hiztegi batua: **i-izutzaile** izango da (*Euskera*, 2009)

Hurrenkerari dagokionez, webgunean zeuden exonomastikako arau hauek dira zuzendu beharrekoak:

160.a zena, orain 162.a da

161.a zena, orain 163.a da

162.a zena, orain 164.a da

163.a zena, orain 165.a da

6.11. Jose Luis Lizundiak Zuzendaritzako postua utzi du

Donostian, 2012ko martxoaren 30eko datako idazki baten bitartez, J. L. Lizundia Askondo euskaltzainak Akademiaren Zuzendaritzan duen kargua, diruzainarena, utzi du, erakundearen 13.7. artikulua dioen moduan, karguaren dimisioa aurkeztuz. Bere erabaki hori ezeztatzina dela azpimarratu du.

Euskaltzainburuak, orain arte, hainbeste urtetan Euskaltzaindiarentzat egindako lan handia eskertu dio eta J. L. Lizundiarentzat omenaldi bat eskatu du, hurrengo batean zehaztekoa.

P. Zabaletak erabaki hori birritan pentsa dezala eskatu dio, eta dimisioa mahai gainean uzteko. Erabaki hori birkontsideratzeko eskatu diote A. Arkotxak eta X. Videgainek ere. J. L. Davanten ustez pertsona guztiak libre dira eta ezin da inor behartu bere borondatearen kontra jokatzera. J. L. Lizundiak esandakoak entzunda, eskerrak eman eta bere dimisioa mahai gainean uztea erabaki du.

7. Azken ordukoak

Bukatzean, A. Urrutiak hurrengo Osoko Bilkura Bilbon, apirilaren 27an, egoitzan, goizeko 10etan, izanen dela gogorarazi du.

Bilkura 14:40an amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Bilbon, 2012ko apirilaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles,
eta Zabaleta, Patxi,

Erramun Osa, idazkariordea,
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
eta Alfontso Mujika euskaltzain urgazlea,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Sagrario Alemanek ahala A. Iñigori; Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala A. Urrutia-ri; Patxi Salaberrik ahala A. Iñigori; Pello Salaburuk ahala M. Azkarateri; Ibon Sarasolak ahala M. Azkarateri; Mikel Zalbidek ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

1. Aurreko akta onartzea. J. L. Lizundiak eta A. Iñigok ohar batzuk helarazi dituzte eta, idazkariak horiek kontuan harturik, aurreko batzarraren akta ontzat eman da. P. Goenagak proposamen bat egin du idatziz, bere hitzak argitzeko. Onartu da, eta euskaltzainburuak zati bat gehituko du, bere esanak ere hobeki azalduz gero daitezen.

2. Exonomastika

2.1. «Hegoaldeko eta Erdialdeko Amerikako toponimia» araugaia onartzea.

J. L. Lizundiak aurkeztu du. X. Kintanak egindako oharra dela eta, hitza egileari eman dio. Oraindik ofizialtasunik ez duten herri eta hizkuntzen aldekoa izan da oharra, izen horiek ere, orain ofiziala denaren aldamenean bada ere, jartzeko. On-tzat eman da.

J. Haritschelharrek atzerriko izenetan *c*- eta *q*-en ordezkari euskal alfabetoko ohiko *z*- eta *k*- zergatik ez diren beti erabiltzen galdera dela eta, J. L. Lizundiak eta A. Mujikak horren arrazoiak azaldu dituzte, ahoz eta idatziz. J. L. Lizundiak potentzia kolonialek (espainol, portugez, frantses, ingelesa) Amerikan izandako eragin ezberdinak gogorarazi ditu, eta zuhurrena kasu horietan beste hizkuntza nagusietan bezalatsu jokatzea dela azpimarratu du.

P. Goenagak arauak batzuetan sorrarazten dituzten zalantzak (*Salamanca* baina *Kordoba*, adibidez) aipatu ditu, hor, itxuraz behintzat, beti irizpide berbera erabiltzen ez delako. J. Lakarrak ere kezka bera erakutsi du, eta tradizioari begiratzeko eskatu du. J. L. Lizundiak orain arteko irizpidearen zergatiak eta oinarriak azaldu ditu, toponimo guztietan ezin dela irizpide berbera mantendu esanez, kasu bakoitzaren geografia eta historia bereziaren gorabeherak gogoan izanda. Erkidego autonomoen arteko ezberdintasunak ere aipatu ditu. Azkenean, Amerikako Hego eta Erdialdeko toponimoen zerrenda onartu da.

Ipar Amerikako toponimoen zerrendari dagokionez, ekarpenak maiatzaren hogeita batean aurkeztu behar dira, beranduenez. Horiek horrela, araugaiaren zati hau hurrengo Osoko bilkuran aztertu eta onartuko da, hala erabakiko balitz.

3. *Hiztegi Batua*, 2. itzulua, azken atala, onartzea.

Aurreko Osoko bilkuran agindu bezala, X. Kintanak ohartxo bat aurkeztu du, erdarazko *Padres de la Iglesia*/*Pères de l'Église* kontzeptua euskarara itzultzeko modu egokiaz, *aita* eta *guraso* artean bereizten duten hizkuntzetan hor *aita* hitzaren inguruan daukaten erabateko batasuna argudiatuz. Euskaltzainburuak idatzi hori *Hiztegi Batuko* lantaldeak azter dezan proposatu du, ostean zer egin erabaki ahal izateko. Halaxe egitea onartu da.

Hiztegi Batuko 2. itzuliko azken atalari egindako oharrek direla eta, buruak A. Sagarnari hitza eman dio. Epearen barruan X. Kintanaren eta P. Uribarrenen oharrek heldu dira. Bien oharrei erantzun idatzi eta dokumentatua eskaini die A. Sagarnak. X. Kintanaren oharrekin hasi eta *janizartotik martzianorainokoak* aztertu

dira, kasuan kasuko erantzuna emanez. Denborarik ezaz, besteak hurrengoan (X. Kintanaren *miszelaneatik* aurrera eta P. Uribarrenek egindako guztiak) agertzeko utzi dira. Era berean, X. Videgainen oharrak Osoko bilkuraren bezperan iritsi direla azaldu du idazkariordeak. Azken hauek ere hurrengoan aztertuko dira Osoko bilkuran.

4. 2012. urterako aurreikuspenen garapena.

Joseba Zabaleta kudeatzaileak hitz egin du, eta lehengo aurreikuspenekin alderatuta Euskaltzaindiak Madrilgo Hezkuntza ministeriotik 39.065 euro gehiago jasoko dituela azaldu du. Gasteizko Udalak, aldiz, 31.000 euro emango ditu, hots, iazkoaren erdia. Bizkaiko Foru Aldundiak, ordea, 115.000 euro gehiago emango ditu. Horiek horrela, aurreko Osoko bilkuran aurreikusitakoak baino 185.000 euro gehiago jasoko ditu Akademiak. Kopuru honekin 2012. urteko amaiera arteko finantzaketa bermaturik legoke, zerbitzu-emaileei urtearen bukaera arte ordainduz.

A. Arejitak bere poza agertu du. J. Zabaletari informazioa eskertu zaio.

5. Langune elkartearen aurkezpena

Euskaltzaindiaren batzar aretora sartzean, A. Urrutiak erakundearen ongi etorria eman die Josu Waliño-ri, hots, Hizkuntza Industrien Elkartearen Languneren presidenteari, eta Fernando Alanari, zuzendariari. Ondoren beren elkartearen zer den eta zertan diharduen azaldu dute euskaltzainen aurrean, merkataritzan daukan eragin-sarea argituz. Sektoreak munduko rankingean daukan indarra eta kokapena ikusita, P. Goenagak datu horien fidagarritasunaz galde egin die. A. Arkotxak Iparraldeko elkarte, erakunde edo unibertsitateen partaidetza zertan den galdetu du. P. Goenagak azalduetako zalantzari erantzunez, Languneko ordezkariak berariaz azterketa bat eskatu zutela eta emandako datuak hortik atera dituztela baieztatu dute. Bigarrenari buruz, oster, elkartearen helburuen artean Iparraldekoen partaidetza bideratzea dagoela adierazi dute.

Ondoren Euskaltzaindiarekin lankidetzaren hitzarmena sinatu dute.

6. Euskaltzaindiaren plan estrategikoaren garapena eta zerbitzuetako plangintzen aurkezpena

E. Osak izan du hitza eta zerbitziburuekin segitu den prozeduraren berri eman du. Oraingoan Onomastika, Prentsa eta Informatika arloko urteko plangintzak aurkeztuko dira, maiatzeko Osoko batzarrean onartzeko. Maiatzeko Osoko bilkuran Azkue Biblioteka, Argitalpen banaketa zerbitzua eta Argitalpen zerbitzua eremu

dagozkien plangintzak aurkeztuko dira. Zerbitziburuek dituzten aurreikuspenak azaldu ondoren, horiek, beren kasuan euskaltzainen oharrekin osatuko dira.

Mikel Gorrotxategi mintzatu da, Onomastikako zerbitzuaren arduraduna. Bere arloko lana zertan den azaldu ondoren, egin zaizkion galderei erantzun die. X. Vi-degainek pertsona izendegia ea noiz berriztatu den galdetu dio. Lan horri aurre ekingo zaiola erantzun dio. M. Azkaratek jakin nahi izan du ea erakunde ofiziale-tatik galdera asko jasotzen ote diren. Erantzunean, baietz esan dio, batzuk banan-banakako udaletatik heltzen direla, baina, batez ere EUDELen bitartez. Era be-rean, erregistro zibiletatik ere kontsulta ugari jasotzen direla azaldu du, bai eta Nafarroako udalerrietatik ere.

A. Sagarnak jakin nahi izan du zer egiten den zerrendan agertzen ez diren izene-kin. Zerbitziburuak horretarako dagoen prozedura azaldu du.

Amaia Okariz, Prentsa eta Komunikazio Zerbitzuaren arduradunak Euskaltzain-diarekiko albisteak nola biltzen, moldatzen eta Euskaltzaindiaren jardunbideaz in-formazioa interesatuengana nola helarazten dizkien azaldu du. Web orria, *Plazabe-rrri*, albiste-orria etab. prestatuz. Ondoren, A. Arejitak eginiko galderari, hots, ea argazkiak etiketatzen diren, baietz erantzun dio.

Azkenik, Iñaki Kareaga Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuaren buruak izan du hitza, bere arloko egitekoen berri emateko. Une honetako egitekoari behi-nenak jada martxan dauden sistemak mantentzea eta etengabeko berrikuntza tek-nologikoak lantzea direla esan du, beti ere IKT taldearen agindupean. A. Arejitak, berriz, Informatika Zerbitzuak. Hizkuntza-Atlasarako ere lagundu duela esan du.

Hirurei eskerrak eman zaizkie eta euskaltzainei oharrak maiatzaren 21erako bi-dali beharko direla gogoratu zaie.

7. Eskuartekoak

7.1. 2012. urteko egutegia. Osoko bilkurez aparteko aurreikuspenak

A. Urrutia euskaltzainburuak 2012ko osoko bilkurez aparteko aurreikuspenak azaldu ditu. Horren arabera hemendik aurrerako egutegia, hona hemen:

Maiatzaren 25ean Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, Osoko bilkura.

Ekainaren 29an, Bilbon, egoitzan, Osoko bilkura.

Uztailaren 20an, Gasteizen, osoko eta ageriko bilkurak. EHS aurkezpena (*Argibide bibliografikoak*, EHS bilduma, edizio digitalaren aurkezpena).

Irailaren 28an, Iruñean, osoko eta ageriko bilkurak. EHHaren IV. liburukiaren aurkezpena.

Urriaren 18-19an, Bilbon, Osoko bilkura eta Hiztegitzari buruzko jardunaldia, Jose Antonio Uriarte gogoan.

Azaroaren 16an, Baionan, Ageriko bilkura, XVII. Jagon Jardunaldia (Sustapen batzordeak antolatua).

Abenduaren 14an, osoko eta ageriko bilkurak. Euskaltzaindia sariak.

P. Goenagak urriko bilkuraren eta jardunaldien antolaketaz galde egin du. Euskaltzainburuak hori oraindik erabakizun dagoela erantzun dio.

7.2. Diruzainaren kargu uztea

J. L. Lizundia euskaltzainak aurreko batzarrean aurkezturiko dimisioa oraingoan berretsi du. Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio diruzain karguan izandako arduragatik, eta, orain arte Euskaltzaindiaren alde hainbat urtetan eginiko lanengatik.

7.3. Bestelakoak

7.3.1. Gaur banatuko diren liburuak:

- 1) **Sarako Azokan aurkeztu zirenak**, hots, apirilaren bederatziaren eta EEP erakundearekin 2011. urtean izenpetu zen hitzarmenean jaso zirenak:
 - a) *Onomastique du Nord du Pays Basque (XIe-XVe siècles)*.
Egilea: Eugène Goyheneche. Prestatzailea: Xarles Videgain.
 - b) Gratien Adema «Zaldubi»ren *Bertze prediku batzuk*.
Prestatzailea: Henri Duhau.
 - c) *Xiberoko antzertia edo Pastoral*.
Egilea: Junes Casenave-Harigile.
 - d) *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord*. Egileak: Erramun Baxok eta Jean Baptiste «Battitu» Coyos.

Azken liburu hau Euskaltzaindiaren Baionako ordezkariaren ere aurkeztuko da maiatzaren hemezortziaren, baina J. B. Coyosek azaldu duenez, liburua jada Sarako azokan agertua izan zela eta, beldur da ez ote den jende gutxi izanen.

- 2) **Gernikaren bonbardaketaren 75 urteurrena gogoratuz**, lau idazlek, horien artean Bernardo Atxaga euskaltzainak, *Bonbak eta bizitzak* izeneko liburuko testuak prestatu dituzte, eta bertako udalak eta BBK finantza erakundeak edizioa argitara eman. Erdarazko lanen euskal itzulpenaren edizioa Xabier Kintana euskaltzainak egin du, Euskaltzaindiak eta BBK-k daukaten lankidetzaren hitzarmenaren barruan. Euskaltzaindiko idazkariari eskerrak eman zaizkio, itzulpenak ezer kobratu gabe egin ditu eta.

7.3.2. UNE (Unión de Editoriales Universitarias Españolas) Sariak 2012. Euskaltzaindiak aurtan sari horietara honako argitalpenok aurkeztuko ditu:

- a) Ongienik editaturiko lana: *ATLAS III* eta *Euskal Herriko Udalen Izendegia*.
- b) Giza Zientzietarako ongien editaturiko monografia: *Argibide bibliografikoak* (lehen emanaldia) EHS bilduma, 1 zenbakia.

Bilduma onenaren saria: *IKER bilduma*.

7.3.3. Euskaltzaindiaren eta EEPren arteko 2012. urteko hitzarmen gehigarria:

A. Arkotxa euskaltzainburuordeak azaldu duenez, atzo, apirilak 26, Euskara-ren Erakunde Publikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko bilera egin zen Baionan, urteko hitzarmenaren gaia tratatzeko. Akademiaren izenean, Andres Urrutia burua, A. Arkotxa buruordea eta J. L. Lizundia diruzaina izan ziren, arras ongi errezibituak izan ziren. Urteko hitzarmen gehigarrian lau ardatz zehaztu dira: batetik, hiru liburu argitaratzea (J. L. Davant, Abbadie-ri buruz; Tx. Peillen, J. Mirandere-ri buruz; eta H. Duhau, Zaldubiri buruz). Guztiak «Euskaltzainak» bilduman argitaratuko dira; bestetik, onomastikaren alorreko lankidetzak; hirugarrenik, tes-tuen hizkuntza-balioztapena; azkenean, azaroan Sustapen batzordeak egingo dituen jardunaldiak.

7.3.4. Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko ministroaren gutuna:

José Ignacio Wert Espainiako Hezkuntzako ministroak Euskaltzaindiari gutun baten bidez zorionak bidali dizkio, aurtengo martxoan Madrilen, Espainiako Erret Akademian antolatu zuen ekitaldiagatik. Era berean, euskaltzainei zorionak helaraztea ere eskatu du.

8. Hilberriak

Patxi Salaberri euskaltzainaren amaren heriotzaren berria eman da. Era berean Jean-Baptiste Dirassar-Hiriart Urruty euskaltzain ohorezkoaren emaztea zendu dela jakinarazi da. Osoko bilkurak bie doluminak bidaltzea erabaki du.

9. Azken ordukoak

9.1. R. M. Azkue sariak 2011

Maiatzaren 22an banatuko dira egoitzan. Euskaltzainei honen berri maiatzaren bigarren astearen amaieran emango zaie.

9.2. Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko bilkura. Akademiaren datorren Osoko bilkura maiatzaren 25ean izanen da, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Batzarra ordu biak eta hogeian amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Donostian, 2012ko maiatzaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Aurelia Arkotxa, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Charritton, Pierre,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oihartzabal, Beñat,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel

Erramun Osa, idazkariordea;
Joseba Zabaleta, kudeatzailea;
Pruden Gartzia (Azkue Biblioteka), eta
Mikel Gorrotxategi (Onomastika zerbitzua) euskaltzain urgazleak; Jon Artza (Argitalpen banaketa zerbitzua), zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak:

Jose Sagrario Alemanek ahala A. Iñigo-ri; Jose Irazu "B. Atxaga"k ahala A. Urrutiari; Jose Luis Lizundiak ahala A. Arejitari; Xarles Videgainek ahala B. Oihartzabali.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da Donostian, Diputazioaren Jauregiko batzar areto nagusian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Agurra eta hasierako oharra:
Euskaltzainburuak, bilduriko euskaltzainak agurtu ondoren, jasoriko ahalak jakinarazi ditu.

1.1. Aurreko batzarraren akta (2012/04/27) onartzea. Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren bileragiria ontzat eman da.

2. Exonomastika

2.1. «Ipar Amerikako toponimia» araugaia onartzea

X. Kintanak Onomastika batzordearen «Ipar Amerikako toponimo batzuei buruzko oharrak. Eranskina» aurkeztu eta izen geografiko horien banan banako agerrera, lekukotasun eta historia bereziak erakutsi ditu. Kasu bakoitzean Ipar Amerikaren konkistan eta kolonizazioan Espainiak, Frantziak eta Ingalaterrak izandako partaidetasun eta eragina, euskal tradizio idatzia eta munduko beste hizkuntza nagusien jokabidea kontuan hartu izan dira. Ondoren, J. Haritschelharrek, I. Sarasolak, P. Charritonek, P. Goenagak eta A. Arejitak beren iritziak adierazi dituzte. M. Zalbidek orain arteko tradizioa, hitzaren garrantzi estatistikoa, alderdi funtzionala eta balio informatiboa ere ebaluatu beharra azpimarratu du. X. Kintanak Exonomastika azpibatzeraren orain arteko jokabidea gogoratu du, eta antzeko kasuetan beti irizpide berbera erabiltzen saiatzen dela.

Ondorioz, eta formak onetsi eta erabaki dira. Era berean, Iparraldeko Amerika-ko toponimia araugaia ere bere horretan onartu da.

3. Hiztegi Batua. 2. itzulia (aurreko Osoko bilkuraren jarraipena), azken atala, onartzea. Helduriko oharrak A. Sagarnak aurkeztu ditu, bakoitzaren erantzun idatziarekin batera. Hasteko, aurreko Osoko bilkuran aztertu gabe geratu ziren Xabier Kintanaren ekarpenei buruzko oharrak, datuak eta proposamenak aurkeztu ditu. Horiek horrela, *miszelanea*, *munizipal*, *nahikotxo*, *neskenegun*, *ondo beharrean* eta *eslalon* edo *slalom*, *tenplatu*, *toletiko*, *transplante* eta *txilar* hitzak direla eta, Andoni Sagarnak aurkeztu dituen proposamenak hobetsi dira.

P. Uribarrenen oharrei dagokienez, *oliokoi* hitza definitzerakoan agertzen den *oliozale* falta dela eta, berorren sarrera gehitzea onartu da. Eransteke eskatu duen *lepatu* hitza, ordea, badago, eta beraz ez dago sartu beharrik. *Konkurrentzia* berban, ordea, *konkurrentzia* egin adibidea eranstea onartu da. *sapa/zapa* eta *sapaxto/zapaxto* bikoteei dagokienean, P. Uribarren, I. Sarasola, J. Lakarra eta A. Arejita mintzatu dira. Ondorioz, *sapa* eta *sapaxto* mantentzea eta beste biak kentzea erabaki da.

Era berean X. Videgainek *idorrean*, *inbertitu*, *kola*, *korro*, *kukulu*, *leotardo*, *listoi*, *garaño*, *ttorro*, *txestatu*, *xarma* eta *zetabatu* hitzez eginiko oharrak, txosten idatzi batean banan-banan aztertu eta argitu dira. Halere, *sordeis/sordies* bikotea dela eta, I. Sarasolak, P. Charritonek, J. Haritschelharrek, Tx. Peillenek, B. Oihartzabalek eta J. Lakarrak beren iritziak agertu dituzte. Horiek entzun eta horko yod berriak euskararen ohiko fonetikan sorrarazten dituen arazoak ikusita, az-

kenean *sorddes* forma hobestea erabaki da. Horrela *Hiztegi Batuaren* bigarren itzulia amaiturik gelditu da.

4. Euskaltzaindiaren plan estrategikoaren garapena

4.1. Aurreko Osoko bilkuran aurkezturiko zerbitzuetako plangintzen onarpena. E. Osa idazkariordeak hitza hartu eta, joan den hilean *Informatika* eta *Prensa-Komunikazio zerbitzuek* aurkeztu zituzten txostenei buruz ez dela oharrik etorri eta, beraz, biak onarturik gelditu dira. Hasiriko kontu-ematearen bidetik, beste hiru egitasmotako urteko planak aurkeztu dira, hots, Argitalpen, Argitalpen banaketa eta Azkue Biblioteka zerbitzuetakoak.

4.2. Zerbitzuetako plangintzak aurkeztea. Ricardo Badiola, Argitalpen arduraduna, bajaran dagoela eta, berak prestatuturiko plana, paperean idatzia, idazkariordeak banatu du euskaltzainen artean, nork bere etxean irakur dezan.

Jon Artzak, Argitalpenen banaketa zerbitzuaren buruak, Euskaltzaindiak argitara eman eta kaleratu dituen azken liburuen berri eman du. Era berean, Sara, Maule, Bilbo eta Durango moduko liburu-azoketan izandako partaidetasuna aipatu du. Salmentak gehitu eta hobetzeko ahaleginak ere bai. P. Salaburu euskaltzainak liburu elektronikoak eskuratzeko posibilitatea zertan den galdetu du. J. Artzak arlo horretan egindako pausoak argitu ditu, eta orain arte emaitzak ez direla onak izan komentatu. Halere, bide horretan zori hobez jarduteko posibilitatea ere azaldu du. Era berean, liburu agortuak banan-banan argitaratzeko posibilitatea aztertzen ari da Zuzendaritza.

Pruden Gartziak, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren zuzendariak, bere txostena aurkeztu eta hor zerbitzuetan egindako pauso nabarmenenak xehatu ditu: argitara emandako materiala, artxiboan dauden material argitaratu gabeak, helduriko galderei egindako erantzunak eta, Lacomberen bibliotekako funtseko liburuen digitalizazioa, besteak beste.

Hiru kasuetan txostenei oharrak egiteko epea ekainaren 25 artekoa dela gogorarazi zaie euskaltzainei. Era berean, plangintzak euskaltzainei euskarri elektronikoan helarazteaz arduratuko da idazkariordea.

4.3. Onomastika zerbitzuaren lanez egindako aurreikuspenaz. P. Goenagak Onomastika zerbitzuak apirilean aurkezturiko aurreikuspenez ohar idatziak ekarri ditu, izendegi berria prestatzean gogoan izan beharko liratekeen puntu batzuk eskainiz. Era berean, orain arteko irizpide eta bikoiztasun batzuekin bere desadosta-

sunak azaldu ditu. Eztabaidaren funtsa pertsona-izenetan genero banaketa egiteko modua izan da. P. Salaburu bera ere bat dator P. Goenagarekin.

Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuko arduradunak azaldu du P. Goenagak aipatu dituen prozedurak, hala nola, Erregistroetako kontsultak eta azken urteotan Euskal Herrian jaioberriei ezarritako izenen azterketa egiten dela eta horren lekuko direla argitaraturiko lanen bat edo beste. Irizpideei dagokienez, gogora ekarri ditu, batetik, euskarak izan duen tradizioa eta, bestetik, Euskaltzaindiak urteetan zehar eginiko bidea.

I. Sarasolak beste hizkuntzetan ere grafia bikoiztasuna gertatzen direla gogoratu du (*Ester/Esther, Elena /Helena*). P. Charriton J. M. Satrustegik bere egunean erabili zituen irizpide eta pertsona-izen batzuen aurka mintzatu da. B. Oihartzabalek galdetu du, Onomastika zerbitzuak Espainiako legerari erantzun behar badio, ea zeintzuk diren hor, Euskaltzaindiaren egitekoak?

P. Zabaletak pentsatzen du espainiar legeak pertsona-izenei nahitaezko sexu-be-reizketa agertzea eskatzean, Estatuko erromantzeetarako egokia izan arren, halere ez datorkiola ongi euskarari, genero gramatikalik ez duelako, eta horregatik agian legea aldatzea komeniko litzatekeela. Ildo horretan baina, X. Kintanak gogoratu du, euskararen antzera, genero gramatikalik ez duten beste hizkuntzetan ere, adibidez georgiera, turkiera edo japonieran, pertsona-izenetan ez dutela eskuarki izen berbera erabiltzen gizon eta emakumeentzat, erabat bereziak baizik.

Pertsonen sexua izenetan bereizteko kontu honetan, M. Gorrotxategik Espainia-ko legearen zorrotasuna aipatu du, eta izenak pertsona bakoitzaren sexua argi utzi behar duela, izen berbera sexu bietarako erabiltzea zehazki debekatuz. Azkenean, A. Iñigok adierazi du ezin dela ahaztu eta alde batera utzi Euskaltzaindiak azken 40 urte luzeetan bereziki egin duen bidea, halaber, ezin dela argitalpen batean zerrenda erabat itxi bat eskaini indarrean dagoen legeak izen berriak ezartzeko erraztasun osoa ematen duelako eta, azkenik, gaineratu du Onomastika batzordeak P. Goenagari eta gainerako euskaltzainei iritzi eta iradokizunetatik harago joatea eskertuko liekeela, alegia, euskal tradizioan oinarrituriko ekarpen eta proposamen zehatzak egitea, hurrengo pertsona izendegiaren edizioa prestatzean kontuan eduki ahal izateko.

5. 2012. urterako aurreikuspenen garapena

5.1. Erakundeen emaitzen murriztapena. Euskaltzainburuak Osoko batzarra-ri joan den asteen herri-erakundeekin izandako Jarraipen batzordearen berri eman dio. Euskaltzaindia iaz eskatu zizkioten baldintza, gastu-murrizketa eta egokitzape-

nak oro betetzen zehazki saiatu den arren, azken orduan Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak beren emaitzak beheratu dituzte, eta atxikipen nabarmenak egin (Eusko Jaurlaritzak 190.000 euro eta Arabako Foru Aldundiak 20.000 euro). Euskaltzaindiaren ordezkariak bileran bere desadostasuna agertu zuen, eta bilkura horren akta eskatu ere bai. Baietz, bidaliko zutela erantzun zuten, baina orain arte behintzat ez dute horrela egin. Beraz, litekeena da Euskaltzaindiak aurrezte-neurri are handiagoak hartu behar izatea.

5.2. 2012. urterako aurrekontuak. Euskaltzainburuak hitza Joseba Zabaleta kudeatzaileari eskaini dio, aurtengo ekonomiaren berri eman dezan. Euskaltzainburuak aurreraturiko azken berrien arabera, diru-sartze eta gastu-mugimenduen panorama aski xeheki azaldu du, agian egin beharreko murriztapen berriak iragarritz. Ondoren, une honetan langileekiko elkarriketa-harremanak zertan dauden argitu du. Hor PRECOko alde biei bitartekariak proposamen bat egin diela, azaldu du, alde biek azter dezaten. Testu hori euskaltzainen artean banatu da. P. Salaburuk harridura adierazi du, Arabako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak, beren diru-laguntzetan, aurtan izan duten zerga-bilketaren beherakada baino neurri gogorragoak aplikatu dizkigutelako.

Akademiaren eta bertako langileen arteko gatazka konpontzeko bideari dagokionez, langileekiko gatazka konpontzeko bidean, A. Urrutia euskaltzainburuak bere garaian Zuzendaritzak harturiko erabakia gogora ekarri du. Erabaki hori PRECOtik zetorrena bere horretan onartzearen aldekoa zen, zeinahi zela zetorrena. Osoko bilkurari ere PRECOtik etorri den idatzia onartzen al duen galdetu zaio, eta aho batez baietz erantzun du.

6. Eskuartekoak

6.1. Euskaltzaindikiko diruzain kargurako deia. Joan den hilean orain arteko diruzainak dimisioa aurkeztu zuela kontuan izanda, Barne-erregeletako 13.7 xedapenaren testu idatzia banatu zaie euskaltzainei:

«Zuzendaritzakideen kargu uztea, honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotza, ezintasuna eta dimisioa. Ordezkoen hautaketa, gelditzen den denbora epealdirako izango da. Hutsarteak gertatu ostean, ondorengo bilkuran iragarri eta hurrengo hileko Osoko bilkuran hautatuko da».

Beraz, diruzainaren hutsarteak iragarririk gelditu da, hautaketa ekaineko batzarrarean, bilkura berezian egiteko.

J. Haritschelharrek hitza hartu du Euskaltzaindian J. L. Lizundiak izandako ibilaldia gogoratzeko, eta bai harengandik eta bai J. J. Zearretarengandik berak jasoriko laguntza eskertu du. J. L. Lizundiarentzako omenaldia ere eskatu du, martxoko eta apirileko bileran A. Urrutiak egin bezala. Aurtengo egutegia jada ospakizunez beteegi dagoela eta, omenaldi hori datorren urtean antolatzea hobe izanen dela erabaki da.

6.2. UNELIBROS, 24. zenbakia. Euskaltzainen artean UNELIBROS Unibertsitate mailako aldizkariaren 24. zenbakia banatu da. Hor Euskaltzaindiaren azken argitalpenak jasotzen dira.

6.3. Leioako leku-izenak liburuaren aurkezpena: Ekainaren bigarren edo hirugarren astean Leioako toponimia biltzen duen liburu bat aurkeztekoa da. Obra hau Leioako Udalaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzan eginga da eta *Izenak* bilduman argitaratuko da. Ekaineko Osoko bilkuran banatuko zaie euskaltzainei.

6.4. Zergatik Panpox liburuaren irakurraldia. Bilbo Zaharra euskaltegiak urtero antolatzen duen ekitaldian, Bilboko Arriaga antzokian ekainaren 14an Arantzeta Urretabizkaia euskaltzain urgazlearen *Zergatik Panpox* liburuaren irakurraldi etenik gabea egingo da. Euskaltzaindia ekitaldi horren laguntzailea da, Bilbo Zaharrak eta Akademiak elkarrekin sinatua duten lankidetzahitzarmenari esker. Hor, nahi duten euskaltzain osoek, ohorezkoek zein urgazleek parte har dezakete, aurretik izena emanez gero.

6.5. Hitzarmenak

6.5.1. Euskaltzaindiaren eta Mallabiko Udalaren arteko hitzarmena. Aurtengo maiatzaren 18an Euskaltzaindiaren eta Mallabiko Udalaren arteko hitzarmena sinatu da, Bizkaiko udalerri horretako toponimia jaso eta arautzeko. Sinadura-ekitaldian Maria Milagros Mondragon Sagastagoia herriko alkate andrea, X. Kintana idazkaria eta M. Gorrotxategi euskaltzain urgazle eta Onomastika zerbitzuburua izan ziren.

6.5.2. Hitzarmena Euskaltzaindiaren eta Getariako Udalaren artean. Era berean Getariako toponimia jaso eta normalizatzeko helburuaz, Euskaltzaindiaren eta bertako udalerriaren arteko hitzarmena sinatuko da ekainaren bigarren edo hirugarren astean.

6.6. Euskaltzaindiaren eta EHU/UPV, Koldo Mitxelena sarietarako epaimahairako kideak. Zuzendaritzak ondokoak proposatu ditu:

1. Epaimahaiko buruorde, Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria, edo Andres Iñigo Jagon sailburua.
2. Irakaskuntza Teknikoen alorrean Euskaltzaindiko ordezkaria Jose Ramon Etxebarria euskaltzain urgazlea.
3. Giza Zientzien alorrean Miren Azkarate euskaltzain osoa.
4. Gizarte eta Lege Zientzien alorrean Patxi Juaristi Sustapen batzordeko kidea.
5. Osasun alorrean Alberto Loizate.
6. Zientzia esperimentaletan Jacinto Iturbe euskaltzain urgazlea.

Zuzendaritzak egin duen proposamena berretsi du Osoko bilkurak.

6.7. Basilio Saroberen liburu-dohaintza. Basilio Sarobek, Sunbillako erreto-reak, Euskaltzaindiari bere liburu eta idazkien dohaintza egin dio. Horien artean euskalduntzearekin zerikusi handia duten liturgia-liburu batzuk dira, arlo horretan aritu baita urteetan Sarobe jauna. Azkue Bibliotekak hartu du dohaintza hori katalogatzeko ardura. Eskerrak ematea erabaki da.

7. Azken ordukoak

7.1. Euskaltzain urgazle berriak. J. Lakarrak Euskaltzaindiak urgazle berriak noiz izendatuko dituen galdetu du. Euskaltzainburuak erantzun dio Zuzendaritzak hori aurrean egiteko asmoa duela eta laster horretarako deialdia iragarriko duela.

7.2. «Asiako toponimia (I): Japonia, Korea, Txina eta Mongolia». Ideogramaz edota alfabeto bereziaz idazten diren bertako hizkuntzen letraldaketarako irizpideak idatzirik banatu dira, bai eta herrialde horietako toponimo nagusietarako proposamen zehatzak ere. Oharrak ekainaren 25erako bidali beharko dira, hil horretako batzarrean erabakitzeko.

7.3. Samitarrak Euskaltzaindian. Maiatzaren 23an, iluntzean, Urtzi Urruti-koetxea ETBko kazetariak ekarrita, Harald Gaski Tromsoko Unibertsitateko irakaslearen gidaritzapean, Norvegia, Suedia eta Finlandiaren iparraldeko 25 samitar (lapoi) etorri ziren Bilbora Euskaltzaindiaren egoitza bisitatzerako. X. Kintana Euskaltzaindiko idazkariak harrera egin zien, akademia erakutsi, gure hizkuntzaren egungo egoera azaldu eta euskararen arautze prozesuari buruzko argibideak ere eskaini zizkien. Biziki eskertu zuten hizkuntzaren batasunaz emandako informazioa, berek ere buruan antzeko proiektua darabilte eta.

7.4. Euskaltzaindiaren ekaineko batzarra. Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra ekainaren hogeita bederatzian izanen da Bilbon, goizeko hamarretan.

Eta besterik ez dela, 14:20 direnean Osoko bilkura amaitutzat eman da

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Bilbon, 2012ko ekainaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi, eta
Videgain, Xarles,

Erramun Osa, idazkariordea,
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
Mikel Gorrotxategi,
Patxi Galé eta Alfontso Mujika euskaltzain urgazleak,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkaratek ahala M.L. Oñederrari; Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala A. Urrutiarri; Beñat Oihartzabalek ahala X. Videgaini; Patxi Salaberrik ahala A. Iñigori; Pello Salaburuk ahala P. Goenagari; Ibon Sarasolak ahala P. Salabururi; Patxi Zabaletak ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, Euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

1. Aurreko akta onartzea. 2012ko maiatzaren 25eko bilera-agiria dela eta, etorrien artean, P. Goenagak bere izena falta dela azaldu eta huts hori zuzentzeko eskatu du. A. Iñigok ere P. Salaberriren etorrera aktan ez dela aipatzen seinalatu du. J.L. Lizundiak, aktan ber-

tako udalarekin egindako hitzarmena aipatzean, *Mallabiako* barik, *Mallabiko* jarri behar dela oharrarazi du. Hiru oharrak ontzat eman eta holaxe zuzendu dira.

P. Goenagak PRECOren proposamenari emandako onarpenaz galdetu du. A. Urrutiak erantzun dio. Zuzendaritzak ekarritako eta Osoko batzarrak onarturiko testua dela argitu du, iturburuan proposamen hori PRECOko bitartekariak, Felicidad Marinek egindako diktamena izanez.

2. Exonomastika

2.1. «Asiako Toponimia (I)»: ekarpenak aztertu eta araugaia onartzea, hala erabakiko balitz

Ez da oharrik jaso eta, J.L. Lizundiak, Exonomastika azpibatzordeko buruak proposaturiko zerrenda onartzeko eskatu du. Halaxe egin da.

2.2. «Asiako toponimia (II)»: toponimia araugaia aurkeztu

J.L. Lizundiak, halaber, gogorarazi egin du, Batzordeak orain aurkeztu duen zerrenda honekin, exotoponimia unibertsalaz bere lana bukatzen duela. Beraz, irailan, azken zerrenda honi egin dakizkiokeen oharrez gainera, orain arteko zerrendetan oharkabea itzuririko oker eta kontraesanak ere errepasatu eta zuzenduko dira, arlo hau amaitzeko. Horren hurrengo, Astronimia nagusia aztertzen hasiko da batzordea.

Ondoren, hitza Alfontso Mujikak hartu du eta Asiako alde horren gaur egungo argazki geografikoaren aldakuntza nabarmenak azaldu ditu. India, Bangla Desh eta Pakistanen kasuak azpimarratu ditu eta batzuetan, grafia eta alfabeto ezberdinekin eta transliterazio eta egokitzapenak prestatzean, aurkitzen diren problema batzuk. Izan ere, maiz bertakoek kolonialismo garaiko izenak alde batera uzten dituzte, eta beren jatorrizko hizkuntza nazionalen alde agertzen dira.

Beste hizkuntza batzuen transliterazioaren arazoak ere azaldu ditu: Urduaren kasua, Iran, Turkmenistan eta Uzbekistanen erabilia, bereziki jorratu du. Kazakhs-tan, Turkmenistan eta Uzbekistan latindar sistema hobesten ari dira, baina Kirgizistan eta Tajikistanen ordea, oraindik zirilikoa eusten diote, hizkuntza hori, berez, persieraren aldaki hutsa den arren. Egoera dinamikoan ari dira, beraz, eta orain har daitezkeen erabaki batzuk, gaurko egoerak bultzatuak, agian hemendik urte batzuetara berrikusi eta egokitu beharko dira.

Oharrak helarazteko epea: uztailaren 13rako.

3. Onomastikaren alorrean Euskaltzaindiak egiten duen lanaren aurkezpena

A. Iñigok aurkeztu du, eta Euskaltzaindiak bere historian zehar arlo hau jorratzeko izandako atalak aipatu ditu, 1920an Azkuek eragindako «Sección de toponimia y patronimia»-tik hasita. Geroztik, Luis Villasante euskaltzainburu zenean berriazko batzordea antolatu zen, udal eta herri izenak ikertu eta finkatzeko helburuarekin. Horrela 1979an *Euskal Herriko Udalen Izendegia* argitaratu zuen. Pertsona-izendegia prestatzeko, berriz, 1972, 1977 eta 1983ko izendegiak atera zituen, J.M. Satrustegiren eraginpean. Azken urte horretan Euskaltzaindian Onomastika batzorde hau egituratu zuen.

1986an *EAEko Herri izendegia* prestatu zuen Eusko Jaurlaritzaren eskariz, eta 2001ean berritu ondoren, EUDELekin argitaratu zuen. Era berean, 1990ean, Nafarroako Gobernuaren eskariz, *Nafarroako Herri Izendegia* prestatu zuen. 1998an *Euskal deituren izendegia* eman zuen argitara. 2001ean *Euskal izendegia (Ponte izendegia)* atera zuen. 1990etik hona toponimia txikiari ekin zitzaion, hots, 3 lurralde administratiboetako toponimia txikia: Nafarroakoa bertako Gobernuarekin, EAEkoa Deustuko *Deiker* institutuarekin, eta Ipar Euskal Herrikoa IGNrekin.

Harrezkero hainbat herritako lan monografikoak atera dira, *Onomasticon Vasconiae* bilduman jasoak, Gasteizko toponimiaren ikerketa eta argitalpenetan eta hainbat hiri eta herritako kale-izendegietan, beteak beste.

Euskararen ofizialtasunak aitzina egiten zuen neurrian, Euskaltzaindira gero eta galdera gehiago zetozela ikusirik, 2003an Hernanin egindako XIII. Barne Jardunaldietan *Onomastika Zerbitzua* sortzea onartu zen, eta hurrengo urtean berori ibilian hasi zen M. Gorrotxategi Batzordeko idazkariaren ardurapean. Era berean, Euskal onomastikari buruzko datu-base bat prestatzen joateko beharra argi ikusi zen, egin beharreko lanetarako ezinbesteko eta oinarritzko lanabestzat.

Bide horretan, 2005ean Argomaizen izandako XIV. Barne Jardunaldietan *Euskal Corpus Onomastikoa* (ECO) egitasmoa abian jarri zen, horren ardura P. Galé teknikariarengan geldituz.

Ondoren, A. Iñigok hitza M. Gorrotxategiri eman dio, beronek bere ardurapeko zerbitzuen berri eman dezan. Onomastika Zerbitzuaren arduradunak, oro har, egindako lana eta argituriko kontsultak azaldu ditu, batzuk administrazio publikoek (gobernu, aldundi, udalek) erregistro zibilek, EUDELe, enpresa eta elkarteek zein banakako pertsonen eginak. Kasu batzuetan galderak, bakunak edo argitze hutsak direnean, telefonoz egin dira, beste batzuetan posta normalaz zein elektronikoaz

erantzun dira. Badira, ordea, korapilatsuagoak ere, txosten eta irizpen luzeagoak eskatu dituztenak ere. Gaiak, pertsona izen eta deiturez gainera, herri, kontzeju, auzo eta kaleen izenei buruzkoak izaten dira.

Zehazkiago azaltzeko, datu batzuk eman ditu 2012ko lehenengo lau hilabetetako jardunez: guztira 51 bisita, 305 dei eta 557 mezu erantzun dira. EODAn Kontsulten %33,53 izan dira.

- Leku izenez: 5 bisita, 51 dei, eta posta elektronikoz erantzunak 118.
- Deiturez: 15 bisita, 50 dei, eta posta elektronikoz emanak 132.
- Ponte izenez: 31 bisita, 204 dei eta posta elektroniko bidezko 307.
- Administrazio publikoetatik: Gobernu, aldundi, udal, EUDEL, EEP... Lehen 4 hilabetetan herri-izenei buruzko 10 txosten.

EUDELen bidez honako galderak egin dira: Trapagarango kale-izendegia, Gasteizko kale-izendegia, Gasteizko kale-izen berriak. Iruña-Oka, Zornotza, Berriz, Eibar, Azkoitia, Ekora/Yécora udaletako laguntza eskaerak.

Era berean, ikerketarako aholkularitza eskaerei honela erantzun zaie:

1. Agintariekin bilduz, oinarri teorikoak (zertarako) eta praktikoak lantzeko (epeak, baliabideak).
2. Ikerlariak trebatu eta ikerketa bideratzeko. Datutegia erabiltzen trebatzeko. ECOren arduradunaren laguntzaz programa-datutegi bat dauka Onomastika zerbitzuak holako lanak aurrera ateratzeko.
3. Euskaltzaindiaren lana gizarteratzeko. Jendaurreko aurkezpena. Erakusketak. Liburu argitalpenak, mapak, bide seinaleak, txangoak etab.

Azkenik, batzordeko lanez, eskaeren kudeaketaz, datuen bilketaz, ikertzeaz eta proposamenen garatzeaz ere mintzatu da.

Ondoren, hitza Patxi Galék hartu eta Euskal Corpus Onomastikoaren informazioa eskaini du, euskarazko ondare onomastikoaren datutegia nola osatzen ari den azaltzeko. Datu-base horren egitura egiteko irizpideak zeintzuk diren argitu ditu, deitura, izen eta lekuen kasuetan. Ondoren datu dokumentalak, idatzizko iturriak, ahozko erak eta informatzaileak ere zeintzuk diren zehaztuz, nola eratu den argitu du.

Grafia jaso eta transkribaketa arautua egiteko prozeduraz ere mintzatu da. Azkenean, lan horretarako izandako lankidetzak eta harremanak (EAE, Nafarroako Gobernua eta Frantziako IGN...) aipatu ditu. Ondoren, bilduriko datuekin osatu-

riko Deiturategia (10.800 deitura), Ponte izendegia (319.600 pertsona-izen) eta Toponimoen bilduma (232.071 leku-izen) zehaztu ditu. Bukatzeko, oraindik gelditzen diren egiteko batzuk gogorarazi ditu: bibliografia-datutegia, adibidez, eta are azterketa zehatzagoetara iristeko gogo: lan makroetatik lan mikroetara. Horretarako irizpidegintza landu beharra dago, betiere bermetasun maila handiko arautze-lanak prestatzeko. Helburua zerbitzua eskaintzea da, eta ikertzaileentzako laguntza ere bai. Horrek erakundeekiko elkarlana eskatzen du eta datuen eguneratze azkarragoa ahalbidetzeko tresnak diseinatzea. Horretarako, teknologia berriekiko esteka ere gogoan eduki beharra dago: geoposizioen erabilera (Google Earth, Google Maps, GPS kartografiak...).

P. Goenagak zorionak eman dizkio P. Galéri prestatu duen informazioagatik, eta galdetu du ea nola egiten den *pertsona-izen* / *leku-izen* arteko bereizketa. P. Galék erantzun dio, bi fitxa egiten direla, bata pertsonarako eta beste bat lekurako, hala-korik balego, beste fitxaren berri ere emanez.

J. Lakarrak onomastika taldekoei eskerrak eman dizkie, egindako lanagatik, eta, Erdi Aroko kartulario, artxiiboak eta abarretako datuak eskuratzeko, nola baliatzen diren jakin nahi izan du. Erantzunean P. Galek azaldu dio lan horiek begietsirik eta hasita dauzkatela, baina gauzak oraindik geldiro eta pausoka egiten direla, ahalbide eta finantzabideen arabera.

A. Arkotxak azalpenetan Hendaia aipatzea eskertu du, eta ea Iparraldetik kontsulta-eskaerarik heltzen ote diren jakin nahi izan du. M. Gorrotxategik holako askorik ez dela izaten argitu dio: urtean bi kasu.

Ondoren, A. Iñigok orain arteko lana eta premia berriak berrikusten ari direla esan du, eta zerrendetan izen berriak sartuko direla. Izen propioei dagokienez, pertsonen generoa bereiztearen arazoaz, lehenengo eta behin, gogoratu du Espainiako legeak behartu egiten duela bereizketa hori egitera, eta azken hogeita hamar urte luze hauetako kasuek ere tradizioa egiten dutela. Azaldu duenez, Hegoaldean badira datutegiak azken mendeko erabilerak jakiteko, baina iparraldean, aldiz, datutegi ofizialik ez eta horregatik, ospitale, ikastola eta abarretara jo behar izan da. Horiei ikastetxeen datuak gehitu behar zaizkiela esan du A. Arkotxak. M. Gorrotxategik Annie Etcheberriren laguntzaz hutsune horiek betetzen ari direla azaldu du.

Iparraldeko erregistroetan izen-deiturak euskal grafiaz jartzeko, J-B. Coyosen galdera bati erantzunez, J. L. Lizundiak esan du, duela zenbait urte, Justizia Ministerioan, Pello Salaburuk, Andres Urrutiak eta berak gestio bat egin zutela, eslabiarrek eta magrebiarrek, karaktere ziriliko eta arabierakotik transkribatzeko, euskal-

dunak baino are erraztasun handiagoak baitzituzten Espainiako erresuman, beraz, Iparraldean ere, antzeko zerbait gerta daitekeela.

Tx. Peillenek *Senpe/Senpere*-ren auzia aipatu du eta *Ignazio/Ignazia*-n badela genero-aldaketa. Bestalde, A. Arkotxak azpimarratu du frantsesez ere badirela *Claude* bezalako pertsona-izenak ere, genero bietarako balio dutenak. Beraren ustez, gainera, Frantziak prestatzen diharduen *langues regionales*-etarako lege-aurreikuspenean euskara ere sartuko da eta, beraz, legezko eskubideak ukanen ditu.

L. Oñederrak esan du euskararen kasuan hizkuntzaren berezko izaera hartu behar dela kontuan, inguruko hizkuntzak mimetismoz kopiatu gabe.

Edonola ere, X. Kintanak gogorarazi du, euskararen antzera, genero-moziorik ez duten beste hizkuntzetan ere (turkiera, japoniera, georgiera, kitxua... adibidez) normalean gizezkoen eta emakumezkoen izenak berezi eta diferente izaten direla, balio bikorik gabe. Eta euskaraz *jainko/jainkosa*, *printze/printzesa*, *artzain/artzaintsa* moduko moldaera femeninoak ere badirela, nora ezean beharrezkoak izan direnean.

A. Arejitak aipatu du kontsultengatik ez ote litzatekeen eskatu behar nola-baiteko ordainik (*copago* edo ordainkidetza alegia). Gainera, era horretako datuak eskuratzeko, beste ikertegi batzuekin adostasun eta hitzarmenak beharko liratekeela esan du. M. Gorrotxategik azaldu duenez, Eudelek behintzat bereak ordaintzen ditu.

4. 2012. urterako aurreikuspenen garapena

4.1. Azken orduko murrizketak eta ekonomia egoera

2012ko maiatzaren 14ko Jarraipen batzordearen azken bileraren akta irakurri da, eta Akademiaren ekonomiaren jardunerako daukan garrantzi handiagatik, A. Urrutiak irakurri du. Hor Blanca Urgellek egindako atxikipenaren eraginez diru-esleipenean izandako murrizketa azpimarratu da (190.000 euro gutxiago), bai eta horrexegatik Euskaltzaindiak egindako protesta ere.

Ondoren kudeatzaileak diru-laguntzen azken urteotako datuak azaldu ditu, Zuzendaritzak onartuak, 2012koetan arreta berezia ezarriz. Eusko Jaurlaritzak egin duen azken murrizketa kontuan izan gabe, iaztik hona diru sarrerak %12,30 jaistea aurreikusi zen. Azkenean, Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakunde batzuen ekarpenak/konpromisoak gutxitzen badira, urtez urteko beherapena %20,79ra ere izan daitekeela ohartarazi nahi izan du kudeatzaileak, horrek gastuetan eragin ahal duen presioarekin.

2013rako datuak ez dauden arren, ezta behin-behinekorik ere, kudeatzailearen iritziz ezin da baztertu diru-laguntzak are gehiago jaistea, 2.500.000 eurora arte, Administrazio Publikoek dituzten arazo ekonomikoak espero baino handiagoak direlako.

EITBren aurrekontuetan ere, legelariaren ustez, atxikipen batzuk egin dira, baina J. L. Lizundiak esan du atxikipen-figura hori ez dagoela, eta horretarako zertan oinarritzen diren galdetzea. A. Urrutiak erantzun dio, berez ez dela jokabide oso juridikoa baina badutela horretarako zeri atxiki, nonbait.

Kudeatzaileak eginiko proposamenarekin bat dator A. Arejita. Azken orduan erakundeetatik agian diru gehiago heltzeko posibilitateaz, A. Sagarnak argitu du, geroago balekarte, jada gastatzeko aukerarik ez dagoenean, agian horren ondorioz Akademiari dirua atzera itzultzea eska lekioketela. P. Uribarrenek gogorarazi du Euskaltzaindiak UZEIrekin dituen tratuetan murrizketak egiteak Akademiari ondorio larriak ekar liezazkioketela. Kudeatzaileak argitu du erakundeak lan egiten jarraituko duela A. Sagarnak eta P. Uribarrenek planteatu dituzten kezkak gerta ez daitezen.

Egoera honetan eta neurri hauekin Zuzendaritzak aurrera jarrai al dezakeen galdetu du Euskaltzainburuak. J. Haritschelharrek baietz uste du, Zuzendaritzari dagokiola lanean segitzea. Batzarrean bilduriko euskaltzainetarik inork ez du ezezkorik esan.

4.2. Langileekiko negoziaketak

PRECOren izenean Felicidad Marinek egindako proposamena euskaltzainen artean banatu da, bai eta langileek horri eginiko erantzuna ere. Horretaz, PRECO dela eta, Zuzendaritzak ondokoak erabaki dituela azaldu du euskaltzainburuak:

- 1) Banatu den langileen dokumentuan berek onartzen dutena Zuzendaritzak ere onesten duela.
- 2) Soldatak, baimenak eta oporrak direla-eta, 2012rako proposatua, langileek onetsia, Zuzendaritzak ere ontzat ematen duela.
- 3) Puntuak, ordea, langileek Bulego eta Langeletako hitzarmena. inposatu nahi zaiela salatzen dute.

Horretaz, J. Zabaleta kudeatzaileak lan-hitzarmenaz Zuzendaritzak proposaturikoaren laburpena pantailan agertu eta azaldu du. Hiru puntu nabarmendu ditu aurkezpenean:

- a) Langileekin Lan Harremanen Kontseiluan (PRECO) adostutako puntuak indarrean jartzea.
- b) Adostasunik ez dagoen puntuetan hausnarketarekin jarraitzea.
- c) Hausnarketari dagokionez, euskaltzain oso guztien partaidetza beharrezkoa da.

Horren harira, J. L. Lizundiak esan du ez dagoela konforme Bizkaiko Bulego eta Langelen erreferentziazko hitzarmena erreferentzia bakarra izatearekin. Hain zuzen, duela ia bi urte ekarpen-proposamen gisa, Institut d'Estudis Catalans (CSICena du) eta EITBrena Zuzendaritza bileran aurkeztu zituela eta kudeatzailearen esku utzi. Baita ere, RAEren berri ere eman zuela, kontuan hartzeko modukoa. Gaineratu du, bestalde, gehiengo sindikala duten ELAk eta LABek ez dutela sinatu Bizkaiko Bulego eta Langelen hitzarmena, are okerrago, ELAk gehienak Auzitegian errekurritu egin dituela. Alderantziz, Eusko Jaurlaritzako hitzarmena erreferentzia izaten jarraitu balu, 105.000tik 139.000 euro inguru aurreztuko zituen Euskaltzaindiak, langileek soldaten %5aren beherapena izango zutelako. Euskaltzainburuak argipenak eman dizkio esanez konforme egon ala ez, legeak agintzen duela erakunde baten lan-hitzarmena bere jardura arloari dagokiona dela eta ez besterik. Legeak, bestalde, ez du besterik gabe onartzen beste arlo bateko lan-hitzarmena izatea erakunde batean, horretarako baldintza bereziak betetzen ez diren bitartean. Baldintza horiek ez dira betetzen Euskaltzaindian eta inoiz ere ez dira bete. Bestalde, zehaztu beharra dago Zuzendaritzak beti proposatu duela erakundearen barneko lan-hitzarmen propioa eta ez Bulego eta Langileen lan-hitzarmen soila, argi ikusten baitu hori ez dela erakundearentzat egokia bere osotasunean. Bestalde ere, Jose Luis Lizundiak aipatu dituen diru-aurrezte horiei buruz euskaltzainburuak azaldu du inoiz ere ez duela ikusi zuzendaritzak langileen idatzirik halako murrizketa onartzen duenik. Bestetik, murrizketa horiek ez zaizkiela modu automatikoa aplikatzen akademiaren langileei eta bestetik, bukatzeko, Eusko Jaurlaritzak zalantzan jarri duela murrizketa horien aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan, J.L. Lizundiak, hurrengo bilerara arte puntu horiek mahai gainean uztea proposatu du. Langileekin adosturiko puntuekikoa aurrera eraman dezala Zuzendaritzak, eta eztaba-dagarria geroagorako utzi, langileekin eztabaidatzeko.

P. Goenagak gogoratu du langileak sakrifizioak egiteko prest omen daudela. Zuzendaritzak horretaz hitz egin eta arazo hori konpondu behar duela. M.L. Oñederrak aitortzen du ez duela iritzi garbirik; gutxienez, denbora gehiago behar lukeela bilkura honetan jasotako informazioa aztertzeko.

E. Osa idazkariordeak esan du, gaurko laguntzekin, Euskaltzaindiak ez daukala, duela bost urte, orduan zeuzkan sosekin, zerabiltzan baldintzetan-eta segitzeko ino-

lako erarik. S. Alemanek ez duela langileen izkriburik jaso adierazi du; arazoari larri deritzo, eta luzamendutan ibili gabe, lehenbailehen erabakitzekoa dela uste du. E. Osarekin bat dator: bere ustez, behialako ekonomia-denbora onak jada iraganeko kontuak dira.

Batzuen eta besteen iritziak luze eta zabal partekatu ondoren, Zuzendaritzaren proposamena aurrera eramatea hobetsi da.

5. Euskaltzaindiaren plan estrategikoaren garapena

Aurreko batzarrean aurkeztu zen planari buruzko oharrik ez da heldu eta, beraz, Argitalpen zerbitzuaren, Argitalpenen banaketa zerbitzuaren eta Azkue Bibliotekaren urteko planak onartu dira.

6. Esku artekoak:

6.1. Karmele Esnal, hilberri-txostena

Karmele esnal, ohorezko euskaltzaina hil dela eta, Zuzendaritzan (2012-06-06) hilberri-txostena nork egin dezakeen aztertu da, eta bi izen proposatu dira: batetik, harekin ibilitako Mari Karmen Garmendia, eta, bestetik, Pakita Arregi ohorezko euskaltzaina. J.L. Lizundiak Miren Azkaraterekin mintzatu beharko litzatekeela esan du. Honen berri hurrengo Osoko bilkuran emango dela adierazi du euskaltzainburuak.

6.2. Joxe Azurmendi Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria

Joxe Azurmendi ohorezko euskaltzainari eman diote Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria. Gauza jakina denez, Euskaltzaindiak aurkeztu zuen horren izena. Saria emateko ekitaldia irailean edo urrian egingen da.

6.3. Iazko Ageriko bilkura batzuetako bilera-agiriak

Gaur banatzen dira, bere kasuan, uztailaren hogeiko Osoko batzarrean onartzeko:

Nafarroa Oinez dela eta, Tafallan 2011ko irailaren 30ean egin zen Ageriko bilkuraren behin-behineko bilera-agiria.

Luis Villasante Euskararen Ikergunearen inaugurazio-ekitaldia dela eta, Donostian 2011ko urriaren 28an egin zen Ageriko bilkuraren behin-behineko bilera-agiria.

Euskal Gramatika Lehen Urratsak VII (Perpaus jokatu gabeak) liburuaren aurkezpena dela eta, Bilboko 2011ko azaroaren 25eko Ageriko bilkuraren behin-behineko bilera-agiria.

Agosti Xahoren bigarren mendeurrena dela eta, Baionan 2011ko abenduaren 16an jendaurrean egindako behin-behineko bilera-agiria.

6.4. Aurreko Osoko bilkuratik hona izenpeturiko hitzarmenak:

Euskaltzaindiaren eta Soraluzeko Udalaren arteko hitzarmena, herriko toponimia jaso eta normalizatzeko. Euskaltzaindiak lanaren arta egingo du.

Euskaltzaindiaren eta *Jakin* aldizkariaren arteko hitzarmena, *Lexikoaren Behatokia* deritzan egitasmorako, aldizkariaren testu-masa erauzteko dena.

6.5. Liburuaren aurkezpenak

Uztailaren 4an, Euskaltzaindiaren egoitzan *Leioako leku-izenak* liburuaren aurkezpena egingo da. Liburu hau uztailaren egingo den Osoko bilkuraren ostean banatuko da. *Izenak* bilduman argitaratu da, eta Leioako Udalaren eta Euskaltzaindiaren artean izenpeturiko hitzarmenaren ondorioa da. Euskaltzainen artean uztailaren banatuko da.

6.6. Hurrengo Osoko bilkura

Euskaltzaindiaren datorren Osoko batzarra uztailaren hogeian izanen da, ostira-lean, Arabako Foru Aldundiaren Jauregian.

7. Azken ordukoak

7.1. Diruzainaren aukera:

Gaur amaitzen da diruzaintzarako kandidaturak aurkezteko epea. Inor ez da aurkeztu, eta, zuzendaritzaren agintaldia amaitzeko hiru hilabete besterik gelditzen ez direnez, tarte horretan Zuzendaritzak berak hartuko luke bere gain lan hori.

Eta besterik ez dela, 14:30 direnean Osoko bilkura amaitutzat eman da

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Gasteizen, 2012ko uztailaren 20an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Irazu, Jose «B. Atxaga»,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Torrealдай, Joan Mari,
Uribarren, Patxi, eta
Zabaleta, Patxi

Erramun Osa, idazkariordea, eta
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,

Ezin etorriak eta ahalak: J. L. Lizundiak
ahala J. Haritschelharri, 12:30etik aurre-

ra; P. Salaburuk ahala Patxi Goenagari; I.
Sarasolak ahala Patxi Goenagari; X. Vi-
degainek ahala J. Haritschelharri; Mikel
Zalbidek ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Ara-
bako Foru Aldundiko Jauregiko «Jose
Antonio Agirre lehendakaria» bilera-a-
retoan, goian ageri diren euskaltzainak
bertan direla

Etorririko euskaltzainak agurtu ondo-
ren, euskaltzainburuak batzarrari hasie-
ra eman dio.

1. Arabako Diputazioko buruaren agurra

Batzarraren hasieran, Javier de Andres
ahaldun nagusi jaunak, Iciar Lamarain
Kultura, Euskara eta Kirola diputatu an-
drearekin batera, bilera-aretora etorri eta
bertan batzarturiko euskaltzainei bisita
egin die, guztiak agurtu eta ongi etorria
emanez. Era berean, Euskaltzaindiaren
jardunaren garrantzia aitortu eta azpima-
rratu du, Javier de Andres jaunak. Ikasto-
len jaian esandakoa ere berretsi du, hots,

euskarak Araban, jendearen aldetik, gero eta atxikimendu handiagoa daukala, eta jada euskaldun gehiago direla Araban orain urte batzuk Bizkaiak zituenak baino. Bere agurra amaitzean, lankidetasunerako hitzak ere esan ditu. Erantzutean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio diputazioburuari, Akademiari ekitaldi honetan egin zaion harrera onagatik eta orain arteko laguntzagatik. Honela, krisia gorabehera, aurrerantzean ere elkarlanean segitzeko asmoa agertu dio.

2. Aurreko akta onartzea

Oraingoan aurreko batzarraren akta beranduago bidali denez, horri buruzko oharra irailaren 17ra arte bidali ahaliko dira, beraz, bilera-agiriaren onarpena irailako utzi da.

3. Exonomastika

3.1. «Asiako toponimia II» araugaia. Hegoaldeko eta Erdialdeko Amerikako toponimia araugaia onartzea, hala erabakiko balitz

J. L. Lizundiak hitza hartu eta, aurreko bilkuran aurkezturiko araugaiak ez dela oharrik etorri azaldu du. Beraz, zerrenda hori onarturik gelditu da.

Ondoren, Exonomastika batzordearen buruak hurrengo lanak zeintzuk izango diren ere azaldu du laburki. Lehenik, orain arteko zerrendetan ustekabean gertaturiko lapsus eta hutsak zuzentzea, testu osoa behar bezala argitaratzeko. Gero, 2012ko azkenaldian eta 2013ko lehen partean, Astronimia lantzen hasiko da eta, X. Kintanak aurkezturiko oinarritzko materialen gainean, A. Muxikak prestatuturiko zerrenda xehatuagoak aztertuko dira. Hasteko, eguzki sistemako planetak eta satelliteak landuko direla azaldu du, horien ondoren asteroide, kometa, galaxia eta konstelazio nagusiekin segitzeko.

Hurrenik, eginkizunen artean ondokoak zerrendatu dira: exoantropnimia, hots, atzerriko pertsona-izenak; mitologia eta fikzioa; familia-dinastiak, talde eta gertaera historiko, politiko, sozial eta erlijiosoak; etniak, herriak eta leinuak; leku-edo leku-izenetatik eratorririko izen zein adjektiboak; berrikustekoak, eguneratze-koak eta eransteakoak, bai eta kanpotik iristen diren galderei erantzutea ere.

4. 2012. urterako aurreikuspenen garapena

4.1. Euskaltzaindiaren Lan, Ekonomia eta Antolakuntzarako batzorde ahal- dunduaren (LEABA) proposamena aurkeztu

Euskaltzaindiak dituen zailtasun eta erronka ekonomikoei erantzun egokia eman ahal izateko, zuzendaritzak Lan, Ekonomia eta Antolakuntzarako batzorde ahal-

dundua (LEABA) eratzeke proposamena egitea erabaki du, 2012ko uztailearen 18an izandako bileran. LEABA zer den, zertarako sortuko den, horren iraupena, xedeak, etab. egoki azaltzeko, dokumentu bat banatu zaie euskaltzain osoei. Euskaltzainburuak idatzia irakurtzeaz gain, puntu bakoitzeko azalpenak ere eman ditu.

Adolfo Arejita euskaltzainak hitza hartu du, aldi baterako batzorde ahaldun suntsikorra eratzeari ideia egokia deritzola esateko.

Euskaltzainburuak gehitu du gai honen inguruan adituak direnei ere laguntza eskatu ahal izango zaiela. Gai honen inguruan bakoitzak izan ahal dituen iritziak eta egin nahi dituen oharra irailaren hamazazpia baino lehenago bidali beharko ditu.

4.2. 2012ko aurrekontuaren exekuzioa lehen sei hilekoan

Gai hau Euskaltzaindiko kudeatzaileak azaldu du, luze eta zabal. Horretarako bi dokumentu banatu ditu: «*DIRU SARRERAK: 2012ko Aurrekontuaren exekuzio-maila (urtarrila-ekaina)*» eta «*2012ko GASTU Aurrekontuaren exekuzio-maila (urtarrila-ekaina)*».

Diru-sarrerari dagokienez, urte hasierako aurrekontuak eta gaur egungo aurreikuspenak ekarri ditu gogora kudeatzaileak. Bien artean dauden diferentziak eta zergatiak ere azaldu ditu. Zenbaki orokorreari dagokienez, 2012 urte hasieran onartu zen aurrekontua 2.989.067,66 eurokoa izan zen, eta gaur egun zuzendaritzak egiten duen urte amaierako aurreikuspena 2.886.193,51 eurokoa da. Aldaketarik aipagarrienak Eusko Jaurlaritza (-190.000 euro), Arabako Foru Aldundia (-18.750 euro), Bizkaiko Foru Aldundia (+115.000 euro) eta BBKren (-85.000 euro) partidenak dira.

Erakundearen baliabideak kudeatzeko orduan irizpide nagusienetako bat defizit ez sortzea den heinean, Euskaltzaindiaren gastuak ere diru-sarreraren aurreikuspen berriari egokiarazi behar zaizkio. Hori dela eta, 2.886.193,51 euroko gastu-aurreikuspena aurkeztu du kudeatzaileak, hori erakundearen zeregin nagusienak (zerbitzu, batzorde eta egitasmo) mantenduz bete ahal dela azpimarratuz. Iaz zuhurtziaz doitu ziren kontzeptu eta aurten lortzen ari diren aurrezkiei esker erdietsiko da, erakundearen jarduera kaltetu gabe, sarrera eta gastuen aurrekontuak orekatzeko. Hala onartu da.

P. Zabaleta euskaltzainak gogora ekarri du Nafarroako Gobernuak, urteko ekarpenaz gain, Euskaltzaindiari Iruñean duen bulegoa dohainik uzten diola, eta hori nola edo hala zenbakietan agertu beharko litzatekeela. P. Uribarren euskaltzainak ere iritzi berekoa dela esan du.

J. Zabaleta kudeatzaileak erantzun die hori ez dela Iruñean bakarrik gertatzen. Bilboko egoitza Bizkaiko Foru Aldundiak doan utzitakoa da. Luis Villasante Euskararen Ikerguna (Tolare) Donostiako Udalak uzten dio Euskaltzaindiari, musu-truk. Eta gauza bera gertatzen da Gasteiz eta Baionako bulegoekin, herri bakoitzeko udalek dohainik uzten baitizkiote Euskaltzaindiari.

Lagapen bakoitzaren balioespenak egitea oso zaila denez gero, eta aldi berean oso subjektiboa, hori adituak diren pertsona edo enpresek egiten ez badute, oraingoz gaia dagoen bezala uztea erabaki da.

5. Euskaltzaindiaren plan estrategikoaren garapena.

Euskaltzainburuak batzordeburuekin azkenaldian egindako bileren berri eman du, eta hor batzorde bakoitzak etorkizun hurbilean betetzen diharduen helburu eta egingizunen ibilbidea nola doan azaldu du, lehenago zuzendaritzako kideei egin zien bezala.

6. Eskuartekoak

6.1. Euskaltzain urgazleak hautatzeko irizpideak aurkeztu

Euskaltzaindian aurrerantzean euskaltzain urgazleak izendatzeko prozedurari buruz Patxi Uribarrenek txosten bat aurkeztu zuen Zuzendaritzan. Beronek, lan hori oinarritzat harturik, urgazleen kopurua eta maila objektibizatze xedez, proposamen horretan zenbait ukitu eta gehipen eginda, Zuzendaritzak onartu eta orain euskaltzain osoen aurrean aurkezten da proposamen gisa, iritzi eske.

Dokumentua batzarkideen artean banatu da, eta hitza P. Uribarrenek hartu du, testua irakurtzeko. Irakurraldian pasarte eta irizpide batzuk xehekiago azaldu ditu. Ondoren, euskaltzainburuak inoiz gerta daitezkeen bateraezintasun-kasuez mintzatu da, kontraesan eta interes kontrajarriak saihestearren.

J.L. Lizundiak hitza eskatu du. Bere ustez izendapenekin zer ez den gertatu behar adierazi du. Hau da, batzuek ahoz norbait proposatu eta hurrengo bilera batean beste hautagai ezberdin bat aurkeztea. Horrek mindura sorraraz lezake. Bai eta, euskal herrialdeen arteko partaidetasun-orekari dagokionez, lurralde batzuetan inor ez proposatzeak ere. Herrialde guztietako partaidetasun orekatua beharrezkoa dela azpimarratu du.

J. Lakarrak bateraezintasunaren kontua aipatu du, eta hor kasuak xehekiago zehaztu beharko liratekeela uste du, gaizki ulerturik ez izateko. Ez dago garbi, bere ustez, jardun-eremu bereko lehiakideen arazoa.

Bestalde, J. Haritschelhar mintzatu da, eta adinaren aipamenaz bere kezka adierazi du. Euskaltzain osoentzat adin-mugarik ez baldin bada, bere ustez, urgazleek ere ez lukete halakorik izan beharko. A. Urrutiak gai horretaz proposamen idatzia egiteko eskatu dio.

P. Zabaletak ere antzeko erreparoa adierazi du adinari dagokionean. Bestetik, ez dakusa garbi bateraezintasunaren aipua. Euskaltzaindiak, izatekotan, aurkakoak edo etsaiak izan ditzake, baina bere eremuan lehiakiderik ez. Atal hori bestela formulatu behar dela uste du. J. L. Lizundia Patxi Zabaletak esandakoarekin bat dator, eta atzerrikoek ohorezkoak izatera pasatu behar dutela uste du.

B. Atxagak hitza hartu eta, hautagaiek bete beharreko baldintzetan malgutasuna izatea proposatu du, une bakoitzean Euskaltzaindian nabarmentzen diren premiak eta zereginak nolakoak diren kontuan harturik, eta ez, soilki, hautagaiaren ohore hutsagatik. Adibidetzat itzulpengintzaren hutsunea aipatu du.

M. L. Oñederrak galdetu du ea Euskaltzaindia bezalako beste hizkuntza-akademiek ere ba ote duten, bertako kideak izendatzeko orduan, antzeko bateraezintasunik. Euskaltzainburuak baietz erantzun dio eta, zehatzago, Kataluniakoaren kasua azaldu dio.

Ohorezko euskaltzainen eta euskaltzain osoen bateraezintasunaren kontua dela eta, P. Uribarrenek barne-erregelatan nolabaiteko kontraesanak ageri direla esan du, eta komeniko litzatekeela egun batean horiek berrikustea. Tx. Peillenek, ahanzturaz, ohorezko izendapenik gabe hil diren euskaltzaleen kasua ere gogorarazi du, eta hemendik aurrera hori, ahal dela, ekiditeko eskatu du. Patxi Uribarrenek ere gauza bera azpimarratu du, huts hori nondik heldu den azalduz: pertsona ezagun horiek jada euskaltzain urgazleak zirela oker uste izatetik, eta, beraz, aurrerantzean, huts hori saihesteko ahalegina egin beharko da.

A. Urrutiak, euskaltzainen adierazpenak eskertuta, gogorarazi egin du oraingoa lehen gogoeta besterik ez dela, guztien iradokizunekin behin betiko testua hobetzeko. Proposamenari buruzko oharra eta aldaketak igortzeko azken epea 2012ko irailaren 17a izango dela erabaki da.

Honen ondoren etena egin da, Joseba Intxaustiren *Argibide Bibliografikoak* liburua euskarri digitalean aurkezteko. Bilkurari, 12:30 direnean segida eman zaio. Tar-te honetan, J. L. Lizundiak oharra eman dio idazkariordeari, Gasteizko ospitalean senide bat daukanez gero, bileratik alde egin behar duela esanez, eta ahala, J. Haritschelharri eman dio.

6.2. Bestelakoak

6.2.1. Karmele Esnalen hilberri txostena

Karmele Esnal Ohorezko euskaltzaina hil dela eta, aurreko Osoko batzarrean egindako proposamenarekin bat, horren hilberri txostena prestatzea Miren Azkarate euskaltzainari eskatu zaio eta aintzat hartu du.

6.2.2. Ageriko bilkuretako bilera-agiriak onartzea

Aurrekoan banatu ziren ageriko bilkuretako bilera-agiriak direla eta, emandako epean ez da ekarpenik etorri. Beraz, ondokoak onartu egin dira:

- a) *Nafarroa Oinez* ospakizuna dela eta, Tafallan 2011ko irailaren 30ean egin zen Ageriko bilkuraren bilera-agiria.
- b) *Luis Villasante Euskararen Ikerguna*ren inaugurazio-ekitaldia dela eta, Donostian 2011ko urriaren 28an egindako Ageriko bilkuraren bilera-agiria.
- c) *Euskal Gramatika Lehen Urratsak VII (perpaus jokatu gabeak)* liburuaren aurkezpena dela eta, Bilbon 2011ko azaroaren 25eko Ageriko bilkuraren bilera-agiria.
- d) *Agosti Xahoren bigarren mendeurrenean*, Baionan 2011ko abenduaren 16ko Ageriko bilkuraren bilera-agiria.

6.2.3. Epaimahaikide-izendapenak

Zinpeko itzultzaileen habilitazio dekretua (88/2009) dela eta, batetik, euskaratik ingelesera eta ingelesetik euskararako hizkuntza-bikotearen habilitazioa gidatu behar duen epaimahaian Euskaltzaindiari ordezkari bat izendatzea eskatu zaio. Bestetik, euskaratik frantsesera eta frantsesetik euskararako itzulpenak bideratzeko epaimahaian Akademiak beste ordezkari bat izendatzeko eskea heldu da. Horiei erantzunez 2012ko uztailaren 3ko Zuzendaritzan lagun hauek izendatzea erabaki du:

- Euskaratik ingelesera eta ingelesetik euskararako zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitazioa bideratuko duen epaimahaiko kide izateko: *Nick Gardner* euskaltzain urgazlea.
- Euskaratik frantsesera eta frantsesetik euskararako zinpeko itzultzaile eta interpretarien habilitazioa bideratuko duen epaimahaiko kide izateko: *Xarles Videgain* euskaltzain osoa.

6.2.4. Elhuyar Fundazioarekin izenpeturiko hitzarmena

Euskaltzaindiaren eta Elhuyar Fundazioaren arteko hitzarmena sinatu da, *Lexikoaren Behatokia* deritzan egitasmorako, *Elhuyar zientzia eta teknika* aldizkariaren testu-masa erauzteko.

6.2.5. Gipuzkoako Kutxaren ekarpena, Euskaltzaindiaren Alde Fundazioari

Gipuzkoako Kutxak Akademiaren Euskaltzaindiaren Alde Fundazioari 150.253,03 euroko ekarpena egin dio. Zuzendaritza ahaleginak egiten ari da Arabako Foru Aldundiak ere Euskaltzaindiaren Fundazio horretan parte har dezan.

6.2.6. Euskaltzaindiko langile batek aurretiko erretiroa

Euskaltzaindiko Liburutegiko langile batek erretiroa hartzeko zorian dagoela eta, horren argibideak eman dira. Ordezkapena egin eta lanpostua betetzeko deialdia datozen egunetan egingo dela jakinarazi da.

6.2.7. Liburu berria: *Leioako leku-izenak*

Obra hau *Izenak* bilduman argitaratu da, eta Leioako eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren ondorioa da. Aurkezpena Euskaltzaindiaren egoitzan egin zen hil honen hasieran.

6.2.8. Jaurlaritzak 2012rako aginduriko diru-laguntza murriztu dio Euskaltzaindiari

J. Zabaletak iragarri duenez, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Siletik gutun bat jaso da. Horretan esaten denez, Euskaltzaindiari 2012rako jada esleituriko laguntzatik diru mordo handia atxiki ez eze, baizik ez ematea erabaki duela jakinarazten zaio Akademiari. Zuzendaritzak helegite edo errekurtsio bat jartzea erabaki du. Euskaltzaindia ez dago konforme, horrek aurretik sinaturiko kontratu-programa urratzen duelako. Hortaz, lehendakariari gutuna bidaltzea erabaki du, bera-ekin mintzatzeko hitzordua eskatuz. P. Zabaletak ohar bat egin du prozedura hobeki joan dadin: lehenik gutuna bidali, eta gero errekurtsioa jarri. Horrela egitea erabaki da.

6.2.9. Hurrengo Osoko batzarra

Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra irailaren 28an egingo da Iruñean, Kondestablearen Jauregian, alde zaharrean, udaletxearen ondoan, eta ondoren, Ageriko bilkuran, EHAA IV. liburukiaren aurkezpena egingen da.

7. Azken ordukoak

7.1. Zuzendaritzak bere azkeneko bilera-agirian txertatutako adierazpena

Jose Luis Lizundiak euskaltzain osoei, zuzendaritzako kideei eta Onomastika batzordeko kideei bidaliriko idatziak direla eta, Zuzendaritzak, horretarako bildurik (buruordeak ezin etorria adierazi zuen eta, puntu hau eztabaidatu bitartean, Jagon sailburua aretotik kanpo egon da) uztailaren 18an adierazpen bat idatzi du, aho batez erabaki duena, euskaltzain osoei eta onomastika batzordekideei jakinarazteko asmoz.

J. Haritschelharrek esan du testu hori J. L. Lizundiari zuzenik doakionez, bera presente dagoela irakurri beharko litzatekeela. Euskaltzainburuak esan du ez duela inolako eragozpenik beraren aurrean ere berriro irakurtzeko. Ondoren, Zuzendaritzaren testua irakurri du euskaltzainburuak.

7.2. Andres Iñigo Jagon sailburuaren informazioa

Aurreko puntuan aipaturiko J. L. Lizundiaren idatziak direla eta, A. Iñigok berari buruz J. L. Lizundiak emaniko iritzi eta eginiko salaketen gainean, informazio argigarria emateko hitza eskatu du. Adierazi du berari gizalegeak eta duintasunak agintzen dioten lekua, Osoko bilkura alegia, hautatu duela azalpenak eta ohar argigarriak euskaltzain guztien aurrean emateko. Egin duen azalpen luzearen bukaran jakinarazi du bere aldetik informazio horrekin amaitutzat ematen duela Lizundiak sorturiko afera. Azkenik, jasandako guztiaren ondorio gisa, Euskaltzaindiaren organigraman dituen ardura eta kargu guztien dimisioa aurkeztu du.

Euskaltzainburuak A. Iñigoren dimisioa mahaiaren gainean geratzeko eskatu du, aztergaien artean puntu hori ez dagoela argudiatuta, beraz, hurrengo Osoko bilkuran txertatuko da aztergaien artean.

Batzarra ordu biak eta hogeian amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urutiaga,
idazkaria

Iruñean, 2012ko irailaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles,
Zabaleta, Patxi
eta Mikel Zalbide

Erramun Osa, idazkariordea,
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
eta Alfontso Mujika euskaltzain urgazlea,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Patxi Zabaletari; Jose Ira-

zu «Bernardo Atxaga»k ahala A. Urrutiari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Patxi Goenagari; Andoni Sagarnak ahala Andres Urrutiari (13:30etik aurrera); Pello Salaburuk ahala Patxi Goenagari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari.

Batzarra goizeko 10:10etan hasi da Iruñeko Kondestablearen Jauregiko bilera-aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

Ekitaldiaren programa laburki azaldu du.

1. Osoko bilkurako (2012-06-29) bilera agiria onartzea

P. Goenagak, J. L. Lizundiak, L. Oñederrak, euskaltzainburuak eta kudeatzaileak ohar batzuk egin dituzte, testuari erantsi zaizkionak. Bestalde, J. L. Lizun-

diak, P. Goenagak, A. Urrutiak eta M. Zalbidek testuari ukitu puntualak, tankeraz, lapsusak etab. egin dizkiote, eta horrela jasoko dira. Ondorioz akta ontzat eman da.

2. Osoko bilkurako (2012-07-20) bilera-agiria aurkeztea. Aurreko batzarra-ren akta banatu da. Oharrak urriaren 15erako bidali beharko dira.

3. Exonomastika

3.1. Exotoponimo-zerrendan egin beharreko azken aldaketak eta gehitzeak aurkeztu. J. L. Lizundiak azaldu duenez, geografiako zerrendei dagokiela, Exonomastika batzordeak bere lana amaitu du. Ondoren, hitza A. Mujikari eman dio. Beronek Exonomastika batzordeak orain arte egindako lana gogorarazi du, guztira hiru mila toponimo inguru arautu direla esanez. Halere, zerrenda guztiak garbira pasa, ordenatu eta parekatzean, zazpi anomalia kausitu dira, gainerako izenekin berdindu eta kideku beharrekoak. Horietako bost (*Ashgabat*, *Tashkent*, *Bishkek*, *Dushanbe* eta *Balkash*) behialako Sobietar Batasuneko leku-izenak dira, alfabeto zirilikoaren edota turkiar hizkuntzen grafien letraldatze-taula onartu baino lehenago proposatuak. Halere, jada onarturiko taula horien arabera: *Asgabat*, *Taxkent*, *Bixkek*, *Duxanbe* eta *Balkhax* geldituko lirateke. Bestalde, Mauritaniako hiriburua, lehenago *Nuakchot* gisa eskainia, hitz horren nazioarteko idazkerak berraztertu ondoren, eta *ch* digrafoak espainol edo frantses hizkuntzetan daukan balio bikoitza saihesteko, euskarara egokitu eta *Nuakxot* eran ematea proposatzen da. Era berean, *Rhetiako Alpeak* lehenago onartua, orain *Retiako Alpeak* uztea proposatzen da, hots, orain arteko *Rodas*, *Renania*, *Tirreniar itsasoa* bezalako toponimoetan edota *Parra-sio*, *Pirra*, *Pirron*, *Radamanto* edo *Rea* pertsonaia historiko zein mitologikoen kasuan egin den bezala, izen horien guztien jatorrizko *rh/rrh*-ak *r/tr* soilak utzirik. Proposamen hauei buruzko oharrak datorren urriaren 15erako egin beharko dira.

Azkenik, itsasketan eta arrantzan daukaten erabilera eta garrantzi handiagatik, geografia-zerrendetan gelditzen ziren hutsune nabarmen batzuk osatzeko, Amerikako bi toponimo (*Frantzia Berria* eta *Akadia*), Afrikako bat (*Makaronesia*) eta Ipar Atlantikoko arrantza-gune nagusien izenak ere: *Sole Handia/ Grande Sole*, *Sole Txikia* eta *Box Irlandarra* gehitzea proposatzen da.

Bestetik, munduko itsaslaster nagusien izenak aurkeztu dira, horien kasuistika eginez, bai eta Antartikako toponimia nagusia ere.

Izen horietako batzuen forma idatziaz J. Haritschelharrek (*Benguela-z*), J. Laka-rarak (*Kamtxatka-z*) eta Tx. Peillenek (*Gran Kanton-ez*) beren iritziak azaldu dituzte. Edonola ere, ohar idatzia urriaren 15erako bidaltzea erabaki da.

4. Lan, Ekonomia eta antolakuntzarako batzorde ahaldundua (LEABA), ekarpenak aztertzea eta onartzea, hala erabakiko balitz. Ekarpenak egin dituzte J. Haritschelharrek, P. Goenagak, M. L. Oñederrak, M. Azkaratek, J. L. Lizundiak eta P. Salaburuk. Nolanahi ere den, puntu hau Euskaltzaindiaren ohiz kanpoko Osoko batzarrerako uztea erabaki du euskaltzainburuak.

5. Euskaltzain urgazleak hautatzeko irizpideak, ekarpenak aztertzea eta onartzea, hala erabakiko balitz. Ekarpenak egin dituzte M. L. Oñederrak, Patxi Zabaletak, J. Haritschelharrek, P. Goenagak, J. L. Lizundiak, M. Azkaratek eta P. Salaburuk. P. Uribarrenek hitza hartu eta irizpidez jasoriko erantzunak irakurri ditu. Horiek kontuan izanda, proposamen berria aurkeztu du. Amaitzean euskaltzainburuak P. Uribarreni eskerrak eman dizkio egindako lanagatik, eta irizpide berriei buruzko ohar idatziak datorren hilaren 15erako uztea proposatu du.

Euskaltzainburuarekin bat etorritik, J. L. Lizundiari ongi iruditu zaio proposamenak erabakitzea urrirako uztea, botoa emateko prozedura zehazte aldera. P. Zabaletak ere ongi deritze P. Uribarrenen ekarpen gehienei, baina proposamena egitea, berez, bi euskaltzaini dagokiela gogoratu du. Era berean, J. Lakarrak ere, oro har, ongi dakuski proposamen gehienak, baina harrigarri egiten zaio, horiek taldeka aurkeztu eta bozkatu beharra. Bestalde, bere ustez, ez litzateke bereizketarik egin behar kandidatuen artean.

6. Eskuartekoak:

6.1. Jagon sailburuaren kargu eta ardurak uztea. Uztailean Euskaltzaindiak Gasteizen eginiko Osoko bilkuran jada iragarri zuen bezala, eta orduan azalduzko motiboengatik, A. Iñigok orain arte Akademian zituen ardurak bazterrean uzteko erabakia aurkeztu zuen. Hori dela eta, Euskaltzaindiaren ohiko jardueran hausterik ez sortzeko helburuaz, Euskaltzainburuak kargu- edo ardura-etete hori mahai gainean uzteko eskatu zion, puntu hori ez baitzegoen bilkuraren gai-ordenan aurreikusirik. Arazoa Zuzendaritzan tratatu da. Horiek horrela, segidan datozen proposamenak egin ditu Zuzendaritzak:

a) Iñigorekin adostu ondoren:

1. Zuzendaritza kide gisa Andres Iñigori eskatzen zaio hurrengo Osoko bilkuran, hots, urrikoan, bukatzea bere zereginetan.
2. Jagon sailburuaren zereginetan ere jarraitzea, hurrengo hauteskundeetan Jagon sailburu berria izendatu arte.

3. Nafarroako ordezkartzaren arduretan jarraitzea, hurrengo arauzko ordezkaria izendatu arte, datorren urteko barne-jardunaldietan.
- b) Bestalde, Patxi Salaberri euskaltzain osoarekin mintzatu ondoren, proposamen hau egiten du zuzendaritzak:
 1. Onomastika batzordeburu gisa Patxi Salaberri euskaltzain osoa izendatzea, horretarako batzordearen kide eginez, Barne-erregelen 66.4 artikuluaaren arabera, datorren urteko barne-jardunaldietan hurrengo arauzko izendapenak egin arte.
 2. ECO egitasmoaren burua Patxi Salaberri euskaltzain osoa izendatzea, Barne-erregelen 66.4. artikuluaaren arabera, datorren urteko barne-jardunaldietan hurrengo arauzko izendapenak egin arte.
- b) atalean jasotako proposamenak ontzat eman dituzte euskaltzainek.

6.2. Ezohiko Osoko bilkura baterako deialdia egiteko eskabidea. 2012ko abuztuaren 31ko dataz, M. Azkarate, P. Goenaga, M. L. Oñederra, P. Salaburu eta I. Sarasola euskaltzainek sinaturik, Euskaltzaindiak *Adierazpena* izenburua daraman gutun bat jaso zuen, Osoko bilkuraren bilera berezi bat egitea eskatuz. Egun batzuk geroago J. L. Lizundiak, B. Oihartzabalek eta X. Videgainek ere berretsi zuten eskari hori. Zuzendaritzak abuztuaren bukaerako gutuna jaso, aintzat hartu eta, Arautegia kontuan hartuz, besteak beste, Ohiz kanpoko Osoko bilkura horretako aztergaia(k) proposatzeko eskaria egin zuen. 2012ko irailaren 14ko dataz, ostera, P. Salaburuk hasierako bost eskatzaileen izenean, beste eskutitz bat bidali zuen, protestak bilkura berezi hori berehalakoan deitzen ez zelako.

Euskaltzain horien izenean P. Goenagak goian aipaturiko eskutitz bien testuak irakurri ditu. Euskaltzainburuak zuzendaritzak euskaltzain horien adierazpenari emandako erantzuna irakurri du, Barne-erregelek ohiz kanpoko bileretarako xedatzen dutena xeheki bete dela azpimarratuz, normala izaten baita, bilera baterako deia egiten denean, berau ohikoa zein ohiz kanpoko izan, bertan tratatu behar diren puntu zehatzak aurretik biltzarkideei jakinaraztea. Era berean, A. Urrutiak Zuzendaritzaren konpromisoa gogorarazi du: Euskaltzaindiari etorkizunerako irtenbide duina eskaintzea, eta kontuen berri zehatzak aldiro ematea. Era berean, jakinarazi du Zuzendaritzak Ohiz kanpoko Osoko bilkurarako bilera-deia egitea erabaki duela urriaren 19rako.

J. L. Lizundiak ere bere eskabidea irakurri du, datorren urteko aurrekontuak aztertzeari beharrezko deritzola esanez. Gainera, bere eskabidea soilik berea dela

adierazi du, besteen puntu batzuekin ere batera etorri arren. A. Urrutiak erantzun dio, datorren urterako aurreikusten duen larritasun hori ea zertan oinarritzen duen, oraindik etorkizuna nolakoa izango den ez baitago jakiterik.

P. Goenagak adierazi du eskaturiko bilera bertan kontuak tratatzeko pentsatua zutela, hots 2013rako aurrekontuei buruz gogoeta egiteko, baina oraingo egoera honetan agian sinatzaileek bilerara ez direla joango.

P. Zabaletak esan du ea eskaturiko bilera horretara bost euskaltzain horiek joango ote diren argitzeko, ezezko kasuan bilkura bertan behera utzi beharko litzatekeelako. Era berean, galdera bera egin die X. Videgain eta B. Oihartzabal euskaltzainei, ea bere horretan mantentzen al duten beren eskaria. X. Videgainek erantzun du berek ere beste bostekin bilera egiteko eskaria berresten dutela, puntu batzuekin bat etorri ez arren.

J. L. Lizundiak esan du aurrekontuei buruz eskaturiko bilkura, aurreratu izan dela, baina, bere ustez, edonola ere, gaur ez dela horretarako unea, eta bilkura berezia egin behar dela uste du.

Eztabaida leuntzeko bidean, M. Azkaratek esan du, agian, sinatzaileen asmoak ez direla ongi interpretatu, eta testuaren idazkera beharbada ez dela oso ona izan.

Akademiaren ekonomiaren egoera larria dela eta, A. Urrutiak gogorarazi du Zuzendaritzak gai horretaz etengabeko informazioa eman duela, eta hor defizitik ez dela inondik ageri. Berorri dagokionez, M. Azkaratek Zuzendaritzaren eskariz kudeatzaileak aldiro emandako diru-informazioa beti zehatza eta zuzena izan dela baieztatu du.

P. Zabaletak berriro galdetu du eskaturiko bilera hori mantenduko den ala ez. Bestalde, bost euskaltzainen adierazpenean esaten diren gauzekin ez dago konforme eta dokumentuak, bere ustez, irain egiten dio Euskaltzaindiaren duintasunari. Izan ere, Osoko bilkurari dagokio erabakimena diru-banaketak egiteko eta irizpideak emateko orduan, eta ez beste inori.

P. Goenagak esan du eskaturiko bilerara joatea ala ez, eskatzaileek iragarritako ezezkoa aztertuko dutela.

Diru-egoera dela eta, Iparraldeari dagokionez, Tx. Peillenek Euskararen Era-kunde Publikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko urteko akordioa zergatik ez den oraindik sinatu galdetu du. Euskaltzainburuak akordio hori urrian sinatuko dela erantzun dio.

6.3. Bestelakoak:

6.3.1. Ageriko bilkuren agiriak aurkeztu. Erramun Osa Idazkariordeak, Bilbon 2012ko urtarrilaren 27an Jose Antonio Arana Martija, Vahan Sarkisian, Xabier Gereño eta Fernando Mendizabalen hilberri-txostenak irakurtzeko, eta Donostian 2012ko otsailaren 24an «Hitz-ordena, erabilera estrategikoa» aztertzeko Euskaltzaindiak Luis Villasante Euskararen Ikergunean egindako Ageriko bilkuren bilera-agiriak banatu ditu. Oharrak urriaren 15erako bidali beharko dira.

6.3.2. Langile baten erretiroa. Euskaltzaindiko Bibliotekako. Nerea Altuna Azkue Bibliotekako langilearen ordezkatzeko prozesuari buruzko xehetasunak eman ditu kudeatzaileak. Uda aurretik, deialdia egin eta hautaketa prozesuari hasiera eman zitzaion. Irailean, aukeraketa prozesua amaitu da. Hautaketa prozesuan parte hartu dutenek aho batez erabaki dute Anton Ugarte dela pertsonarik egokiena Bibliotekako lanpostua betetzeko, ondorioz, urriaren 1etik aurrera lanean has dadin, ordezkatzeko kontratua proposatu zaio. Amaitzeko, kudeatzaileak Anton Ugarteren *curriculum vitae*a irakurri du.

6.3.3. Nafarroako Gobernuaren laguntza. Paskual Rekalde, Corpus batzordeko eta Euskalkien lantaldeko kideak lanean jardungo du Euskaltzaindian, Nafarroako Gobernuak Akademiari emango dion laguntzari esker, indarrean dagoen g) atalaren arabera. Horiek horrela, urte akaburako, bi eginkizun finkatu dira; batetik, Euskalkien lantaldean landutako hiztegia bizkortzea, ondoren, Hiztegi Batuko lanetan kontuan har dadin; bestetik, Corpus batzordea eta Euskalkien lantaldean koordinatzea eta dinamizatzea.

6.3.4. Liburuak eta aurkezpenak

6.3.4.1. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa, IV. liburukia, aurkeztu da 12:00etan, Kondestablearen Jauregian, Ageriko bilkuran. Liburu hau urriko Osoko bilkuraren ondoren emango zaie euskaltzainei.

6.3.4.2. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren aurkezpena. Era berean, Bilboko egoitzan urriaren 3an, goizeko 11:00etan *Euskaltzaindiaren Hiztegia* aurkeztuko dela iragarri du euskaltzainburuak. Hiztegia hurrengo Osoko bilkuraren ondoren emango zaie, hala nahi duten euskaltzainei.

6.3.4.3. Aita Manuel Larramendiren Hiztegi Hirueleduna. Euskadiko Kutxaren kortesiaz, Aita Manuel Larramendiren 1745eko *Hiztegi Hirueleduna*-ren faksimilea banatuko da euskaltzainen artean. Osoko bilkuraren ondoren egitekoa den bazka-

riaren ondoren, eskuratu ahal izango dute hiztegi hori euskaltzainek Euskadiko Kutxaren ordezkarien eskutik.

6.4. Hurrengo bilkurak. Datorren hileko bilkurak direla eta, honako hauek iragarri dira:

- a) Urriaren 5ean, Nafarroa Oinez dela eta, Ageriko bilkura egingo da San Fermin Ikastolan (Zizur Txikia, Iruñe ondoan). Era berean, Zuzendaritza eta Sustapen batzordea ere bilduko dira. Egitaraua banatu zaie euskaltzainei.
- b) Urriaren 18an, Bilbon, egoitzan, barrengo Osoko bilkura berezia, arratsaldeko 16:30ean, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza hautatzeko.
- c) Urriaren 18an, Bilbon, egoitzan, 17:30ean, Osoko bilkura.
- d) Urriaren 19an, Bilbon, egoitzan, 10:00etan, ohiz kanpoko Osoko bilkura gai-ordena honekin: «2013ko zereginak zehazteko: aurrekontuak».

7. Azken ordukoak

7.1. J. L. Lizundiaren idazkiak. Amaieran, J. L. Lizundiak idazki pare bat irakurtzeko eskabidea egin du. Baiezkoa jasota, lehen idazkia irakurri du osorik, baina, bigarrenaren lerrokada bat irakurri izan du soil-soilik, artean A. Urrutiak kontsiderazio batzuk egin dizkiolako. Idatziotan, besteak beste, bere ustez, aspaldian pairatzen dituen erasoen aurrean indefentsio-egoera larrian aurkitzen dela eta tratu txarra jaso duela salatzen du, batez ere Euskaltzaindiko idazkaritzaren aldetik. Idazkariak bere kontra darabilen jokaera gaiztoa ere azpimarratu du eta uztailleko Osoko bilkurako bilera-agiria dela eta, bere protesta azaldu dadin eskatu du, bertan Zuzendaritzaren testua, bere horretan, ez delako jaso. Hori esan ondoren, gai hau bukatutzat eman du euskaltzainburuak.

Eta besterik ez dela, bilera 14:15 direnean amaitutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Iruñean, Kondestablearen Jauregian, 2012ko irailaren 28an

Iruñean, 2012ko irailaren 28an, 12:00etan, Kondestablearen Jauregian, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas IV* argitalpena aurkezteko, Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Baptiste Coyos, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Ana Toledo, Patxi Urizarren, Xarles Videgain, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola.

Euskaltzain urgazleak: Mikel Bujanda, Patxi Iñigo, Paskual Rekalde eta Juan Jose Zubiri.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindiko langileak: Gema Insausti.

Hedabideen aurrean egin den agerraldian, hitza hartu dute ondoko hauek: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari-kudeatzaileak; Xabier Egibar Euskadiko Kutxako Negozio Garapenaren Arloko zuzendariak; Adolfo Arejita EHHAren zuzendari akademikoak; eta, Xarles Videgain EHHAren arduradun teknikoak.

Euskaltzainburuak poza adierazi du laurogeiko hamarkadan hasitako egitasmoak fruitu berri bat eman duelako. Horiek horrela, gogora ekarri ditu garai bateko hiz-

tunek eman zituzten lekukotasunak, egitasmo honen oinarri bilakatu direnak. Haietako gehienak zendu badira ere, egitasmo honen bidez, beraien ahotsa eta ekarria ondorengo belaunaldietarako gordetzea lortu du Euskaltzaindiak. Sasoi batego mintzajarduna osatzen duen Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren bidez, benen-benetako altxorra dauka, beraz, Euskaltzaindiak. Era berean, orain arte egitasmoa garatzen ibili diren pertsona guztiak gogora ekarri ditu. Inguruabar horretan, Euskararen Akademiak datozen urteetan orain arteko lanari jarraipena emateko daukan konpromiso irmoa ere azpimarratu du.

Erakunde eta herri-aginteen arteko lankidetzaren ere izan ditu hizpide, halako egitasmo bati horrenbeste urtetan eustea ezinezkoa izango zelako, haien partaidetza tartean gertatu izan ez balitz. Inguruabar horretan, bereziki goraipatu du Euskadiko Kutxaren esku-hartzea. Izan ere, Euskadiko Kutxa izan baita orain arte argitaratu diren liburuak plazaratzea ahalbidetu duena.

Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari-kudeatzaileak eta Xabier Egibar Euskadiko Kutxako Negozio Garapenaren Arloko zuzendariak beren poza adierazi dute, baita lanaren garrantzia azpimarratu ere.

Adolfo Arejitak eta Xarles Videgainek eman dituzte egitasmoari buruzko zehaztasunak. Hasteko, proiektu honen ezaugarriak azaldu dituzte.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren egitasmoa egingo zela erabaki ondoren, 1984an prestatze lanak egiten hasi ziren. Hala, galdeketa puntuen sarea, galde-sorta eta lan metodologia finkatu ziren. Galde-sorta horrek hizkuntzaren datu guztiak biltzen ditu: lexikoa, fonetika, morfologia eta sintaxia. Datuak biltzeko, Euskal Herri osoko 145 herri hautatu ziren:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Ipar Euskal Herrian: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten, 1992an amaitu arte. Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.163 lexikoaz, 595 morfologiaz (335 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 5.000 orduetik gorakoak dira. Inkestatuak izateko adineko pertsonak aukeratu ziren, sortzez eta familiaz tokian tokikoak, bai eta herritik kanpoan gutxi ibiliak ere.

Galderak egitean bide bat baino gehiago erabili izan zuten inkestagileek. Batzuetan ikonoak erabili zituzten, beste batzuetan egoeren deskribapenak egin zituzten. Inkestagileak saiatu ziren erantzunak mugagabea (izen eta izenondoen kasuan) edo partizipio burutuaren forman (aditzen kasuan) jasotzen. Adibidez, erantzun gisa izen bat artikuluaekin bildu ondoren, lekukoari izen bera zenbatzaile batekin emateko eskatzen zitzaion, hitza era mugagabea ere jaso ahal izateko.

Jakite pasiboa neurtzeko erantzun proposatuak bildu ziren. Erantzuna lortu ostean, kontra-galdeketa deitu izan dena egiten zuten EHHako inkestagileek. Horretarako berriemailearen zuzeneko erantzunak bildu ondoren, inkestagileek batzuetan beste erantzun batzuk ere proposatzen zizkien, ikusteko hauek ere ba ote zekizkiten eta nondik. Guztira, 320 pertsonaren ahotsak grabatu ziren. Informazio honen guztiaren eskuzko transkribaketak 725 erantzun-koadernotan (herriko 5) bildu dira. Erantzun-koaderno hauek digitalizaturik daude eta CD-ROMetan gorde dira, paperezko bertsioaz gain.

Lexikoari dagokion galde-sorta da luzeena. Bera osatzerakoan, Euskal Herriko egoera geografikoa gogoan hartu zen, bai eta ohiko lan jarduerak ere (artzaintza, abeltzaintza, zurgintza, nekazaritza, burdingintza, arrantza...). Hizkuntza atlasetan lexikoari buruzko galderek alderdi etnografikoa dute askotan, haietan maiz ohiko teknikiei, jakintzei eta ikuspegiei dagozkien xehetasunak biltzen dira. EHHako sail horretako galde-sorta Europako beste herrietan eta bereziki inguru hurbilekoetan, egindako hizkuntza atlasak gogoan izanik moldatu da, eta lan haietako erreferentziak agertzen dira galderen izenburuetan.

Lexiko itaun gehienak, inkesta leku guztietan galdetzeko pentsaturik daude. Haietaz kanpo badira beste batzuk ere, galdera bereziak deituak, leku jakin zenbaitetan baizik egin ez direnak, toki horietako egoerari edo jardunbide berezi batzuei baitagozkie oroz gainetik: adibidez, itsas arrainen izenez egindako galdera gehienak itsas portuetan besterik ez dira egin, eta ahateez egindakoak, ahate hazkuntza egin ohi den herrietan baino ez.

Morfologiari eta, oro har, gramatikari dagozkien galderak ez dira ohikoak hizkuntza atlasetan, baina gero eta leku handiagoa ematen zaie gaur egungo lanetan. Bonaparteren lanak kontuan izanik, badakigu euskararen dialektologian toki garrantzitsua izan dutela. Sail horretako itaunak, noski, euskararen arabera pentsatuak izan dira. Sintaxiari dagokionez, galdera gutxiago da, baita fonetika sintaktikoaren kasuan ere.

Laugarren liburu honek egiten duen ekarpen zehatzari dagokionez, obrak bi eremuren inguruan kontzeptu ugari biltzen eta lantzen ditu: etxe-abereak eta etxea bera. Hala, liburukiaren lehen parte hainbat etxe-abereri eskainia dago eta bigarren parte, batez ere, etxearen esparruari dagokio. Ondorioz, liburuki honek 260 galderaren erantzunak biltzen ditu, inkesta osoaren 2.857 galderetarik, inkestaren 27tik 35era bitarteko gaietakoak, hain zuzen.

Liburuaren lehenbiziko zatiak, hots, etxe-abereei eskainiriko zatian, txerriaren gaiak arlo zabala hartzen du, abere hau garai bateko gizartean goren mailako elikagaia izan zelako. Horiek horrela, txerriaren izenak, zenbait fenomeno biologiko edo naturako, txerria dagoen lekua, txerri-hiltze prozesua, txerriaren barruko parte eza-gunenak, elikagaiak, eta abar jaso dira. Etxeko hegaztiei dagokienez, aldiz, oilo-oilarren izenak –parte biologikoak, prozesu biologikoak, ekoizpenak,...–, antzara, ahate, uso eta beste jaso dira. Atal honekin amaitzeko, etxe-abere txikien artean, munta gutxiagoko batzuen ondoan (untxia), txakurrek eta katuek, eta baita ere erleek toki handia hartzen dute. Azkenik, abereetan ar-emeen izen generikoak ere biltzen dira Atlasean.

Liburukiaren bigarren partean, batez ere, etxearen esparruari dagozkionak jaso dira: populatze-mota diferenteak –herria, eliz inguruko etxe-multzoa, auzoa eta baserria–, etxe edo eraikuntza motak, biztanleen jabetza-mailak, etxearen parte nagusiak –etxegintzako prozesuak, materialak, etxearen estalkiak, kalteak eta berriztatze lanak edota egitura nagusiaren osagaiak–, etxearen barruko banaketa, etxe barruko altzariak eta, etxearen erdigunearekin, sukaldearekin loturiko prozesuak ere.

Amaitzeko, A. Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du, egitasmoak bere garabidean izan duen bilakaera oparoa izan du berriz hizpide eta aurrerantzean ere fruituak emango dituela ziurtatu du. Era berean, ekitaldira hurreratu diren guzti-guztiei ere eskerrak eman dizkie. Ondoren, ekitaldia bukatutzat eman du eguerdiko 12:45ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Zizur Txikian, 2012ko urriaren 5ean

Zizur Txikian, 2012ko urriaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan, San Fermin Ikastolako areto nagusian, *Nafarroa Oinez 2012* dela eta, antolatutako ekitaldien barruan, Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Andres Iñigo Jagon sailburua, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain urgazleak: Mikel Bujanda, Aingeru Epaltza, Paula Kasares, Paskual Rekalde eta Juan Jose Zubiri.

Patxi Juaristi Sustapen batzordeko kidea.

Erramun Osa idazkariordea.

Gema Insausti Euskaltzaindiko langilea.

Nafarroa Oinez 2012 dela eta, zenbait bilkura egin ditu Euskaltzaindiak egun osoan zehar, Zizur Txikiko San Fermin Ikastolan. Goizean, Euskaltzaindiko Zuzendaritza bildu da. Zuzendaritzaren bilkurak, eguerdian, etena egin du, ikastolako hainbat gela bisitatzeko eta Ikastolako presidentearen eta zuzendariaren aho-etzpainetatik dituzten asmoen berri ere izan du. Arratsaldean, berriz, Sustapen batzordea bildu da. Ondoren, Ageriko bilkurari hasiera eman zaio San Fermin areto nagusian.

Bilkurari Javier Barcos San Fermin Ikastolako presidenteak eman dio hasiera. Honek, esker ona adierazi die hurreratu diren guzti-guztiei, ikastolaren izenean, bereziki Euskaltzaindia eta Ikastolako hezkuntza-erkidegoa aipatu ditu. Era berean, Nafarroa Oinez dela eta, urte osoan zehar eginiko ahalegina ere goraiatu du. On-

doren, San Fermin Ikastolako abesbatzak eta Zangozako Nora abesbatzak elkarrekin hiru kanta abestu dituzte.

Kantuen ondoren, Pilar Vicente ikastolako zuzendariak hartu du hitza. Honek, Euskaltzaindiaren jarduna izan du mintzagai, besteak beste. «Euskal Herriko hainbat tokitan ikastolak martxan jartzen ari zirenean, Euskaltzaindiak garrantzi handiko erabakia hartu zuen: euskara arautu, batu egin zuen», adierazi du zuzendariak. Era berean, Zizur Txikiko ikastola «herritik eta herrirako sorturiko ikastola» bezala definitu du P. Vicentek, eskolaren sorrera gogoratzerakoan. Halaber, bere joera berritzailea ere azpimarratu du, euskal hizkuntzan oinarrituriko ereduagatik, hasieratik mantendutako eredu pedagogiko modernoagatik eta pisu nagusia izan duten guraso kooperatiben sisteman oinarritutako zuzendaritzagatik.

Etorkizunari begira, zuzendariak erronka batzuk aipatu ditu, besteak beste, materialaren nahiz informazio eta komunikazio teknologien sorkuntza, I+G+i i prozesuan sakontzea eta hezkuntza gaitasunak definitzea eta lantzea.

Ikastolako zuzendariaren ondoren, Paula Kasares euskaltzain urgazle eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak «Etxea eta ikastola elkarlanean: zeinek zer haurrak euskaldun hazteko bidean» izenburua daraman hitzaldia eskaini du. Hitzaldian zehar, familia eta ikastolaren arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu du. Izan ere, haren hitzetan: «hizkuntza sozializazioaren ikuspegi teorikotik, haurrak euskaldun bilakatzeko prozesuan nekez bereiz daitezke etxea eta eskola, biak batera ari baitira».

Familia eta ikastolaren arteko erlazioaz ez ezik, P. Kasaresek guraso eta ikasleen, eta ikasleek beren artean ezartzen dituzten elkar eraginei erreparatu die, bere iritziz «haurrak euskaldun hazteko prozesua ulertzeko ikusmolde elkar eragilea, dinamikoa eta malgua» behar baita. «Ohiko ikusmolde soziolinguistikoa hizkuntza transmisioaren bidean haurrak goitik beheiti heldu zaien eragin baten hartzaile hutsak ditugu, eta haurren eragintzari gutxitan erreparatu zaio», gaineratu du P. Kasaresek.

Segidan, San Fermin Ikastolako abesbatzak eta Zangozako Nora abesbatzak hiru kanta abestu dituzte elkarrekin, hizkuntza desberdinetan.

Ekitaldia amaitzeko, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du. Euskararen Akademiak egunean zehar eginiko lan mardula izan du aipagai. Era berean, ikastolen eta Euskaltzaindiaren arteko harremanez ere hitz egin du. San Fermin ikastolako presidenteari eta zuzendariari berriki argitaraturiko *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* ale bat eman die opari. Liburu honen aurrealdean, ekitaldian egon di-

ren euskaltzain oso guzti-guztiek izenpetu dute. Ikastolako arduradunek hunkiturik eskertu dute euskaltzainburuak emaniko oparia.

A. Urrutiak mintzaldiari amaiera eman dio gurasoek haien seme-alabei euskara transmititzeko erakutsi duten borondatea eskertuz eta, zailtasunak zailtasun, Euskaltzaindia alboan izango dutela azpimarratu du.

Ondoren, ekitaldian egon diren guztiak zutitu dira eta *Agur Jaunak* kantatu dute, bilkurari amaiera emanez iluntzeko 19:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Bilbon, 2012ko urriaren 18an

2012ko urriaren 18an, 16:30ean, euskaltzainburua eta Zuzendaritzako gainerako karguak hautatuak izan dira. Hautaketa-mahaia honela eratu da: buru, euskaltzain izendatu zaharrena izanik, Jean Haritschelhar jauna, eta idazkari, aldiz, Jean-Baptiste Coyos, berau azkenik sartutako euskaltzaina baita.

Hauek dira batzarrean izan diren euskaltzainak:

Sagrario Aleman
Adolfo Arejita
Aurelia Arkotxa
Miren Azkarate
Jean-Baptiste Coyos
Jean-Louis Davant
Patxi Goenaga
Jean Haritschelhar
Andres Iñigo
Xabier Kintana
Joseba Lakarra
Jose Luis Lizundia
Miren Lourdes Oñederra

Txomin Peillen
Andoni Sagarna
Patxi Salaberri
Pello Salaburu
Ibon Sarasola
Ana Toledo
Joan Mari Torrealdei
Patxi Uribarren
Andres Urrutia
Xarles Videgain
Mikel Zalbide

Egintzaren hasieran etorri ez diren euskaltzainen ahalak hartu dira kontuan. Jose Irazu «Bernardo Atxaga» jaunak Andres Urrutia jaunari eman dio ahala eta Patxi Zabaleta jaunak Andres Iñigo jaunari.

Hori ageriko egin ondoren, Jean Haritschelhar mahaiburuak hartu du hitza, estatutuen arabera eginkizunak izan beharreko nondik norakoak gogora ekarriz. Mahaiburuak kargu bakoitzerako dei bana egin du.

Euskaltzainburua:

Urtearen bukaerara arte euskaltzainburu den Andres Urrutiak eskatu du hitza. Bere burua aurkezten duela esan du, euskaltzainburuari dagozkion zereginetan jarraitzeko, eta hautatua izanez gero, hurrengo lau urteko epean Euskaltzaindian burutu nahi lituzkeen egitasmoak azaldu ditu laburzki.

Botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak: 26

Hautagaiaren alde: 18

Zuriak: 08

Euskaltzainburuordea:

Urtearen bukaerara arte euskaltzainburuorde den Aurelia Aurkotxa andereak bere burua ez duela aurkezten esan du eta Xarles Videgain jaunaren izena proposatu du. Horrek proposamena onartu du.

Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak: 26

Hautagaiaren alde: 20

Zuriak: 06

Idazkaria:

Xabier Kintana jaunak bere burua aurkeztu du, Euskaltzaindiko zuzendaritza-taldean idazkariari dagozkion zereginetan jarraitzeko.

Bera bakarrik aurkeztu delarik, botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak: 26

Hautagaiaren alde: 17

Zuriak: 09

Diruzaina:

Sagrario Aleman andereak bere burua aurkeztu du Euskaltzaindiko zuzendaritza-taldean diruzainari dagozkion zereginetan aritzeko.

Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak: 26

Hautagaiaren alde: 23

Zuriak: 03

Iker sailburua:

Andoni Sagarna jaunak zeregin horretarako bere burua ez duela berriz aurkezten eta Adolfo Arejita jaunaren izena proposatu du, Euskaltzaindiko zuzendaritza-taldean Iker sailburuaren zereginetan aritzeko. Horrek proposamena onartu du.

Bera bakarrik aurkeztu delarik, botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak: 26

Hautagaiaren alde: 23

Zuriak: 03

Jagon sailburua:

Andres Iñigo jaunak ere bere burua berriz ez duela aurkezten jakinarazi du, eta Jean-Baptiste Coyos jaunaren izena proposatu du, Euskaltzaindiko zuzendaritza-taldean Jagon sailburuaren zereginetan aritzeko. Horrek proposamena onartu du.

Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak: 26

Hautagaiaren alde: 24

Zuriak: 02

Beraz, Zuzendaritza honela eraturik gelditu da: Euskaltzainburu, Andres Urrutia. Euskaltzainburuorde, Xarles Videgain. Idazkari, Xabier Kintana. Diruzain, Sagrario Aleman. Iker sailburu, Adolfo Arejita. Jagon sailburu, Jean-Baptiste Coyos.

Mahaiburuak eta gainerako euskaltzainek hautatu berriei zorionak eman dizkiete.

Batzar berezia 17:25 direnean amaitu da.

Jean Haritschelhar,
mahaiburua

Jean Baptiste Coyos,
idazkaria

Bilbon, 2012ko urriaren 18an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Davant, Jean Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles, eta
Zalbide, Mikel euskaltzainak
Erramun Osa, idazkariordea eta
Joseba Zabaleta, kudeatzailea.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala A. Urrutiari; Jose Luis Lizundiak ahala Xarles Videgaini (18:30etik aurrera); Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 5:30ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak hasiera eman dio ohiko batzarrari.

1. Osoko bilkurako (2012/7/20) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz. Hiru ohar jaso dira. P. Goenaga euskaltzainak oharren bat egin ahal den galdetu du. Ekarpenak egiteko epea euskaltzainek berek ezarri zutela erantzun zaio, eta beraz, iruzkinak fin-katuriko epean egin behar zirela, besteak beste, puntu horren ingurukoak batzarrean antolatzeko.

Azkenean, bilera-agiria onartu da epearen barruan aurkeztutako hiru iruzkinak txertatu ondoren.

2. Osoko bilkurako (2012-09-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Irailaren hogeita zortziko Osoko bilkurako bilera-agiria dela eta, P. Goenagak galdegin du aurreko bilkuraren bilera-agiria euskaltzainei zergatik ez zaien lehena-go bidali. Euskaltzainburuak erantzun dio, Idazkaritzan pilatu den lanagatik izan dela. Dena den, arautegiak ez du zehazki esaten aktak noiz bidali behar diren. Harelere, J. Haritschelharrek orain arteko ohitura aldeztu aurretik bidaltzea izan dela esan du eta, bere ustez komeniko litzatekeela aurrerantzean ere orain arteko usadioari atxikitzea.

J. L. Lizundia eta M. L. Oñederra ere bat etorri dira. Euskaltzainburuak eskari hori kontuan hartuko dela erantzun du.

2012ko irailaren 28ko bilera-agiria dela eta, oharrak abenduaren 3rako igortzea erabaki da.

2. Exonomastika

2.1. Exotoponimo-zerrendan egin beharreko azken aldaketak eta gehitzeak: ekarpenak aztertu eta onartu, hala erabakiko balitz. J. L. Lizundiak aurkeztu du, eta egindako txostenaren arabera helduriko oharrei erantzun die.

Joan zen batzarrean toponimiako azken aldaketa eta gehitzeek banatu zen proposamenari Mikel Zalbidek, J. Haritschelharrek eta P. Zabaletak *Benguelako itsaslasterraren* ordez *Bengelako itsaslasterra* arautzea proposatu dute. Era horretako toponimo euskaraz tradizio gabeetan, ez dela grafia aldatu erantzun zaie, *Languedoc*, *Périgueux*, *Guernesey* edo *Perdiguero mendia* kasuetan bezalaxe.

Bestetik, A. Urrutiak, Ondarroan *Rokal itsasgunea* euskaraz erabilia dela aipatu du. Exonimo hori ingelesa da eta **Rockall** izeneko uhartetik datorrela erantzun zaio, eta, dituen aldaketa txikiengatik hola uztea komeni dela.

Era berean, Tx. Peillenek **Grankanton** izeneko tokia kostaldea ote den galderari, argitasunak eman zaizkio. **Haizkibel** mendiko harearrizko haitz gun bat da, haizeak eta euriek era bitxian zulatua.

J. Lakarrak, halaber *Kamtxatka* toponimoaren *m* letraren ordez *n* jartzea egokia goa ez ote litzatekeen galdetu du, aski toponimo handia baita. Orain Kamtxatkako itsaslasterra talasonimoa arautzea proposatu da, baina gogoratu da *Kamtxatka* (*Kamtxatkako penintsula*) 159. arauan jada 2010ean onartua zela, espainol, frantses,

ingeles eta aleman erduei jarraiki, guztietan m grafia erabiltzen da eta. Egia da urruneko toponimo batzuetan kontsonante-multzo arrotzak gertatzen direla, baina orain arte horiek errespetatzea erabaki da, Georgiako **Mtkvari** ibaia edo **Mtskheta** hiriaren kasuan bezala. Holako kasuetan eta, oharrak jaso eta horiekin txosten bat osatu da, euskaltzainen artean banatua.

Azalpenak entzun ondoren, Exonomastika batzordean eginiko proposamena bere horretan onartzea erabaki da.

2.2. «Astronimia (I) Planeten eta planeta nanoen izenak» aurkeztea. Proposamen hau banatzean, J. L. Lizundiak gogorarazi du jada Exonomastika batzordeak gure planetako kontinente, uharte, ozeano eta itsaso guztietako estatu eta herrialde nagusien leku garrantzitsuenen izenak aztertu eta Osoko batzarrera ekarri dituela. Era berean, orain arteko geografia-izen onartuen zerrenda ahalik eta lasterren argitaratu dadin, A. Mujikarekin batera lanean aritzeko duen asmoa iragarri du. Ondoren, Exonomastika batzordea berriztatzen denean, batzordean jarraitzeko asmorik ez duela ere gaineratu du. Horiek horrela, eskerrak eman dizkie urteetan batzordekide izan dituen guzti-guztiei. Inguruabar horretan, gutun bat ere irakurtzen hasi da, baina, amaitu gabe, azkenean batzarlekutik alde egin du, eskutitz hori X. Videgaini irakurtzen amaitzeko eskatuz. X. Videgainek holaxe egin du.

X. Kintanak, Osoko batzarrera exonomastika batzordetik ekarriko material berriak aurkeztu ditu. Badira oraindik aztertu beharreko beste arlo batzuk ere, baina gaurkoan arlo berezi bati ekingo zaio: Astronimiari, hau da, Lurretik kanpoko gorputz-izen propioen azterketari.

Mahairatzen den astronimia arloko lehen zerrenda hau, eguzkiaren inguruko planetei eta planeta nanoen izenei dagokie, eta horiek aukeratzeko erabili diren iturri eta irizpideak aipatu ditu: orain arteko euskal tradizioa, literaturan izandako lekukotasunak eta nazioarteko erabilera, hain zuzen ere. Izen horiek mitologia klasikoarekin eta beste toki batzuetako sineskerekin daukaten lotura ere gogorarazi du, eta hitz horiek transkribatzeko moduez ere mintzatu da.

Tx. Peillenek izen horietako batzuek, Martek kasu, espainolarekiko mendetasun handiegia erakusten dutela ohartarazi du, eta nazioarteko erduei gehiago jarraiki beharko litzaiekeela uste du. I. Sarasolak erantzun dio izen batzuk espainolkeriak direlako salaketa ez dela bidezkoa, Marte, adibidez, eta ez Mars, Iparraldeko seme zen Joanes Etxeberri Sarakoak berak zerabilen eta.

Astronimiari buruzko oharrak abenduaren 3rako igortzea erabaki da.

3. Euskaltzain urgazleak hautatzeko irizpideak, eztabaidari jarraipena eman eta irizpideak onartu, hala erabakiko balitz

Aurreko Osoko bilkuran Iruñean hasiriko gai honi berriro heldurik, euskaltzainburuak hitza P. Uribarreni eman dio. Beronek esan du P. Zabaletak aurreko bilkuran proposatutakoa oinarritzat hartu beharko litzatekeela, puntuak banan bana harturik.

P. Goenagak ez dakusa garbi irizpide-proposamenarekin zer egin behar den. J. Lakarrak, hautagaiak hautatzeko eraz, arauak bete daitezela eskatu du, ez baita besterik behar, beraren ustez. Hortaz, batzordeak ez luke bestelakorik aurkeztu behar. Hautagaien merezimenduak aipatu bai, baina proposatu, euskaltzainek egin behar litzukete. Konforme dago, bestalde, P. Zabaletaren proposamenarekin. Era berean hautagaiak, blokeka ez, baizik eta banaka hautatu behar direla pentsatzen du.

A. Urrutiak, esandako irizpideak laburbiltzeko, hau adierazi du: proposamenak egitean, batetik, batzordeetako kideak eduki beharko liratekeela kontuan eta, bigarrenik kultur arlokako beste zerrenda bat. Hortaz, abendu-urtarriletan, batzordeetako buruei kontsulta egitea egokia litzatekeela pentsatzen du, hortik kopuru bat proposatzeko, eta beste kopuru bat kultur mundutik aterata, herrialde-eskualdeak ere kontuan izanda.

Kopuruari dagokionez, azkenean 25 bat lagun izenda litzatekeela esan du. Baina gogoratu ere egin du zenbat eta izendapenen kopurua handiago izan, emaitza, jendearen begien aurrean, are baliogabetuagorik agertuko litzatekeela. Agian irizpide mistoren bat beharko litzateke, batzordeburuei dei eginez, nork bere proposamenak egin ditzan.

I. Sarasolak ea une honetan Euskaltzaindiak zenbat urgazle dauzkan galdetu du. Erantzun zaionez, 119 dira.

Horrekin batera beste puntu bat ere plazaratu da, urgazle emerituena. Horretaz J. Haritschelharrek eta X. Kintanak hitz egin dute eta, kasu batzuetarako, beste euskaltzain-maila bat ez ote litzatekeen sortu behar galdetu dute.

A. Urrutiak nola jokatu beharko litzatekeen galdetu du, ondorioa kopuru orekatua izan dadin eta konparaketatik elkarri irainik ez egiteko. J. Haritschelharrek esan du batzordeetara etorririko pertsona berriak ez liratekeela sartu behar. P. Salaburu, batzordeetako buruei lehen proposamena egiteko aukera ematearen alde dago, ondoren hautagaien kopurua kanpoko beste pertsona batzuekin osatzeko.

P. Salaberrik proposamenak egiteko jardueran batzordeburuen egitekoaz argitasunak eskatu ditu, norik zer egin behar duen argi uzteko. Prozedura moduan, eta batzordekideen artean gauzak zuhurtziaz egiteko, kontu hau soilik batzordeetako euskaltzain osoekin tratatzea proposatu da.

Ondorioz, hemendik abendura arte, batzorde guztietako arduradunekin hitz egitea erabaki da, urgazle izateko merezimenduak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko, horrela datorren urtearen hasieran, horiek aukera egin eta deialdia egiteko. E. Osak galdetu du ea batzordeetako buruei, soilik, ala lantalde eta egitasmoetako buruei ere eskatu behar ote zaien proposamenak egitea.

Euskaltzainei gai honetaz hausnartzen segitzeko esan eta hurrengo Osoko bilkuran eztabaidarekin aurrera egitea erabaki da.

4. Eskuarztekoak

4.1. Josu Arenaza euskaltzainaren heriotzaz. Josu Arenaza, Bizkaiko euskaltzain urgazlea, aurtengo irailaren 29an hil zela jakinarazi da. Euskaltzaindiaren ize-nean bere hileta-elizkizunetan X. Kintana izan zen. Zuzendaritzaren proposamenez (2012-10-16) haren hilberri-txostena, Euskaltzaindiko idazkariak egingo du.

4.2. 2013. urteko egutegia aurkeztu. Behin-behineko egutegia aurkeztu du idazkariordeak.

M. Zalbidek idazkariordeari eskerrak eman dizkio informazioagatik. Eta 2013. urteko XVIII. Jagon jardunaldiko gaia oraindik erabaki gabe dagoela jakitean, gogoeta eta proposamen batzuk egin ditu. Bere ustez, Sebero Altube ezin utzizko erreferentzia-gizona zen, baina eskuarki ez zaio merezi bezalako aitormenik egiten, eta hizkuntza-soziologian egin zuen lan bikaina gogoratu du, hots, *La vida del euskera* eta *Más sobre la vida del euskera*. Jagon jardunaldiak egitekotan, haren omenez lan monografikoa edo jardunaldiak egitea proposatu du. Horretarako, lekuri egokiena zein litzatekeen erabakitzean, euskaltzainburuak Bilbon, Gernikan edo Arrasaten egin litezkeela iradoki du. M. Azkaratek, aldiz, Gernika hobetsi beharko litzatekeela uste du, aurretik jada Arrasaten holakorik egin delako. Bestalde, gaiari dagokionez, M. Azkaratek, jardunaldiotan, batez ere hizkuntzaren soziologiari ekin beharko litzaikeela pentsatzen du.

A. Arejitak, jardunaldia S. Altuberen beste arloak jorratzeko baliatzea ere proposatu du. I. Sarasolak uste du egokiena M. Zalbideren bideari eustea dela, beste arloak oraingoz utzita.

M. L. Oñederrak gogorarazi du aurten, urriaren 11n, Koldo Mitxelenaren heriotzaren 25. urteurrena izan dela. A. Arkotxak, efemerideaz baliatuz, K. Mitxelenaren oroitzapenez omenaldi bat egitea komeniko litzatekeela gaineratu du. Euskaltzainburuak oroitaraztea eskertu eta idatziz horri buruzko proposamenak eskatu ditu.

Euskaltzaindiaren egutegia dela eta, ekarpenak jasotzeko aldia ireki da, gaurtik abenduaren 3ra arte, abenduaren 14ko Osoko bilkuran, hala erabakiz gero, onartzeko.

4. 3. - Ageriko bilkuretako bilera-agiriak onartzea

4.3.1. Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an eginiko Ageriko bilkurako bilera-agiria (Hilberri-txostenak). Ez da oharrik jaso eta, beraz, onartu egin da.

4.3.2. Donostian, 2012ko otsailaren 24an eginiko Ageriko bilkurako bilera-agiria (Hitz-ordena, erabilera estrategikoa). Honetan ere ez da oharrik jaso, eta beraz, ontzat eman da.

4.4. Banaturiko liburuak.

Euskaltzainen artean ondoko liburuok banatu dira:

- a) *Euskaren Herri Hizkeren Atlasaren IV.a*. Liburu eta CD euskarrian.
- b) *Euskaltzaindiaren Hiztegia*
- c) *Narrazioak eta olerkiak*, 2011. R. M. Azkue sariketari dagozkionak.

4.5. Hitzarmenak

4.5.1. Baionako Udalarekin

Baionako Udalarekin lankidetzan jarduteko, 2012ko urriaren 23an, goizeko 11:00etan hitzarmen bat sinatuko du Euskaltzaindiak Baionako Udal Mediatekarekin. Ekitaldi berean E. Goyhenecheren *Onomastique du Nord du Pays Basque* liburuaren aurkezpena egingen du Xarles Videgain euskaltzainak. A. Arkotxak, ekitaldi horregatik, bere poza agertu du.

4.5.2. Deustuko Unibertsitatearekiko

Era berean, Euskaltzaindiak beste hitzarmen bat sinatzeko asmoa du Bilbon Deustuko Unibertsitatearekin azaroaren hamahiruan.

4.6. Hurrengo bilkurak

4.6.1. Ohiz kanpoko Osoko bilkura. Bihar goizean 10:00etatik 14:00etara, Euskaltzaindiaren egoitzan ohiz kanpoko Osoko bilkura egingo da, aztergai bakarrarekin: «2013ko zereginak zehazteko: aurrekontuak».

4.6.2. XVII. Jagon Jardunaldiak. Azaroaren 16an, ostirala, XVII. Jagon jardunaldiak eginen dira, Sustapen batzordearen eskutik, Baionan. Lekua: Université de Pau et des Pays de l'Adour.

4.6.3. Eusebio Erkiagaren mendeurrena. Bizkaiko euskaltzain oso izandako Eusebio Erkiagaren mendeurrena dela eta, Akademiaren Literatura Ikerketa batzordeak jardunaldi bat egingo du azaroaren 30ean Deustuko Unibertsitatean, 10:00etatik 14:00etara.

4.6.4. Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren aurkezpena abenduaren hamai-kan, Baionan. Lekua: Université de Pau et des Pays de l'Adour.

4.6.5. Abenduko Osoko batzarra. Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko batzarra abenduaren 14an egingo da, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

5. Azken ordukoak

Hotelari eta afariari buruz zenbait argibide eman ditu idazkariordeak.

Eta besterik ez dela, bilera amaitutzat eman da, arratseko 19:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Donostian, 2012ko abenduaren 14an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles, eta
Zalbide, Mikel
Erramun Osa, idazkariordea,
Joseba Zabaleta, kudeatzailea, eta
Alfontso Mujika,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: A. Arejitak
ahala X. Kintanari; P. Goenagak ahala
M. L. Oñederrari; J. Irazu «B. Atxaga»k
ahala A. Urrutiari; J. M. Torrealdaik
ahala A. Sagarnari; P. Zabaletak ahala
A. Iñigori.

Bilbotik Donostiara doan autopistan is-
tripu bat izan denez gero, euskaltzain-
burua eta idazkaria berandu iritsi dira.
Horren ondorioz, batzarra goizeko
10:45ean hasi da, Donostiako Diputa-
zioaren Jauregian, ezkerreko zutabea
ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak etorririko
euskaltzain guztiak agurtu ditu, ondo-
ren batzarrari hasiera emateko.

**1. Osoko Bilkurako (2012-09-28)
bilera-agiria onartzea, hala erabakiko
balitz.** A. Urrutiak eta J. L. Lizundiak
ekarririko iruzkinak idazkariordeak
aurkeztu ditu. Ontzat eman dira. On-
dorioz, 2012ko irailaren 28ko bilera-
agiria onartu da.

2. Bilkura bereziko (2012-10-18) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz. Ez da oharrrik egon, beraz, Bilkura bereziko 2012ko urriaren 18ko bilera-agiria bere horretan onartu da.

3. Osoko bilkurako (2012-10-18) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz. Idazkerazko eta puntuaziozko oharrak jaso dira, eta idazkariordeak aurkeztu ditu. Guztiak ontzat eman dira. Ondorioz, 2012ko urriaren 18ko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

4. Ohiz kanpoko Osoko bilkurako (2012-10-19) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz. A. Urrutiaren, B. Oihartabalen eta M. L. Oñederraren oharrak jaso dira. Era berean, idazkerazko eta puntuaziozko zenbait iruzkin ere jaso dira. Guztiak aurkeztu ditu idazkariordeak. Denak onartu dira, beraz, Ohiz kanpoko Osoko bilkurako 2012ko urriaren 19ko bilera-agiria onartu da.

5. Exonomastika:

5.1. Astronomia (I): planeten eta planeta nanoen izenak onartu, hala erabakiko balitz.

Aurreko Osoko bilkuran abenduaren hirua arteko aldia ireki zen, ekarpenak eta egin ahal izateko. Ez da oharrrik etorri eta, beraz, zerrendako izenak ontzat eman dira.

5.2. Astronomia (II): sateliteen izenak aurkeztu.

Hitza A. Mujikari eman zaio, eta euskaltzainei karpetan paperez banaturiko txostenean izendegi hau osatzeko erabiliriko prozedura azaldu zaie, euskararen inguruko nazioarteko hizkuntza nagusietako ereduak kontuan izanda. Oinarritz, mitologia klasikoko pertsonaien izenak letraldatzeko, Euskaltzaindian erabakirik irizpideak berak erabili dira, koherentzia mantentzeko. Hizkuntza batzuetan agertzen diren kontraesan batzuk ere azpimarratu dira.

X. Kintanak zerrenda honetako hitzak, eguneroko hizkuntzan maiztasun handirik ukan ez arren, entziklopedia, testu-liburu, egunkari-aldizkari eta dibulgazio-idazkietan duten garrantzia azpimarratu du. P. Uribarrenek izen horietatik, erabilienak behintzat, lehenbailehen argitaratzea komeniko litzatekeela esan du. Ondoren, oharrak bidaltzeko epea finkatu da, hona hemen: 2013ko urtarilaren 14a.

6. puntua etenaren osterako utzi da.

6. Euskaltzaindiaren batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen 2013. urteko planak aurkeztu eta onartu, hala erabakiko balitz.

E. Osa idazkariordeak azaldu du, oraindik batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzu batzuek ez dituztela beren aurreikuspenen programak amaitu eta, horregatik, aurkezteko epea urtarrilerako luzatzea proposatu du. Ontzat eman da. Edonola ere, euskaltzainburuak programa horiek lehenbailehen behar ditugula gogorarazi du, herri-aginteei aurkeztu behar zaizkie eta.

Inguruabar horretan, J. L. Lizundia, 2012ko urriaren 19ko Ohiz kanpoko bilkuran adierazitakoaren arabera, egitasmo batzuk geroratzten direla ikustean kezkatu agertu da, besteak beste, Euskaltzaindiaren Historia proiektua geroraturik geratu dela ikusten baitu. Hori ez duela onartzen esan du eta bere laguntzaile den Iasmina Gorroñok Euskaltzaindian lanean segituko duen ala ez jakin nahi luke. A. Urrutiak Euskaltzainditik inor ez dela kaleratuko adierazi du, hori izan baitzen urriaren hemeretziko bilkuran aurkezturiko txostenean jasorikoa. Era berean, egitasmoekin zer egin erabaki aurretik, proiektuen zuzendariekin eta zerbitzu-emaleekin hitz egingo dela esan du. Gainera, oraindik ezin esan daiteke zehazki zer egingo den, Euskaltzaindiak erakundeetatik zenbateko laguntza jasoko duen jakiterik izan ez duelako.

Puntu hau aztertu ondoren, *Euskera* agerkariaren 2011ko bi aleak aurkezteko etena egin da. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Jauregian dagoen Julio Urkixo gelara hurreratu dira euskaltzainak. Aurkezpenean parte hartu dute: A. Urrutia euskaltzainburuak, J. Haritschelhar Literatura Ikerketa batzordeburuak eta S. Aleman Sustapen batzordeburuak.

12:40 direnean Osoko bilkurari jarraipena eman zaio.

7. 2013. urteko egutegia onartzea

2012ko urriaren 18ko Osoko bilkuran 2013. urteko behin-behineko egutegia aurkeztu zuen idazkariordeak. Ekarpenak egiteko abenduaren hirua arteko aldia ireki zen. Ez da iruzkinik edo oharrik jaso. Ondorioz, 2013. urteko egutegia onartu da. Hona hemen:

Urtarrilaren 25ean, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Osoko bilkura.

Ageriko bilkura (Hilberri-txostenak).

Otsailaren 22an, Bilbon, egoitzan.

Osoko bilkura.

Martxoaren 21-22an, Bilbon, egoitzan.

Osoko bilkura.

XVIII. Barne jardunaldiak, Bilbon, egoitzan.

Apirilaren 26an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Osoko bilkura.

Maiatzaren 31n, Bilbon, egoitzan.

Osoko bilkura.

Ekainaren 28an, Gasteizen, Arabako Foru Aldundian.

Osoko bilkura.

Uztailaren 19an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Osoko bilkura.

Irailaren 27an, Iruñean (lekua, zehazteko).

Osoko bilkura.

Urriaren 4an, Tuteran.

Ageriko bilkura (*Nafarroa Oinez*). Urrian ez da Osoko bilkurarik aurreikusi.

Azaroaren 15ean, Iruñean.

XVIII. Jagon jardunaldia.

Azaroaren 29an, Baionan.

Osoko bilkura. Arratsaldean Ageriko bilkura.

Abenduaren 20an (lekua, finkatzeko).

Osoko bilkura.

J. L. Lizundiak iradokizun bat egin du, Seber Altuberen heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena dela eta, kontuan izateko lehenago ere, S. Altube eta L. L. Bonaparteren omenez, halako omenaldiak egin zirela, berriz ere toki berean egin ez daitezen. Era berean, Eusebio Maria Azkue jaio zela bigarren mendeurrena dela eta, zerbait antolatu daitekeen galdetu du. E. Osak adierazi dio 2013. urtean L. L. Bonaparteren, Seber Altuberen eta Inazio Eizmendi Manterola *Basarriren* urteurrenak lehenestea proposatu zela aurreko Osoko bilkuran. Ondorioz, ditugun baliabideak ditugunez gero, proposamen horiek garatzen ahalegintzea iradoki du.

M. Azkaratek galdetu du ea hilberri-txostenak zer ordutan egingo diren. Goi-zean, Osoko bilkuraren ondoan izanen direla erantzun dio idazkariordeak. X. Vi-degainek esan du maiatzean Baionan nazioartean atlasgintzan ari diren arteko bilkura eginen dela Baionan, eta agian, biharamunean, posible litzatekeela Bonaparteren funtsekin erakusketaren bat antolatzea. Ideia ontzat eman da.

Programako gai batzuk zehaztea geroko utzirik, horrela 2013ko egutegia ontzat eman da.

9. 2013. urterako aurrekontuak, informazioa eman

Hasteko, J. Zabaleta kudeatzaileak 2012ko urteko behin-behineko emaitza ekonomikoak erakutsi eta xeheki azaldu ditu, dauden aurreikuspen eta berrespenekin. Erakundearen emaitzak ere, frogatuak eta ustezkoak ere eskaini ditu. Informazio berria heldu ahala, hori ere jakinaraziko duela esan du.

A. Urrutiak kudeatzaileari galdera egin dio, 2012ko urteko kontuak nola geldituko diren jakiteko. J. Zabaletak erantzun dio kontuak ez daudela oraindik amaiturik, baina aurreko defizitik ez dela izan. Gainera, 2013ko diru-laguntza berriak jaso arteko aurreikuspenez ere hitz egin du eta adierazi du Euskaltzaindiak bere eguneroko konpromisoei erantzun ahal izateko, hurrengo lau hilabetara arte baduela erreserbarik. Hortaz, 2012. urtean Euskaltzaindiak inorekin zorrik eduki gabe eta defizit egin gabe amaituko du ekitaldia.

2013. urteari dagokionez, Euskaltzaindiaren kudeatzaileak, sarrerei eta gastuei buruzko azken berriak azaldu ditu. Horien artean, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak aurkeztu berri dituzten aurrekontu-proiektuetan proposaturiko ekarpenen nondik norakoak. Eusko Jaurlaritzari buruz ez dago informaziorik, Gobernuak eratu behar baita lehenbizi, horren ondoren, EAEko Aurrekontuen aurreproiektua prestatuko dute, beraz, otsaila arte Euskaltzaindiak zer jaso dezakeen ez da jakingo.

J. Haritschelharrek Euskararen Erakunde Publikoak 2013. urtean egingo duen ekarpenari buruz galdegin du. Ez dago mementoz erantzunik. A. Urrutiak azaroaren hamaseian Baionan egin ziren XVII. Jagon Jardunaldian Frantxua Maitiarekin, EEPko presidentearekin, izaniko iritzi-trukea azaldu du. Murritzaren bat egon liteke. Nolanahi ere, EEP erakundeak Eusko Jaurlaritzatik jasoko duen laguntzaren arabera izango da, beraz, oraindik ezin jakin daiteke. F. Maitiak 2012ko laguntzari eusteko borondatea duela agertu du, horretarako baliabideak dituen neurrian.

Puntu honen segidan, bilera-deiko 6. aztergaia jorratu da.

6. Euskaltzaindiko urgazleak proposatzeko eta izendatzeko egutegia aurkeztu eta onartu, hala erabakiko balitz

P. Uribarren euskaltzainak egindako txostena kontuan harturik, Zuzendaritzak, Baionan 2012ko abenduaren 11n onarturiko proposamena irakurri du euskaltzain-

buruak, paperean idatzirikoa banatu eta gero. Hor, hautagaiak aurkezteko bi deialdi egitea proposatzen da, bata 2013ko urtarrilean irekiko litzateke, eta bestea, 2013ko irailean. Proposamenak batzordeek eta lantaldeek egingo lituzkete, bi euskaltzain osok sinaturik. Hor bakoitzaren merezimenduak argi utzi beharko lirатеke. A. Urrutiaren ustez kopurua mugatu beharko litzateke, urgazle ugari izendatu dir-lako, izendapenak balioa gal ez dezan. Batzorde bakoitzak hartu beharko luke erantzukizun hori eta lantalde guztiekin berdintasunez jokatu beharko litzateke, Zuzendaritzaren ustez.

Euskaltzaindiarekin aspaldian lanean ari diren pertsonen egoera une honetan nolakoa den jakin dadin, E. Osak batzorde eta lantaldeetako kideen zerrenda banatu du, hor euskaltzain urgazle diren ala ez garbi erakusteko. Idazkariordeak, halaber, zerrenda hori nolako irizpideez eratu den azaldu du, eta argitasunak eman ditu azken urteotan ibiliriko lankideez.

J. L. Lizundiak euskaltzainburuak arrazoia daukala uste du, hautagaien curriculumari dagokionez. Era berean, bigarren txandako hautagaiak denboraz pixka bat aurreratzea proposatzen du. Ongi iritzi dio A. Urrutiak.

P. Salaburuk ez du uste egokia denik batzordeek proposamenak egitea, eta batzordeetatik kanpoko jendea proposatzean zer bultzatu nahi den galdetu du. I. Sarasolak lehenagoko irizpideari ongi deritzo: bai barrukoak eta bai kanpokoak. X. Kintanak ere horri eutsi dio, barruko zein kanpoko euskaltzaleak saritzeko. Oreka litzateke arazoa: zenbana egin.

M. Azkaratek, P. Salabururekin bat, batzorde batzuetan izendapenak egiteak problema sor lezakeela uste du. P. Uribarrenek pentsatzen du kanpokoek lana airtortzea ere beharrezkoa dela, baina zenbat urtetan ibili diren kontuan hartuta. B. Oihartzabalek esan du izendapen askorekin ere kopuru osoa ez dela gehiegi aldatzen, zenbait kide urtero-urtero gure artetik joan ere egiten baitira. I. Sarasolak gogoetarako gai bat agertu du: R. Saizarbitoria urgazlea da, baina ez da Euskaltzaindian agertu ere egin. Zer da urgazle izatea?

J. L. Lizundiak Arautegia gogorarazi du: hautagaiak euskarari zerbitzu nabarmenak emandakoak dirateke. Kopurua jaitsi eta gauzak errazteko, berak banatu den batzordeetako zerrendatik aholkulariak kentzea proposatzen du. P. Uribarrenen bidetik, euskalgintzan zenbat denbora daramaten kontuan hartuko luke. J. Haritschelharrek lehen ere euskal lanean ari zirenak sartzen ahalegintzen zirela azpimarratu du, eta Euskaltzaindiaren ohorerakoak hartu beharko lirатеkeela. I. Sarasolak uste du hau ez dela unerik egokiena proposamen konkretuak egiteko. P.

Uribarrenek batzorde bakoitzak bina izendatzea proposatu du. B. Oihartzabalek uste duenez, proposamena batzordeek egin beharko lukete.

A. Urrutiaren aburuz, kontratupean akademiaren ordaina jasotzen dutenak ere, merezimendudunak dira, baina bi munduak kontuan hartu beharra dago, alegia, borronteaz Euskaltzaindiaren batzordeetan parte hartzen dutenak eta ordaina jasotzen dutenak, eta, pentsatzen du ondo legokeela martxoko barne jardunaldiez baliatzea proposamenak egiteko. I. Sarasola A. Urrutiaren proposamenaren alde azaldu da eta hautagaien merezimenduak aurretik publikoak egin beharko liratekeela uste du.

J. Lakarrak irizpide nagusia lankide bakoitzaren egiazko lana dela uste du eta ezin daitekeela har irizpide nagusitzat denbora hutsa. P. Salaberrik ere gauza bera azpimarratu du, hots: bakoitza bileretara zenbat aldiz datorren, hor noizdanik dagoen eta bakoitzaren jarduna nolakoa izan den.

A. Urrutiaren ustez onargarria litzateke Zuzendaritzak adierazi legez, proposamenak bi multzotan egitea. Batzordeetan ibiliak, aholkulariak kenduta, Zuzendaritzak aztertuko lituzke, batzordeburu bakoitzarekin kontsulta egin eta gero. Eta urtarilaren Osoko bilkurara etorriko dira horien izenak. Bestalde, euskalgintzatik jasoak, Zuzendaritzak irailean zabaldu luke deialdia, 2013. urtean prozesua bukatu ahal izateko. J. Lakarrak zerrenda nola osatuko den galdetu dio. A. Urrutiak erantzun dio, esanez, behin batzordeburuekin mintzatu ondoren, zuzendaritzak ekarriko lukeela, jada kontsentsuaturik. J. L. Lizundiak arautegia ere kontuan hartu behar dela gogorarazi du. Amaitzeko, P. Uribarrenek pertsonen curriculumak eta adina ere gogoan izatekoak direla azpimarratu du.

Ondorioz, Zuzendaritzak, hurrengo Osoko bilkurara Euskaltzaindiko batzordekide direnen zerrenda ekarriko du, euskaltzain urgazleen proposamenerako hautagai izan daitezkeenak, batzordeburuekin hitz egin ondoren.

10. Eskuaratekoak

10.1. Sinatu diren lankidetza-hitzaermenak

10.1.1. Baionako Herriko Etxearen eta Euskaltzaindiaren artekoa. Urriaren 24an Baionako Mediatekan sinatu zen lankidetza-hitzaermenena. Horren bitartez, besteak beste, bertan Azkue Bibliotekako katalogo-funtsen indizeak kontsultatu ahaliko dira, eta Mediatekaren baliabideetan Azkue Bibliotekaren lankidetza aipatuko da. Hitzaermenaren izenpetu ondoan, E. Goyheneche historialariaren *Onomastique du Nord du Pays Basque* (Iker bilduma, 27) liburuaren aurkezpena egin zuen liburuaren paratzailea den Xarles Videgain euskaltzainak.

10.1.2. Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak sinatua. Alde biek, Euskaltzaindiaren egoitzan bildurik lankidetzaz hitzarmena izenpetu zuten, besteak beste, ondokoak jasotzeko: Deustuko Unibertsitateko doktoregaiek eta beren ikerketak eta praktikak Euskaltzaindiaren egoitzan, Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta Akademiaren ordezkarietzan egin ahal izatea; erakunde bien ikerketa-funtsak erabiltzeko aukera, artxiboak eta bibliotekak barne; elkarlana eta bi erakundeek elkarrekin burututako argitalpenak sustatzea; Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan, Onomastikako izendegien arloetan harturiko erabakiak edo gomendioak erabiltzeko erraztasunak ematea; bi erakundeen arteko lankidetzaz politika bultzatzea, masterrak, graduondokoak, ikastaroak, biltzarrak edo sinposioak batera antolatu eta burutzeko.

10.1.3. Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) eta Euskaltzaindiaren lankidetzaz hitzarmena. Baionan, azaroaren 16an sinatu zen. Hor jasotzen da, besteren artean, 2012. urteko lan-jarduna burutzeko Euskaltzaindiak EEPetik jasoko duen laguntzaren zenbatekoa (140.000 euro); horren kontura argitaratuko diren liburuak; EEPren proiektu deialdik argitalpenen hizkuntza-kalitatearen azterketa; euskal toponimoen grafia egokiari buruz EEPek jasoriko galdeei erantzuteko era; toponimian Ipar Euskal Herriko euskara-teknikariak prestatzeko konpromisoa, eta IGNren toponimoen normalizatzeko lanaren emaitzak gizarteratzeko erabakia.

10.1.4. IKAS euskal pedagogia zerbitzuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz hitzarmena. Abenduaren 11n izenpetu zen Euskaltzaindiko Iparraldeko ordezkarietan. Hitzarmenean jasotzen da, besteak beste: Akademiak euskarari buruz emandako arauak zabaltzeko eta IKASek argitaraturiko materialen hizkuntza gainbegiratzeko konpromisoak; Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexiko Behatokitako, IKASeko pedagogia zerbitzuaren euskal testu multzoaz baliatzeko eta erabazteko baldintzak, eta abar.

10.2. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Euskaltzaindiaren arteko auzia. Eusko Jaurlaritzatik Euskaltzaindiak 2012. urtean jaso beharreko laguntzetatik Kultura Sailburuak 190.000 euro atxiki hartu zituela eta, Zuzendaritzan eta Osoko bilkuran finkaturiko irizpideei segida emanez, A. Urrutia euskaltzainburuak errekurtoa aurkeztu zuen. Urriaren 19ko aginduaren bitartez, Kultura sailburuak helegite hori ezetsi du. Ondorioz, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, azaroaren zazpian Oiartzungo udaletxean egindako bilkuran, errekurtoa jartzea erabaki zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitegiatarako Aretoran.

10.3. Nafarroako Epaitegi Nagusiaren epaia Zia toponimoari buruz. Nafarroako eremu mistoan dagoen Itza udalerriko kontzejua da Zia, ofizialki Cía izendatua.

Kontzejuak Nafarroako Gobernuari Zia formaren aldeko eskaera egin zion. Gobernuak eskatutakoari ezezkoarekin erantzun ondotik, Kontzejuak gaia auzitara eramatea erabaki zuen. A. Iñigok prestatu zuen irizpen-txostena baliatu du Nafarroako Epaitegi Nagusiak bere epaia hartzerakoan. Hor garbi uzten du Epaitegiak Nafarroako Gobernuak halako euskal gaietan aurretik irizpen-txostena Euskaltzaindiari eskatu behar diola. Aurrekari garrantzitsutzat jo da Epaitegiaren erabakia, Zia eremu mistoko herria izanik, epaiak Zia euskal forma bakarra hobetsi duelako.

J. L. Lizundiak Nafarroako epai hori *Euskera* agerkarian argitaratzea eskatu du. Ontzat eman da.

10.4. Azkue Sariak 2012. Epaimahaiko kideak izendatzea. Euskaltzaindiko Zuzendaritzak (2012-11-27) epaimahaiko kideak izateko eginiko proposamena::

- A maila: Yolanda Arrieta, Igone Etxeberria eta Antton Irusta.
- B maila: Joseba Butron, Xabier Kaltzakorta eta Mayi Iza.

Osoko bilkurak izendapenok onartu egin ditu.

10.5. Gasteizko Toponimia egitasmoa. J. L. Lizundiak eta Roberto Gonzalez de Viñasprek idazki bat igorri dute idazkaritzara (2012-11-27). Hor Gasteizko Udal-erriko Toponimia egitasmoaren zuzendaritza-lana uzten dutela adierazten dute. Honen jakitun geratu da Osoko bilkura.

10.6. Argitalpenak eta aurkezpenak. Gaur, ondoko argitalpenak aurkeztu ditu Euskaltzaindiak: *Euskera* agerkariaren bi ale. Lehenengoa, Akademiaren 2011ko ohi-ko jardunari dagokiona. Bigarrena, aldiz, urte berean *Arabatik Arabara euskaraz* izenaz egin zen XVI. Jagon Jardunaldian aurkezturiko txosten batzuk eta Baionan, Agosti Xahoz Literatura Ikerketa batzordeak antolaturiko jardunaldiari dagozkionak.

Bestalde, Exonomastika batzordeak landuriko eta Osoko bilkuretan onetsitako 169. (*Ozeaniako leku-izenak euskaraz*) eta 170. (*Amerikako leku-izenak euskaraz*) arauak argitaratu dira, Euskaltzaindiaren webgunean. Era berean, ondoko argitalpenak banatu dira: alde batetik, *Euskaltzaindia eta Ipar Euskal Herria*, Jean-Baptiste Battitu Coyos euskaltzainak paratua, eta azaroaren 16an Baionan aurkeztua; eta bestetik, *Erlea 6*. Bernardo Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen aldizkaria. Oraingo alea autobiografia eta harriari buruzkoa da.

10.7. Euskaltzaindia Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan. Abenduaren 6tik 9ra Durangon eginiko azoka horretan Euskaltzaindiak bere saltokia jarri zuen, hor urte osoan kaleraturiko liburuak salgai jarritz. *Euskaltzaindiaren hiztegia*. *Adierak eta adibideak* eta *Erlea 6*. zenbakiak oso harrera ona izan zuten.

10.8. Aurkezpen berriak. Urtarrilak 17, osteguna, Bilbon, EHU-UPVren egoitzan, Euskaltzaindiaren eta EHU-UPVren arteko lankide-hitzarmenaren inguruarbarrean, honako liburu hau aurkeztuko da: *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Era berean, III. Koldo Mitxelena sariak ere emango dira.

Urtarrilaren 19an, Maulen, *Maison du Patrimoine*-n, goizeko 10:30ean Txomin Peillenen *Jon Mirande olerkaria* liburuaren aurkezpena egingo da.

Aurkezpen hauen berri zehatza idazkariordeak emango die euskaltzainei urtarrilean.

10.9. Euskaltzaindiko argitalpenak salgai Paypal bidez, gaurtik aurrera. Euskaltzaindiak bere webgune bidezko salmentan aldaketak gauzatu ditu. Hemendik aurrera, bere webgunean eskaintzen dituen argitalpenak Paypal ordainketa sistemaren bidez erosi ahalko dira. Honetara, Euskaltzaindiak erosleekiko harremana erraztu eta hobetu nahi du.

10.10. Hurrengo bilkurak. Hurrengo osoko eta ageriko bilkurak datorren urtarrilaren 25ean izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundian. Ageriko bilkurari dago-kionez, ondoko hilberri-txostenak irakurriko dira:

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* euskaltzain urgazlearen hilberri-txosten bana Jean Louis Davant euskaltzain osoak eta Jose Austin Arrieta euskaltzain urgazleak irakurriko dute.

Karmele Esnal euskaltzain ohorezkoaren hilberri-txostena Miren Azkarate euskaltzainak irakurriko du.

Josu Arenaza euskaltzain urgazlearen hilberri-txostena Xabier Kintana euskaltzainak irakurriko du.

10.11. Esker ona. Bukatzean, gaur oraingo Zuzendaritzaren azken Osoko bilkura dela eta A. Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie orain arte Zuzendaritza lanean aritu direnei eta lan ederra opa die Zuzendaritza berriko kideei.

11. Azken ordukoak

Ez da halakorik egon.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da 14:05ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria



Euskaltzaindiaren *arauak*

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindiaren araugintza 2012an

Exonomastika

Europako toponimia nagusia aski xehe arautzeko langintza 2010ean buruturik, gainerako kontinenteetako toponimia nagusia arautzeko lanari ekin zion Euskaltzaindiak 2011n, eta 2012an burutu du. Guztira, 6 arau oso onartu dira 2012an, hainbat ataletan banatuak, eta toponimiaren araugintzari bukaera emango dion astronimiari buruzko arauaren lehen atala ere onartu da.

Hona hemen arau horiei buruzko xehetasun nagusiak:

167. araua: *Saharaz hegoaldeko Afrikako toponimia*

2012ko martxoaren 30ean onartua, Donostian

Afrikako toponimia bi sailetan banatu zen lantzeko. Lehenengoan, Afrikako iparraldekoa –arabieraren eremua– sartu zen, eta 164. arauan landu zen 2011n; bigarrenean, Afrikaren gainerakoa sartu zen, eta arau honetan bildu zen.

Zein lurralde-eremu handia den kontuan hartuta, oso leku-izen gutxi bildu dira arau honetara –49 leku-izen–, nagusi-nagusiak baino ez. Bi motako leku-izenak dira: batetik, historiagatik, geopolitikagatik edo hedaduragatik ezagun eta garrantzitsuak direnak, hala nola *Biafra*, *Kalahari*, *Dra-kensberg* edo *Sahel*, grafia-arazo berezirik ez badute ere. Bestetik, nazioartean grafia-batasuna ez dutenak, eta, beraz, euskaraz idazteko orduan zalantza eragin dezaketenak, hala nola *Abisinia*, *Kabinda*, *Timbaktu*...

168. araua: Afrika kolonialeko toponimia

2012ko martxoaren 30ean onartua, Donostian

Toponimia historikoa bildu da arau honetan –48 leku-izen–; leku-izen horiek guztiak egun zaharkiturik badaude ere, ez dira desagertu, eta noiz-nahi agertzen dira Afrikako estatuen historiaz aritzean. Eskoletan ere ohiko ikasgaiak dira kolonizazioa eta deskolonizazioa, eta literaturan, komunikabideetan eta entziklopedietan ere agertzen dira.

XIX. eta XX. mendeetan Europako estatu boteretsuen mende geratu ziren Afrikako lurraldeak izendatzeko erabilitako leku-izenak dira. Haietarik asko hizkuntzatik hizkuntzara aldatzen dira, hizkuntza bakoitzak bere moldea baitu horrelako izenak adierazteko, hala nola *Hego-mendebaldeko Afrika Alemana*, *Piperbeltz Kosta*, *Volta Garaia*...

Era horretako izendapenak eratzeke erabilitako joskera-irizpideari buruzko argibideak ere ematen ditu arauak.

169. araua: Ozeaniako toponimia

2012ko martxoaren 30ean onartua, Donostian

Ozeaniako toponimia nagusia bildu da arau honetan. Ozeaniak oso eremu handia hartzen du, baina gehienbat itsasaldea da. Leku-izenei dagokierenez, esploratzaile europarrek emandako izenak osatzen dute, gehienbat, kontinenteko toponimia nagusia. Horren ondorioz, Ozeaniako toponimia nagusia ez da arazotsua, leku-izen asko berdin idazten baitira gure kultura-inguruneko hizkuntza guztietan, hala nola *Australasia*, *Bikini atoloia*, *Tahiti*, *Queensland*...

Beste izen batzuk, berriz, aldatu egiten dira hizkuntzatik hizkuntzara, eta horiei erreparatu zaie bereziki, euskarazko grafia finkatzeko. Adibidez, *Hawaii* (gaztelaniaz, *Hawái*; frantsesez, *Hawaï/Hawaii*), *Sydney* (gaztelaniaz, *Sídney*), *Leialtasun uharteak* (gaztelaniaz, *islas de la Lealtad*; frantsesez, *îles Loyauté*), *Koral Hesi Handia* (gaztelaniaz, *Gran Barrera de Coral*; frantsesez, *grande barrière de corail*; ingelesez, *Great Barrier Reef*)...

170. araua: Amerikako toponimia

2012ko apirilaren 27an, Bilbon, eta maiatzaren 25ean, Donostian, onartua

Ameriketako toponimia nagusia bildu da arau honetan –237 leku-izen–, hau da, Hego Amerika, Erdialdeko Amerika eta Ipar Amerikako leku-izen nagusiak. Dena den, izen askok arazorik sortzen ez dutenez, berdin idazten baitira nazioartean, ez dira sistematikoki sartu zerrendan, oso leku-izen nagusi eta ezagun batzuk izan ezik. Batez ere, hizkuntzatik hizkuntzara desberdin idazten direnak (itzultzen direlako, grafia-aldaerak dituztelako edo gaztelaniaz edo frantsesez exonimoak direlako eta, horrenbestez, euskaraz erabili beharreko grafia ezartzeko orduan zalantza egin litekeelako) bildu dira arauan.

Beraz, izen oso ezagun batzuk sartu dira, grafia-arazorik ez izan arren (*Aconcagua*, *Bering itsasartea*, *Hudson badia*, *Iguazú ibaia*...), baina, batez ere, gure inguruko erdara nagusietan berdin idazten ez direnak edo hizkuntza bakoitzera itzultzen direnak eta, ondorioz, grafia-zalantza eragin dezaketenak, bildu dira arauan, hala nola *Aintzira Gazi Handia* (gaztelaniaz, *Gran lago Salado*; frantsesez, *Grand Lac Salé*; ingelesez, *Great Salt Lake*), *New Orleans* (gaztelaniaz, *Nueva Orleans*; frantsesez, *Nouvelle-Orléans*; ingelesez, *New Orleans*), *Suaren Lurraldea* (gaztelaniaz, *Tierra del Fuego*; frantsesez, *Terre de Feu*; ingelesez, *Tierra del Fuego*)...

Badira, gainera, leku-izen gutxi batzuk euskarazko berezko izena edo grafia dutenak, hala nola *Ternua* (gaztelaniaz, *Terranova*; frantsesez, *Terre-Neuve*; ingelesez, *Newfoundland*), hala erabili baitzuen Piarres Etxeberriek 1677an *Itsasoko nabigacionecoa* liburuan; edo *Kalifornia*, hala idatzi baita euskaraz hala Iparraldean nola Hegoaldean (Jean Etxepare, Nemesio Etxaniz, Luis Villasante, R. M. Azkue, Pierre Lartzabal, Orixe...).

171. araua: Asiako toponimia

2012ko ekainaren 29an, Bilbon, eta uztailaren 20an, Gasteizen, onartua

Asiako 331 leku-izen biltzen ditu arau honek, kontinente horretako nagusiak baino ez. Bi motatako leku-izenak dira:

Batetik, leku-izen garrantzitsuak edo oso ezagunak, nahiz eta grafia-arazorik ez izan. Adibidez, *Gobi(ko) basamortua*, *Hiroshima*, *Mandalay*, *Aral itsasoa*...

Bestetik, gure inguruko erdara nagusietan berdin idazten ez direnak edo hizkuntza bakoitzera itzultzen direnak, euskarazko grafia finkatzeko. Adibidez, *Samarkanda*, *Jammu eta Kaxmir*, *Ekialdeko Ghat mendiak*, *Malakako itsasartea*, *Barne Mongoliako Eskualde Autonomoa*...

Izen-zerrendez gainera, arauak eranskin zabal bat du, Asiako hizkuntza eta alfabeto ofizialen eta transkripzioen gaia konplexua baita. Eranskinean, Asiako estatu-hizkuntza nagusiei buruzko jakingarri batzuk ematen dira, eta Asiako estatu horietako leku-izenak euskaraz adierazteko orduan kontuan hartu behar diren irizpide nagusiak adierazten. Atal hauek ditu eranskinak: Afganistango hizkuntzak, bengalera, birmaniera, filipinera, Indiako hizkuntzak, indonesiera, japoniera, kazakhera, khmerera, kirgizera, koreera, laosera, Malaysiera, mongoliera, nepalera, Pakistango hizkuntzak, persiera, Sri Lankako hizkuntzak, tajikera, thaiera, turkmenera, txinera, uzbekeera eta vietnamera.

172. araua: Itsaslasterren izenak, itsasgune batzuen izenak eta Antartikako toponimia

2012ko urriaren 18an onartua, Bilbon

Munduko toponimia nagusia amaitzeko, Antartikako leku-izenak falta ziren. Haiekin batera, munduko itsaslaster nagusien eta arrantza-gune garrantzitsu batzuen euskarazko izenak ere landu ziren, eta denak arau honeztan argitaratu dira. Guztira, 43 itsaslaster, 4 itsasgune eta Antartikako 15 leku-izen biltzen ditu arauak.

Antartikako leku-izenen kasuan, nagusi-nagusiak baino ez dira jaso (*Mendi Transantartikoak*, *Eduardo VII.a Erregearen Lurraldea*, *Haakon VII.a Erregearen itsasoa*...). Itsaslasterak izendatzeko, irizpideak lau sailetan zehaztu dira leku-izenaren egituraren arabera (*Golkoko itsaslastera*, *Ipar Atlantikoko itsaslastera*; *Itsaslaster Zirkumpolar Antartikoa*; *Humboldt itsaslas-*

terra; Kuroshio itsaslasterra). Itsasguneen kasuan, euskal arrantza-sektorerako garrantzia duten gune batzuk bildu dira (*Box Irlandarra, Sole Handia...*).

Planetak eta planeta nanoak (173. araua: Astroen izenak)

2012ko abenduaren 14an onartua, Donostian

Munduko leku-izen nagusiak arautu ondoren, Euskal Herriaz haraindiko toponimia nagusia amaitzeko, gure planetaz kanpoko lekuen izenei ere, astroen izenei, erreparatu die Euskaltzaindiak. Ezagutzen diren astroen kopurua etengabe handituz doa, eta, astro berriak izendatzeko, kodeak erabiltzen dira nagusiki. Nazioarteko izendapenak dira, eta ez dira, beraz, euskaraz berariaz aztertu behar. Badira, dena den, zenbait astro-izen –astrorik ezagunenei dagozkienak eta maizen erabiltzen direnak–, hizkuntzatik hizkuntzara aldatzen direnak. Izen horiek kontuan izanda landu da araua.

Araua lantzeko eta eztabaidatzeko, hainbat ataletan banatu zen langaia. 2012an, lehen atala landu eta erabaki zen: planeten eta planeta nanoen izenak landu ziren. Guztira, 23 leku-izen dira (*Artizarra, Pluton, Zeres...*).



Irizpenak eta txostenak

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Aránguiz / Arangiz

Mikel Gorrotxategi Nieto Onomastika batzordeko idazkariak

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica

ZIURTATZEN DU:

Ofizialki *Aránguiz/Arangiz* deitzen den Gasteizko kontzejuaren euskarazko izendapena *Arangiz* dela, herri izenen euskal forma finkatzen duen Euskaltzaindiaren arautegia-
ren arabera.

Eta ziurtagiri hau egiten du, hala jasota geldi dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, Bilbon, 2013ko ekainaren 19an.

CERTIFICA:

Que la denominación del concejo de Vitoria-Gasteiz llamado oficialmente *Aránguiz/Arangiz* es en euskera *Arangiz*, según la normativa de la Real Academia de la Lengua Vasca que establece la forma eusquérica de los nombres de las poblaciones.

Y para que así conste y a los efectos oportunos, expido este certificado en Bilbao, a 19 de junio de 2013.

O. E. / Vº Bº

Patxi Salaberri Zaratiegi
Onomastika batzordeko burua /
Presidente de la Comisión
de Onomástica

Atez / Atetz

Mikel Gorrotxategi Nieto Onomastika batzordeko idazkariak

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica

ZIURTATZEN DU:

Atetz euskal toponimoa dela, euskaraz erabilia dela eta oraindik bizirik dagoela, eta horrela ageri dela Euskaltzaindiaren arautegian. Gaztelaniak toponimoa bere ahoskerara egokitu zuen eta *Atez* bihurtu.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an.

CERTIFICA:

Que **Atetz** es un nombre eusquérico, tradicional y vivo en la actualidad, que el castellano adaptó a su fonética bajo la forma de *Atez*, tal como figura en la normativa académica de esta Real Academia de la Lengua Vasca.

Pamplona, 28 de diciembre de 2012.

O. E. / Vº Bº

Patxi Salaberri Zaratiegi
Onomastika batzordeko burua /
Presidente de la Comisión
de Onomástica

Atez / Atetz

IÑIGO, Andres

Delegado de Euskaltzaindia en Navarra

Pamplona, 26 de diciembre de 2012

Informe referente al nombre del municipio oficialmente denominado Atez, que es complementario a los informes sobre los concejos pertenecientes al mismo, remitidos desde esta delegación de Euskaltzaindia de Navarra a Euskarabidea en noviembre del año 2011.

Los abundantes testimonios documentales existentes desde la Edad Media pueden resumirse en los siguientes: *Atez, Val de* (1193, Fortún Pérez de Ciriza, pp. 342-343, n. 45), *Athetz* (1268, Felones, p. 669), *Atez* (1268, Zabalo, n. 570), *Ateiz* (1268, Zabalo, n. 597), *Atetz, Val de* (1336, Fortún Pérez de Ciriza, p. 429, n. 175), *Atez* (1366, Carrasco, p. 535), *Atez, Val d'* (1366, Carrasco, p. 563), *Atez* (1714, Carasatorre, p. 262), *Atez* (1802, Abella – González Arnau – Martínez Marina, DRAH, I, p. 130).

La pronunciación eusquérica del topónimo recogida a vasco-hablantes del pueblo de Beunza, perteneciente al mismo valle, es *Atetz*, (forma que coincide con testimonios de los siglos XIII y XIV aportados por Felones y Fortún respectivamente), con *-tz* final, aunque algunos lo confunden con la forma castellanizada *Atez*. La pronunciación eusquérica se mantiene en la declinación: *Atetzen* (en *Atetz*), *Atetzekin* (con *Atetz*)... El gentilicio es *ateztar*.

Es un topónimo eusquérico, y en opinión de Patxi Salaberri, académico de Euskaltzaindia y profesor de la Universidad Pública de Navarra, podría tratarse de un deantroponímico formado tal vez a partir de una variante del nombre personal *At(t)eius* con la significación originaria de 'posesión o pro-

piedad' de *Ate. Sin embargo, según el mismo autor, tampoco habría que descartar la posibilidad de que se tratara de un topónimo descriptivo compuesto de *ate* 'puerta' y del sufijo locativo *-tz*, es decir, 'sitio del portillo'.

La Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia acordó en 1988 que la denominación eusquérica del mencionado valle y municipio es *Atetz*, tal como consta en la obra *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euské-rico de Navarra*, publicada en el año 1990, en edición conjunta de esta Real Academia y el Gobierno de Navarra.

Posteriormente, en el año 2000, el Gobierno de Navarra, a propuesta del Consejo Navarro del Euskera, ratificó la forma *Atetz* como denominación eusquérica, que se diferencia claramente de la oficial *Atez*.

Recientemente la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia ha dado carácter de norma académica a la denominación de los municipios. La referente a los municipios navarros fue aprobada el 29 de mayo de 2009 y publicada como norma nº 155 de la Academia. En ella se reitera que **Atetz** es nombre eusquérico, tradicional y vivo en la actualidad, que el castellano adaptó a su fonética bajo la forma *Atez*, la cual fue adoptada como la denominación oficial.

Bibliografía

ABELLA, M. / GONZÁLEZ ARNAU, V. / MARTINEZ MARINA, F. / TRAGGIA, J., 1802, *Diccionario geográfico histórico de España por la Real Academia de la Historia*. Sección I. Comprende el reyno de Navarra, señorío de Vizcaya y provincias de Álava y Guipúzcoa, Viuda de AtD. Joaquín Ibarra : Madrid.

BELASKO ORTEGA, M., 1996, *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*. Pamiela : Pamplona.

CARASATORRE VIDAURRE, R., 2007, *Navarra tridentina*. Fundación navarra cultural : Pamplona.

CARRASCO PÉREZ, J., 1973, *La Población de Navarra en el siglo XIV*. Universidad de Navarra : Pamplona.

CESARINI, Cardenal J., 1532, *Statuta seu constitutiones synodales... episcopi Pamplonensis*, Lyon.

EUSKALTZAINDIA / GOBIERNO DE NAVARRA, 1900, *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor euskérico de Navarra*. Departamento de Presidencia e Interior : Pamplona.

FELONES MORRÁS, R., 1982, «Contribución al estudio de la iglesia navarra del siglo XIII: el libro del diezmo de 1268 (II). Transcripción e índices», *Príncipe de Viana*, XLIII (1982), 623-713, Pamplona.

FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J., 1982, 1985, «Colección de 'Fueros menores' de Navarra y otros privilegios locales», *Príncipe de Viana*, XLIII (1982), 273-346 y 951-1036; XLVI (1985), 361-448, Pamplona.

GARCÍA LARRAGUETA, S., 1957, *El Gran Priorado de la Orden de San Juan de Jerusalén. Siglos XII-XIII. Colección Diplomática*. Príncipe de Viana : Pamplona.

———, 1976, *Archivo parroquial de San Cernin de Pamplona. Colección diplomática hasta 1400*. Príncipe de Viana : Pamplona.

GOBIERNO DE NAVARRA: Archivo General de Navarra, Sección de Estadística.

———, 2000, *Toponimia de Navarra. Criterios de Normalización Lingüística y Nomenclátor de Localidades*. Departamento de Educación y Cultura : Pamplona.

GOÑI GAZTAMBIDE, J., 1997, *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona 829-1243*. Gobierno de Navarra : Pamplona.

IÑIGO ARIZTEGI, A., 2011, «Toponimia nagusiaren lekukotasunak Prudencio de Sandoval Iruñeko apezpikuaren 1614ko katalogoan», *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Iker-26, 1255-1280. Euskaltzaindia : Bilbo.

JIMENO JURÍO, J. M^a (dir.), 1997, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*, tomo XLIII, *Ultzama*, tomo XLIV, *Basaburua-Imotz*. Gobierno de Navarra : Pamplona.

———, 1998, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*, tomo L, *Atez-Odieta-Oláibar*. Gobierno de Navarra : Pamplona.

———, 1999, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*, tomo LIX, *Ezcabarte-Juslapeña*. Gobierno de Navarra : Pamplona.

Egia da 2008an Konstituzioari aldaketa batzuk egin zizkiolarik (2008-724 konstituzio legea), 75. artikuluari emendio bat egin zitzaiola, eskualde hizkuntzak Frantziako ondarearen parte direla errateko. Pentsa zitekeen hizkuntza horiek Konstituzioan aipatzearekin zerbaitezagutza ere hartzen zutela, eta hizkuntza horien hiztunak, ondorioz, testu berri hartan bermatzen ahalko zirela beren hizkuntzaren defendatzeko. Zorigaitzez, egiazki ez da hala gertatu. Alabaina, duela zenbait denbora, Konstituzio Kontseiluak 75-1 artikulua hartaz eman duen erabaki batean (2011-130 erabakia, 2011/05/11koa), guztiz interpretazio hertsia egin du, argiki erranez «ez duela sortzen Konstituzioak segurtatu eskubiderik edo libertaterik». Gisa horretan, delako artikulua osoki ondorio praktikorik gabekoa zela finkatu du Konstituzio Kontseiluak. Euskararen erabilerari dagozkionetan, euskal herritarrek, lehen bezala, legearen gerizarik gabe segitzen dute, eta haien mintzairaren ofizialtasunaren eskaera sekula bezain bidezkoa eta zuzena da.

Euskararen ofizialtasunaren eta lege baten eskaeraren entzunarazteko, Euskaltzaindiak bat egiten du Euskal Konfederazioa eta Kontseilua elkar-

teek Baionan, 2012ko martxoaren 31n, antolatzen duten DEIADAR manifestaldiaren helburuekin.

L'Académie de la langue basque soutient la manifestation du 31 mars à Bayonne

Il y a 18 ans à Biarritz, l'Académie de la langue basque - Euskaltzaindia avait demandé au gouvernement français que la langue basque reçût un statut d'officialité dans les trois provinces du nord, à l'image des provinces basques du sud. Cette demande de l'Académie n'a jamais obtenu de réponse, et depuis lors la France a toujours la même attitude : elle refuse d'accorder aux langues dites « régionales » l'officialisation ainsi que leur protection par la loi.

Il est vrai qu'en 2008, lorsque la constitution a été modifiée (loi constitutionnelle n° 2008-724), un ajout fut introduit dans l'article 75 de la Constitution afin de déclarer que « les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France ». On aurait pu penser qu'avec cette mention dans la constitution, les langues régionales recevaient une forme de reconnaissance et que, par conséquent, leurs locuteurs pourraient s'appuyer sur cette nouvelle disposition pour les défendre. Hélas, il n'en est pas advenu ainsi. En effet, il y a bientôt un an, le Conseil constitutionnel, dans une décision relative à l'interprétation du nouvel article 75-1 (décision n° 2011-130, du 11/05/2011), a privilégié une lecture très restrictive, indiquant explicitement que ledit article « n'institue pas un droit ou une liberté que la Constitution garantit ». Ainsi, la modification constitutionnelle se révèle être sans aucune portée pratique. Les citoyens de langue basque restent donc privés de garanties juridiques relativement à l'usage de leur langue, et plus que jamais la revendication de son officialisation s'avère légitime et justifiée.

Afin de faire entendre la demande d'officialisation de la langue basque et d'une loi en faveur des langues régionales, Euskaltzaindia tient à affirmer qu'elle adhère totalement aux objectifs qui seront défendus par les associations Euskal Konfederazioa et Kontseilua lors de la manifestation DEIADAR du 31 mars 2012 à Bayonne.

2012ko Hitzarmenak

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindiak 2012. urtean zehar hainbat lankidetza-hitzarmen izenpetu ditu

Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra

Martxoaren 7an, Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularrak eta Euskaltzaindiak lankidetza hitzarmen bat sinatu zuten Euskaltzaindiaren egoitzan. Fundazioaren izenean Antonio Damborenea presidenteak sinatu zuen eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Sinatze ekitaldian Alderdi Popularreko kide batzuk izan ziren -besteak beste, Antonio Basagoiti eta Iñaki Oiartzabal EAEko PPko presidentea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren- eta baita Euskaltzaindiko Iker eta Jagon sailburuak ere, Andoni Sagarna eta Andres Iñigo.

Hitzarmen horrek Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularraren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sortzea zuen helburu. Besteren artean, euskararen normalizaziorako proiektuak garatzeko lanean arituko dira, eta baita, Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularraren barruan edo beronen bitartez, Euskaltzaindiak euskarari buruz emandako arauak edo gomendioak hedarazteko.

Erakunde biek elkarren esku jarriko dituzte ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen lan argitaragabeak, hala nola tesiak, edo bestelako lanak. Elkarri beren ikertze-funtsen ondarea erabiltzeko aukera eskainiko diote, bai eta, bereziki, beren artxibo eta bibliotekak ere. Biek beren argitalpenak elkarrekin trukatzeko mekanismo egokiak ezarriko dira, horrela zeinek bere bibliotekako euskal gaien funtsak sendotu eta osatu ahal izateko. Argitalpenei dagokienez, elkarrekiko lana bultzatuko da, eta biek batera eginiko argitalpenei lagunduko zaie. Horretarako, euskararen inguruan sorturiko testuak ezagutarazteko ahaleginak egingo dituzte. Lankidetza politika bultzatuko dute ikastaroak eta sinposioak eginez.

Soziolinguistika Klusterra

Martxoaren 30ean, Soziolinguistika Klusterrak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzeta-hitzaizmen sinatu zuten Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian. Klusterraren izenean Jaime Altuna presidentea sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburua. Euren batera, Ibon Usarralde Klusterreko kudeatzailea eta Andres Iñigo Euskaltzaindiko Jagon sailburua izan ziren.

Hitzarmen horrek bost urteko iraupena izango du eta Soziolinguistika Klusterraren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sortzea du helburu, euskararen normalizazioari buruzko proiektu partekatuak gauzatzeko. Euskararen jakitea, erabilera zein haren aldeko sustapenaren ikerketa eta dibulgazioa izango dira, batez ere, bi erakundeon arteko hitzarmenaren xede nagusiak.

Hitzarmenaren ondorioetako bat hau izango da: Euskaltzaindiak Soziolinguistika Klusterrean Ohorezko bazkidearen izaera edukiko du, Elkarteen honen estatutuetan jasota dauden baldintzen eta arauen arabera. Soziolinguistika Klusterrak, Euskaltzaindia ohorezko bazkide izan dadin Klusterraren estatutuak aldatu behar direnez gero, bide horretan eman beharreko urratsak emateko prozedura abian jartzeko konpromisoa hartu zuen. Eta horrela erabaki zuen ekainaren 14an, Donostiako Aquariumean izandako VIII. Batzar Orokorrean.

Soraluzeko Udala

Martxoan, Soraluzeko Udalak eta Euskaltzaindiak hitzarmen bat sinatu zuten, herriko toponimia ikertzeko eta arautzeko. Hitzarmen horren xedea Soraluzeko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatzea zen.

Lana Jon Basauri ikertzaileari egokitu zitzaion, beharra gainbegiratzeko Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak izendatu zuen Jon Ander Ra-

mos-en zuzendaritzapean. Ikerketaren lehenengo zatian dokumentazioa ikertuko da eta bigarrenean ahozko bilketa egingo dute.

Nafarroako Gobernua

2012ko apirilaren 3an sinatu zen Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko aurtengo lankidetza-hitzarmena. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuen eta, Foru Gobernuaren izenean, Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak.

Akordio horren arabera, hauek ziren 2012. urteko eginkizun nagusiak:

- Euskal Corpus Onomastikoa: egitasmoari jarraipena ematea
- Mendaurren bildumaren argitalpen berri baten prestaketa
- Euskaltzaindiaren jardueraren gastuetan laguntzea

Langune

Apirilaren 27an, Langune Hizkuntza Industrien Elkarteak eta Euskaltzaindiak bi erakundearen arteko lankidetza-hitzarmena sinatu zuten Bilbon, Akademiaren egoitzan. Langunearen izenean Josu Waliño presidentek sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Sinatze ekitaldia osoko batzarraren atsedenaldira egin zen, hori dela eta, gainerako euskaltzainak hori izan ziren, baita Fernando Alana Languneko zuzendaria ere.

Hitzarmen horrek bi urteko iraupena izango du eta bere xedea hizkuntza gaietako ekimenak gauzatzea, garatzea eta zabaltzea da. Bi erakundearen arteko elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, teknologia berrien arloan euskararen presentzia eta erabilera areagotzera bideratutako proiektuen inguruan batez ere.

Mallabiko Udala

Maiatzaren 18an, Mallabiko Udalak eta Euskaltzaindiak hitzarmen bat sinatu zuten, herriko toponimia biltzeko. Udalaren izenean, Milagros Mondragon alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Xabier Kintana idazkariak sinatu zuten.

Lana, Pello Mugartzak eta Justo Azagirrek egingen dute. Lanaren oinarriko datu iturria Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako ikerketa bada ere, harago joango da eta toponimia txikiaren bilketa osoa egin behar da. Horretarako, ikertzaileak saiatuko dira baserri guztietan izenak biltzen. Lanaren zuzendaria Onomastika batzordeko idazkaria den Mikel Gorrotxategi izango da. Lana aurrera atera ahal izateko EUDelen laguntza jaso da.

Amaitutakoan, datutegia zehatzeaz gain, mapa bat gauzatuko da.

Jakin aldizkaria

Jakin aldizkariak eta Euskaltzaindiak elkarren arteko lankidetzahitzarmena sinatu zuten, ekainean. Hitzarmen horren ondorioz, aldizkariak urtean sortu duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa gara dezan.

Lexikoaren Behatokiaren xedea corpus monitore bat, lematizatua, etiketatua eta oharpen linguistikoz hornitua eraikitzea da. Egitasmo horretako testu-masak hainbat hedabidek euskaraz ekoiztutako berriak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, hartzen ditu oinarritzat, zurrupatuz eta corpusaren zoru bihurtuz. Akademia; UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatzen ari da.

Getariako Udala

Getariako Udala eta Euskaltzaindia elkarlanean arituko dira, herriko toponimia biltzeko, arautzeko eta normalizatzeko. Helburu horrekin, ekainaren 23an, bi erakundeek arteko lankidetzahitzarmena sinatu zuten Nika

Lertxundi Getariako alkateak eta Andoni Sagarna Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkari eta Iker sailburuak.

Ikerketa Getariako boluntario talde batek egingo du, eta tutoretza lana Euskaltzaindiaren Onomastika zerbitzuak. Lanaren amaieran, Geograma enpresak egingo duen herriko mapa toponimikoa argitaratuko da.

Elhuyar Fundazioa

Uztailean, Elhuyar Fundazioak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzeta-hitzarmen berria sinatu zuten. Hitzarmen horren ondorioz, *Elhuyar zientzia eta teknologia* aldizkariak urteetan sortu duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa gara dezan.

Lexikoaren Behatokiaren xedea corpus monitore bat, lematizatua, etiketatua eta oharpen linguistikoz hornitua eraikitzea da. Egitasmo horretako testu-masak hainbat hedabidek euskaraz ekoitzitako berriak ahozkoak nahiz idatzizkoak hartzen ditu oinarritzat, zurrupatz eta corpusaren zoru bihurtuz. Akademia UZEI, Elhuyar eta EHUKo Ixa taldearekin garatzen ari da egitasmoa.

Baionako Herriko Etxea

Urriaren 22an, Baionako Mediatekan, Baionako Herriko Etxeak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten, historian lehenbiziko aldiz. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jean-René Etchegaray Baionako alkateordeak izenpetu zuten hitzarmena, bi erakundeen izenean. Ekitaldian Isabelle Blin, Baionako Mediatekakako zuzendariak ere parte hartu zuen.

Hitzarmenak jasotzen duenez, Baionako Mediatekak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogo-funtsaren indizeak kontsultatu ahal izango ditu, Euskal Funtsak egitasmoaren inguruabarrean, baldintza batzuen arabera. Era berean, Mediatekaren baliabideetan edo argitalpenetan Euskal-

tzaindiaren Azkue Bibliotekaren kolaborazioa aipatuko da, horrek Euskal Funtsak egitasmoarekin lotura duen neurrian.

Sinatu ostean, E. Goyhenecheren *Onomastique du Nord du Pays Basque* liburua aurkeztu zuten Xarles Videgain euskaltzain oso eta Euskaltzaindiko buruordeak bera da liburuaren paratzailea eta Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hain zuzen ere, Videgain da liburuaren prestatzailea.

Deustuko Unibertsitatea

Azaroaren 13an, Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak akordio bat sinatu zuten, euskararen eta euskal kulturaren esparruan lankidetzako proiektuak eta ikerketak garatzeko. Hitzarmena Jaime Oraá errektoreak eta Andrés Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuten.

Hitzarmenak, beste puntu batzuen artean, jasotzen du Deustuko Unibertsitateko doktoregaiek eta beste ikasle batzuek ikerketak eta praktikak egin ahal izango dituztela Euskaltzaindiaren egoitzan, Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta Akademiaren ordezkaritzetan.

Horrez gain, Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak euren ikerketa-funtsak erabiltzeko aukera izango dute, baita, bereziki, euren artxiboak eta liburutegiak ere. Bi erakundeek beren argitalpenak elkarrekin trukatzeko mekanismo egokiak ezarriko dituzte, horrela, zeinek bere liburutegiko euskal gaien funtsak sendotu eta osatu ahal izateko.

Argitalpenei dagokienez, bultzatu egingo da bi erakundeen arteko elkarlana eta batera burututako argitalpenak sustatuko dira. Era berean, bi erakundeek batera lan egingo dute euskal hizkuntzaren normalizaziorako proiektuak garatzen eta Euskaltzaindiak euskararen inguruan argitaratu dituen arau eta gomendioak zabaltzen. Horretarako, bi erakundeek teknologia berrien erabilera babestuko dute.

Bestalde, Euskaltzaindiak Lexiko Batuaren, Arauen, Izendegien eta Onomastikaren arloetan harturiko erabakien edo egindako gomendioen erabilera errazteko bideak ezarriko dira.

Deustuko Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaro, jardunaldi, mintegi, aholkularitza, eta bereziki hizkuntzaren jakiteari zein erabilerari dago-kien prestakuntzan, Euskaltzaindiaren gramatika, lexiko, ortografia, onomastika eta euskalkien erabilerari buruzko irizpideak aintzat hartuko ditu eta hauek zabaltzeko moduak landuko ditu.

Azkenik, bi erakundeek lankidetza politika bultzatuko dute masterrak, graduondokoak, ikastaroak, biltzarrak edo sinposioak batera antolatzeko eta burutzeko.

Ildo horretatik, hitzarmena sinatzeko ekitaldian bertan, Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeak antolatutako jardunaldi bat aurkeztu zen, Eusebio Erkiaga idazle, kazetari eta Euskaltzaindiko kide izan zenaren jaio-tzaren mendeurrena ospatzeko.

Euskararen Erakunde Publikoa

Azaroaren 16an, Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskaltzaindia-ren arteko lankidetza hitzarmena izenpetu zen, Université de Pau et des Pays de l'Adour (Salle des Thèses) Baionako campusean. Lankidetza hitzar-mena izenpetu zuten Frantxua Maitia Euskararen Erakunde Publikoaren presidenteak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak, bi erakundeen izenean eta ordezkaritzan.

Lankidetza hitzarmenak bi erakundeen arteko lankidetzaren nondik no-rakoak finkatzen ditu. Era berean, hitzarmenean jasotzen dira, besteak bes-te, 2012. urteko lan-jarduna burutzeko Euskaltzaindiak EEPtik jasoko duen laguntzaren zenbatekoa, horren kontura argitaratuko diren liburuak, EEP-ren proiektu deialdiko argitalpen proiektuen hizkuntza-kalitatearen azter-keta, toponimoen grafia egokiari buruz EEPk jasoriko galderei erantzuteko era, toponimiaren eremuan Ipar Euskal Herriko euskara-teknikariak pres-tatzeko Euskararen Akademiak hartzen duen konpromisoa, IGN erakun-dean toponimoen normalizatze lanaren emaitzak gizarteratzeko bi aldeek harturiko erabakia, eta abar.

KAS

Abenduaren 11n, IKAS Euskal Pedagogia Zerbitzuak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten Baionan, Akademiaren ordezkaritzan. IKAS-en izenean Maite Erdozaintzi Etxart presidentek sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Haiekin batera Aines Dufau IKAS-eko zuzendari orokorra eta Aurelia Arkotxa euskaltzain eta Akademiaren Ipar Euskal Herriko ordezkaria izan ziren.

Hitzarmen horren ondorioz, besteak beste, euskararen normalizazioaz duten proiektuak partekatuko dituzte bi erakundeek. Bestalde, Euskaltzaindiak euskararen alorrean ezarritako arauak zabalduko ditu IKAS-ek, eta Akademiak IKAS euskal pedagogia zerbitzuak argitara ematen dituen materialen hizkuntza gainbegiratu du. Era berean, IKAS Pedagogia Zerbitzuak ekoitzi dituen euskarazko testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa gara dezan.

Berriak

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



2012ko albisteen kronika

Euskaltzaindiak Zuzendaritza berritu du

2012ko urriaren 18an, Bilbon, Akademiaren egoitzan egin zen bilkura berezian, datozen lau urtetarako Zuzendaritza berria aukeratu zuen Euskaltzaindiak. Hau da Akademiaren Zuzendaritza:

- Euskaltzainburua: Andres Urrutia
- Euskaltzainburuordea: Xarles Videgain
- Idazkaria: Xabier Kintana
- Diruzaina: Sagrario Aleman
- Iker sailburua: Adolfo Arejita
- Jagon sailburua: Jean-Baptiste Coyos

Luis Villasanteren idazlanen digitalizazioa

Luis Villasanteren artxiboa eta hark idatzitako lanak sistematizatu eta digitalizatu ditu Euskaltzaindiak, Bizkaiko Foru Aldundiak berariaz emantiko diru-laguntza bereziari esker. Villasante euskaltzainburua izan zen 1970etik 1988ra. Bere lehen argitalpena 1944koa da, eta azkena 2000koa. Guztira, argitaratutako 929 idazlan katalogatu eta bildu dira, eta guztiak kontsulta daitezke Akademiaren webgunean. Gainera, bere artxibotik, eskuizkribuak, gutunak eta argazkiak ere digitalizatu dira.

Villasanteren idazlanak aurretik argitaratuak eta gaurtik aurrera Interneten lau multzo nagusitan daude banatuta: liburu osoak (41), liburu zatiak (106), artikulak (769, gehienak euskaraz idatziak) eta edizio bereziak. Edizio berezi horiek ere liburu osoak dira, baina Villasanteren egiletza berezia da, testuak ez baitira berak sortutakoak, bildu, editatu edo prestatutakoak baizik (13 guztira).

Gaiei dagokienez, erlijio gaiak jorratu zituen gehienbat (381). Euskarari buruzkoak 298 lan dira (Euskaltzaindiaz, hizkuntzalaritzaz, normalizazioaz), eta literaturaz 180 lan sailkatu dira. Bestelako lanetan gai ugari jorratu zituen.

Idazlan guztiak PDF formatuan digitalizatuta eskaintzen dira.

Egitasmoa Euskaltzaindiak kudeatu du, eta Joan Mari Torrealdaik zuzentzen duen *Jakin* aldizkariaren taldeak garatu du. Aurkezpena irailaren 19an egin da, Euskaltzaindiaren egoitzan, eta parte hartu dute Joan Mari Torrealdaik, Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuak, Iñaki Beristain Arantzazuko Frantziskotarren Probintziako ordezkariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak. Miriam Villasante Luis Villasanteren iloba ere bertan izan zen.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburukiaren aurkezpena

Irailaren 28an, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburukia aurkeztu zuen Euskaltzaindiak Iruñean. Aurreko hirurak bezala, Euskadiko Kutxaren babesarekin argitaratu du Akademiak. Liburu horretan kontzeptu ugari bildu eta landu dira, eremu biren inguruan: etxe-abereak eta etxea bera. Hala, liburukiaren lehen partea hainbat etxe-abereri eskainia dago eta bigarren partea, batez ere, etxearen esparruari dagokio.

Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Xabier Egibar Euskadiko Kutxako Negozio Garapenaren Areako zuzendariak; Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak; eta

Adolfo Arejita EHHA-ren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain arduradun teknikoak.

Liburukiaren lehen partea, etxe-abereei eskainia dago: txerriak, hegaztiak, txakurrak, erleak. Txerriaren gaiak arlo zabala hartzen du, tradizio gizartean goren mailako elikagaia izan baita txerria. Etxeko hegaztiei dagokiena da bigarrena. Oilo-oilarren, handi-txikien izenak, parte biologikoak, prozesu biologikoak, ekoizpenak. Gainerako hegazti batzuk ere aipu dira: antzara, ahate, uso eta beste. Etxe-abere txikien artean, munta gutxiagoko batzuen ondoan (untxia), txakurrek eta katuek, eta baita ere erleek toki handia hartzen dute. Azkenik, abereetan ar-emeen izen generikoak biltzen dira.

Liburukiaren bigarren partea, batez ere, etxearen esparruari dagokio. Populatze-mota diferenteak: herria, eliz inguruko etxe-multzoa, auzoa eta baserria bereizten dira, batetik. Etxe edo eraikuntza tipoak ere jaso dira, baita biztanleen jabetza-mailak, etxearen parte nagusiak, etxegintzako prozesuak, materialak, etxearen estalkiak, kalteak eta berritze-lanak edota egitura nagusiaren osagaiak ere. Etxearen barru-banaketa eta etxe barruko altzariak ere aipu dira. Eta azkenik, etxearen erdiguneari, sukaldeari atxikitako suaren gaineko prozesuak.

Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak argitaratu da

Urriaren 3an, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* aurkeztu zen Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Lan hori euskara-euskara hiztegia da eta Euskaltzaindiak, Elkar argitaletxeak eta Elhuyar Fundazioak batera argitaratu zuten, elkarlanean.

Lanaren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen *Hiztegi Batua* da, lehen itzulian argitaratutako hitzekin. Lan berriak, ordea, askoz informazio gehiago eskaintzen du: *Hiztegi Batuko* lehen 20.000 hitzak dauzka, beren definizio, kategoria gramatikal, espezialitate-, erregistro- eta euskalki-markekin, aditz-erregimenekin, eta benetako erabileratik jasotako adibideekin, hots, irakurleari euskal hitzak egoki erabiltzen lagunduko dioten informazioa dakar argitalpenak. Aurkezpenean honako hauek izan ziren: Andres Urrutia

euskaltzainburua; Olatz Osa, Elkar argitaletxeko zuzendaria; Itziar Nogeras, Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia; Andoni Sagarna, Euskaltzaindiko Iker sailburua; eta Ibon Sarasola, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* egitasmoaren zuzendaria.

Azkue Sariak

Maiatzaren 22an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, Akademiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak banatu ziren. Sariok Gorka Martinez BBK Fundazioko buruak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak eman zituzten.

Hauek izan ziren 2011ko saridunak:

- A maila, narrazioan: lehen saria: *Ez naiz zure printzesa*, Anne Lapeira; bigarren saria: *Maite, maite... ez bakarrik bakoitzak bere burua*, Maddi Petralanda; hirugarren saria: *Michelen misterioa*, Evangelina Descalzo. Bestalde, lan sarituez gain, ondoko lanak argitaratu ziren, epaimahai-koen gomendioz: *Mesopotamiako mamua*, Julen Antxia; *Zein zaila den semea izatea*, Xabier Oianguren.
- A maila, olerkian: lehen saria: *Norbait joan da*, Amaia Rodriguez; bigarren saria: *Bizirik gabe bizi den pertsona*, Malen Barriola; hirugarren saria: *Gizon herrenaren olerkia*, Maite Larrarte.
- B maila, narrazioan lehen saria: *Ez dago musik!*, Maialen Akizu; bigarren saria: *Gauaren beharra*, Ainhoa Urien; hirugarren saria: *Ainarak bezala...*, Mikela Atxoarena.
- B maila, olerkian: lehen saria: *Idazten hasi da*, Maialen Akizu; bigarren saria: *Zer da denbora?*, Maialen Elortza; hirugarren saria: *Los Angeles, 2019*, Mikel Aranburu.

Urtero bezala, literatura eremuko pertsona adituek osatu zituzten epaimahaiak, betiere Euskaltzaindiak izendatuta. Edizio honetako epaimahai-koak hauek izan ziren:

- A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.
- B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Mayi Iza.

Erlea aldizkariaren 6. zenbakiaren aurkezpena

Euskaltzaindiak argitaratzen duen eta Bernardo Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariaren zenbaki berria aurkeztu zen azaroaren 19an, Donostian, Koldo Mitxelena Kulturunean. Zenbaki berriak, seigarrenak, bi gai jorratzen zituen, batez ere: autobiografia eta harria. Aurkezpenean, Andres Urrutia euskaltzainburua, Bernardo Atxaga egitasmoaren zuzendaria eta aldizkarian parte hartu zuten hainbat pertsona egon ziren.

Mauleko Libürüaren Egüna, Sarako Idazleen Biltzarra, liburu azokak

Martxoaren 17an, I. Libürüaren Egüna egin zen Maulen. Hiri horretako Herriko Etxeak antolaturik, egun osoan zehar egon zen zabalik. Euskaltzaindiak ere saltokia jarri zuen, eta Zuberoarekin lotura duten 20 argitalpen erakutsi. Inaugurazio ekitaldi ofiziala hilaren 16an izan zen. Mauleko I. Libürüaren Egunaren sarrera hitzaldia Jean-Louis Davant idazle eta euskaltzainak egin zuen, «Eüskal literatüran paseiü bat libürü zonbaitekin» izeneko mintzaldiarekin.

Apirilean, Sarako Idazleen Biltzarrean parte hartu zuen Euskaltzaindiak, eta lau liburu aurkeztu: *Xiberoko Antzertia edo Pastoral*a, Junes Casenave-Harigilerena; Gratien Adema «Zaldubi»ren *Bertze prediku batzuk*, Henri Duhauk prestatua; *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian*, Erramun Baxok eta Jean Baptiste Coyosena; eta Xarles Videgainek prestatutako *Eugène Goyheneche: Onomastique du Nord du Pays Basque*. Bestalde, Durangoko Liburu Azokan ere izan da, baita Bartzelonako Liber Azokan ere.

Maiatzaren 31tik ekainaren 10era, Bilboko Liburu Azokak iraun bitartean, Euskal Pizkundeari buruzko erakusketa bat ikusgai egon zen Bilbon. Erakusketa Liburu Azokaren ekimenez antolatu zen eta Euskaltzaindiak kolaboratu zuen, Akademiaren Azkue Bibliotekak maileguan utzi zuen materialarekin. Bibliotekak garai horretako euskal idazle edo kultur eragile

enblematiko batzuen idazlanak utzi zituen, nagusiki Aitzol, Lauaxeta, Lizardi eta Orixerenak. Arreta berezia jarri zitzaion *Euskaltzaleak* elkarteari, 1930eko hamarkadan euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamika indartsua sortu zuelako, buru Aitzol zelarik eta Lizardi idazkari.

Urrian, hilaren 3tik 5era, Institut d'Estudis Catalans eta Consello da Cultura Galega erakundeekin batera, Bartzelonako Liber Azokan izan zen Euskaltzaindia. Hiru erakundeok erakustoki berean izan ziren, eta hortxe aurkeztu zituen Akademiak bere azken lan eta argitalpenak.

Eta abenduan, urtero bezala, 6tik 9ra bitartean, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan ere izan zen Euskaltzaindia. Bi saltoki izan zituen, eta bertan, besteren artean, 2012ko nobedadeak izan zituen salgai. Horien artean, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. *Adierak eta adibideak* eta *Erlea* aldizkariaren 6. zenbakia.

«Euskarazko funtsen bilketa, tratamendua eta hedapena» jardunaldietan

Ekainaren 7an, Nafarroako Gobernuaren Euskarabideak antolaturik, «Euskarazko funtsen bilketa, tratamendua eta hedapena» izeneko jardunaldia egin zen Burlatan. Euskaltzaindiak egitasmo bi aurkeztu zituen: Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) eta Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa (ATHC). Akademiaren ordezkariak hauek izan ziren: Adolfo Arejita bi egitasmoetako zuzendari akademikoa, eta Amaia Jauregizar eta Aritz Abaroa, EHHA eta ATHC egitasmoetako teknikariak, hurrenez hurren.

Uztailaren 4an, *Leioako leku-izenak* liburua aurkeztu zen Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Liburuan, azken hiru urteetan egin den Leioako toponimia ikerketa-lanaren emaitzak batu eta herritarren esku ipini zituzten Leioako Udalak eta Akademiak. Lanaren egileak Mikel Gorrotxategi, Iratxe Lasa eta Goizalde Ugarte dira. Azaroaren 15ean Leioan ere aurkeztu zuten.

2012ko Xalbador Eguna

Xalbador ez ezik, Joakin Berasategi ere izan zuen gogoan 2012ko Xalbador Egunak. Urriaren 27an eta 28an Urepelen egin zen festak, ohi bezala, musika, bertso edota herri kirolak eskaini zituen. Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatzen dute Xalbador Eguna, eta urriaren 11n, Itxaro Bethart Deiadarra elkarteko kideak, eta Joxe Mari Iriondo ohorezko euskaltzainak, bi erakundeon izenean, aurkeztu zuten egitaraua, Donostian eta Baionan. Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien eta Urepeleko Herriko Etxearen laguntza izan dute antolatzaileek.

Duela 75 urteko bonbardaketak gogoan, 1937. Bizitzak eta bonbak liburua kalean

Gernika bonbardatu zutela 75 urte bete ziren 2012ko apirilaren 26an. Martxoaren 31n bete ziren 75 Durango bonbardatu zutenetik. Horren ostean Elgetako eta Eibarko bonbardaketak gertatu ziren, eta baita beste hainbat herritakoak ere. Gertaera lazgarri horiek gogoratzeko hainbat ekimen egin ziren herriotan. Testuinguru horretan kokatu zen 1937. *Bizitzak eta bonbak* liburua, BBK Fundazioak argitaratua, «Bizkaiko gaiak» bilduman. Liburuak Bernardo Atxaga, José Fernández de la Sota, Miguel Angel González San Martín eta Ignacio Martínez de Pisón idazleen lanak bildu ditu.

Gernika-Lumoko Udalak eta Euskaltzaindiak babestu zuten euskarazko edizioa, eta Xabier Kintana euskaltzainak Fernández de la Sota, González San Martín eta Martínez de Pisón egileen testuak euskaratu zituen. Apirilaren 25ean, bonbardaketaren urteurrenaren bezperan, Gernikan aurkeztu zuten Bernardo Atxaga eta Ignacio Martínez de Pisón idazleek, Jose Mari Gorroño alkateak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Liburuak honako lanak biltzen ditu: Ignacio Martínez de Pisónen *Hombres de paz* (Bake-gizonak); José Fernández de la Sotaren *El sueño de los justos* (Zuzenen loa); Bernardo Atxagaren *Ama Eibarren dago*; eta Miguel Angel

González San Martín *De barcos y aviones (Itsasontzi eta hegazkinei buruz)* kontakizuna.

Zergatik panpox liburuaren irakurraldi jarraitua

Ekainaren 14an, Bilbo Zaharra Forumak antolatutako Arantxa Urretabizkaia *Zergatik panpox* liburuaren irakurraldi jarraitua egin zen, Bilboko Arriaga Antzokian, goizeko 8:00etatik iluntzeko 20:00etara. Hau izan zen Klasikoen Irakurraldia deituriko egitasmoa egiten zen bosgarren urtea. Hala, 2008an Axularren *Gero* irakurri zen, 2009an Mogelen *Peru Abarca*, 2010ean Jon Miranderen *Haur besoetakoa* eta iaz Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*.

Euskaltzaindiaren aldetik, kide batzuk parte hartu zuten. Goizeko 8:00etan, liburuaren lehenengo hitzak Arantxa Urretabizkaia berak irakurri zituen, eta ondoren 400 inguru lagunek pasarte bana irakurri zuten, txandaka, horien artean Andres Urrutia, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia eta Pello Salaburu euskaltzainek. Egunean zehar, hainbat euskaltzain urgazle ere izan ziren irakurketan.

Euskara ikasteko dei zabala

Irailaren 20an, euskaltegiek «Zatoz euskaltegira!» lemapean agerraldia egin zuten Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, euskal herritarrei euskara ikasteko deia luzatzeko xedearekin. Ekitaldian euskaltegietako ordezkariak izan ziren, eta eurekin batera erakundeetako, alderdi politikoetako eta sindikatu etako kideak; kirolariak; kultur arloko ordezkariak eta, oro har, hainbat gizarte eragile. Besteren artean, Mertxe Mugika, Juan Karlos Murillo, Patxi Agirregomezkorta, Lourdes Auzmendi, Miren Dobarán, Zigor Etxeburua, Laura Garrido, Marije Fullaondo, Vicente Reyes, Lorea Bilbao, Juanmari Larrarte, Iñaki Uribe, Koldo Tellitu, Paul Bilbao eta Amets Arzalluz izan ziren.

Guztion izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu zuen hitza, eta euskara ikasteko arrazoi ugari daudela esan zuen. Hori bai, «behin ikasteko

bidaia eginez gero, bidaia hori aberasgarri eta suspergarri izan dugu. Gure izatea hobeto ezagutzen dugu, gure inguruaren izenak eta izanak egokiago barneratzen ditugu eta horretaz kanpo ere, gauza gara egunero gure sentimenduak euskaraz kanporatzeko, gure lana euskaraz egiteko, gure laguntaldean euskaraz aritzeko... hitz batez esateko, geureago eta aldi berean zabalago eta irekiagoak izateko. Ikasi eta erabili, erabiliz ikasi, erabiltzeko ikasi... Horretan ditugu bidegile eta bidaide euskaltegiak».

Bernardo Atxagaren *Obabakoak*, 2012-13 ikasturteko protagonista

Bernardo Atxagaren *Obabakoak* eleberria izan zen protagonista, Bilbo Zaharra Forumak 2012-2013 ikasturterako antolatu zituen jardunaldietan. Jardunaldi horiek ikasturte osoan zehar burutu ziren, azarotik hasita.

Bernardo Atxagaren berbetan *Obabakoak* liburua oso loturik dago Bizkaiko hiriburuarekin. Izan ere, berak dioenez: «Bilbon bizi nintzen, hemengo apopilo-etxe batean. Etxe horretako ugazaba-andrea Zeanurikoa zen (...) halako batean magnetofoi bat erosi nuen eta, probatzearren edo, esan nion andre horri, alegia, zerbait kanta zezala (...) halako kanta arrunten bat edo ezagunen bat kantatuko zidala espero nuen; eta horra hor non andre hori hasi zen Obabatzue, Obabatzue sehaska-kanta kantatzen.»

Esan bezala, 2012ko azaroan hasi ziren ekitaldiak. Hala, «Paisaiaren adiera» izenburupean, hiru hitzaldi antolatu ziren: azaroaren 20an, Maialen Lujanbio eta Harkaitz Cano aritu ziren; azaroaren 21ean Anari eta Iñigo Aranbarri; eta azaroaren 22an, Bernardo Atxagari buruzko *Leku hutsak, hitz beteak* dokumentala aurkeztu zuten Joxe Angel Arbelaitz zuzendariak eta Juanfe Garcés editoreak.

Ekitaldi guztiak Bilbon egin ziren, Euskaltzaindiaren egoitzan. Izan ere, Euskaltzaindia da ekitaldien eta irakurraldi eten gabearen babesleetako bat, Bilbo Zaharra euskaltegiak eta Euskaltzaindiak lankidetza hitzarmena izenpetu baitzuten 2011ko irailaren 22an.



Omenaldiak

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



2012an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Ibon Sarasolak 2011ko Euskadi Ikerketa Saria jaso du

Maiatzaren 16an, Ibon Sarasola hizkuntzalari, idazle eta euskaltzainak jaso zuen 2011ko Euskadi Ikerketa Saria, Giza eta Gizarte Zientzien alorrean, Lehendakariitzako Atriumean egindako ekitaldian. Saria bizitza osoan euskararen alde egindako lanagatik eman zioten. Isabel Celáa sailburuaren eskutik jaso zuen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ematen baitu saria. Euskaltzainak euskara batua «eraiki, zabaltu eta gizarteratu zuen belaunaldiari» eskaini zion.

Ibon Sarasolak Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia* zuzendu zuen, 1991tik 2005era bitartean. Orain *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* egitasmoaren zuzendaria da.

Joxe Azurmendi filosofo eta ohorezko euskaltzainak jaso du Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa saria

Joxe Azurmendi idazle, filosofo eta ohorezko euskaltzainari eman zioten 2012ko Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria, ekainaren 6an, jakinarazi zuten. Sari horren helburua «kulturraren mesedean jardunean ari diren ikertzaile, zientifiko eta Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzietan aditu onenei bikaintasuna aitortzea da».

Azurmendiren hautagaitza Euskaltzaindiak aurkeztu zuen: Zuzendari-tzak proposatu zuen, eta Osoko batzarrak berretsi, aho batez, martxoan egin zuen bileran. Horretarako, «XX. mendearen bigarren zatian eta XXI. mendearen hasieran Joxe Azurmendi jaunak egindako lan erraldoia, pa-rekorik ez duena, bereziki pentsamenduaren alorrean» kontuan hartu zuen Akademiak.

Azurmendik landu dituen gai nagusiak Pentsamenduaren Historiare-kin lotutakoak dira (Filosofia, Literatura, Politika, Soziologia). Arreta berezia eman die euskal intelektualei (Orixe, Mirande, Arizmendarrieta, Salaberri, Gandiaga), baina bazter utzi gabe europar pentsamenduaren figura nagusiak, Marx, Kolakowski, Schopenhauer, Nietzsche edo Hum-boldt, kasu.

Hil berriak

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Txillardegi (1929-2012), euskara batuaren aita

DAVANT, Jean-Louis
Euskaltzain emeritua

Nire lan apal honetan, bi gai aipatuko ditut, elkarri lotuak: euskara batuari buruz egin zuen obra, eta Euskaltzaindiarekiko harremanak.

Txillardegi etiketa bat jartzekotan, poliaitzindaria zela erran nezake, zeren aitzindaria izan zen lauzpabost alorretan: frankismo denborako abertzale berria, sozialista librea, Iparraldekoen lagun goiztiarra, idazle polifazetikoa, bide berrien urratzailea, eta azken puntu horretan Arrietak du hitza...

Halere niretzat, Txillardegiaren obra nagusia, euskara batuaren sorrerakoa da, Iparraldean hasia. Haatik, helburu hori aitzinetik bazuen, oraino bere Donostian zegoen denboratik. Euskaltzaindiari bi aldiz adierazi zion. Lehenik, 1956an «Karta idegia» delakoaz¹; gero, 1958an «Batasunaren bidea» txostenaz². Txosten horretan proposatzen dituen puntu asko berantago beteko dira, baina mementoan Euskaltzaindia ez zegoen batere holako berrikuntzen onartzeko prestik, eta Mitxelenak hetsidura hori agerian utzi zuen hitz labur hauez: «Nire ustez, alegia, gutsi gora be(he)ra bat gatoz. Eztut uste, ordea, gaur batasunik egin ditekianik»³.

Ondorioz, baina franko berantago, 1963an, Txillardegik Hazparnetiko gutunez urgazle karguari uko egin zuen, Piarres Xarriton / Charrittonekin

¹ *Euskera* I, 1965, 240-250. Orain EHH, 148.

² *Euskera* IV, 1959, 150-170.

³ *Euskera* IV, 1959, 171.

batera, baina Euskaltzaindiak horien dimisioak ez zituen onartu⁴. Hor Txillardegik hasi zuen benetan eta egiazki euskara baturako bidea.

1963ko udazkenetik 1964ko udaraino, euskaltzale batzuk hilabetero bildu ginen horren inguruan, Kordelieren karrikako 14an, lehen solairuan, Euskal Idazkaritzak Enbataren aldamenean zeukan gelan, euskara batuari buruzko lehen urratsen finkatzeko. Lehenik argitu dezadan zer zen *Euskal Idazkaritza*. Kultura elkarte hori mugaren bi aldeetako euskaltzale gazte batzuek hirurogeiko hamarkada hastean sortu genuen euskararen zerbitzuko. Bereziki oroitzen naiz Lauaxeta sari bat asmatu zuela, urtero ematekoa, eta urte pare batez bederen eman zuela, behin San Martini, bestean Rikardo Arregi kazetariari gazteari. Gero oroimenak ihes egiten dit, salbu euskara batuaren kasuan.

Beraz Euskal Idazkaritzaren egoitzan eta babesean elkarlanean genbiltzan usaian zortzi lagun: hiru ETako iheslari (Jesus Mari Bilbo gernikarra, Eneko Irigarai donostiarra eta Txillardegia bera), bi EAJko (Monzon eta Solau), ni Enbatako kidea, bi apaiz (Andiazabal eta Roger Idiart), gehi azken bilkuretan beste bi apaiz: Jean Hiriart-Urruty eta Pierre Lafitte.

Burutzeko, bilkura bat egin zen ber tokian, Baionako Biltzarra, 1964ko abuztuaren 29an eta 30ean, Lafitte gidari, mugaren bi aldeetako euskaltzale gazte andana batekin. Abuztuaren 29ko larunbat goizean, Euskal Idazkaritzaren izenean, harrerako hitzaldiaren erratea tokatu zitzaidan. Hegoalderantz zabalduriko lapurtera batean gure ibilbidea eta xedeak azaldu nituen, eta gero presaka Hazparneko egoitzara itzuli nintzen, emaztearen bila. Lehenbiziko haurraren munduratzeko eguna etorria zuen hain zuzen. Baionako klinika batera joan behar zuen, beraz lagundu nuen, eta gau hartan gure lehen alaba jaio zitzaion. Ondorioz Baionako Biltzar horretan guti egon nintzen...

Hor onartu ziren euskara batuari buruzko lehen neurriak: grafia eta deklinabidea bereziki, baita oinarritzko hiztegi labur bat. Aitzineko bilkuretan,

⁴ *Enbata*, orduan hilabetekaria, 1963ko iraila; orain *EHH*, 161-167. Ber gaiaz orokorki *Hegats* literatur aldizkaria, 49, 2012: Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegia*, «Altxa itzazu begiak»; bereziki Gotzon Aurrekoetxearen *Txillardegia eta Euskara Batua*, 137-143.

aditza ere landua genuen, baina hori Baionako Biltzarrak ez zuen onartu, adostasun osorik ez baitzegoen biltzarkideen artean: Txillardegik batuko aditza gipuzkeran oinarritua zuen, baina lapurterak itzal handia bazuen oraino, euskal literaturaren historian ukan zuen toki handiari esker. Haatik berantago, Euskaltzaindia Txillardegiren ildotik joango zen aditzari dago-kiola ere.

Baionako Biltzarraren ondotik, horko proposamenak Euskaltzaindiari helarazi genizkion, eta honen gehiengoak, 1968ko udan, Arantzazuko Biltzarrean beretu zituen, nahiz Txillardegi ezin zen etorri egoera politikoagatik. Horren txostena kasik osorik onartu zen, bereziki Koldo Mitxelena-ren itzal handiari esker. Gero honek gure ibilbidea markatu zuen, baina beti aitortuz Txillardegiri zor geniona. Bai, hala da: Txillardegi, euskara batuaren aita dugu, gero Mitxelena gozaita, eguzaita, aita pontekoa izango bazen ere. Euskara batua hazten ari zaigu beti, edozein izaki bizidun bezala. Txillardegi bera ere ez zen lehenbiziko pauso hartan gelditu, etengabe aurrera egin zuen, jo aitzina!

Haren ondoko lanetan aipatzekoak dira bereziki honako hauek:

- *Sustrai bila*, 1970 (eta aldaketa zenbaitekin 1977an *Oinarri bila*)
- *Euskara batua zertan den*, 1974
- *Euskal gramatika*, 1978: euskara batuko lehen gramatika osoa
- *Euskal aditza batua*, 1979: Euskaltzaindiak onarturiko adizkiak pedagogiaz argitaratzen ditu.

Badakigu, aita batek ez du haurra osorik egiten, handiena gero amari dagokio, baina zinezko aita beti hor dauka laguntzaile. Txillardegiri biak zor dizkiogu: lehenbiziko pindarra, hura gabe haurrik ez baita, eta gero bere lanez ama Euskaltzaindiari ekarri dion hazkurri kritikoa, nahiz bien arteko ezkontza gutiz huts egin genuen 1980an. Euskaltzain oso izateko, Patxi Altunarekin lehian gertatu baitzen, horrek baino boz gehiago bildu zuen, baina gehiengo osora heldu gabe.

Gertakizun horrez gauza asko erran izan da funtsezko segurtamenik gabe. Uste dut auzi mingarri hori behin betiko argitzeko eta hesteko garaia dela. Horretarako eskuetan ditut behar diren kartak, eta gaur aukera ezin hobe

dudanez, karta horiek baliatuko ditut. Ni ordukoz euskaltzain oso nintzen, 1975ko otsail hondarrean Zuberoaren ordezkari hautatua Guillaume Eppherre zenaren ondoko, eta bozketan parte hartu nuen. Gainera, oroimenaren lagun, horrez kontu ematen duen *Euskera* aldizkaria eskuetan dut: *Euskera* XXVI (2. aldia), 1991-1, 177.-178. orrialdeetan irekitzen dut, eta hona horretako pasarte argigarri batzuk.

«Hondarribiko Udaletxean, 1980.eko Apirilaren 18an, arratsaldeko lau t'erdietan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J.M.a Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak;

(...).

«J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute».

(...)

«*Hauteskundeak*: eguerditan euskaltzain osoek izan dute beste biler berezi bat ere, J. M. Lojendio euskaltzain oso zenaren hutsunea betetzeko hauteskundeak direla-ta. Hamabi euskaltzain inguratu dira eta beste hiruk beren eskubidea idatziz bialdu dute. Hamabost boto, beraz».

Hor nire argibidea. Nor ziren delako hamabiak? Gorago izendatu diren hamaikak, gehi F. Krutwig. Beren eskubidea idatziz bidali zuten hirurak berri, ezin etorria adierazi zuten hirurak izan ziren, eskubiderik ezin baita helarazi ezin etorriarik adierazi gabe. Hiru horiek Hiriart-Urruty, Larzabal eta Mitxelena zirela oroitarazten dut. *Euskera* aldizkarian irakurtzen dut aurrera:

«Izen bi aurkeztu dira: J. L. Alvarez Enparantza «Txillardegia», A. Irigoyen, E. Knörr eta F. Krutwig jaunek izenpeturik ekarri da; eta P. Altuna, J. M.a Satrustegi, A. Zavala eta P. Lafitte jaunek proposatua.

(...)

«Hiru bozketa egin dira. Lehenbizikoan 8 txartel atera ditu Txillardegik, sei Altunak eta zuri bat. Bigarrenean: Txillardegik bederatzia, eta Altunak sei. Hirugarrenean Txillardegik 8 eta Altunak 7».

Nire iruzkina: hogeita lau euskaltzain osoetarik bi zendu berriak izanez (Lojendio eta Iraizoz), hamabi bozekoa zen gehiengo osoa.

Hara beraz *Euskera* aldizkariak dakarrena. Hor soziologia elektoral pixka bat egin behar dugu.

Hamabost bozemale: zazpi zibil edo laiko, zortzi apaiz. Bi hautagai: Txillardegi laikoa, hiru laikok aurkeztua, eta Patxi Altuna, hiru apaizek aurkeztua. Nahiz botua segetuan eman zen, beti bezala, biziki aise asma dezakegu orokorki nork nori eman zion: logika osoz, Txillardegi eman diogu zazpi laikoek eta apaiz batek. Gainera nik badakit berenganik horrela izan zela, berek erran baitzuten, ez zeudelarik aitortzera behartuak eta beraz gezurretan aritzeko arrazoirik ez zeukaten. Zibilen zerrenda hor dago, eta gehitu zaigun apaiza zein izan zaitekeen ere aise asma dezakegu.

Beste apaiz bat ibili zen oreka perfektu baten bila: lehenbizikoan zuri bozkatu zuen, bigarrenean Txillardegi bederatzigarren botoa eman zion, eta hirugarrenean Altunari zazpigarrena. Beste apaiz hori zein izan zen? Horrez badut ene susmoa, haatik ez naiz seguru, eta bego bakean. *Euskera* aldizkariaren txostenarekin bukatzen dut:

«J.M. Lojendio zenaren aulkia bete gabe gelditu da, beraz, eta Aita P. Iraizokoaren hutsunearekin batera, datorren uztaleko batzarrean izango dira, Beran, bien bozketak. Bi hilabeteko epea dago izenak aurkezteko: Ekaineko batzarra arte».

Beraz, bigarren saioa Berako udaletxean egin genuen 1980ko uztailaren 31n. Lojendio zenak hutsik utziriko aulkirako, Altuna hautagai bakarra zen. Berriz hamabost hautesle gertatu ginen. Altunak hamalau boto ukan zituen, hamabosgarrena zuri atera zen, eta jakina, Patxi garaile atera zen Lojendio zenaren ondoko. Txillardegi hor agertu bazen, seguru nago eremanen ziola, aitzinean egonez: besteek amore eman beharko zuten. Gero berantegi zen. Beste bi aldiz aurkeztu genuen, baina debaldetan, berarekin kontatu gabe. Behin gutun batean kontsolatu nahi ukan nuen ene gisan, idatziz Emile Zola hogeita zenbait aldiz «Académie française» delakora aurkeztu zela debaldetan, hari botua ukatu ziotenak aspaldian ahantziak daudela, eta bera beti bizi dela idazle handitzat anitzen gogoan. Umore onez hartu zidan, baina luzarako, horrek ezin zuen ezer kendu.

Ezin zuen baztertu akats handia geratu zela, hutsune larria, euskara batuaren aita euskaltzain osoen artean ez egotea, klarki erran behar da, bakoitzaren ardurak agerian utziz. Eta dena errateagatik, aitor dezagun Patxi Altunak ere merezi zuela euskaltzain aulki baten betetzea, euskararen alde eginiko lanei esker, geroztik ber ildotik ongi baieztatu duen bezala. Baina bere aldia geroxeago eman ahal genikion, Txillardegiri lehentasuna zor geniolako, nik uste, euskara batuaren aita zenez, ezin baztertua.

Dena dela, ondoko euskaltzainek ez dute horretan ikustekorik, eta beti saiatu dira, eta haiekin saiatu gara, Txillardegiri zor diogunaren adieraztera, bereziki 2005ean, *Iker* saileko 17. liburua eskainiz: *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia* deituriko liburua argitaratuz, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenari esker. Aurretik, 2000. urtean, Akademia honek *Txillardegiren bibliografia 1956-1999* delako idazlana, 954 sarrera bibliografiko dakarzkiena, egin eta Txillardegiri eman zion. Berantago, 2007an, *Leturiaren egunkari ezkutua* agertu zelako mende erdia bete zenean, Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeak hitzaldi sorta bat prestatu zuen, eta 2008ko maiatzean, hitzaldi horien emaitza biltzen duen liburua Euskaltzaindiak aurkeztu zuen izenburu honekin: *Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan*. Euskaltzaindiaren hiru omenaldi konkretu horiek Txillardegiri on egin zioten, eta guri zelan ez! Goian bego Txillardegi, euskara batuaren aita.

Itsasoaz honaindi Txillardegia (1929-2012)

ARRIETA, Joxe Austin
Idazlea. Euskaltzain urgazlea

«Iragarle izan nahi nukeen. Baina iragarlea Itsasoaz mintzo da, eta ez lakuez eta aintzirez. Itsasoaz mintzo ez dena ez da iragarlea, eta ez ditu “mendiak lekuz aldarazten”.

Iragarlea, berriz, egiazko profeta, ez da teorema bidez mintzo, alegia bitartez baizik; eta ez ditu alegia horiek kondatzen, bizitzen eta hezuramaitzen baizik. Iragarlea gudan sekula hil ez den haurrari mintzo zaio» (*Haizeaz bestaldetik*, 137. or.)

Zer da Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia? Eta «da» diot, eta ez «izan da», bizirik baitirau bere izkribuetan denontzat. Zer da?... «heren profeta heren filosofo heren olerkari», berak bere artikulu batean (ikus *Fonfuruak*, 1971-VIII-2, *Gertakarien lekuko*, 134. or.) Nietzsche-ri buruz esandakoa bera-ri ere eratzikiz? Beharbada. Deskribapen zehatz samarra da, hurbilpen egokia, nik uste. Egokiagoa bai behintzat beste hainbat definizio eta etiketa laudatzaille nahiz laidotzaile baino. «Heren profeta heren filosofo heren olerkari», beraz... Hots, Herensugea, gure Lurraren erraietatik sortua. Eta, kasu, Herensugeak, ez gurean ez beste hainbat mitologiatan, ez baitira ezein Munstro, Bizia-aren suaren ekarle eta barreatazaille baizik... Dena den, ez dut *laudatiorik* egin nahi: berak ez zukeen gogoko. Ezta erostarik ere: are gutxiago. Ez dakit, egia esan, zer esan, mintzatzeko daukadan denbora apur honetan –hamar minutu, alajaina!–. Esan nezake, adibidez, *uomo universale* bat dela Txillardegia, ez XVI. mendekoa bistan da, Errenazimenduko baikortasun eder hartatik urrun baikaude gure garai ilunotan, baina bai XX. mendearen bigarren erdikadako eta XXI.aren lehen hamarkadako euskal *uomo universal*erik esangura-

tsuena, ene irudiko. Hori, ordea, nire iritzia besterik ez da: ados egon zintezkete edo ez. Gustatuko litzaidake frogatzen saiatzea, baina astirik ez noski, eta ahalmenik ere ez seguru aski. Esan nezake... Baina ez. Bera mintza bedi, bera mintza bekigu. Testu batzuk hautatu ditut Txillardegiren itsaso hondargabetik, lagin ñimiño bat, eta horixe nahi nizueke gaurkoan aurkeztu eta apurtxo bat iruzkindu. Ahurkada bat ur besterik ez izan arren –esan bezala–, ezin izango dizuet halere orain irakurri, baina hortxe izango dituzue eskura, Euskaltzaindiaren *Plazaberri* webgunean, bai beraren testuok, bai nire iruzkinok.

«Heren»tasun horren arabera sailkatu ditut pasarteok, hau da, heren profeta, heren filosofo, heren olerkari. Baina esan gabe doa ia alfer-lana dela testu biziak horrela zatitzea, horrela «vivisekzionatzea». Txillardegi osoa dago heren bakoitzean (eta ez naiz ari Hirutasun Santuaren misterioa azaldu nahian, jainkoek aparta!). Zera nahi dut adierazi, sinpleki. Idazle grina-tsuri inor izatekotan, Jose Luis dela horretan txapeldun. Bere estiloaren ezaugarriarik beharbada nabariena horixe du: dena ematen duela denean. Gaia edozein delarik ere, Txillardegi osoa mintzo zaigu. Baina, musikan bezala, idazkintzan ere tonalitateak daude eta erritmoak. Eta berak oso ondo zekien hori, berezkotua zeukan zeharo, aiurritz eta jardueraz. Piano-jotzaile bikaina ere bai baitzen, besteak beste, gure *uomo universale* antiguatarra. Zein tonalitate nagusi ote darabilen? Eta zein erritmo?... Musikari buruzko nire jakinduria Txirritak «Norteko perrokarrilari» buruz zeukana baino «axalagoa» da, eta ez nekike taxuz erantzuten. Baina nire inpresioa, nire irudipena, hauxe duzue: *mi bemol major* eta *molto vivace*, Chopinen *Polone-san* bezala. Beste batzuk ere badarabiltza: «maestoso» gutxi, nik uste, baina «adagio» eder askoak ere baditu... Zer diozu? «Akorde dodekafonikoak» ere bai tarteka?... Baliteke. Eta nork ez, aizu. Nork ez, bizi garen herrian bizi garela... Baina tira, huntaz, hartaz eta horretaz, berak behin eta berriro bere idazkien bukaeran esan ohi duen bezala, «*zuk duzu hitza, irakurle*»...

1. Heren Profeta

(Oharra: Jatorrizko zentzuan uler bedi, arren, «profeta» hitza. «Profemi», izan ere, «jendaurrean mintzatzea» omen da, berez. Nornahiren au-

rean, orokorki, eta agintarien aurrean, partikularzki, ausardiaz eta deblauki mintzatzea. Profeta ez da etorkizunaren igarlea, asmatzailea. Hori geroztik erantsi zaion adiera bat da.)

1.1. Gertakarien Lekuko (1. alea) (Haranburu Editorea, 1984) / *Alferrei gutun idekia* (1971-II-15)¹

«Hi ez haiz oraindik «sisteman» sartu. Zorionak! Ez zak ahantz hori lujo bat denik. Ez pentsa gero lujo apala: lujorik haundiena, hain zuzen, denbora eta astia ezin bereztea! (...) Baina irain larriagoa duk, nik uste, DENBORA ALFERRIK HONDATZEA ETA XAHUTZEA. Egunero goizeko hamaiketan ohetik jaikitzen dena, egunero arratsaldeko lauretan oraindik ere mahainetik jaiki ez dena, egunero berriketa aspergarritan denbora pasatzen duena, beharbada oso egokiro mintzo duk «sistemaz». Hik ere ederki egiten duk. Baina ni beldur egiazko langileei, egiazko zanpatuei, astia zer den jakiteko 65 urteak bete behar dituztenei, eta egiazko sozialistei, ez ote hartzaien hi «sistema» bera baino higuigarriago». (128. or.)

(Gogoan dut gaztaroan, «estudiante tunante» –marxista-leninista, prefosta– ginenean, hau irakurrita sentitu nuen zarrastada. Orain, berrirakurtzerakoan, 65 urte horietatik hain hurbil nagoelarik, irribarrea... Ez da oso ohikoa Txillardegiren izkribuetan ironia, nik uste. Normalean, zuzen esaten ditu esan beharrekoak, itzulinguru erretorikorik gabe... Eta hemen ere bai. Baina, oraingoan, adarjotze-ukitu zoragarri eta, beraz, guztiz eraginkor batez.)

1.2. Gertakarien Lekuko / *Zalantzatan dagoen apaiz horri* (1971-IX-5)

«Hots, zein da gaurko gizadiaren ihesi-nahiaren kakoa? Hemen, iruditzen zaidanez, batera letozke psikologoak eta soziologoak, literatura-joeren aztertzaileak eta zu zerori ere: ez datza kakoa mekani-

¹ Liburuaren izenburua lehenik, letra larriz; ondoren, lehen aipuan, argialetxea eta data; eta azkenik, marra zeharrazaren eskuinera, artikulua edo atalaren izena gehi data –izanez gero–, letra etzanez.

zazio edo automazioan bertan, ez teknikaren aurrerapenetan, ez klase-banaketan eta ekonomi-desberdintasun lotsagarrietan beretan. Kakoa bizierari SENTIDURIK EZIN AURKITZEAN DATZA. (...)

Ez da egia zure mezua funtsean moral-mezu huts baten mezua denik: estoikoen moralak ez dio zorrik kristauenari gogorrez, ez zorrotzez. Zure mezuaren indarra honetan datza nik uste: gizonak barne-muinetan ENTZUN NAHI duen hizkuntza dela. (...)

Mintza zaitez zeure mintzairan, eta entzuleak ez zaizkizu faltako; Absolutu-egarria ez bait da gaur inoiz baino apalagoa. (...)

Izan zazu, hitz batez, mundutar hizkuntzei entzungor egiteko kuraia. Izan zaitez ulertu-ezina.

Ala konkordismoak utz, eta uztazu dena.

Bihotzez agur t'erdi». (139.-140. or.)

(Duela 42 urte Txillardegia «agnostikoak» esana, alajaina! «*Gertakarien lekuko*»? Ez hori bakarrik: gertakarien x-izpidun aztertzaile zehatz sakona ere bai. Irakurri ote zuten artikulua hau, garai hartan, apaizgoa trumilka uzten ari ziren euskal intelligentsiako hainbat kidek?... Apaizgoa uzten edo, beharbada egokiago esanda, apaizgoa «trukutzen» ari zirenek?... Suposatzen dut baietz. Nik ordurako –gogoratzen naiz– «superatuta» (sic) bide neukan kristautasuna. Horregatik, beharbada, ez nintzen artikulua honetaz gogoratzen. Orain berrirakurri dudana arte. Ez dakit, ba. Gogora datozkit marxismo-leninismo-freudismo-lacanismo-levystraussismorik gotorrenetatik haurtzaroko eta lehen gaztaroko fede katoliko tradizionalera itzultzen ari diren zenbait lagun, eta ez dakit, ba, zer esan...).

1.3. *Antigua 1900* (Kutxa, 1992)

(Txillardegiren irakaspede postumo bat, niretzat, liburu hau. Argitaratu zenean, gainbegiratu besterik ez nuen egin egileak berak oparitutako alea. «Opus minus» bat iruditu zitzaidan. Bitxikeria bat edo. Zeinen oker nengoen. Zeinen itsu. Ez konturatzea ere, horratik, *Antigua* hau dela, hain zuzen ere, *Haizeaz bestaldetiken* betegintzarrea! Fantasia alegorikoaren hezurmamitzea

errealitatearen printzipioan!... Ez, *Antigua* hau ez da «ecos de sociedad» bat. Ez da mikro-kuxkuxeria baten ondoriozko kronika arina. Txillardegi berre-raiki, berrikusi, berrusaindu, berbizitu egiten du obra honetan bere sorlekua, bere haurtzaroa, bere gaztaroa, bere eta bere auzotarren historia. Benetako intelektualak, zinezko artistak, egin behar duen bezala. Errealitatea atzitu, agertu, hausnartu. Eta, hartara, bere burua antzaldatu, errealitateari men egin. »Landa-lana» ezinbestekoa du idazleak, lekuan lekuko jendearekin hitz egitea, paper, argazki, artxibo, plano zaharrak arakatzea. Horretan ere, eredu Txillardegi: Kosmosetik Antiguako *Maritxulegira*in jaitsia, bere une-guneari josia. Nekez irudi hunkigarriagorik, bertaraino joan eta auzoko jauregi eder hori hondeamakinek eraitsi berria dutela egiaztatzean, Jose Luisen ondikoizko deitorea baino. Irakaspidet ederra, beraz, idazle engaiatuak, konprometituak, arduratsuak, nolakoa behar duen.)

«Niretzat bederen, jator aitortzen dizuet, esperentzia harrigarria izan da liburu berezi honen prestakuntza. Behin eta berriz nabaitu baitut, eta azkarki nabaitu, neronen zimentariak ikutzen nituela; eta nire izate osoa daldarka abiatzen zitzaidala. Hau guztia ez da batere «progre»; baina gauza ezaguna da ni beti «progre» eta «snob» guztiez trufatu naizela».

(...)

«Zehaztasunari dagokionez, azkenik, bi hitz bakarrik: artxiboetan ehunka ordu pasa arren, zalantza pilo bat daukat oraindik neure barruan. Alde batetik, artxiboetako dokumentu eta plano zaharretan, hutsegina franko aurkitzen delako, are kontraesan ugari ere. Eta bestetik, herri-oroimen delakoa motxa izanik oso, lekukoen esanak al-bait ongienik .bildurik ere, askotan egarriak gelditu garelako, eta zalantza gorrian maizegi». (11. or.)

«Goiko postalean ikusten diren xaletak, Antiguatik at senditzen dira gaur. Zuhaitzen atzean ikusten den arbelezko teilatua, Maritxulegiri dagokio. Hots, zoritxarrez eraatxia izan den jauregi eder hori, nork joko ote zuen gaur egun Lugaritzat?» (65. or.)

«Fotoaren ezker aldean, ertzean, eta errepideaz haranzko aldean, etxe karratu dotore bat agiri, aiton- seme itxurakoa: horra hor Txillardegi zaharra, Gaskue fameliarena (...).» (79. or.)

«“Celador de arbitrios” lanposturako deialdia egin zen 1891an. Eta eztabaida piztu zen: “ezinbestezkoa al da euskaraz jakitea?».

Hona hemen bozketaren emaitzak:

«Ezinbestezkoa da»: zazpi boto Irastortza anaiak, Elortza (Matia kaleko oñatiarra ote?), Lizariturry, Iraola, Azketa eta Otero. Botoa galdu, beraz.

«Ez da ezinbestezkoa»: hamaika boto. Lasarte, Garat, Nerecán, Urkola, Bermingham, Atxa, Isla, Petirena, Samaniego ... Eta bozketak irabazia, beraz, euskararen beharrezkotasunaren kontra.

La Unión Vascongada aldizkariak bere protesta haizatu zuen: «Si no se rectifica esta conducta –zion erdara batuaz hark ere– contra la cual protestamos con todo respeto, pero con toda energía también, entonces, más o menos tarde, llegará el momento de exclamar con desolada angustia: ‘Euskalerria eta Euskaldunak, il ziran».

Ehun urte pasa dira geroztik. Irakurleak du hitza». (93. or.)

2. Heren Filosofo

2.1. *Huntaz eta hartaz* (Elkar, 1965) / *Intelektualak eta ekintza-gizonak*

«Guziok ditugu, esan dut ere, gure barrenean nahasturik, oreo-pitheko bat eta aingeru bat; guziok agertu ohi gera horrengatik bata edo besteak garaiturik, aldika eskuindar eta aldika ezkertar; baina ez danok arau berean: batzuk usu eskuindar, eta bakanka ezkertar; beste batzuk bestaldera: usu ezkertar, eta bakanka eskuindar. Barka eskuindarrek: baina nere «teoria» huntan eskuindar agertzea ez da ohore bat». (41. or.)

(Liburu hau osorik da perla bat. euskara batuaren karta fundazionala, praktikan, kazetaritza sakonaren eta saiakeraren alorrean. Nire belaunaldi-koontzat ezin oinarritzkoagoa. Orduantxe ikusi eta ikasi baikeuen gehien-tsuenok gure hizkuntza gai zela edozein gaitan sakontzeko, zeinahi pentsa-

mendu moderno mamitzeko. Baina gazteek gaur egun apenas ezagutzen duten. Merezi dute, ba, tamainako plazera. Osorik irakurtzea gomendatzen diet suharki. Hona, gaur, goiko aipamen labur hori besterik ez dakart, guztiz iradokigarria eta inondik ere zaharkitu gabea iruditu baitzait. Ez garel, alegia, behin hautu bat egin eta molde horri itsatsiak behin betiko. Bai zera... Gure eguneroko jokabideak, horiek dira benetan ezker-eskuintasunaren agergerri, eta ez talde edo alderdi politiko nahiz ideologia batekiko noizbait jakin bateko atxikimendu gutxi-asko solemneki razionala... Oreopithekoaren eta aingeruaren aleazio bor-borkari aldakor-aldagarri *demoniozkoa*, horra zer garen.)

2.2. Gertakarien lekuko / *Eztabaida zahar bat* (1969)

«Pentsamena, eman dezagun, gizonak²ekarri du; eta gizona, abereen eta tximuen eboluzioak prestatu du. Bizia, era berean, materia-
ren eboluzioak prestatu du anitz urteren buruan. Ez edozein materia-
motak: karbonoaren inguruan sortu dira bizidunak, karbonoak oso
gaitasun bereziak baititu (Kimika apur bat dakitenek ongi konpreni-
tzen naute). Ba dakigu, ordea, karbonoa eta gainerako elemento gu-
ziak (burdina, zufrea, nitrogenoa, eta Mendeleiev'en laukian ager-
tzen diran guziak) izarren barruan sortzen dirala, «nova» eta
«supernova» deritzaten izarretan batez ere. Ez ahal da eboluzio-kate
hori, izaki errazetatik izate zailletara hain zuzen, funtsetik beretik
guztiz harriagarria?

Areago. Karbonoaren beraren izatea (guztiz txiripazko, itxuraz) ez
ahal da kezka-iturri bat? Karbonorik gabe, edo karbonoa bestelakoa
izan ezker, Izadi osoa (ez gure mundu hau, gaur, soilki) guztizitsu
izango zitzakean betirako: bizirik gabea, guztiz bere buruan bildua,
guztiz gorra, guztiz bere buruarentzako mutua, guztiz hetsia barrura-
ko eta kanporako. Zergatik bestelakoa gertatu? Mentura hutsez?

² «Gizon» darabil Txillardegik beti urte haietako testuetan. Informatikoki, oso erraza litzateke «bilatu eta ordeztu» tresnaren bidez, «gizon» guztiak «gizaki» bihurtzea. Baina iruzurra litzateke, Txillardegik inola ere onartuko ez lidakeena. Azken urteotako izkribuetan, berriz, «gizaki» darabil gehienetan, baina baita «gizon»ari atxikitzen ere, hurrengo aipamenean bertan ikusiko dugunez.

Asma ditezkean leizazulorik sakonenak sortzen dira nun-nahi.

Erljioa (gainerako guzia bezelaxe) gizona zanpatzeko erabilli dute zapaltzailleek betidanik. Zalantzarik ez. Gaurtxe ere gauza bera da. Hori ote da dana, ordea?

Ez nik uste. Misterioaren illunpeak trinkoegi zaizkit». (55. or.)

(Nolako umiltasuna, nolako gizatasuna... Gauza bat baita gizabanakoon arimaren hilezkortasunean edota giza kulturek menderik mende zeinek bere erara moldaturiko Jainko Antropomorfo batean ez sinestea, eta beste bat, oso bestelakoa, Misterioari ezikusiarena eta entzungor egitea. Txillardegik ez dio sekula ixkin egin zalantza guztien Oinarrizko Zalantzari. Aurrez aurre begiratu dio beti, dar-dar sakonean, Kosmosaren eta Kaosaren Enigma Handiari: izarretan, eta bere baitan. Konstante bat da, Txillardegiren obra osoan barrena, erlijiozko edo filosofia sakonezko kezka, kezka nagusia, ekidin-ezina. *Huntaz eta hartaz* aspaldikotik «*Horretaz*» artemeingoraino, zirkulua behin eta berriro marraztuz baina inoiz itxi gabe, arazoa behin betiko ebatzitzat inoiz eman gabe.)

2.3. *Horretaz (Zazpi saiakera labur). (2007) / Gure galaxian barrena*

«Urtarilean zerurantz abiatu den “New Horizons” zunda omen da orain artean jaurtiki den azkarrena: 58.000 kilometro orduko abiatzerakoan.

Hori dela-eta, 9 ordu besterik ez du zundak beharko Ilargiaren orbitaraino heltzeko, eta 13 hilabete bakarrik Jupiterreneraino.

Zenbat denbora behar luke, hala ere, Alpha Centaurira joateko?

Berriro zatiketa ximple batez irakurleak egiazta dezakeenez: 63.460 urte behar lituzke. Zitzu bizi horretan 63.460 urte behar izarrik hurbilenera iristeko!

Nekez suma daiteke gizakiak Eguzki Sistematik at irteteko sekula aukerarik izango duenik. Eskala kontua da.

Zinez: Kosmosa handiegia da. Izarrak urrunegi daude.

Eta gizona hutsalegi da, eta igarokorregi espazio horietan mugitze-ko». (165.-166. or.)

2.4. Horretaz / *Gure galaxietan barrena*:

«(...)Supernovak eta Quasarrak dira gure Kosmosaren irudirik aproposena.

Dena lehertzen ari, dena gehiegikeriaz mamitzen; baina bortizkeria ikaragarrietatik aurrera (eta ez bestela) sortu da, eta sortzen, Karbonoa, Oxigenoa, Nitrogenoa, bizia, eta gu garen kontzientzia ere bai. Giza asmamena aise gainditzen duten munstrokeria sinesgaitzetatik haratago gaude gu.

Leherketa sail ikaragarri horien ondokoak gara». (217. or.)

(Astronomiaz, fisika kuantikoaz, erlatibitateaz, eta zientziaren beste hainbat eta hainbat diziplinaz deus ere ez dakigunok Txillardegirengandik zenbat ikasi dugun ez da hitz bitan esateko modukoa. Euskararenean ez ezik, beste hainbat alorretan ere, zenbat zor diogun haren ahalmen pedagogiko bikainari...)

2.5. Kosmodromo (Haranburu Editorea, 1984) / *Kosmodromo* (1969)

(Txillardegiren ipuin onena deritzot honako honi. Huxley eta Ionesco, biak –gutxienez– datozkit gogora berau berrirakurtzerakoan. Zientzia-fikziorik petoenaren, existentzialismorik peituenaren, eta absurdoaren teatrorik okituenaren aztarrenak nabarmen, nire ustez, nahasketa lehergarrian.)

«Ez ditut jende hauek ulertzen –pentsatu zuen CPZ-3721 hiritarak–. Estatistikek erakusten dutenez, bidaztien arteko %97,6-ak, asper-asper eginda hiltzen dira bidaian bertan. Gelditzen diren %2,4 horietan, berriz, denak hiltzen dira, jakina; eta asperkuntzaz hiltzen; baina hauek helburutzat hartutako planetaren gainaldean bederen. Hortaz, hemen bertan nork bere buruaz beste egitea hobe». (69. or.)

(...)

- Gorroto zaituztet –esan zuen orduan CPZ-3721-ek.
- Hobekixe goazik horrela –entzun-erazi zion taldekoren batek–. Dagoen guztia gorratatu behar duk, denarekiko goragalea senditu, Kondairan barrena inoxoek ilaran asmatu dituzten askabide guztietatik at egon. Zer deritzok honi guztiari?
- Deus ez.
- Txit ongi erantzuna.
- Den-dena mespretxatzen diat osoki, eta ez diat sinisten ezta neronen sineskaiztasun horretan ere. Neure burua mespretxatzen diat, baina grinarik edo herrarik gabe mespretxatzen.
- Ongi duk. Horretara bada, gurekin etor haiteke». (73. or.) (...)

Manifestariet, binaka sailkaturik, bi ilara eratu zituzten; kilometrotan barrena ikus zitezkeen bi ilara luze. Eta gazte eder haiek, biko-teka besarkaturik, nahiz erotismorik batere gabe, malkorrean behera amildu zuten beren burua». (74. or.)

2.6. Bertrand Russellen azken iritziak (*Herri Gogoa*, 1970)

(Ez, baina! Baldinbaitere... Ezaba dezagun gogoaren ezpainetatik *Kosmodromoren* absurdotasun latzak eragin digun irribarre mikatza. Txillardegi ez da hori. Fikziozko proiektzioa da, *ad absurdum* hipotesi bat, hain oker ere. Txillardegi beste honako hau da: giza duintasunaren fededuna, kosta ahala kosta. Gizateriak badu bere burua salbatzeko ahalmena –nahi badu–. Zuzentasunean eta elkartasunean bizitzeko eta, beraz, zoriontsu izateko aski den adinako argitasunaren jabe baikara Kosmosaren ausazko nahiz ez-ausazko sorkari herbalok. Herbal bai, baina herbaltasunaren jakitun izaki, hain zuzen ere... Entzun dezagun Bertrand Russell, Txillardegik gehien estimatzen zuen intelektuala, Txillardegik berak (*Eiharalar* izengoitiz) gure hizkuntzara ekarria:)

«G. Zein da biharko gizadiari utzi nahiko zeniokean mezua?

R.-Gizonak sekulan izan ez dituen ahalmenak dituzue zuen eskuetan. Ongi egiteko ala kalte egiteko erabil ditzakezute. Gizon guztiak biltzen dituen familia-loturaz ohartzen bazarete, denak batera zoriontsu ala denak batera zoritxarreko izan gaitezkeala ulertzen badu-

zue, on egiteko erabiliko dituzue. Herri xehearen miseriaren lepora banaka batzuk bizi ziren garaia joana da. Akabo da. Jendeak ez du aurrerakoan burua makurtuko. Zoriontsu izan nahi baduzu, hauzokoaren zoriona ere onhartu eta aitortu beharko duzu. Hezkera argi batek gizonaren izaera zabalduko duela uste dut eta besteren zorionean ikusiko du naturalki berera iristeko baldintza. Ikuspen batean bezela agertzen zait batzutan, izaki libro erne eta azkarrez osatutako soziedade bat, batek bestea zanpatzen ez duen bat. Gizon ernairen mundu bat, taldeko helburuak beren partikularren gainetik bultzatzen dituztenak; gizadien adimen eta asmamenaren fruitua izan ditekian lan ederrari bultzaka indar guziak batera; gizonen borondatea hau izanez geroz, honelako mundu bat egin diteke. **Eta noizbait badadi, noizbait izatera hel badadi**, mundu loriatsu, diztiranteago, zorionetan asmamenean eta emoziotan ugariago izango da, orain arte ezagutu diren mundu guziak baino». (107. or.)

(Oharra: Neuk nabarmenduak dira letra lodiz bi baldintza-perpaus horiek, bi **badadi** horiek. Izan ere... galdua da gudu hori, Jose Luisek, eta beste euskaltzale bakan batzuek, hori hala gerta ez zedin ahalegin guztiak egin badituzte ere. Galdua, alegia, gure hizkuntzan, potentzialtasuna eta irrealitasuna bereizteko ahalmena. Gaur ia denok –lapurtar, baxenabartar edo xiberutar ez garenok berderen– «noizbait izatera helduko balitz» esango genuke. Hots, baldintza irrealak erabiliz, berez: gerta daitekeenik, edo gerta litekeenik, sinesten ez dugun hipotesi batez mintzo. Akabo: irentsiak dituzte dagoeneko Balitzek eta Baluk gure ametsak oro. Hilik dautza euskararen hil-herrian Badadi-Baledi eta Badeza-Baleza senide bikiak, esperantzaren mezulariak. Baina Txillardegik ez du etsitzen, jarkitzen zaio, ihardukitzen dio: mundu hori Badatekeela diosku, Badaitekeelako. Eta hala izan dadin borroka bagintez, Badatela... Aditz-altxor aberatsegia ote darabilen, eta arkaikoegia agian, horixe nire susmoa, ondikotz...)

3. Heren Olerkari

(Poeta al da Txillardegi? Hala zeritzon Arestik. Eta ni neu ere ados nago. Ez du poema-libururik argitaratu. Poesia generoarean kanonak eta konbentzioak ez ditu inoiz bete. Eta bere ekoizpen osoa, ikusten ari garenez, pro-

sazkoa du. Zer da, baina, *Haizeaz bestaldetik*? Prosa, noski, erantzungo zait. Bai, halaxe da, poema-lerro labur batzuk tartekaturik, baina prosa, ia erabat. Zer-nolako prosa, ordea?... Hortxe dago auziaren mamia. Nabaria baita, nire ustez, «prosa poetikoa» deitu ohi den genero hibrido horren araberrako testu bat dugula begien bistan. Eta?... Apustu zailak izaten direla beti halakoak. Oso zailak. Zaillegiak, apika. Poesia inkontzientearen hizkuntza da, «*l'instance du désir*» (Lacan) metafora eta metonimia bidez gorpuztua eta testura nola edo hala azaleratua –katakismo gisa normalean, Richter eskalako «goien gradora»-. Bere narratibitate-ildo propioa du poesiak: ildo hautsia gehienbat, ezinbestean, poesia modernoan. Alegoria Handi eta Osoen garaiak –Dante, esate baterako– aspaldi iraganak baitira. Nekez ezkon daiteke gaur egungo poesiaren diskurtsoa diskurtso razional baten hurrenkera-rekin; eta nobelak halakoa behar du, bizkar-hezur razionala, logikoa...

Dena dela –ur handiegia baitira hauek paragrafo pare batean egosiak izateko–: nobela alegorikoa izan nahiz alegoria nobelatua izan, poesia ere bada *Haizeaz bestaldetik*, nire ustez. Poesiaren baldintza oinarritzakoa, inportanteena, *sine qua non*-ena, betetzen duelako: bere inkontzientearekin kontaktuan dihardu etengabe idazleak, eta bere gatazka horren lekuko eta partaide egiten gaitu. Txillardegiren literatur obrarik ederrena da, ene irudiko –saiakeraz aparte–. Zaratustraren oihartzuna antzeman diote zenbaitak. Niri ere hala iruditzen zait zenbait erregistrotan. Baina bestelako batzuk ere baditu. A-topiak (Monastegia, adibidez) *topos* guztiz konkretu eta identifikagarri bihurtzen zaizkigu narrazioa aurreratu ahala (Soustons, Txubilo, Muitza...). Amets-airezko utopia alegorikoa, apur-apurka edo are bat-batean ere –gure galaxia bazterreko Zulo Beltzen baten barrunbean behera amilarazia bailitzan–, geografia ezagunera, une-gune zehatzetara, eta batez ere haurtzaroko episodio autobiografiko jakinetara antzaldaturik ikusten dugu. Stanley Kubrick-en 2001, *Espazioko Odisea bat* ekarri izan dit niri gogora, behin baino gehiagotan, liburu honek. Baita Ridley Scott-en *Blade Runner* ere. Edo F.J. Schaffner-en *Tximinoen Planeta*, edo... Luza genezake, beharbada, antzekotasunen zerrenda. Baina horrek ez gintuzke, kasurik onenean, hurbildu baino egingo Txillardegiren obra ezin originalago honetara, hau da, horko protagonistak –lehen pertsonan mintzo zaigun «gorputz astral» moduko horrek– azaltzen digun bidaia *post-iniziatiko* horretara, zei-

na, definizio ustezko esaldi orokorregi orok duen errore-marjina asumituz, «Itsasotik Itsasora Lakuan³ barna» deitzera ausartuko bainintzateke.

Baina aski bedi aurkezpenez. Irakur ditzagun zenbait pasarte. Oraingoan ere, beti bezala, «irakurleok baitugu hitza»... Itsasoarekiko eta Labarreko Txillardegiren betidaniko liluraren adierazgarri, 1969ko erreportaje-artikulu batetikako testu bat, lehenik; eta ondoren, gainerako guztiak, *Haizeaz bestaldetik*akoak:).

3.1. Gertakarien lekuko / Noruega'ko «supermarket» batzuk gainbehera (1969)

«Inoiz ez dut nere burua apalago eta ezteusago ikusi, eta Izadiaren edertasun kupidagabea nabarmenago eta gaitzago. Uxolak ehunka metrotan behera, arkaitz gogorak zut mila metrotako paretak osatuz, kresal usaina ezin sarkorrago aidean, itsas-gain geldia hura ispillu baten pareko, ontzi zuribeltz hura fiordo-beso meharrean barrena urruntzen ari, goi eskerga guzietan elurra zuri-zuri; eta isiltasun giro hura urratuz, urrutiko uxolen zurrumurru jarraikian eten gabe ari, anitz antxeta eta kaiuren oihua ... Gustave Doré'ren marrazkiek han dukete iturburua; eta horrengatik izan ziran Dante'ren dina». (119. or.)

3.2. *Haizeaz bestaldetik* (Itxaropena, 1979)

«Eta belauniko jarri nintzen; eta adrilu-puska koskor batez nekez idatziz, letra handitan, eta monastegiko norbaitek noizpait irakurriko ote zuen esperantza itsuan, hauxe izkiriatu nuen zazpi harlosa zabal-luzeran:

– «Gezurra dio Itsasoak. Lakua mintzo zaigu egiazki». (99. or.)

(...)

«Beherean, berriz, eta inguruko harresi apalaren gainetik ageri, Itsasoa zetzan ilunean; eta isilean olatu urrunak entzuten, bake ha-

³ Erran gabe doa, kasu honetan, «Aintzira» dela «Lakua», ezen ez Gasteizko toponimoa.

rrigarrian. Eta beheretik gora hedatzen zen ubanare⁴ usaina aditu nuen, kresalarekin nahasia, eta ene hotzikara hartan sarkorregi. Goiz egurats epeleko bakardadean, giza-hats lasaia zirudien uhinen etorrera taigabeak... Bareegia agian.

Eta joandako urteen urruti-min garratza, sekula baino bortizkiago senditu nuen». (101. or.)

(...)

«Han zegoen Itsasoa, ordea, bere hartan: ahazkaitz, ahantzezin ... baina ahazkor! Hura garaile sendo bakarra! Giza-patu ilararen lekuko tinko, lekuko iraunkor, lekuko ezinago doilor eta gupidagabe.

Itsasoa: zabalegi, bareegi, baztergabeegi ...

Eta haizeaz bestaldetikako mezuaz oroitu nintzen:

– Itsasoari zegokiok Itsasoa. Hire Aberria lakua duk». (177. or.)

(...)

Eta aldizka kulunkatzen ziren pinu-adaburuen artetik, eta etengabe zirkulu zabalak eginez zeharkatzen zuten antxeten atzetik, nik, haizeaz bestaldetik etorria naizen bidari honek, egin nezakeen hobe-nik larriena egin nuen; eta, aurrez aurre, eta lurrik ez ikusteko eran, Itsasora begiratu nuen:

– Hi bai! –esan nuen ozenki– Hi haiz berbera! Hi gotor bakarra!

Ene Aberria.. Itsasoa da!» (224. or.)

4. Osorik euskarari

Hemen bai ez dagoela «Herenik». Osotasuna baizik. Txillardegiren euskalduntasunari, euskara-zaletasunari, euskara-maitasunari, euskararekiko duen psikosomatizazioari buruz, izan ere, zer demontre esango dut nik, ba, zuek denok nik bezalaxe edo nik baino hobeto dagoeneko ez dakizuenik? ... » Osorik euskarari» deitu diot atal honi, neurri batean behintzat, aurreko atalaren izen-

⁴ «Ubanare» *alga* omen da. Begiratu behar izan dut *Orotarikoan*...

buruarekin –«Heren olerkari» – errimatzen duelako. Baina, errimak errima, errimeago arrima nadin muinera. «Osorik euskarari emana», esan nahi dut... Hain zuzen ere, iruditzen zait, Txillardegi buruz ari garela, gure hizkuntzak dituen atzizki morfematiko eta lexematiko guztiak erantsi beharko genizkiokeela «euskara» erroari eta Txillardegiaren beraren izena ardatz harturik egundoko sintagmarik trinkoenak eratu. *Euskararen Txillardegi, Euskararentzako Txillardegi, Euskarazko Txillardegi, Euskaratiko Txillardegi, Euskararainoko Txillardegi...* gure deklinabide-kasu guztiak esleituz alegia... baita «*Euskararenganainokoa*» ere halakorik balego... Eta *-kor*, eta *-zale*, eta *-dun*, eta *-zain*, eta gainerako lexemekin ere berdin jokatu. Jose Luis Alvarez Enparantza, joan deneko berrogeita hamar urte honetan, gure «buditelé»-rik handiena izan baita, nire iritziz. «Buditelé», bai, txekieraz esanda (informazio hau berau ere berari zor, noski): «argitzaile» esan nahi omen du Pragako hizkuntzan hitz horrek, eta hala deitzen omen zitzaien XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran hango hizkuntzalari, irakasle, artista, eragile eta idazle abertzale arduratsuei, alemaniar hizkuntza itzaltsu eta larderiatsuari aurre eginez, beren nazio-hizkuntza txirotua eta baztertua berpiztu zutenei. «Argitzailea», beraz, Txillardegi... Bai corpusean bai estatusean. Bai ikerkuntzan, bai hedapenean. Bizi osoa euskarari emana.

Baina stop. Lehen ere esan dut: *laudatiorik* ez. Artobero usainezko «ohoratoria»k ez zituen Jose Luisek batere gogoko. Beraz, hemen ere, bera mintza ledin nahi nuke. Beraren testu batzuk hautatu, beroriek denon hausnargai aurkeztu, eta kitto. Hainbeste dira, ordea, hainbeste... Ezinezkoa da. Neurri hauetako lan batean behintzat. Ikastaro oso bat beharko genuke Txillardegik euskarari eginiko ekarpen teoriko eta praktikoko guztiak gaingiroki –eta «gaingiroki» bakarrik– begitatzten hasteko. Orri-barreneko oharretan paratu ditut, halere, hementxe, hiruzpalau testu, Txillardegiaren bai «Iker»⁵ izariaren

⁵ – Hona hemen, adibidez, azentuari buruzko bere ondorio ezagunenetarikoa bat:

- «Euskal azentuaren kokagune nagusia (+2} da. Azentua eskuin aldera eramateko joera berria (Ekialdeko zenbait euskalkitan, eta erdal-euskaldun-berriengan oso azkarra), interferentzia hutsa da. Eta gaztelaniaz nagusi den (-2) eta fransesez (-1) egiteko joera, erabat dago euskal [+2] kokagunearekin kontrajarria» (*Lingua Navarrorum*, Egin-Euskal Gaiak, 1996) (24. or.) (Ahoska dezagun «Txillárdegì», beraz, eta ez «Txillardégi» paroxitonoa, edo «Txillardegi» oxitonoa, non eta xiberutarrak ez garen).

bai «Jagon»⁶ izariaren agergarri, gero norberak, astirik duenean, irakurri ahal izan ditzan. Eta noan harira. Proposamen bat egin nahi bainuke. Eta proposamen hori Euskaltzaindiari, Unibertsitateari, Jaurilaritzari, Aldun-

– Eta hona hemen, halaber, Txillardegiren iker-eremu zabalaren adierazgarri –hizkuntzalaritza konparatibo-genealogista ere landu baitu, euskararen sinkronia segmental eta suprasegmentala eta testuen bidezko diakronia historikoa ez ezik–, beste zertzelada bakan batzuk, ikertzaile orok informazioa ematerakoan eduki beharreko jakinduria handiaren eta hipotesiak formulatzerakoan atxiki beharreko jarrera apalaren eredu, nire ustez:

- «oraino beste arazo bat: ergatiboa galdu egin daitekeela hizkuntza batean mendeetan barrena. Pamir-ko «burushaski» bitxiak berriki galdu bide du ergatiboa». (*ibidem*, 34. or.) (*Zaldiero* artistak baluke bazkarik hemen bere biñeta zorrotz atseginetarako...)
- «Deiktikoetan agertzen diren leherkari horiek (-gau, -goi, -gura) ez dituzte gainerako /g/ kontsonanteen bidea segitzen; ez dira gor baten eskuinean gortzen. (...) ez dira mota bereko leherkariak. Ez ote ziren, jatorrian, bederen, leherkari glotalaireak edo izan? Nire iradokizun ausart bat besterik ez da.

«Balizko olea» da hau oraingoz; eta okerra baldin bada, «enea da falta, eta ez euskararena» (...) baina honelako zerbait egia balitz, Bouda-ri, Lafon-i eta Dumézil-i eman beharko genieke arrazoiak; eta gure senitartekoak Kaukasian bilatu.

Mitxelena ere «protovasco»arentzat postulatu zituen leherkari (eta ez-leherkariak bakarrik, korrelazio orokorra postulatu baitzuen) *fortis* vs *lenis* zerrenda bikuna, baietsirik gertatuko litzateke; eta leherkariaren alorrean kaukasiar hizkuntzen hirukuntasun eskuarretik hurbil genuke euskara (...) nik neuk, egia aitortzeko, eta frogabide zientifikorik oraindik esku-artean ez badaukagu ere, Kaukaso aldera begiratuko nuke. Edo inguru haietara bederen.

Pamir eskualdeko burushaski-erak ere, arreta osoa merezi luke; puntu fonologiko askotan euskararen senide estu agertzen delako.

Euskaraz bezala, Kaukasoko hizkuntza askotan, azentu nagusia ezkerreko lehenengo silabetan agertzen bide da: lehenengoan maiz (georgiera, archi, bats, txetxeniera); eta beste batzuetan ezkerretik bigarrenean: tsaxur-eran, adibidez.

Azkeneko datu batzuen arabera, bestalde (ikus M. Haspelmath, *Language* 72 (1996), 127. or.), zenbait hizkuntza kaukasikotan, doinu-azentua dagoela dirudi; Hualdek eta Gamindek Bizkaiko itsasertzean aurkitu dutenaren antzekoa.

Iradokizunak besterik ez dira oraingoz. Noski!». (*Ibidem*, 74.-75. or.)

⁶ Txillardegi soziolinguistaren laburpen moduko ondorio hauek, nire ustez, balio guztiz argigarria eta erabakigarria dute, metodologia erabat zientifiko batean funtsaturik daudelako:

«Hamaika erabilpen-neurketa eta kalkulaketa zehatzen ondorioz, puntu hauek azpimarratu behar dira:
1. Ez dela egia euskaldun elebidunen axolakabekeriarengatik euskara galtzen denik, eta erdara hautatzen. Euskaldun elebidunen leialtasuna (euskararekiko, jakina) oso handia da, oro har. Euskararen erabilpen murriztaren gakoa elebidunen ahulezian bilatzea, errakuntza borobila da.

diari, Udalari eta legokiekeen instantzia guztiei helarazi: «Txillardegik Katedra» edo «Txillardegik Ikerkuntza Gunea» edo, sinpleki, «Txillardegik Enea» deituko litzatekeen proiektu bat diseinatzea, antolatzea, egikaritzea. Ikerketa-lerro bat, Unibertsitateko edo beste zeinahi esparrutako ikertzaile gazteentzako edo ez hain gazteentzako beka-sistema batez hornitua. Eta leku bat, leku fisiko bat, interpretazio-zentro moduko bat, Txillardegiren obrak, eta berak jorratutako gaien inguruko oinarritzko bibliografia, bilduko lituzkeena, liburu nahiz aldizkari nahiz web nahiz bideo nahiz audio, zeinahi euskarritan. Datu-base egoki batean oinarriturik, noski: oso baliagarria da, alde horretatik, dudarik gabe, 2005. urtean, Euskaltzaindiak eta EHUK elkarlanean argitaratzen duten IKER bildumaren 17. ale hartan, «Txillardegik omenaldia» deiturikoan, ageri den zerrenda sailkatua, Pilartxo Etxeberriak eta Henrike Knörr zenak eginga eta gaur egun Euskaltzaindiaren webgunean edonoren esku dagoena (1.000 itemetik gora: bada zerbait!). Hauxe duzue, beraz, nire proposamena. Hori bai,

2. Erdara mintzabide hautatzen den asko eta askotan, solaskide erdaldun elebkarren ezintasunean bilatu behar da hautuaren giltzarria. Problema nagusia ez dira euskaldunak, erdaldun elebkarren beharketa etengabea baizik.
 3. Esan ohi denaren aurka berriro ere, kale-neurketetan aurkitu dugun erabilpen-tasa enpirikoa, bertago egoten dela, normalean, ezaguera maila horretan lor genezakeen maximotik, minimotik baino.
 4. Euskararen kontzientzia eta euskara berreskuratzeko tirria, askoz ere azkarragoak direla euskaldunak gutxiengoa diren herrietan (Lizarran, eman dezagun; edo Laudion, Portugaleten), euskaldunak gehiengoa diren herrietan baino.
 5. Bai euskararekiko leialtasunaren neurketetan, eta bai gizarterakuntza-tasa-renean ere, elebidunak euskaltzaleago agertzen direla (praxi linguistikoa), uste genuena baino. Eta, bide beretik, nabarmen dago anisotropiaren hazkundera, eta hau «trinkotzearen» adierazlea da (Txepetxek hizkera erabiltzekotan)» («*Ibidem*, 98.-99. or.)
- Argigarria oso, halaber, erdarazko bere aspaldiko artikulua batean, Txillardegik egindako diagnostiko hotz hau:
- «Al existir en una comunidad una mayoría de monolingües y sólo una minoría de bilingües, con una lengua común (situación que ha conocido Irlanda, con pérdida prácticamente ineluctable del gaélico), la resistencia objetiva, que proviene siempre de los monolingües, es elemento claramente preponderante frente a los factores voluntaristas de la minoría bilingüe. Más aún cuando la lengua minoritaria carece de función social. Es así evidente que, salvo inversión radical de los factores existentes, la lengua vasca está condenada a muerte y puede derrumbarse bruscamente en cualquier momento». (ikus *Euskararen aldeko borrokan*, Elkar, 2004) (243.-244. or.)

mesede pertsonal bat eskatu nahi nizueke: ez enkargatu niri, faborez, proiektu horren «bideragarritasun-txostena» erredaktatzea, zehaztapen tekniko-ekonomikoekin-eta, ze... desastre hutsa bainaiz horrelakoetarako. Baina badira, horixe badirela, euskaltzaleon munduan, makina bat pertsona prestu eta jakintsu, lan hori primeran egin lezaketenak. Merezi luke Txillardegik, gure Euskara-Zain Osoak. Omenaldirik onena horixe irudituko litzaioke, ziur naiz: euskararen meatzean berak zabaldutako edo sakondutako zainetan, galerietan, aurrera segitzeko animobideak eta baliabideak eskaintzea euskaltzale gazteei. Bego esana, beraz.

Eta beste zerbait ere nahi nuke erantsi. Ahoskatu berri dudana «Euskara-Zain Osoa» izen-sintagma entzunez, denok igarriko zenioten bezala. (Barka: «denok igarria diokezuen bezala»... Txillardegik ez zukeen sekula «denok igarriko zenioten bezala» esango: «*Hori espainolaren kalko hutsa duk!*»- kargu hartuko zidakeen berehala). Itzulgingururik ez, baina; esan dezadan garbi. Uste dut badela garaia Euskaltzaindiak Txillardegi-rekin eta *viceversa* izandako tirabira mingarrien zauria behar bezala sendatu eta ixteko. «*Hala egin badezagu, ohoratu GIRATE*» (Etxeparek esana, eta Larresoro-Txillardegik, nola ez, jaso). Ez dago zertan ezer gesaldu, epeldu, txepeldu. Errealitatea eztkeriazko onkotekeriaz estaltzea ere ez da soluzioa, badakit. Gertakariak oroitzeko eskubidea dugu denok –denon oroimena mugatua eta betiere selektiboa dela apalki airtortuz ahal dela, hori bai–, eta denok dugu nork geure iritzia eusteko eskubide osoa. Baina hori gaingitu beharra dago. Arazo honetan, eta beste hainbatetan. Txillardegi sumendi bat zen, badakigu. *Uomo universale* gehientsuenak bezalaxe. Jenioak jeniotsuak izan ohi baitira. Eta jenio ez garenok ere bai, ala ez?... Gurea bezalako herri «ixurbatu» batean (Gandiagaren hitza erabiliz), harritzekoa al da denok ere, maiz nahiz bakan, erupziotan lehertzea? «*Bekatutik libre dagokeenak jaurti beza lehen harria*» esango nuke, agnostiko bati esaldi sakratu bat aipatzea zilegi badakio. Zer egin gure hizkuntzaren hondamendiaren aurrean, mendetan barrena pairatu dugun higadura gupidagabearen eta frankismoaren garaiko itoaldi sistematikoan ia azken hutsa ere ebatsi zigunaren aurrean?... Gure hizkuntzaren hil hurran-egoerak ez al zuen behar erupziorik, inarrosaldirik, astindurik? Gure gurgil kirrinkaridun orgako idi erasanok

(euskaldun guzti-guztiok, alegia) ez al genuen behar Jose Luis bezalako itaurlarien eupadarik, bultzadarik, eta are akuiladarik ere? Ni baiezkoan nago, ba. Eta zinez diot: «*benedika fortuna*» (hau ere Etxepare dixit) Jose Luis bezalako Herensugeek gure etsimenduzko lozorrotik iratzarri gintuztelako. Beharrik. Bereiz ditzagun, otoi, zahia eta bihia, lastoa eta garaia. «Asmoz eta Jakitez», hain zuzen ere.

(Eta, pena handiz, hurrengo pasarteok ere bazter batera laga beharko, orain irakurri gabetanik. Ez, ez da –ez dut uste behinik behin– «autozentsura» ez-kontzientea ez inkontzientea, denbora-mugaren tiraniaren ondorio baizik. Ez daukat astirik Txillardegiren ideia politikoen –*stricto sensu*– *maragnumean* barneratzeko. Baina hementxe dituzue, nahi duzuenean irakurgai, idatzi ditudan oharrok. Txillardegiren erhiari baino, Txillardegiren erhi horrek seinalatzen duen ilargiari begira daude idatzia, asmoz behintzat. Lastima zera, 1978. urtean, Bergarako Biltzarrean, kontsonanteen ondorengo «*h*-aspirazio» guztiak ezabatzea erabaki zenuenez geroztik, o Euskaltzaindia estimatu horrek, erhiak oro eritu zaizkigula. Ondikotz. Hatz-hamar, hatz-apar, behatz-topa, bihurtu zaizkigu, helas, erhi lirainok. Baina inork ez du horren errurik. Edo ez, barka: denok dugu erru hainbanako bana. Nire ustez, erran gabe doa...)

Zeren, besteak beste, esadazue, arren... Galdu al du batere gaurkotasunik, zuen iritziz, Txillardegik 1958. urtean –pentsa noiz!–, bere «Batasunerako bidea» izeneko txosten kartsu bezain arrazoitsu hartan, zioenak, honako honek (jatorrizko ortografia errespetatuz dakardanak)?:

«Eta ez esan gure arteko istillu auek baño gogorragorik ere badugula. Guziok dakigu gure etsaiak zein diran. Baña geure arteko batasuna lortzen ez ba dugu, etsairik izan edo ez izan, kalte besterik ez diogu geronek emango gure euskera aulduari, eta alperrik izango da gure etsaiak aipatzea. Esaera zaharrak ez digu esaten: «etsaiak erasotzen dituzten erreñuak oro, deseginak izango dira»; ondorengo au baizik: «beren buruaren aurka zatitutako erreinuak oro, deseginak izango dira». Eta auxe bai egia: gaixtoago da geronen anarkia segurik, gure etsaiak baño. Euskaldunak galdu ba gera, geure anarkiarenatik galdu gera batik bat, geure burua defenditzeko ere ezpaikera bat». (*Euskararen aldeko borrokan*, 26. or.)

Ni neu behintzat ados nago hor zioenarekin, hor dioenarekin. Oro har. Ohartxo bat erantsita, dena den, umore seriozko tonalitategian. «Anarkia?»... Alajaina! Bera zen-eta anarkistarik handiena! Gozoa zen, ba, inoren aginduak-eta txintxo-txintxo eta txintik atera gabe betetzeko! Lana bai, erruz, inork baino gehiago. Eta lan diziplinatua, koordinatua: Euskaltzaindiak ondo baino hobeto daki horren berri⁷; eta beste zenbait esparrutan ezagutu dugunok ere bai. Izan ere, anarkia, benetako –hots, ez eskuindarrek eta komunistek «saldu» digutena–, ez baita axolagabekeria eta apetakeria, elkar-lankidetasun arduratsua baizik. Baina zerbaitek talka egiten bazuen berak zeukan iparrorrazarekin, akabo: «sursum corda»ri ere ez ziokeen ametik emango...Tira, ez noa gehiago luzatera. Oso ondo ulertzen nauzue. Politika –*zentzu hertsian*– orain arte aipatu nahi izan ez badut ere. Baina aipatu beharko, jakina. Bestela Txillardegi iraintzea, eta irentzea, bailitzateke... Gainera, isiltzeak ere ez baitu balio. Badakizue: nire modukook, hitz egiten badugu hitz egiten dugulako, eta isiltzen bagara isiltzen garelako, emaitza beti berdina, edo berdintsua. Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak berak ere esan berri duen bezala, duela hamar egun (barka, otoi, nire frantses-ahoskera traketsa): «le comportement des hommes politiques englobant d'ordinaire non seulement leurs actions ou discours, mais également, dans certaines circonstances, leurs omissions ou silences, qui peuvent équivaloir à des prises de position et être aussi parlants que toute action de soutien déclaré». Ederki eman ere. «Umorezko tonalitatea» agindu dizuet paragrafo honen hasieran, baina ez dakit eutsi ahal izango diodan. Ezin serioagoa baita afera. Europako justizia-instantzia gorenak Espainiako Gobernuaren gezurrak –bere aldetik batere ikertu gabe, errealitatearekin bat ote datozen den mendrenik ere kontrastatu

⁷ Esate baterako, Fonologiatik eta Gramatikatik zuzenean hizkuntzaren izari suprasegmentala aztertzea igaroz (ikus *Euskal azentuaz*, 1984). Beste era batera esanda, Joskeraren ikerkuntza, Euskaltzaindiak lan-banaketa hala erabakia zuelako, beste euskaltzain batzuen esku utziz –gogoratu, adibidez, Patxi Goenagaren alor honetako lan bikaina: erlatiboari buruzko beronen «murrizgarri» versus «ez-murrizgarri» bereizketa zinez argigarriari, tamalez, idazle eta hizlari askok jaramonik egiten ez dioten arren–. Diziplinatua, beraz, erabat, Txillardegi, lan-eginkizunei dagozkien xehetasun guztietan.

gabe— ontzat ematea eta, gainera, horrela zuribidetzea. Gezurra baita, hemen umeez ere badakiten bezala, ANVk urtero uztail aldera antolatzen duen (edo antolatzen zuen) *Albertia Egunean*, ETako militanteak omentzen direnik: Legutioko Batailan, gure historiako «Gallipoli» ikaragarri hartan, faxistek hil zituzten ANV-Euzko Indarreko 300 gudari bipil haiek, ardiak otsoen artera bezala batere artilleria-babesik gabe erasora bidaliak, horietzek dira omenduak. Eta erdi-gezurra baita —beraz, gezur osoa— urtero, otsail aldera, Torturaren aurkako Egunaren kariaz egiten den manifestazioan, ETako «*militant décédé*» (sic) bat omentzen denik, Joxe Arregi baita omendua, ETako militantea bai, baina nola eraila?... Eta 2005eko azaroaren 30ean, ANV/EAE alderdiaren sorreraren 75. urteurrena ospatuz, ezker abertzale osoak San Andres Eguneko Manifestua oroitu izana ETaren apologia omen... Oraingoan ere arrazoi Etxahunek esanak eta Txillardegik jasoak: «lekhü eijerren haitatzez, kargüdünak gora, gü taula petan GIRATEKE, jende gradoz aphala!» (ez dut uste nire xiberutar ahoskera frantsesezkoa baino hobea denik: arra-barka, otoi). Errespeturik ez, egiaren errespeturik ez. Zure nazioak esaturik ez badu, estatu baten jabe ez bada, ez zara ezer. Eta zure hizkuntza, eta zure historia, eta zure idiosinkrasia osoa, hutsaren hurrengo. Hori da egia, egia zinezkoa, Txillardegik hamaika aldiz ohartarazia⁸.

Orain bai. Bukatzera noa. Eta berehalaxe jabetuko zarete egin nahi dutan lotura razional-emozionalaren azpian dagoen zergatiaz. Askotan esan izan dut, baita publikoki ere, nik hiru «aita espiritual» izan ditudala neure bizitzan. Bata, biologikoki ere gure (hots, nire) benetako aita zena, Lorentxo Arrieta, arrantzalea, batere eskolatu gabea, ozta-ozta sinatzen zekiena: abertzalea goitik beheraino, hori bai, euskaldun hutsa, euskaltzale porrokatua,

⁸ Lagin-aipu bakar bat, milaka posibleren artean, aspaldikoa («1963-ko Agorrialekoa»), «*Demisioa Euskaltzaindian*» izeneko gutunetik hartua: «Batek edo bestek, «politikarik ez dagoen gertaeretan» politika sumatzen dudala esango du. Halere gauza jakina da, beren zerbitzuko erresuma bat bederen ez duten hizkuntzak oro, hiltzen dirala; eta dutenak, azkartzen eta hedatzen. (...) Hizkuntzak ez dira ahultzen edo gotortzen beren molde edo barne-egiturarengatik, politikazko askatasun ala menpetasunarengatik baizik». (*Euskararen aldeko borrokan*, 52. or.)

eta ANVko gudaria⁹. Bigarrena, Joan Mari Lekuona, irakasle ahaztezina, «aita espirituala» zehazki esanda ere bai Seminarioko garaian, euskararen eta bereziki euskal literaturaren galaxia zabaldu ziguna bere hainbat ikasleri, eta zeinari esker nagoen gaur hemen zuen aurrean mintzatzen, berak gomendatu baininduen euskaltzain urgazletarako 1996an (nire alferkeria barkaezinaz bilera bakar batera ere etorri ez naizen arren urte hauetan guztietan, ene...). Eta hirugarrena, Txillardegia. Orain arte esan dizuedanaren eta irakurri didazuenaren ostean, ez dut uste harenganako lotura berezi horren nondik norakoan gehiago aztarrikatu beharra dudarik. «Dobla eta Fini» egitearren, beraz, bizipen bat kontatu nahi nizueke. Anekdotak baino areago, bizipena. Hara: 2011ko abenduaren 3an ikusi nuen Jose Luis bizirik azken aldikotz. Euskararen Egunean, hain zuzen. Izan ere, eguerdi aldera, Bulebarreko Mintzodromotik atera eta zera pentsatu nuen neure artean: «Zein ote zatekeen gure hizkuntzaren paraderoa, Jose Luis izan ez balitz? Ikusi behar diat, ba...». Banekien ordurako erabat erretiratu zegoela eta osasunez gero eta okerrago, maiz galdetzen bainien etxekoei beraren berri. Baina, egun hartan, Lasala plazara inguratu eta atari pareraino iritsita, telefonoz halaxe esan nion Joneri, Jose Luisen emazteari: «Aizu, barruak agintzen dit ikusi egin behar dudala. Igo al naiteke?». Eta Jonek, beti bezain mazal, erantzun: «Ba, barruak agintzen badizu, zatoz gora. Baina bost minu-

⁹ Argeles-eko eta Gurs-eko kontzentrazio-esparruetako sufrikarioez patxadaz mintzatu ohi zitzaigun bazkalondoetako tertulietan: lastaira zikinen gainean egin ohi zituzten zorri-lasterketei buruz, adibidez (bai, buruetako zorriak hartu eta trabesak egiten omen zituzten gudari derrotatu baina ez guztiz umoregabetu haiek: «*baietz nireak hireari irabazi*» eta abar). Gosea, hotza, lazeria, zikinkeria, mukurukeria, zaindaria senegaldarren zigorkadak..., horiek guztiak gogoratu bai, baina ez zuten bere onetik ateratzen. Burlak bai, orde. Umiliazioak. Errespetu faltak. «Légion»-eko koronel hura joan zitzaizkion, preseski. Behin eta berriro kontatzen zigan, eta beti sumintzen zen kontatzerakoan. «*Ahora tenéis la gran oportunidad de poder seguir luchando contra el fascismo*»-esan omen zien, «Légion»-ean izena ematera limurtu nahian, espainiera perfektuan («*nik baino hobeto egiten zian erderaz alu arék*», esaten zuen gure aita zenak). 1939-40ko negua, II. Mundu-Gerra jadanik hasia. Frantzia eta Ingalaterra demokratikoei, beren *non-intervention* politika doilorraren bidez Franco-Hitler-Mussoliniri hemengo gerra irabazten lagundu ondoren, orain *rojo-separatista* eta *republicano*-en laguntza behar, nonbait. Esan gabe doa zein izan zen Gurs-eko gudari derrotatu baina inola ere ez duingabetu haien erantzuna. Batzuek, tartean gure aita zenak, ihes egitea lortu zuten behintzat. Baina hori beste historia bat da... »Beste historia bat»? Ez, betiko historia bera, nik uste.

tu bakarrik, eh, gehiago ezin du-eta». Halaxe igo nintzen. Eta sekula damutuko ez, ezta ahaztuko ere. Doi-doi mintza zitekeen, baina hantxe topatu nuen Txillardegia, ohean agonduta, dotore asko, txabusina sorbalda gainean, burua tente, eta irribarrez. «Jaiki ere egin nahi zuen-eta, zu zentozelako, hau marka!». Jonek errieta amultsuan. Nik desenkusa, noski: «Barkatu, ez nizuen endredurik eragin nahi». Eta Jose Luisek orduan, ahots-hari mehe batez: «Ez duk endredua... Ohorea duk...»... Beno. Topikoa da. Baina topiko guztiek bezalaxe, honek ere badaukake bere barruan egiaren parte bat. Euskaldunok zeinen zomorroak garen emozionalki, alegia. Euskaldun gizonezkook behintzat; badirudi populazioaren beste erdia, emakumeok, gu baino naturalxeagoak zaretela, eskerrak. Badakizue, negar egin behar denean, negar egin behar dela, eta barre egin behar denean, barre, eta abar. Nahiz eta, beharbada, ez pentsa: zuek ere baliteke gure zomorrotasunaz apur bat kutsaturik egotea, zeren, orain gogoratzen ari naizenez, zazpi urtez sekulakoak eta bi pairatu ondoren –gerra, kartzela, heriotza-kondena gauzatuko ote ziotenezko etengabeko larritasun latza eta...–, Elissalt andereak, etxera orduko, bere seme Koldo Mitxelenari esan omen ziona ere... ez baita, ez denez, sentimendu-gainezkaduraren, –isurkortasunaren, –efusibitatearen ezein gailur («*Zer? Etorri al zera?*»). Nik orduan Txillardegiri esan behar nion: «Ohorea? Ohorea diok? Hi hainbeste urtetan Maisu eta Lagun eduki izana, hori bai dela ohorea, niretzat eta edonorentzat». Baina ez nion esan, noski. Hitz beste egin nuen berehala. Eta gaitz erdi, agian, ze bestela a ze atarramentua malkoei ezin eutsi izan banie... Bidenabar esanda, eta ahaztu baino lehen: bost minutu baino gehiago egon nintzen, ordu-laurden bat-edo gutxienez, «konpainia noblean», «*Huntaz eta hartaz*» mintzo, beti bezala. Eta beti jarraituko dudana bezala, Txillardegiren ahots-hari mehe horrek beti durundiatuko baitu nire baitan oihartzun biziberrituz. Beti mintzatuko zaio nire baitan –eta zurean, eta denonean– sekula hil ez den haurrari Txillardegiren Itsasoa.

Aita zenari, hil zenean, eskaini nion poemaren zati bat errezitatuz, eta berau Txillardegiri ere eskainiz, bukatu nahi nuke. Poema erdi-*collage* modukoa zen, ahapaldiak –batzuk neurtuak, beste batzuk libreak– «Kapitan pilotu» herri-kantaren perpausekin tartekatzen zituen. Honela dio amaiera aldera:

Wikingo zaharren antzo
 –amets egin nuen–
 ontzi sukartuan
 itsas zabalera
 bazindoazela
 zure maite ixilaren
 musu errauskorra
 ezpain zurbiletan
 gozo dastatzera.
«Horra adirazi dana
horra adirazi dana
nolakua zan kapitana
 ka
 pi
 ta
 na»

«Dana»? ... Ez. Dena ezin. Nola adieraz Itsasoa ahurkada bat hitzez...

Josu Muguruzari bezala, hiri ere bizi-ikur hau opa diat, Jose Luis, anti-hilartitz gisa:

GUGAN DIRAKIK
 GUGAN DIRAUKEK.¹⁰

Mila esker denoi zuen arreata adeitsuarengatik.

....

¹⁰ Edo, badakik: aditz trinkoak oso zailak omen direla-eta...»*Zailak? ba, ikas ditzagun!*»—esan hidaan, gogoratzen nauk, baina... Ez dagoela «bainarik»?... Zer?... Bai, bazakiat ez hengoela konforme. «Dirakik» beharrean, «irakiten duk» jarri nuenean, eta «diraukek» beharrean, «iraunen duk»... *Txorakeria* iruditu zitzaian, baina... Ene, hirekin ari nauk-eta!... *Non hago, zein larretan?*... Nire barnekoenean, noski... Segi dezagun beraz honela, Jose Luis. *Huntaz eta hartaz* mintzo. Baita *Horretaz* ere. Oroimen bizia baino «quasar» ahaltzuagorik ez baitago. Bihar arte, Maisu. Sarri artio, Lagun.

Karmele Esnal Zulaika (1932-2012): andereño Karmele

AZKARATE, Miren
Euskaltzain osoa

Ohituak gaude bizitza poliedroa izaten; beste modu batean esanda, gutako bakoitzaren bizitzak alde asko izaten. Alde bakoitzak ditu bere harreman-sareak, lagunak eta ezagunak, lankideak, eta guk ere alde bakoitzean «aurpegi» jakin bat erakusten dugu, beste aldean ikusten ez dena. Hala ere, badira pertsonak gehienontzat alde bakarrekoak direnak; hain da indartsua alde hori, gainerakoak guztiz estaliak geratzen dira, etxekoentzako izan ezik. Halakoxea zen, esango nuke, Karmele Esnal Zulaika; ezagutu genuen gehien-gehienoi hitz batean definitzeko eskatu, eta bi bider pentsatu beharrik gabe, ANDEREÑO erantzungo genuke. Hain izan zen andereño, Gipuzkoako Foru Aldundiak «bizitza osoko andereño» izendatu zuen hil zenean.

Orion jaio zen Karmele Esnal Zulaika, 1932ko abenduaren 20an eta 2012ko maiatzaren 30ean hil, 79 urte zituela. Zortzi urte betetzean Donostiara etorri zen familiarekin, eta han egin zituen Batxilergoa amaitu arteko ikasketak, Mariaren Lagundia ikastetxean, «San Bartolomen». Gasteizera joan zen ondoren, 1947an, hango Irakasle-eskolara. Handik hiru urtera irakasle-ikasketak amaitu ostean, Donostiara itzuli eta urtebete eman zuen Elbira Zipitriaren ikastolan, haren teknikak ikasten (irakasleen irakaslea, andereñoen andereñoa, horrela definitu zuen Karmele Esnalek Elbira Zipitria). 1953. urtea zen. Handik aurrera, irakaskuntzan eman zituen bizitzako urterik gehienak; bizitza osoa. 1955ean sortu zuen bere ikastola, Donostiako Pedro Egaña kalean; zazpi haur zituen hasiera hartan. Hala kontatu zion Karmele Esnalek berak Ainara Iraetari:

Euskera. 2012, 57, 1-2. 407-419. Bilbo
ISSN 0210-1564

«Elbiraren ikastolan praktiketan ari nintzela, haur kopurua izugarri handitu zen eta ume guztiak ez ziren Donostiako Alde Zaharreko lokalean sartzen. Erdialdetik ume asko etortzen zirela ikusi genuen, beraz, Pedro Egaña kalean lokal bat alokatu eta zazpi ikaslerekin hasi nituen klaseak».

Gero, taldea handitu eta 35 ikasle izatera iritsi zenean, Pedro Egañatik Artzain Onaren plazako beste leku batera aldatu zuen ikastola. Handik Juan de Olazabal pasealekura joan zen 1965ean, eta Santo Tomas Lizeoan ikasgela bat alokatu; 9 urte arteko neska-mutilei eskolak emateaz gain, batxilerrako gazteei ere irakasten zien euskara. Azkenik, 13 urte «klandestinitatean» eskolak ematen jardun ondoren, Santo Tomas Lizeoan integratu zen 1969an, ikastetxe hau irakaskuntza-ziklo osoa ematen hasi zenean, Eskolaurrea eta Lehen Hezkuntza barne. Eta han jarraitu zuen, harik eta 1997an jubilatu zen arte.

Honainokoak izan daitezke Karmele Esnal Zulaikaren bizitzari buruzko datuak, datu hotzak. Datu horien atzean, ordea, bizitza emankorra dago, egitasmo bati eskainitako bizitza, irakaskuntzan 42 urte jardutea baino askoz harago doan bizitza. Datu horien atzean, andereño Karmeleren bizitza dago, eta gutako askoren bizitzaren zati garrantzitsu bat ere bai.


Elbira Zipitria, Faustina Karril, Mari Karmen Mitxelena, M^a Dolores Goya, Miren Teresa Aleman... Donostian horiek guztiak; Bizkaian beste batzuk... Talde-lana, gutxi izanik ere, bata besteari erakutsiaz katenbegiak osatuz joan zen taldea. Esan dugu Elbira Zipitriarekin eman zuela ikasturte oso bat Karmelek. Eta gero Karmeleren ondoan ikasi zuten beste batzuek. Gotzon Egiak *Bidegileak* bildumako *Emakumea euskal irakaskuntzan* lanean dioen moduan, «irakasle bakan eta bakartien isilpeko ekinetik sortu ziren gehienetan lehenengo ikastola haiek, emakume edo andereñoen ekinetik hain zuzen. Ordutik hona, katea ez da eten, eta euskal irakaskuntzaren zutaberik irmoena emakumez osatuta dagoela esan daiteke». Baina hasierako garaiez ari nintzen.

Kanikak, eta kaniken bidez batekoak eta hamarrekook, eta multzoak matematika ikasteko. Txotxak lurrean eserita letrak ikasteko. Abestiak, abesti asko (*Paristik natorren, Eskualdun makila, Basatxoritxu moko luziak,*

Kinkirrinera, Zapi zuria...), olerkiak (*Baziren bi txerri Ttip eta Ttup, Behin bazen bele bat, bele bat beltza...*), Don Nemesio Etxaniz kantua erakustera, jaunartzeko prestatzera, Don Diego Lasarekin batera... Santa Teresara joan-etorriak jaunartzeko azken prestaketak egiteko, betiere gurasoren baten ardurapean... Urumea, Donostiatik; Oria, Oriotik; Urola, Zumaitik... Gipuzkoako mendiak, ibaiak, Euskal Herrikoak, lur-muturrak, golkoak... *Martin Txilibitu, Xabierto, Mamutxak...* gure eskolako liburu bakarrak. Txotxak, arkatza, eta arkatz gorri-urdina... gure gelako materialak (klarion puskaren bat izatekotan, agian belaun gainean jartzen genuen arbel txikiren bat...). Horiek guztiak datozkit zurrumbiloan burura andereño Karmele esatean. Eta nire oroitzapen horien atzean ezkututzen den guztia, oharkabean geureganatu genuena, eta ondoren «jakin» duguna. Gerora jakin dugu nolako ondarea pasatu ziguten ere: abesti eta olerkietan gerraurrekoen ahalegina, *Euskaltzaleak* mugimenduaren ondarea zegoen, eta Iparraldea (Oxobi...). Euskal Herria, iragana eta oraina.

Metodo pedagogiko aurreratuak, Europan zehar irakaskuntza zertan zen jakin, pedagogiari buruzko ikerketa eta gogoetak ezagutu (Piaget, Freinet, Makarenko, Montessori...) eta horien teoria eta ikerketak ikasgelara eramaten saiatu (Egia, 1997: 3).

«Bere eskola oso dinamikoa zen eta oso aktiboa. Matematikak adibidez, era aurrerakoi batean ematen zituen. Garaian hemen erdal ikastetxeetan generalki mutil bati haseratik zenbakiak sartzen zitzaizkion. Elbirarekin ez; lehenez matematikak egungo gauzekin sartzen zituen, matematikaren kontzeptua eta ariketak, saguak, sagarrak eta pilotak edo kanikak batzen eta kentzen egiten zuen. Hau da, lehen-dabizi zen gauza logikoa eta gero erantzen zion abstrakzioa eta teoria, zenbakiak eta matematikako ikurrak erantziz. Bere material guztia hori zen; txotxak, pottokak edo kanikak, arkatz gorri eta urdina, dibujoko bloka eta *Xabierto*».



Elbira Zipitriaren metodoez ari zaio Karmele Esnal Xabier Aranbururi, baina berdin berdin esan genezake Karmeleren beraren eta garai hartako andereñoen metodoez. Baliabide material urriak; baliabide eta jakin-min pedagogikoa, ordea, gainezka. Matematikan, inguruko gauza konkretuetatik hasi eta ondoren jo abstrakziora, zenbakietara. Berdin Geografia edo Lutelestian: gertuenekotik hasi, inguruan genituen mendi, ibai eta herrietatik. Irakurtzen eta idazten ikasteko ere, gertuenetik hasi, Jose Luis Lizundiari eta Iasmina Gorroñori esan zien bezala, 2011ko abenduaren 22an egin zioten elkarriketan:

«Hasi ikaskideen izenak ikasten hasten ginen. Lurrean jarrita txotxekin bakoitzak bere izena jartzen zuen. Eta gero aldamenekoarena. Orduan hurrengo lurrean eserita zegoenarena. Horrela ikasten zuten irakurtzen eta idazten. Idazten zutena irakurtzen zuten. Horrela, sei urterekin primeran irakurtzen zuten. Batzuk, bost urterekin ere bai. Gero «konjuntoak» modan ipini ziren, guretzako «multzoak» zirenak».

Nekane Auzmendik (1999) esan bezala, Karmele Esnal ez zen izan Elbira Zipitriaren ondoan ikusi eta ikasitako metodoen jarraitzaile soil:

«Aipatu den bezala, Elbira andereñoarengandik jasotako ereduari kokatzen zen baina Karmelek aurrerago joan nahi zuen. Laster hasi zen bere ikastolako edukientzat materiala biltzen eta bertsio berri batean ematen. Gure kulturarekiko ekarpenak zituzten autoreak irakurri, aztertu, mezua jaso eta haien aplikazioa ikastolara nahiz kalera zabaltzen zuen. Horrela gogora daitezke Joana Bixenta Mogel, Iturriaga, Urruzuno eta beste hainbat eta hainbat nola aurkeztu, erreztatatu eta eszenaratzen zituen.

Ikastola hartan, sekulan erabili ez den bezala irakasle honek Azkueren bildumako hainbat ipuin, kanta eta gertakari ikastolara egokituta eta bizia ematen zien, era horretara ikasleei errazago eta atseginago egiten zitzaizkien eskola».¹

Eta horrela eginez, ondo prestatu ikasleak 9 urte betetzen zituztenean aurrean izango zuten Ingresoko azterketarako:

«Ezagutza mailan ez genuen inongo arazorik. Gure ikasleak oso ondo prestatuak joaten ziren geografian, matematiketan eta abarretan. Hau askotan esan digute. Neri konkretuki, Marianistetako zuzendariak esan zidan ikastoletako haurrak oso ondo prestatuak joaten zirela, eta bereziki matematiketan. Baina gure kezka hizkuntza zen; ez genuen nahi, hizkuntza aitzakiatzat hartuz, gure umeak onartuak ez izatea. Pentsa ezazu, Ingresoko azterketan eskatzen zuten ortografia, gaztelaniar ortografia, noski, oso zorrotza zela. Dena den, ondo prestatuak joaten ziren eta ez genuen arazo berezirik izaten».

esan zion Mari Karmen Mitxelenak Xabier Aranbururi (1991: 47). Orduan ikasi genuen, oharkabea, euskaldunok askotan ingurukoek baino askoz hobeto egitera behartuak gaudela; hobe dugula hala izatea. Horixe erakutsi zuten ikastolek ere. Beren baliabide-urritasun eta guzti, gai zirela behar adinako maila eta gehiago ere emateko².

¹ Gipuzkoako Foru Diputazioak 1999an Karmele Esnali Abbadia Saria eman zionean eginiko hitzaldia.

² Garai hartako ikastoletatik hasi eta XXI. mendea bitarteko egin den bidearen berri izan nahi duenak, azterketa sakona aurkituko du Euskaltzaindiaren Jagon Sailak argitaratutako lanean: *Ikastolen mugimendua. Dabilen herria. Ikastola-eredua 1960-2010*.

Eta beti gogoan beste batzuen berri izatea, esperientzia-trukea:

«Kataluniara ikastaroak egitera joaten ginen. Eta harrituta gelditzen ziren, guk, hemen, dena euskaraz ematen genuelako. Haiek gaztelaniaz eta katalanez ematen zituzten eskolak. Katalanez hitz egitea ere debekatuta zeukaten nahiz eta pribatueta egiten zuten. Bietan ikasketak gaztelaniaz egiten zituzten. Eta guk hemen dena euskaraz egiten genuen. Oso harreman onak nituen katalanekin. Rosa Sensat, Marta Mata eta Antonia Canals-ekin oso harreman onak nituen. Ni hara joan eta beraiek hona etortzen ziren. Ipuinak eta konpartitzen genituen».³

Horretan ere ez dugu ezer berririk asmatu azken urteetan. Eta hori guztia lan-baldintza zailetan. Gurasoek ematen zuten dirua zen soldata bakarra; uda parteko eskolarik gabeko hilabeteetan zer gertatzen zen, gurasoen eta andereñoen arteko kontua izango zen. Gizarte Segurantzarik, are gutxiago. Eta erretiro-garaia iritsi zitzaientean, zor zitzaienta uste zutenaren alde borrokatu ziren. Orduan ere Karmele Esnal ibili zen aurre-aurrean. Ez zen batere erraza kotizatu gabeko hasierako urte haiek, klandestinitateko urteak, Gizarte Segurantzaz sartzeari. Baina, Jose Luis Lizundiari eta Iasmina Gorroñori esan zien bezala, «emakumeoi buruan perretxiko bat jartzen zaigunean...»

Klandestinitatean, etxe partikularretako geletan, ia baliabiderik gabe, soldata ere zen bezalakoa... Zergatik, orduan, ahaleginari eutsi? Ainara Iraetari (2000) emandako erantzunean argi asko ikusten da zergatik:

«Euskara garai honetan gaixo zegoen eta guk euskara mantentzen lagundu nahi genuen, galdu ez zedin. Horregatik ireki genituen ikastolak, umeei euskaraz ikasteko aukera zabaldu nahi genielako».

Hil baino urtebete lehenago ere gauza bera berresten zuen:

«Lortu nahi genuena euskara zen. Eta Donostiako haur, familia euskaldunei, lehenengo hezkuntza euskaraz ematea. Euskara eta es-

³ Jose Luis Lizundiak eta Iasmina Gorroñok 2011ko abenduaren 22an egin zioten elkarrizketatik hartua.

kola batera jartzea nahi genuen, bederatzi urte arte. Bederatzi urtetik aurrera bakoitza nahi zuen tokira joaten zen lizeoa sortu bitartean».⁴

Euskara mantentzen laguntzeko, gainera, ogibide zuen «andereño» iza-teaz gain, bestelako hamaika ardura ere izan zituen Karmele Esnalek, azken egunetaraino. Jose Luis Lizundiari eta Iasmina Gorroñori aitortu zenez, euskara ogibide bazuen, euskaratik bizi baldin bazen, obligazioa sentitzen omen zuen euskararen alde zerbait doan egiteko. Horregatik :

– 1960ko hamarkadan, Jarrai antzerki taldean aritu zen, Iñaki Beobide zuzendari zela. Besteren artean, Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria eta Arantxa Gurmendi harekin ibili ziren:

«Jarrai-ri esker, garai batean jende gaztea antzerkia ikustera joaten zen pentsatzen: «hombre, denak ez dira brusarekin joaten». Batzuentzako oso aurrerakoia zen eta on egin zien. Beste batzuentzako ez. Gero, herrietan antzerki taldeak sortzen joan ziren. Mugimendua izan zen. (...) Guk ikasleak eta horrelako jendea bildu nahi genuen, eta gauza desberdinei buruz idatzi. Nik emakumeari buruz idazten nuen, emakumea munduan. Emakumeek munduan zer egiten zuten. Eta inork ez zekien ni nor nintzen. Zeren eta karikatura batekin agertzen nintzen, sorgin tankeran, sudur luzearekin eta. Puntada batzuk erdaraz ematen nituen. Batzuk pentsatuko zuten: «eta hau nor da baina?» (nik ez nuen esaten)».⁵

– Artikulu asko argitaratu zuen *Zeruko Argia* aldizkarian, «Gazte naiz» atalean, «Maribeltz» ezizenez sinatzen zituen bere lanak. Euskarazko lehen komiki *Panpin* aldizkarian ere lan egin zuen, eta Arrate Irratian lagundu zuen.

– 1965ean Barrian (Araba) antolatu ziren lehenengo euskarazko udalekuetan parte hartu zuen.

– 1991n *Bagera* Donostiako euskaltzaleen elkarte sortzeko bileran parte hartu zuen. *Bagera* elkartearen barruan, *Mintzalagun* izeneko programan aritu zen lanean, euskara ikasten ari zirenei laguntzen azken azkeneneraino.

⁴ Jose Luis Lizundiak eta Iasmina Gorroñok egin zioten elkarrizketatik hartua.

⁵ Jose Luis Lizundiak eta Iasmina Gorroñok egin zioten elkarrizketatik hartua.

Euskararen aldeko lanean, ordea, ezinbestekoa izan zuten Karmele Esnalek eta inguruko andereñoek gurasoen konplizitatea. Andereño lanetan jardun zuen bitartean eta gero ere, erretiroa hartu eta sari eta omenaldiak iritsi zitzaizkionean, beti agertu zien bere esker ona gurasoei. Garai zailetan, inolako ofizialtasunik gabe, seme-alabak andereñoen esku uzteko ausardia izan zuten gurasoei. Ez ziren guztiak, nahitaez, maila ekonomiko onekoak. Era guzietako jendea zegoen, –hala oroitzen du Mari Karmen Mitxelenak– baina behar bada, erdi-goï maila batera hurbiltzen ziren gehiago, baina erdi-goï maila jakintzaren aldetik batez ere. Garai hartan, euskal kulturaz eta euskal irakaskuntzaz euskaldun ikasiak, hau da, nolabaiteko kultur maila erdikoa edo goikoa zuten euskaldunak arduratzen ziren. Euskaltzaletasunak, euskal kulturari zioten atxikimenduak elkartu zituen andereñoak eta gurasoak. Ezin hobeki definitzen ditu Iñigo Lamarkak (2011) garai hartan bereganatu zituen balioak:

«**Idealismoa.** Ikastolan ari ginenon gurasoak eta ikastoletako andereñoak idealistak ziren. Euskara salbatu nahi zuten, euskaraz bizi nahi zuten, euskaraz hezi nahi zituzten neska-mutilak. (...) euskararen aldeko berpizkunde mugimendu bat jarri zuten abian zenbait idealistak, eta irakaskuntzaren alorrean ikastolak sortu ziren. (...) Euskararen aldeko idealismoa. Inori kalterik egiten ez ziona, inoren aurka ez zihoana (...) Arrisku handiak asumituz, segurtasunaren eta materialismoaren gainetik, ideia baten alde lan egitea, inori minik egin gabe. Horixe izan zen lehenengo irakasgaia. Gurasoengandik eta andereñoengandik ikasi nuena. Horrekin batera **koherentzia** eta **kontsekuente izatea. Pertsona fina. Zintzoa. Langilea.** Euskarak aspalditik ditu sortuak hitzok (...) Ezaugarri horiek bazituzten gure irakasleek».

Lehen urte haietako egoera aldatu egin zen 1968-69an, «Cartilla de Escolaridad» delakoa, eskolatze-liburua, beharrezko bihurtu zenean. Ordurako Juan de Olazabal pasealekura joana zen Karmele Esnal, 1960-61 ikasturtean lehen pausoak eman zituen Santo Tomas Lizeoaren ondora. Amaituak ziren klandestinitateko urteak, estutasun bat baino gehiago pasarazi zizkienak:

«Un día vino la policía y me preguntó qué hacía yo en ese piso. Le tuve que decir que era soltera, que me gustaban los niños y sacaba a pasear a los de unas amigas. Como hacía mal tiempo, no había podido. Abrió la puerta y no vio ni mesas, ni sillas. Los niños estaban en el suelo y no tenían ni libros ni cuadernos, porque nunca los llevaban por temor a que alguien los viera y nos denunciara. Tan sólo tenían unos palillos, con los que estaban jugando. Con ellos, los niños aprendían a escribir las letras en mayúsculas, juntando palillos. Pero sospecharon algo porque me preguntaron los apellidos para saber si eran de familias abertzales. Les dije apellidos nada conocidos en Donostia y me hicieron una ficha, pero no volvieron más» (...) «Pero los niños se portaban estupendamente. En cuanto sonaba el timbre, ya sabían que tenían esconder las tizas. Aunque también hubo inspectores de Educación que nos ayudaron. Por ejemplo, el que me tocó a mí fue un catalán que había sido castigado en tiempos de la guerra por republicano, así que me trataba algo mejor».⁶

Eta 1969an bat egin zuten Santo Tomas Lizeoak eta andereño Karmele-ren ikastolak. Orduan (eta hurrengo urteetan) sortu ziren maila guztiak eskaintzen zituzten ikastola eta Lizeoak: Eskolaurrea, Lehen Hezkuntza eta garai hartako Batxilergoak (oinarrizkoa eta goi mailakoa). Handik aurrera Santo Tomas Lizeoko irakasle izan zen, beraz, Karmele Esnal (administrari, zuzendari eta idazkari lanetan jardun ere bai), harik eta 1997. urtean erretiratu zen arte. Ordurako, 2.000 ikasle joaten ziren eskolara.

Zenbat ikaslek ez ote zuten izan andereño Karmele Esnal 30 urtetik gorako bigarren ibilbide honetan! Nola gogoratzen ote dute? Ezin jakin guztien iritzia. Baina zerbait aurkituko dugu Santo Tomas Lizeoak 50 urte bete zituenean mende Erdiko ibilbidearen berri emateko ondu eta oratu zen liburuan. Iñigo Lamarkak (2011) argi eta garbi aitortzen du nolako eragina izan zuen andereño Karmelek:

«Andereño Karmele Esnalek eragin nabarmena izan zuen nire heziketan. Nortasun eta izaera oso sendoak zituen, eta horrek bere eragiteko ahalmena indartu egiten zuen (...) Zorrotza zen ikasteko aha-

⁶ Maite Redondo, «Las tizas que hablaban euskera», *Deia* 1 de diciembre de 2009

leginak exijitzeko orduan, bai eta pertsonaren garapenean gaitasun eta bertute onenak lantzeari zegokionean ere. «Gehiago egin dezake. Gaitasunik badu, baina ahalegin handiagoa egin behar du». Horrela mintzo zitzairen nire gurasoei eta amonari notak eta klasean egiten nuen lana baloratzen zuenean. Balioak lantzeko orduan garrantzi berezia du umeak gurasoen eta irakasleen **autoritatea errespetatzeak**, eta haiek beraien artean koordinatzeak eta hitz egiteak, umearen irakaskuntzak koherentzia eta irizpide komunak izan ditzan».

Beste batzuek, berriz, bestelako ezaugarriak gorde dituzte oroimenean. Xabier Iriondok, «zigarroa bere azkazal luze gorriekin eusten zuen bitartean» ikusten du andereño Karmele. Lorea Castroviejok ere «zigarroa piztu, eta NOR-NORI-NORK» lotzen ditu Karmele Esnalen izenarekin; eta ez da Lizeoko ikasleen artean bakarra gogoan duena Karmeleren ahalegina ikasleek zuzen ikas zitzaten euskal aditza eta euskal gramatikaren erregelak.

Erretiroa hartu ostean etorri ziren sari eta omenaldiak. Bizi zen bitartean jaso zuen gizartearen aitortza egindako lanagatik:

- 1998ko otsailean Euskal Idazleen Elkartek omendu zuen, Jose Antonio Arana Martija, Begoña Bilbao, Andoni Lekuona eta Txomin Peillenekin batera. Ohorezko bazkide izendatu zuen.
- 1999an, Anton Abbadia Saria eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- 2003ko maiatzaren 9an, Eusko Jaurlaritzak frankismo garaiko ikastoletako irakasleentzako laguntzen dekretua aurkeztu zuen. Aukera baliatuz, omenaldia egin zien. Horien artean Karmele Esnal zegoen.
- 2007ko urtarrilaren 28an, Sabino Arana Fundazioak saritu zuen, beste batzuekin batera: frankismo garaiko ikastoletako irakasleak saritu zituen.
- 2009ko abenduan *Argizaiola* saria eman zien Gerediaga Elkartek, Durangoko Azokan frankismo garaiko andereñoi. Bost emakumek ordezkatu zituzten gainerako guztiak: Karmele Esnal (Gipuzkoa), Izaskun Arrue (Araba), Libe Goñi (Iparralde), Izaskun Gas-teiz (Nafarroa) eta Begoña Aranguren (Bizkaia).

- Urte berean, Gipuzkoako Foru Diputazioak Urrezko Domina eman zien ikastoletako lehen andereñoi; haien artean zen Karmele Esnal ere.
- Euskaltzaindiak ere egin zion aitortza Ohorezko euskaltzain izendatuaz 1998ko apirilaren 24an. Baziren 31 urte euskaltzain urgazle izendatu zuenetik (1967ko abuztuaren 15ean).

Eta azken datu honek beste galdera batera narama. Nolakoa izan zen Karmele Esnalen eta Euskaltzaindiaren arteko harremana? Lehenik eta behin, hasieratik euskara batuaren aldeko hautua egin izana da azpimarratzekoa. Batetik, Akademiak esan zuelako, Euskal Akademia bakarra zelako eta hark emandako erregela eta arauak onartu beharrekoak zirelako. Bestalde, oso garbi zuen Karmele Esnalek eredu batu baten beharra. Bat dator bete-betean Koldo Mitxelenak Arantzazuko txostenean dioenarekin («Haur eta gazteei euskaraz irakasten bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea»):

«Euskara irakasten ari baginen, ez haurrei bakarrik, baizik eta helduei ere bai, zerbait bateratua behar genuen. Liburu batean «h»-ez idazten zelako, eta beste batean ez. Denak elkar ulertzeko eredua behar genuen. Bestela, atera behar zenituen mila ale Gipuzkoarako, bostehun Lapurdirako, etab. Hori horrela, guk argi genuen liburuak euskara batuan ateratzen bagenituen denek ulertuko zutela. Nik hori pentsatzen nuen: denek ulertzeko eran egin behar dugu lan. Arantzazukoak oso hitzaldi ederrak izan ziren, oso politak».

Hortik aurrera, Jose Luis Lizundiari eta Iasmina Gorroñori 2011n esan zenez, ez zen harreman berezirik izan; bakoitzak bere lana egiten zuen: «Guk gure aldetik egiten genuen lan ikastolan. Euskaltzaindiak esaten zuena jarraitu genuen, nik jarraitu nuen, eta kito». Orduan ez omen zegoen lekurik emakumeentzat Euskaltzaindian; garai hartako Euskaltzaindia gizon kuadrilla zen, «pelikula ingelesetan eta ikusten den bezala, lord ingeles tankeakoa». Horretan ere ikusi ahal izan zuen giroa nola aldatu den.

Karmele Esnal hil zenean, Antonio Camposek, urtetan Gipuzkoako Ikastolen Federazioko buru eta Ikastolen Konfederazioko buru ere izandakok idatzitakoa ekarri nahi dut hona, hilberri txosten honen amaiera gisa:

Gaurko irakaskuntzak, irakasleak eta gurasoak nahiz eta gehiago behar dutela esan, asko daukate batzuei esker, zuten guztia eman baitzuten iritsi garen tokira iristeko. Gaurko egoeratik oso zaila egingen da orduan izan zena irudikatzea. Euskara inongo baliorik gabe, prestigiorik gabe; irakasle euskaldun urri batzuk bazterretan; materialak, zeuden apurrak, erdaraz; irakaskuntza emateko baimenik ez, espazioak are gutxiago eta abar. Ez dugu ahaztu behar Franco bera bizirik zegoela.

Nik ez dut aipamen berezirik egin nahi Karmelez, bere baitan, biltzen zituen baloreez, bakarrik esango dut hasiera zail haietan Karmele izan zela buru nagusietako bat, Gipuzkoan batez ere. Gure aurrekoek zioten “zelako zura halako ezpala” bada ikusi besterik ez dago bere lanak zelako ondorioak ekarri dituen, Euskal Herrian sortu den mugimendurik garrantzitsuenetariko bat: Ikastolen Mugimendua.

Karmele, bene-benetan, bihotzez, hunkiturik eskerrik asko egin duzun, duzuen guztiagatik... orain goza ezazu, zauden lekuan zaudela, bidelagun izan zenituen Zipitria, Karmele Alzueta eta bestekin. Guzti-guztiak miresgarriak, den-denak maitagarriak, eta ahal baduzu, erakutsi iezaiezu gaurko irakasleei, gurasoei eta ikasleei sobera zenuten barne-indarraren, etorkizuna irabazteko zenuten grinaren iturburua, iturri zaharretik edaten duen urarena, etengabe berritzen denarena. Euskarak eskola irabazi baitu; ez, oster, oraindik etorkizuna.

Erreferentziak

ARANBURU, XABIER (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian, ikastola : Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak, ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean*, Euskomedia. Cuadernos de Sección 4. (1991), p. 9-74 (<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/ikas/04/04009074.pdf>)

AUZMENDI, NEKANE (1999): Hitzaldia (<http://www.gipuzkoeuskara.net/jarduerak/abbadia/esnal/auzmendi>)

CAMPOS, ANTONIO (2012): «Karmele Esnal Oroituz», *Berria* 2012-06-01 (http://paperekoa.berria.info/iritzia/2012-06-01/006/002/karmele_esnal_oroituz.htm)

CASTROVIEJO, LOREA (2011): «Zer da Nor? Ariketa: zenbakiak eta letrak erlazionatu», *Santo Tomas Lizeoa*, 1960-61 / 2010/11, Donostia: Santo Tomas Lizeoa, 84.

EGIA, GOTZON (1997): *Emakumea euskal irakaskuntzan (1922-1975)*, Eusko Jaur-larritza, Hizkuntza Politikarako Sailordetza.

EUSKALTZAINDIA (2010): *Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola-eredua 1960-2010*, Jagon Saila, Bilbo: Euskaltzaindia.

IRAETA, AINARA (2000): «Donostiako Ikastolen sorrera», *Eusko News & Media* 67. zk. (2000/2/18-25), (<http://www.euskoNews.com/0067zBK/gaia6704eu.html>)

IRIONDO, XABIER (2011): «Lizeokoa da!» *Santo Tomas Lizeoa*, 1960-61 / 2010/11, Donostia: Santo Tomas Lizeoa, 79-80.

LAMARKA, IÑIGO (2011): «Lizeoa eta balioak», *Santo Tomas Lizeoa*, 1960-61 / 2010/11, Donostia: Santo Tomas Lizeoa, 151-155.

REDONDO, MAITE (2009): «Las tizas que hablaban euskera» *Deia* martes, 1 de diciembre de 2009 (<http://www.deia.com/2009/12/01/ocio-y-cultura/cultura/las-tizas-que-hablaban-euskera>)



Josu Arenaza Lekerikabeaskoa (1930-2012)

euskaltzain urgazlearen oroitzapenean

KINTANA, Xabier
Euskaltzaindiko idazkaria

Gipuzkoako ahaldun nagusi jauna,
Euskaltzain oso, urgazle eta laguntzaileok,
Jose Luis Alvarez Enparantzaren, Karmele Esnalen eta Josu Arenazaren senideok, eta honaino hurbildu zareten jaun-andre eta adiskideok,
Agur guztioi.

Hasi baino lehen, zilegi bekit bihotzez eskerrak ematea Josu Arenaza euskaltzain urgazle izandakoaren senideei, batez ere haren alargun Gotzone Alvarez Artetxe andreari, eta bien seme-alaba Libe, Ander, Joseba eta, bereziki, Sabini, zuen senar eta aita izandakoaren bizi-datu jakingarri eta aipagarrienak biltzeko, guztiok eskaini didazuen laguntza handiagatik. Era berean, bihoazkie nire eskerrak Euskaltzaindiko bibliotekari Pruden Garziari, eta Josuren lagun mina izandako Txomin Saratxagari ere, guztiok emandako datu baliotsuengatik. Benetan aitor dut, neure bakarrean, zuen laguntzarik gabe, neurez ezingo nukeela bete eginkizun hau.

Etxekoak, jaiotza, ikasketak eta bizibidea

Josu Arenaza Lekerikabeaskoa 1930eko maiatzaren 23an jaio zen, Bilbon. Ama, Donata izenekoa, Nabarnizko alaba zen. Aita, aldiz, arabarra zuen, Maeztun jaioa, eta Esteban zeritzon. Senar-emazteok seme bi izan zituzten: Jose Luis, nagusia, eta Josu, berau apur bat gazteagoa.

Euskera. 2012, 57, 1-2. 421-434. Bilbo
ISSN 0210-1564

Umezaroan, gerra denboran bereziki, Nabarnizen bizi izan ziren, amaren jaioterrian, hain zuzen, gaur ere Bizkaiko leku euskaldunenetako batean. Haraxe joan behar izan zuten, Bilboko bonbardaketetatik ihesi, estuasun handian. Bertatik ikusi zuen, urruntasunean, *Condor* legioaren aleman hegazkinen bonbek zelan erraustu zuten Gernika 1937ko apirilaren 26an. Haurrak orduan zazpi urte besterik ez zituen arren, triskantza hori sakonean gelditu zitzaion. Etxeko euskal ingurune jatorrak eta jada txikitan bizi izandako tragedia giroak ondo markatuko zuten bera bizitza osoan.

Ama txikitandik euskaldun peto-petoa baldin bazen, aita ere, erabateko abertzalea izan zuen, eta bere seme-alaben euskalduntasunaz kezkatua gainera. Esteban Arabako nekazaritza girotik Bilbora etorria zen, *Euskalduna* ontziolaria lanera. Geroago senar-emazteek taberna bat ireki zuten Bilboko San Mamés kalean (euskaraz Santi Mami), *Bar Esteban* zeritzona, Franco-ren garaian batzar klandestino ugarien bilgune izandakoa.

Josu Arenazak lehen hezkuntza Aita Eskolapioen Bilboko ikastetxean jaso zuen. Zinez eskertzekoa zen, eta are gehiago diktaduraren garai hartan, eskolapioetako batzuk, ahal zuten neurrian behintzat, ikasleengan ereiten saiatzen ziren euskal sena. Izan ere, asignatura eta errezu-orduen artean, aldizka bertoko hizkuntza eta kulturari buruz nolabaiteko informazioa ere ematen zuten, orduko eskola nazionaletan erabat ukatua.

Ikasten segitzeko, Francoren peko Euskal Herri hartan unibertsitaterik ez eta, Valladolideraino joan behar izan zuen, medikuntza egitera, eta bertan Pediatrian espezializatu zen, ondoren, praktikak-eta Basurtuko Ospitalean burutzeko. Bere lanbideko ohiko jarduna Mungian egin zuen, Artetxeren fabrikako enpresa-mediku gisa. Era berean, Bilbon aritu zen, pediatria, bere kontsulta pribatuan, bai eta *Igualatorio Médico Quirúrgico*-ko kliniketan ere. Haurrekiko tratuan oso gizon atsegin eta umezale gisa nabarmendu zen, eta bere kontsultan beti egoten ei zen beirazko pote handi bat, karameluz eta gozokiz betea, txikitan haren bezero izandakoek ongi gogoratzen dutenez.

Era berean, pertsona nagusiekin ere tratu eskuzabal eta gizatiarra erabili zuen beti, orori ahal zuen guztian laguntza emanez, nork zelako ideologia zuen kontuan izan gabe.

Francoren zoritxarreko oroitzapenaren itzal jada luzeegia

Gerra ondoko historia gogoratzean, ez dira ahanztekoak, jakina, Francoren garaiko zapalkuntza eta orduko polizia politikoaren errepresio nazional larriak, ez eta horiek gurera ekarritako ondorio tamalgarriak ere.

Diktadura latz haren burua duela ia hogeita hamazortzi urte tragatu zen, baina hala eta guztiz ere, badira oraindik Francoren garaiko errepresio hura ahoan behin eta berriro darabiltenak, orduan abertzaletasunaren alde ezer ezin egin zitekeela argudiatuz. Gorago esan dudanez, egia da, bai, gure jendeak zapalkuntza beldurgarria jasan behar izan zuela, baina, era berean, ez da gezurra urte beltz haietan ere, gerran armen pean garaituen artean bazi-rela hargatik inola ere konbentziturik ez zeudenak. Orduan ere batzuek beren beldurkeria, aitorrezineko desinteresa edota euskal gaietarako arduragabekeriaren erru osoa, Ferrolekoari lepora jaurtitzen ziotenean, batzuk halere, ez zeuden gelditi. Are gehiago, erdal ofizialtasunaren kontra joanda, holako abertzaleek, txarrenean, etxean, lagun artean eta ezkutuan behintzat, gure hizkuntza, kultura eta izaeraren alde borrokan jarraitzeko adorea izan zuten, seme-alabei bertoko mintzaira eta kultura-balioak irakatsiz, hurrengo belaunaldiei eskubide nazionalen bandera pasatzeko.

Euskal nortasunaren alde

Euskara eta euskaldunontzat garai zailak izan ziren arren, Josu Arenazak bere jendearen balioen alde jotzen jakin zuen gaztetandik, berehala erakutsiko dugunez.

Garai bateko folklorekeria-salaketak gorabehera, gaur egun edozeinek dakusa zer nolako garrantzia daukan kirol nazionala bultzatzeak herri-nortasuna agertu eta sendotzeko orduan, euskal selekzioa oraindik oztopatzen segitzen dutenengandik hasi eta *La Roja*-ren aldeko laguntza mediatiko osoarekin berori bultzatzen dutenekin amaituz.

Kontua da orduan euskal kirol, musika eta dantza erakustaldiak oso bakanak izaten zirela, eta, erabat galaraziak ez zirenean, maiz behintzat ozto-

patuak bai. Halere, zenbaitzuk holako saioak aupatzen ahalegintzen ziren. Eta horien artean Josu Arenaza gaztea zebilen, 60ko hamarkadan, eta buru-belarri ari zen Mungiako Txirrindularitza Elkartean, antolatzaile eta mediku lanetan batez ere. Funcor ekipo ospe handikoaren zale-taldearekin ere ibili zen bera European zehar, geroago profesional bikainak izango ziren Uriona, Gabika eta Uribezubia txirrindularien ondoan. Azpimarratzekoa da Barendin Urionarekin zuen adiskidetasun handia. Haren heriotza 1967an, Sabadellen (Katalunian) lasterketa batean istripuz gertatua, kolpe latza izan zen harentzat eta haren etxeko guztientzat.

Baina interes eta ardura guztien aurretik, bazuen Josu Arenazak bat, bereziki sakona: euskara. Gaur egun irudi luke abertzale izateak aldean berez euskaltzaleatasuna dakarrela. Hala balitz hobe, baina begi-belarriak dauzkan edozeinek argi ikus eta entzun dezake, zoritxarrez, lotura hori ez dela hain automatikoa izaten, eta gurean oraindik askotxo dauzkagula, politika-kargudunak barne, hor zeresan handia ematen dutenak, beren bistako erdaltzaleatasun ezinago ageriagatik. Arazo hori, gainera, are nabarmenagoa zen duela berrogei urte, non eta Bizkaiko hiriburuan, orduan euskaltasunaren froga nagusitzat euskal deiturak erdaraz aldarrikatzen ziren tokian.

Orduko abertzale askoren ilusioak Irlandako independentzia lortu berriari adi zeuden oraindik, bertako ingelestasun gero eta handiagoa gorabehera. Han garrantzitsuena erlijio katolikoa bazen, gurean, odolarekin batera, azaleko ezaugarriak balioesten ziren gehien: deiturak, berton jaioa izatea, ikurrinaren koloreak, txapela, musika, dantzak, kantak... hizkuntza maiz bazterrean utzirik. Baina naziotasunaren muina, berorren ezaugarri nagusia hizkuntza eta horri loturiko kultura zirela uste zutenak ere baziren, eta Mokoroak, Ibiñagabeitiak, Orixek, Txillardegik, Arestik edota Mitxelenak aldarrikaturiko ebidentzia horri atxikitzen ziotenen artean bazen J. Arenaza ere. Eta horrek, gainera, inoiz buruhauste ez gutxi ekarri zizkion gure medikuari, bai etsaien eta bai, tamalez, lagunen artean ere.

Josu, berez, ez zen hizkuntzaren teorikoa, haren erabilera eta iraupenaren aldeko ekintzaile nekaezina baizik, herriko eta ahozko tradizioaren aldeko sutsua. Alde horretatik, ezaguna da bere ideiekin zeukan konpromiso publikoa. Gure kultura bultzatzeko bide horretan, inoiz herri-antzerkian parte

hartu zuen, hasieran Mungian eta geroago Bakion. Euskal aldizkarietan idazten ere aritu zen: *Goiz Argin*, *Anaitasunan*, *Aguren*, *Zeren eta Zeruko Argian*. Guztietan bere kezka nagusiak adierazten zituen, hots, aberriaren eta euskararen iraupena.

Josu euskaltzaleak lehenbiziko unetik argi ulertu zuen zelako garrantzia izan beharko zuten ikastolek gure hizkuntza nazionala berreskuratzeko orduan. Logika horretatik abiatu, 1970ean, bera Begoñazpiko Ikastolaren sortzaileetako bat izan zen, begi-bihotzak irakaskuntzan eta gure hizkuntza-
ren etorkizunean jarrita.

Josu Arenaza euskaltzain urgazle

Euskaltzaindiak, 1956an Arantzazun egindako bilera baten ondoren, *Euskera* agerkaria berriz argitaratzen hasteko baimena lortu zuen. Gerra ondoko euskal gizartearen panorama hartan jada euskaltzale berriak nabarmentzen hasiak ziren. Akademiak, 1957an, ekintzaileok aintzat hartu eta Euskaltzaindia eraberritzeko asmoaren barruan, horiek euskaltzain izendatu zituen. Horietako bat Josu Arenaza mediku idazlea izan zen. Ez zen bakarra izan baina. Berarekin batera, Gabriel Aresti poeta, Alfonso Irigoien euskalaria, Justo Mari Mokoroa fraseologoa, Santiago Onaindia idazlea, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegia» eleberrigilea eta Antonio Zavala bertso-biltzaile eta idazlea ere hautatu zituen gure hizkuntza-
ren Akademiak.

Josu Arenaza, politikan

Edozein naziok, historian bizirik irauteko, noraezekoa du bere burua gobernatu ahal izatea, erantzukizun hori besteren eskuetan utzi gabe. Hizkuntza eta kultura nazionalak, bistan denez, ezin elika ez bultzatu daitezke herri-aginte eta botere publikoak horien alde ez badaude. Eta frankismoaren garai luzean Euskal Herriak kanpokoaren desgovernua pairatu behar izan zuen. Horri aurre egiteko, Josu Arenazak, abertzaletasunaren esparruan, bertoko balioak suspertzen jardun zuen. Horrela, PNV-EAJ alderdi

politikoaren barruan sartu eta hor erantzukizun handiko karguetara heldu zen. Luzaro Bizkai Buru Batzarreko kidea izan zen. Alderdiaren barruan beti abertzale kontsekuente izan nahirik, nazioaren hizkuntzak daukan garrantzi berezia azpimarratu zuen, eta, horregatik, inoiz kide ezeroso izateraino iritsi zen, alderdikide epelago eta axolagabe batzuen begietarako behintzat. Garai hartan, halaber, bere joera abertzaleak espetxealdia pairarazi zion, norekin eta Txillardegiarekin batera. Eta hura, noski, ez zen kasualitatea izan.

Anekdotak moduan, esan dezagun 1968an beraren bitartez afiliatu zela EAJra ordura arte Javier Arzallus deitzen zen jaun bat, geroago bere alderdian gorengo postuetaraino igoko zena.

Dena den, denboraren joan-etorriaz, 1980.etik aurrera, EAJ alderdiak boterea berreskuratu zuenetik, hain zuzen, hasierako eta bere bihotzeko alderditik urrunduz joan zen Josu, autonomiatik haratago, bere nazioarentzat erabateko independentzia osoaren bila. Ez zuen, beraz, lehenagoko urte askotako militantzia luzeaz baliatu nahi izan, bere alderdiaren barruan postu, kargu politiko edo aginte handiagorik eskuratzeko. Alderantziz, batzuen ustez, «muturreko» jarrera independentista hartu zuela eta, azkenean alderditik kanporatu zuten. Harrezkero, gaztaroko tradizio jeltzaletik helduaroko soberanismoarantz eboluzionatu eta ezker abertzaletasunera hurbildu zen, baina ez zuen inoiz bertan militatu. Bere bizitza osoan erabat pertsona bakezalea izan zen, eta, horrela, ekimen askotan laguntzaile gisa jardun zuen; esaterako, euskal preso politikoen osasun-eskubideen aldeko mediku taldean. Dena den, ez dagokigu hor balioespenik egitea, Euskaltzaindiaren egitekoa ez baita politikaren barrutian sartzea, berorren eraginak gure hizkuntzari ukitzen ez dion neurrian behintzat.

Euskal sindikatuaren bultzatzaile

Josu Arenazak euskal hizkuntza, kultura eta politikaren alde eginiko lana jakina eta ezaguna bada ere, ez da, segur aski, gauza bera gertatzen beste arlo batean, hots, sindikalismoan. Katalunian eta Galizian ez bezala, Euskal Herriak aspaldidanik sindikatu nazional propioak izan ditu. Lehenbizikoa,

Solidaridad de Obreros Vascos zeritzona, jada 1911n sortu zen, geroago STV-ELA izena hartu eta gaur Eusko Langileen Alkartasuna bilakatu da. Horren ondoan, 1974an, LAB deritzona ere antolatu zen. Gaur Euskal Herriko lehen eta hirugarren indar sindikalak, hurrenez hurren.

ELA, matxinada militarren ondoren, luzaro legez kanpkoa izan arren, frankismo garaian sindikatu klandestino honek garatzen eta hazten segitu zuen ezkutuan, eta, gerra osteko susperraldian, Josu Arenaza eta Jon Idigoras izan zituen bultzatzaile, besteak beste. Ibilbide horrek ederto erakusten du Josu noraino zegoen kezkatu euskal langileriaren interesen alde, beti kristau humanismoaren iturritik edanda, bai eta nolako zolitasunaz ikusi zuen euskaldunon artean bertoko sindikatu propioa izatearen garrantzia ere.

Askatasunik ezaren ondoko susmo-giroa

Garai hartan Francoren diktadurapean geunden herritar gehienok, eta adierazteko askatasunik ez. Giro hark, jakina, ez zigun uzten argi azaltzen gutariko bakoitzak politikan zer eta nola pentsatzen genuen, erregimenaren aurkako ideia nazional eta politikoak erabateko gardentasunaz adieraztea debekaturik zegoelako. Ez da harrigarria, beraz, horrexegatik elkarrenganako errezeloak ere sortzea, inoiz euskal alorrean lagun agertu berri batzuen atzean aitorrezineko politika espainolista ez ote zen ezkututzen susmatzea, eta gure herriaren balioen ageriko defentsan batzuen ardi-larruaren azpian agian espainolismo ezkutuaren erdaltzaletasuna gordetzen ote zelako kezka ere. Eta orduko giroan, hori guztiori, neurri batez, ulertzekoa zen, inoiz horrelako kasuak ere halaxe agertzen ziren eta.

Edonola ere den, batzuen eta besteen azaleko ezberdintasun horien atzean, garai hartan euskararen alde genbiltzan guztiok antzeko kezkak ginderabiltzan: Euskal Herriarenganako maitasunak, gure nazioa berriro jaikiarazteko gogoak, gure hizkuntza berbiztu eta bertoko kultura hauspotzeko nahiak. Eta ahalegin horietan, zalantzarik ez, Josu Arenazak aipamen berezia merezi du.

Euskararen sokatiran

Hizkuntzari gertuagotik begiratzuz gero, eta mintzairaren batasunerako ereduari gagozkiola, ondo gogoan izatekoak dira, Josu Arenazak behin eta berriro azpimarratu zituen puntu nagusi bi: euskararen jatortasuna, batetik, eta hizkuntzaren batasunean bizkaierak, mendebaldeko euskarak, eduki behar zuen partaidetza handiagoa, bestetik.

Hor, nolabait, sehaska izan zuen Nabarnizko herriaren eragina azpimarra genezake, gorago esan dudanez, gaur ere gure Jaurerriko herririk euskaldunenetako bat da eta. Bertan ezagutu zuen Josuk gaur, zoritxarrez, hain erraz ezin topa daitekeen euskal lagunarte jatorra, naturaz, bizipenez eta euskalduntasunez asebetea.

Ez da harritzekoa, hortaz, hizkuntzaren geroari zegokionez, Josu Arenaza, txikitan hain euskal giro eder eta zoragarrian bizi izandakoa, Sabino Aranaren iritziekin bat etorri eta Nikolas Ormaetxea «Orixe»-ren aldera oso lerraturik egotea. Hori dela eta, sasoi batean, etorkizunean ere, euskara nolabaiteko bukolismo arkadiarrean gorde gura zuen betiko, industrializazioaren eta globalizazioaren erdal aldabideetatik babesturik.

Horrexegatik, gainerako euskalki mintzatu eta bizien artean, berearen garrantzia nabarmendu nahi zuen, haren hiztun kopuru handia eta literatur emaitzak gogoan izanda. Batasuna erdialdeko euskalkien inguruan eratzen ari zela ikusita, Bizkai aldeko euskararen lexiko eta sintaxi arloko berezitasun aberasgarriak goraipatzen zituen berak. Beldur zen, hizkuntza literarioa osatzean, den-dena gipuzkeraren aldeko aukera hutsa ez ote zen izango, mendebaldeko eta ekialdeko beste euskalki osagarrien kaltean. Haren kezken hotsak ez zituen bat-bateko haizeak eramanez, eta, zorionez, merezi zuten oihartzuna ere izan dutela esan genezake. Berak azpimarraturiko puntu ez gutxi, gaur egun Euskaltzaindiaren hiztegi akademikoan zein gramatikan jasorik aurkitzen ditugu jada, euskaldun guztion hizkuntza literarioaren osagarri.

Herri-hizkerez interesaturik zegoen, bai, baina, aldi berean, Josu Arenazak argi zekusan euskarak, munduko beste edozein kultur hizkuntzak bezala, beharrezkoa zuela gutxienezko batasuna, euskalki bakoitzaren baitan

hasita. Alde horretatik, bizkaiera bakarraren alde zegoen bera, ez tokian tokiko mila bizkaiera ezberdinen fabore, eta ez zituen bultzatu euskaldunok elkarrekin ondo ulertzera ez garamatzaten aldaki azpidialektal bitxiak. Euskalkiek, haren ustez, aire garbia eta zuku freskoa eman ziezaioketen eredu batuari, euskara estandarra osatu eta aberasteko. Hots, bera ez zen inondik ere, azpieuskalki bitxi, zatikatu eta idatziz sekula erabili gabeak edonola papereratzearen joerakoa, herrikkaz herrikkako zoro-txapelketa anarkikoan, aspaldion, azken orduko goi-argitu batzuek euskara nazionalaren kontra, egin nahi duten bezala.

Jakina, bere garaiko euskaltzale gehienek antzera, Josu Arenaza hizkuntza kontuan garbizalea zen, eta hori ere ongi ulertu beharra dago. Alde batetik, frankismoak bere oztopo eta debekaldiekin luzaro ez zion euskal gizarteari aukerarik eman euskarari buruzko irizpideak lasai eztabaidatu eta araubidez normaltzeko. Bestetik, denbora hartako eskolak eta erdal komunikabide nagusiek gure hizkuntza, gaztelaniapeko errapetik bizi omen zen dialekto barregarritzat aurkezten ziguten. Gainera, euskaraz turtik ez zekien Txomin del Regato bezalako pertsonaien ahoan egundoko aldrebeskeriak plazaratzen ziren. Irakaskuntza osoa Espainia eta Frantziako erdara ofizial bakarretan ematen zelarik, sasoi batean ez zen gure artean ongi bereizten erdarakada hutsen (*blondo, errubio, kamarero, kamisa, kangreju, kebrado, kutxillo, moreno, obrero, tailer...*) eta nazioarteko lexiko unibertetsala osatzen duten maila goragoko hitzen artean (*aritmetika, biologia, disko, mikroskopia, musika, nuklear, petrolio, semantika, trigonometria, txokolate...*).

Ondorioz, frantsesez eta gaztelaniaz esaten ziren hitz guztiak beren ondare eta altxor garbi eta partikularrekoak zirela sinetsarazten ziguten, eta guk ez genuela esparru horretara muturra sartzeko inolako eskubiderik. Baina, egia esan, ezjakintasunez, edo maltzurkeriaz, ondo ezkututzen ziguten berek ere berba horiek kanpotik, latin klasikotik edo grezieratik jasoak zituztela, ingeles, aleman, errusiera, arabiera eta munduko kultur hizkuntza gehienek antzera, hain zuzen. Orduan, zertara zetorren, mundu guztiak ur bila jotzen zuen nazioarteko iturri hartara edatera euskaldunoi hurbiltzen galaraztea, Unamunok egiten zuenez?

Ulertzekoa da, noski, orduko egoera penagarri hartan, erdal txantxa eta iseka artean Josu Arenaza, beste askoren antzera, erdalkeria horiekin bat ez etortzea eta horien aurka protestatzea.

Euskaltzaindia batasunaren inguruan

Bestetik, orduko politika-askatasunik ezak ez zigun euskaldunoi uzten gerraurreko iritzi jada zaharkitu batzuk berrikusten, ez eta eztabaidatzeko era publikorik ematen ere, haiek gainditu ahal izateko. Halere, garai bereko katakunba-giro erdiklandestinoan, gure hizkuntza normaltzeko helburuaz, garbizalekeria-mordoilokeria nahas-mahas hartan Euskaltzaindiak, euskal hitzak zeintzuk ziren argitu nahi izan zuen. Horretarako, L. Mitxelenak eta L. Villasante bezalako euskaltzainek eraginda, arau garrantzitsua eman zuen gure Akademiak 1959ko erabakiaren bitartez. Ondorioz, *abade, barkatu, eliza, errege, errota, eskola, gramatika, filosofia, gaztelu, lege, matematika, politika, porru* edo *telefono* bezalako berba mailegatu zaharrak edota nazioartekoak, behin euskal grafiara egokituz gero, euskarazkotzat ere har zitezkeela adierazi zuen argi eta garbi Euskaltzaindiak.

Erabaki horrek kultur hizkuntza modernoa izateko ateak ireki zizkion gure hizkuntzari, eta nazioartekotasunaren aire berrien arnasa ere elkarri, baina, aldi berean, arau hori txarto aditzeak, hobeki azaltzeko zailtasunak eta, orduko komunikabideen mugekin, jendeari gauzak ezin argitzeak denboraz gaizki-ulertu larriak sorrarazi zituzten. Ondorioz, pertsona askok pentsatu zuten kanpoko edozein berba, nazioarteko mailakoa zein espainol edo frantseskada hutsa, behin euskal grafiaz jantzi eta, hobeki esan, mozorrotuz gero, horrela, besterik gabe, euskal hitz bihur zitekeela, eta Euskaltzaindiak halako erdarakadak, gainera, bedeinkatu egiten zituela. Baina hori ez zen inoiz akademiaren asmoa izan. Halere, uste oker horretan oinarrituta, bide horretatik hasi zitzaizkigun sartzen, aspaldion, adibidez, *ejertzito, kotxe, tailer, pintxopote* edo *azula* lako erdarakada gordin bezain premiagabeak, euskal sen gutxiko eta are asmamen urriagoko idazleek bultzatuak.

Gutziz normala zenez, Arenazak, aipaturiko barbarismo horien ordeztu, gure ondareztu hitz jatorragoak hobesten zituen. Bestetik, euskaldunon gai-

netik erdal menpekotasun koloniala uxatzeko, euskarak ere beste edozein hizkuntzak bezala, bere erroetatik hitz berriak sortzeko daukan eskubidea bera aldarrikatzen zuen.

Eta ertz batetik bestera alde zabala den arren, hor ere badakusagu aurre-rapauso handiak egin direla azken aldian. Gaurko liburu zein aldizkariei begirada bat egitea besterik ez dago, ongi konturatzeko, azken mende erdi honetan, zenbat eta zenbat hitz berri asmatu diren euskaraz: *atxikipen*, *aurrekontu*, *egitismo*, *bizikidetza*, *elkarlana*, *harpidetza*, *hitzordua*, *hizkuntzalari-tza*, *kokapena*, *maiztasuna*, ... geure berba eta erroekin ondo osatuak. Bestetik, hitz internazionaleri doakienez ere, gauzak argituz joan dira, eta garai bateko espainolkada gordinen ordeztu, gero eta joera handiagoa dago nazioarteko erak hobesteko, hots, *Antartika*, *brodatu*, *estatistika*, *gimnastika*, *hierarkia*, *immunologia*, *krokodilo*, *orquestra* edo *partida* adibidez, ingeles, frantses eta alemanaren antzera, hain zuzen.

Josu Arenazaren kritikak, batasunerako akuilu

Ongi pentsatzen hasiz gero behintzat, geure ideia, jarrera eta aukera pertsonalak ez bezalako iritziak ez genituzke beti arerioen eztenkadatzat hartu behar. Nork bere usteak azaldu eta horiei eusteko daukan ukaezineko eskubideaz gainera, bada hor besterik ere. Inorengandik jasoriko kritikak gure gogoeta propioak birpentsatzeko argudio onak ere izan daitezke. Batzuetan horiek aldatzeko edo ñabarduraz zehazteko; beste batzuetan gureak arrazoi hobeekin argitzeko, edota hasierakoak beren horretan sendotzeko. Azken buruan, eta txarrean ere, gurekin bat ez datozen lagunen arrazoiak erreallitatea bestelako ikuspuntuetatik ulertzera laguntzen digutelako.

Hori gertatu zen, adibidez, XIX. mendeko etsenplu sonatu bat gogoratze-ko, *mutatis mutandi*, Charles Darwin ingeles biologo ospetsuaren obrarekin (*On the origin of species*, 1859). Haren garaian bazen Frantzian entomologo bat, Jean-Henri Fabre, intsektuei buruz argitaratuak zituen ikerketa bikain eta zehatzengatik oso ezaguna, (*Souvenirs entomologiques* 1878). Halere, Darwinek bere *Espezieen Jatorria* liburua kaleratu zuenean, han azalduko teoriek ez zuten frantses maisua asebeterik utzi, eta hainbat eskutitz bidali

zizkion ingeles ikertzaileari eboluzioari buruzko bere oztopo biologikoak planteatzeko.

Darwinek gutun guztiak jaso eta, aldi berean, eskertu ere egin zizkion; bihotz-bihotzez gainera. Kritika horiek kontuan izanda, bere liburuaren hurrengo edizio eta eranskinetan eboluzioak bere bidean darabiltzan baliabideak, egiten dituen sigi-sagako urratsak eta itxurazko kontraesanak azaltzen saiatu zen, bere hasierako teoria hobeki argitu, osatu eta biribildu arte.

Eta, gurean ere, aldatu beharrekoak aldatuz, frantses entomologoaren kritika gogor baina zintzo haiek biologo ingelesari gauzak hobeki pentsarazi zizkieten bezala, era berean, Josu Arenazak euskara batuari eginiko kritikek ere behartu egin gintuzten batasunaren aldeko gauzak sakonago aztertzerara, geure argudioen alde ilunak eta adibide desegokiak hobeki azaltzera, izandako okerrak zuzentzera eta literaturarako euskara batuaren onurak argiago erakustera ere, hura guztia zer zen, zergatik gertatzen zen eta zertarako zetorren jendeak hobeki uler zezan.

Ez nuke aipatzeke utzi nahi, azkenik, Josu Arenazak, batasunerako bidean, antzinako autore eta liburu klasikoez gainera, herri-euskara ere maiz azpimarratzen zuela. Beraren ustez, euskal literatura zahar eta klasikoa bai, ondo zegoen, baina berak zioenez, horrek ez zigun ahantzarazi behar jende jatorraren egungo euskara mintzatua ere, neurri handiz etorkizuneko mintzairaren oinarria, bere esapide, piper eta gatz berezi-bereziekin. Gomendio hori ere, zorionez, ondo kontuan izan du Euskaltzaindiak.

Neurri batean, euskararen batasunerako errezelo horrek idatzarazi zion L. Villasanteri bere *Hacia la lengua literaria común* (1970), dibulgazio liburu argigarria. Obra horretan munduko beste hizkuntza batzuen batasun-prozesuak azaltzen zituen frantziskotarrak, euskara estandarreraino iristeko bidearen historia kontatzen eta prentsan agerturiko zalantzak argitzen saiatzen zen. Eta hori ere, nolabait, Josu bezalako kritikariei zor zaiela aitortu behar. Horregatik, euskararen batasuna zela eta, elkarrekin eztabaidak eta inoiz borroka latzak ere izan genituela egia bada ere, horrek ez du esan nahi, aldi berean, gutariko bakoitzak bestearen argudioak entzun eta haren arrazoiak ere kontuan hartzen ez zituenik. Alde horretatik, gure hizkuntzaren batasuna aldeko eta aurkakoen elkarlanaren fruitu eta ondorioa izan da.

Azken hitzak

Tamalez, orain ezin gogora dezaket Josu noiz ikusi nuen azken aldiz. Jakin, badakit ekitaldi publikoren batean izan zela, agian ospakizunen batean edota, beharbada, bilera politiko edo kulturalen baten aurkezpenean. Nolanahi ere den, ongi oroitzen naiz, batak bestea modu onean eta gizabidez agurtu genuela orduan, aurretik urte askotan elkar ikusi gabe egonda gero. Lehenagoko haserrealdi eta tira-bira zaharrak, ordurako, jada gaingituak ziren, eta ahaztuak ere bai.

Bere azken urteetan *Euskaldunon Egunkariaren* sustatzaile ibili zen, besteak beste. Izan ere, beti zegoen prest euskararen aldeko edozein ekimen edo erakunderi laguntza emateko, *AEK*, *Korrika* edo *Kontseiluari* adibidez.

Aspaldiko urteotan gaixorik egon ondoren, iaz, 2012ko irailaren 29an, zendu zen, laurogeita bi urte zituela. Bere senide, adiskide, lagun eta gogai-de ugariak azken agurra egin zioten, Bizkaiko zaindariaren Begoñako basilikan bere arimaren alde eskaini zitzaion mezan. Horien artean, nik ere neure errespetua adierazi gura izan nion mirespen osoaz, bere bizitzaren eguneroko jardunean bere idealak duintasunez erakusten eta praktikatzen kontsekuenteki ahalegindu zen gizon langile, euskaltzale zintzo eta egiazko abertzale horri.

Nabarniz herritxoaren gainean, iparraldean, Iluntzar mendia altxatzen da, Urdaibaiko haranari eta Gernikari begira. Haren tontorrean Josu Arenazaren senideek pago bat landatu, eta horren inguruan zabaldu zituzten beren aitaren errautsak. Panteoi ezin ederragoan datza orain Josu, haurtzaroko eta bihotzeko herriari begira, arbasoen amalurraren altzoan, zerua eta lurra, goiko hodeien eta beheko lainoen urdintasunek elkar besarkatzen duten tokian. Pozarren eta bakean, zalantzarik gabe.

* * *

Para terminar esta breve exposición de la vida y obra del médico y académico vizcaíno Josu Arenaza Lekerikabeaskoa, quiero subrayar el testimonio desinteresado, práctico y vital en pro del euskera que nos ofreció generosamente a lo largo de toda su vida, en un tiempo desgraciadamente no

demasiado pródigo en entusiastas de nuestra lengua, y expresarle mi respeto y admiración.

La dedicación y el amor demostrados hacia nuestro idioma le valió ser nombrado en 1957 miembro correspondiente de Euskaltzaindia, la Academia de la Lengua Vasca. Dicho honor, lo compartió aquel año con personalidades tan excepcionales como el novelista Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi», el poeta Gabriel Aresti, el filólogo Alfonso Irigoien, el escritor Santiago Onaindia, el fraseólogo Justo Mari Mokoroa, y el gran escritor y recopilador de la obra de nuestros bertsolaris, Antonio Zavala, entre otros.

Su pasión vasquista también le llevó a visitar la cárcel, y no precisamente por razones de inspección médico-sanitaria, en compañía, –significativa casualidad– de J. L. Alvarez Enparantza, homenajeado igualmente en este día. Supo defender con su ejemplo unos valores vascos fundamentales, así como transmitírselos a sus hijos, cuando, con demasiada frecuencia, los dichos y la teoría de algunos de nuestros más notables hombres públicos no siempre coincidían con la práctica de sus hechos. También se destacó por su impulso entusiasta a las ikastolas, por su decidida colaboración y ayuda a las revistas y publicaciones vascas, como *Zeruko Argia*, *Goiz Argi*, *Anaitasuna*, *Agur*, *Zer...* así como a *Euskaldunon Egunkaria*. Su interés y preocupación por el futuro de la lengua hizo que buena parte de sus críticas sobre el idioma vasco unificado fueran tenidas en cuenta, para enriquecerlo con otras aportaciones dialectales, entre las que no faltaban las de su Bizkaia natal. Su vida puede considerarse realmente ejemplar y un modelo para las futuras generaciones de nuestro país.

Sus cenizas fueron esparcidas por su familia en la cima del monte Iluntzar de Nabarniz, junto a un haya plantada allí por sus hijos en su memoria. Digno panteón, de serena belleza, sosiego y paz, para un hombre que vivió siempre bien arraigado en su tierra madre.

Euskera agerkariaren idazketa arauak

Normas de redacción de la revista *Euskera*

Normes de rédaction de la revue *Euskera*

Writing guidelines for the journal *Euskera*

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskera agerkariaren idazketa arauak

1. Euskera agerkariaren esparruak

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da. Bi motatako zenbakiak argitaratzen ditu: lehenik eta behin, instituzioaren kide berrien sarrera-hitzaldiak, erakundearen lanak, agiriak, hizkuntza-arauak, *Iker* edo *Jagon* Sailko Jardunaldiak eta antzekoak jasotzen dituztenak, eta, bigarrenik, Euskaltzaindiaren intereseko jakintza esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak. Ondoren zehazten diren irizpideak soilik bigarren motako zenbakietako ikerketa-artikulu originalei eta liburu-aipamenei dagozkie, eta bete beharrekoak dira aintzat har daitezzen argitaratze-bidean. Gainerakoetan, bete beharrekoak dira Euskaltzaindiak ezarritako baldintzak; ikus “Euskaltzaindiaren argitalpen eremua”, *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Hauxek dira *Euskera* Agerkarian jorra daitezkeen zenbait gai:

- Euskal filologia
- Hizkuntzalaritza orokorra
- Gramatika
- Dialektologia
- Lexikografia / lexikologia
- Literatura
- Toponimia / Onomastika
- Fonetika eta Fonologia
- Semantika eta pragmatika
- Hizkuntzaren historia
- Hizkuntzaren normatibizazioa
- Hizkuntzaren normalizazioa
- Soziolinguistika
- Teknologia berriak eta hizkuntza

- Iurilinguistika eta hizkuntza-zuzenbidea
- Itzulpengintza
- Zientzia-arlo desberdinetako euskara teknikoak.

Orobat, aintzat hartuko dira beste hainbat esparrutako diziplinak, euskarekin zerikusirik duten neurrian.

Ikerketa-artikulu originalen eta testuen proposamenak Argitalpen arduradunari zuzenduko zaizkio, ondoko helbidera:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.
Argitalpen arduraduna
Plaza Barria, 15
48005 BILBO

2. Hizkuntzak

Ikerketa-artikulu originalak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen den edozein hizkuntzatan idatziak izan daitezke, baina euskaraz idatzitakoak hobetsiko dira.

3. Luzera

Bi motatako testuak argitaratuko dira: artikulu akademikoak eta liburu-aipamenak (erreseinak). Lehenak ez dute luzera jakinik, baina oro har ez dute izango 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago (15-30 orrialde). Liburu-aipamenak bi motatakoak izango dira: 3 orrialdekoak (6.000 karaktere) edo 5 orrialdekoak (10.000 karaktere), salbuespenak baztertzeko.

4. Laburpenak

Ikerketa-artikuluarekin batera haren laburpena (gehienez ere 500 karaktere) eta artikuluaren hitz-gakoak (gehienez ere, sei) entregatuko dira, artikulua idatzia den hizkuntzan.

5. Onarpena

Ikerketa-artikuluak eta testuak onartzea *Euskera* Agerkariko Idazketa Kontseiluari dagokio. Honek artikulu bakoitzerako bi kanpo-ebaluatzaile izendatuko ditu eta haien iritzia entzun ondoren hartuko du azken erabakia. Artikulua onartzerakoan egileari oztopo, akats edo aldabeharren zerrenda emango zaio, hala balegokio. Egileak bere adostasuna jasotzen duen agiria sinatuko du. Hortik aurrera ez da muntazko aldaketa edo zuzenketarik onartuko ez egilearen aldetik ez argitaratzailearen aldetik.

6. Epeak

Ikerketa-artikuluak eta testuak urtean zehar aurkeztuko dira, urtea bukatu arte eta hurrengo urteko lehen seihilekoan argitaratzekotan. Argitaratze-prozesuan ezarritako epeak ez betetzeak artikuluaren argitalpena bertan behera uztea ekar liezaioke autoreari, argitaratzailearen erabakiz.

7. Artikuluaren euskarriak

Artikuluak ordenagailu formatuan aurkeztuko dira, bertsio inprimatu bat erantsiz. Euskal Herrian arruntak diren testu-prozesadoreak erabiliko dira.

8. Erreferentziak eta oharrak

Ohar gehiegikeriak mugatzeko ahaleginak hobetsiko dira. Erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikuluaren bukaran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, honela: (Larramendi, 1729) edo Mitxelena (1961, 123). Edozein arrazoiengatik mota horretakoak erabiltzea baztertzen denean ere, eman bitez erreferentzia zehatzak, *op. cit.* edo *ibidem* bezalakoak saihestuz eta erreferentzia osoak bibliografian eskainirik.

9. Bibliografia

Bibliografia artikuluauren bukaeran emango da, oinarritzko eredu honi segituz:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiologia vasca : Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

Egileak artikuluauren bibliografia oinarritzko eredu horren arabera antolatuko du. Kasuan-kasuan izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

10. Ordainketak

Egileak modu eskusiboan lagatzen dizkiote Euskaltzaindiari argitaratutako artikuluen gaineko erreproduzio-eskubideak. Halaber, ikerketa-artikulu eta testu guztiak ordainduko dira Euskaltzaindiaren Argitalpen batzordeak kasuan-kasuan erabakitzen dituen tarifen arabera.

Normas de redacción de la revista *Euskera*

1. Ámbitos de la revista

Euskera es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia. Publica dos tipos de números: en primer lugar, aquellos que recogen discursos de ingreso de los nuevos miembros de la institución, trabajos de la Academia, actas, normas lingüísticas, coloquios organizados por las secciones de Investigación (*Iker*) y Tutelar (*Jagon*) o análogos y, en segundo lugar, los que publican artículos de investigación originales en los ámbitos de interés de la Academia, reseñas de libros y similares. Los criterios que se especifican a continuación sólo corresponden al segundo tipo, es decir, a artículos originales de investigación y reseñas de libros, y son de obligado cumplimiento para poder ser aceptados en el proceso de publicación. Para el resto de textos deberán cumplirse las condiciones establecidas por Euskaltzaindia en “Euskaltzaindiaren argitalpen eremua”, *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Los ámbitos de interés de la revista *Euskera* son los siguientes:

- Filología vasca
- Lingüística general
- Gramática
- Dialectología
- Lexicografía / Lexicología
- Literatura
- Toponimia / Onomástica
- Fonética y Fonología
- Semántica y Pragmática
- Historia de la lengua
- Normativización lingüística
- Normalización lingüística
- Sociolingüística
- Lengua y nuevas tecnologías

- Iurilingüística y Derecho de lenguas
- Traducción
- Euskera científico en los diversos campos del saber.

Asimismo, se tomarán en consideración otras disciplinas en la medida en que tengan relación con la lengua vasca.

Las propuestas de publicación de artículos de investigación originales deberán remitirse al responsable de Publicaciones a esta dirección:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.
Responsable de Publicaciones
Plaza Barria, 15
48005 BILBO

2. Lenguas

Los artículos de investigaciones originales podrán ser redactados en cualquiera de las lenguas que habitualmente se emplean en los ámbitos académicos de Euskal Herria, aunque se dará preferencia a los redactados en euskera.

3. Extensión

Se publicarán dos tipos de textos: artículos académicos y reseñas de libros. Los primeros no tienen una extensión previamente establecida, pero en general no tendrán un número de caracteres inferior a 30.000 o superior a 60.000 (15-30 páginas). Las reseñas de libros serán de dos tipos: de tres páginas (6.000 caracteres) o cinco páginas (10.000 caracteres), aunque se admitirán excepciones.

4. Resúmenes

Los artículos de investigación deberán estar acompañados por un resumen (máximo de 500 caracteres) y sus correspondientes palabras clave (máximo de seis), ambos en la lengua original del artículo.

5. Admisión

La admisión de artículos originales y textos es competencia del Consejo de Redacción de la revista *Euskera*, el cual designará dos evaluadores externos para cada artículo y, tras tomar en consideración su dictamen, tomará la decisión definitiva, en su caso. Al comunicar la aceptación del artículo se facilitará al autor una lista de errores o cuestiones sujetas a corrección. El autor firmará un documento manifestando su acuerdo. A partir de ese momento no se aceptará ninguna modificación o corrección sustancial ni por parte del autor ni del editor.

6. Plazos

Los artículos de investigación y textos se podrán presentar hasta final de año, en el caso de que vayan a ser publicados en el primer semestre. El incumplimiento de los plazos establecidos en el proceso de publicación puede acarrear la anulación de la publicación del artículo por decisión del editor.

7. Soportes del artículo

Los artículos se presentarán en formato de ordenador junto con una versión impresa. Se utilizará un procesador de textos de uso habitual en Euskal Herria.

8. Referencias y notas

Se favorecerán los intentos de limitar el uso exagerado de notas. A ser posible todas las referencias se integrarán en el texto, conectándolas con la bibliografía que se coloca habitualmente al final del artículo, de este modo: (Larramendi, 1729) o Mitxelena (1961, 123). Cuando por cualquier razón se decida prescindir de ese tipo de referencias, éstas deberán facilitarse de forma exacta, rehuendo los *op. cit.*, *ibidem* o similares y ofreciendo las referencias completas en la bibliografía.

9. Bibliografía

La bibliografía se colocará al final del artículo, siguiendo este modelo básico:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiologia vasca : Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

El autor organizará la bibliografía de acuerdo con este modelo básico. Las peculiaridades o especificaciones que puedan darse en cada caso deberán ser resueltas de acuerdo con el responsable de Publicaciones.

10. Retribuciones

El autor cede a Euskaltzaindia los derechos de reproducción de su artículo de forma exclusiva. Asimismo, los artículos originales de investigación así como todos los textos serán objeto de retribución de acuerdo con las tarifas que establezca en cada caso la Comisión de Publicaciones de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia.

Normes de rédaction de la revue *Euskera*

1. Domaines de la revue

Euskera est la publication officielle de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia. Deux types de numéros sont publiés: tout d'abord, ceux qui rassemblent les discours d'intronisation des nouveaux membres de l'institution, les travaux de l'Académie, les procès-verbaux, les normes linguistiques, les colloques organisés par les sections de Recherche (*Iker*) et Tutélaire (*Jagon*) ou similaires et, ensuite, ceux dans lesquels sont publiés des articles originaux de recherche qui portent sur l'un des domaines d'intérêt de l'Académie, comptes rendus de livres et autres publications. Les critères qui sont précisés ici correspondent seulement au deuxième type de numéros de la revue, c'est-à-dire aux articles originaux de recherche et comptes rendus de livres, et sont à respecter impérativement pour pouvoir être acceptés dans le processus de publication. Pour les autres textes, il faudra remplir les conditions prévues par Euskaltzaindia dans «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Les domaines d'intérêt de la revue *Euskera* sont les suivants :

- Philologie basque
- Linguistique générale
- Grammaire
- Dialectologie
- Lexicographie / Lexicologie
- Littérature
- Toponymie / Onomastique
- Phonétique et Phonologie
- Sémantique et Pragmatique
- Histoire de la langue
- Normativisation linguistique
- Normalisation linguistique

- Sociolinguistique
- Langue et nouvelles technologies
- Jurilinguistique et Droit des langues
- Traduction
- Le basque scientifique dans les divers domaines du savoir.

D'autres disciplines seront également prises en considération dans la mesure où elles ont trait à la langue basque.

Les propositions de publication d'articles originaux de recherche devront être remises au responsable des Publications à cette adresse :

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.
Responsable des Publications
Plaza Barria, 15
48005 BILBO

2. Langues

Les articles originaux de recherches pourront être rédigés dans l'une des langues qui sont habituellement employées dans les domaines académiques du Pays Basque, même si une préférence sera accordée à ceux rédigés en basque.

3. Longueur

Deux types de textes seront publiés : les articles académiques et les comptes rendus de livres. Les premiers n'ont pas de longueur préalablement établie, mais en général le nombre de caractères ne sera pas inférieur à 30 000 ni supérieur à 60 000 (15-30 pages). Les comptes rendus de livres seront de deux types: de trois pages (6 000 caractères) ou cinq pages (10 000 caractères), même si des exceptions seront autorisées.

4. Résumés

Les articles de recherche devront être accompagnés d'un résumé (500 caractères maximum) et de leurs mots-clés correspondants (six maximum), tous deux dans la langue originale de l'article.

5. Admission

L'admission d'articles originaux et de textes relève de la compétence du Comité de Rédaction de la revue *Euskera*, qui désignera deux évaluateurs externes pour chaque article et, après avoir tenu compte de leur avis, prendra la décision définitive, si cela s'avérait nécessaire, le Comité de Rédaction fournira à l'auteur une liste des erreurs ou points susceptibles d'être sujets à révision lors de la communication de l'acceptation de l'article. L'auteur signera un document exprimant son accord. Dès lors, il ne sera accepté aucune modification ou correction substantielle ni de la part de l'auteur ni de la part de l'éditeur.

6. Délais

Les articles de recherche et textes seront présentés tout au long de l'année, jusqu'au 31 décembre et seront publiés au plus tard au cours du premier semestre de l'année suivante. Le non-respect des délais fixés dans le processus de publication peut entraîner l'annulation de la publication de l'article sur décision de l'éditeur.

7. Supports de l'article

Les articles seront présentés au format informatique avec une version imprimée. L'auteur utilisera un traitement de texte couramment utilisé au Pays Basque.

8. Références et notes

Les tentatives de limiter l'utilisation exagérée de notes seront appréciées. Dans la mesure du possible, toutes les références seront insérées dans le texte, et seront reliées à la bibliographie placée à la fin de l'article, de la manière suivante : (Larramendi, 1729) ou Mitxelena (1961, 123). Si pour une raison ou pour une autre, l'auteur décide de se passer de ce type de références, celles-

ci devront être indiquées de façon exacte, en évitant les *op. cit.*, *ibidem* ou similaires et en offrant les références complètes dans la bibliographie.

9. Bibliographie

La bibliographie se place à la fin de l'article, en suivant ce modèle de base :

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiologia vasca : Oihenart conoció los *Refranes y sentencias en vascuence* de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », dans *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

L'auteur organisera la bibliographie de son article en fonction de ce modèle de base. Les particularités ou précisions susceptibles de se présenter dans chaque cas devront être résolues en accord avec le responsable des Publications.

10. Rémunérations

L'auteur cède de manière exclusive à Euskaltzaindia les droits de reproduction de son article. De même, les articles originaux de recherche ainsi que tous les textes feront l'objet d'une rémunération conformément aux tarifs qu'établira dans chaque cas la Commission des Publications de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia.

Writing guidelines for the journal *Euskera*

1. Overview of the journal

Euskera is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia. It publishes two types of issue: one containing induction speeches of the newest members of the institution, the Academy's work, publications, language rules, symposia organised by the Research (*Iker*) and Tutelary (*Jagon*) sections and so on, and a second containing original research articles on topics of interest to the Academy, book reviews and the like. The criteria specified below only concern original research articles and book reviews appearing in the second type of issue and are mandatory for manuscript acceptance. All other manuscripts must meet the conditions set by Euskaltzaindia in "Euskaltzaindiaren argitalpen eremua", *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

The following topics are covered in *Euskera* journal:

- Basque philology
- General linguistics
- Grammar
- Dialectology
- Lexicography / Lexicology
- Literature
- Toponymy / Onomastics
- Phonetics and Phonology
- Semantics and Pragmatics
- History of language
- Corpus planning
- Status planning
- Sociolinguistics
- Language and New Technologies

- Jurilinguistics and Language Law
- Translation
- Scientific Basque in the various fields of knowledge.

Likewise, other disciplines will be taken into consideration insofar as they relate to the Basque language.

Proposals for publication of original research articles must be submitted to the Publications Manager at the following address:

Euskaltzaindia
Publications Manager
Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Spain

2. Languages

Original research articles may be written in any of the languages that are normally used in academic circles in the Basque Country, although preference will be given to those written in Basque.

3. Length

Two types of texts will be published: academic articles and book reviews. The former do not have a set length, but generally will not have less than 30,000 characters or more than 60,000 (15-30 pages). Book reviews are of two types: three pages long (6,000 characters) or five pages (10,000 characters), although exceptions are allowed.

4. Abstracts

An abstract (maximum of 500 characters) and the corresponding key words (maximum of six), both in the original language of the article, must be submitted together with research articles.

5. Acceptance

Acceptance of original articles and texts is the responsibility of the Editorial Board of the journal. Two external reviewers will be designated for each article and, after taking their opinion into consideration, the Board will make its final decision, if necessary. Upon notification of the acceptance of the article the author will be provided with a list of problems, errors or issues subject to correction. The author will sign a document stating his/her agreement. From that moment on, no substantial modification or correction by either the author or the editor will be accepted.

6. Deadlines

Research articles and texts can be submitted throughout the year for publication by the end of the following half-year. Failure to comply with publishing deadlines may result in cancellation. The editor's decision is final.

7. Article Format

Manuscripts must be submitted in digital format together with a printed version. Any format commonly used in the Basque Country is acceptable.

8. References and Notes

Attempts to limit the excessive use of notes will be looked upon favourably. If possible, all references should be incorporated into the text, connected to the bibliography that is usually placed at the end of the article, as follows: (Larramendi, 1729) or Mitxelena (1961, 123). If for any reason an author decides not to use that reference format, precise mention should be made, avoiding the use of *op. cit.*, *ibidem* or similar and providing full references in the bibliography.

9. Bibliography

The bibliography will be placed at the end of the article, following this basic model:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller and Zavaleta.

Mixelena, K., 1959, «Euskal-itzak zein diren», *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los *Refranes y sentencias en vascuence* de 1596», *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques» in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris, 331-337.

The author will organise the bibliography according to this basic model. Any additional features or specifications must be agreed with the Publications Manager case by case.

10. Remuneration

Authors must vest copyright in their articles exclusively to Euskaltzaindia. Original research articles and other texts will be remunerated in accordance with the rates established in each case by the Publications Committee of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia.

Harpidetzak eta eskariak / Pedidos y suscripciones

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE:

Izen-deiturak / Nombres y apellidos: _____

Erakundea / Institución: _____

Helbidea / Dirección: _____

Posta kodea / C.P.: _____ Udalerria / Población: _____

Lurraldea / Provincia: _____ Estatua / Estado: _____

NAN/IFK · DNI/NIF: _____ Telefonoa: _____

Faxa: _____ E-mail: _____

Eskaera data / Fecha de pedido: _____ - _____ - _____

2013rako harpidetzaren prezioa / Precios de suscripción para el año 2013:

Espainia: 30 €

Atzerria / Extranjero: 32 €

Zenbaki solteak / Números sueltos:

Kopurua Cantidad	Aldizkaria Revista	Urtea / Año	Bolumena Volumen	Zenbakia Número

Zenbaki solteen prezioa 2013rako / Precios de los números para el 2013

Euskera 2012, 57, 1-2, 18 €

Euskera 2012, 57, 3, 18 €

Ordainketa era / Modo de pago

- Transferentziaz / Transferencia
 - Postordainez / Contrareembolso
 - Errezibuz (kontu korrante zenbakia) / Recibo (número de cuenta corriente):
-

Salmenta eta banaketa / Venta y distribución

Euskaltzaindiko Argitalpen Banaketa Zerbitzua

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel. 94 415 8155

Fax: 94415 8144

e-mail: jartza@euskaltzaindia.net

* * *

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituenez gero, eskatzaile horrek esanbidezko baimena ematen du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezen; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskribatuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira.

Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: info@euskaltzaindia.net. Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.

* * *

El solicitante autoriza expresamente a que los datos personales aportados en relación a su pedido, sean incorporados al fichero informático de Euskaltzaindia, destinado exclusivamente a dar un servicio personalizado al usuario. Dicho fichero resulta inscrito en la Agencia de Protección de Datos y es gestionado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa de desarrollo.

El usuario queda informado de sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición respecto de sus datos personales, pudiendo ejercitar estos derechos por escrito mediante correo electrónico a la dirección info@euskaltzaindia.net. En cualquier caso, el usuario garantiza que los datos personales facilitados son veraces.



